

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA
VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIII-1

1999



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DONOSTIA

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
SAN SEBASTIÁN

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA "JULIO DE URQUIJO"
International Journal of Basque Linguistics and Philology
ASJU

Sortzaileak / Fundadores / Founded by
Manuel Agud - Luis Michelena (†)

Zuzendaritza Batzordea / Consejo de Dirección / Board of Directors

Lehendakaria / Presidente / Chairperson
Patri Urkizu (EI, Donostia)

Bokalak / Vocales / Members of the Board
Jon Kortazar (EI, Bilbo)
Joseba Andoni Lakarra (EHU, Gasteiz)
Ibon Sarasola (EHU, Gasteiz)
Xarles Videgain (EI, Baiona)

Zuzendaria / Director
Ibon Sarasola (EHU, Gasteiz)

Argitaratzailea / Editor
Joseba Andoni Lakarra (EHU, Gasteiz)

Idazketa Batzordea / Consejo Editorial / Editorial Board

Gidor Bilbao (EHU, Gasteiz)
Iñaki Camino (EHU, Bilbo)
Ricardo Gómez (EHU, Gasteiz)
Joaquín Gorrochategui (EHU, Gasteiz)
Miren Lourdes Oñederra (EHU, Gasteiz)

Javier Ormazabal (EHU, Donostia)
Jon Ortiz de Urbina (Deustua)
Iñigo Ruiz Arzalluz (EHU, Gasteiz)
Blanca Urgell (EHU, Donostia)
Koldo Zuazo (EHU, Gasteiz)

Aholku Batzordea / Consejo Asesor / Advisory Board

Jacques Allières (Toulouse)
Patxi Altuna (Deustu-Donostia)
Jesús Antonio Cid (Complutense)
M^a Teresa Echenique (Valencia)
EHU-ko E.F.S.-ko Burua (P. Goenaga)
Jean Haritschelhar (Euskaltzainburua)
José Ignacio Hualde (Illinois)
Bernard Hurch (Graz)
Jon Juaristi (EHU, Gasteiz)
Itziar Laka (EHU, Gasteiz)

Jesús María Lasagabaster (Deustu-Donostia)
Francisco Oroz Arizcuren (Tübingen)
Jon Ortiz de Urbina (Deustua)
Beñat Oyharçabal (CRNS-Baiona)
José Antonio Pascual (Salamanca)
Georges Rebuschi (Sorbona III)
Rudolf P.G. de Rijk (Leiden)
José M^a Sánchez Carrión (Gasteiz)
Iñaki Segurolo (Orotariko Euskal Hiztegia)
Juan Uriagereka (Maryland)

Idazkaritza Teknikoa / Secretaría Técnica / Technical Secretariat

Ainhoa Aranzabal (EI, Gasteiz)

José Ángel Ormazabal (EI, Donostia)

Eta Gasteizko Filologia Fakultateari atxikitako EHU-ko Euskal Filologia Saileko irakasleen laguntzarekin.

ASJU 1954ean sortutako euskal linguistika eta filologiako nazioarteko aldizkaria da eta iker-eremu horietarik edo horietarako ere interesgarri izan daitezkeenetarik goi mailako artikulu, ohar eta liburu-iruzkinak argitaratzen ditu. Urtero bi zerbaki ateratzen direlarik, ASJU-k badu, orobat, GEHIGARRI sail bat non artikulu formatoaz gorako lanak argitaratzen diren, epe jakinik gabe.

Orijinalekiko hartuemanetarako ikus bitez zerbaki bukaerako EGILEENTZAKO OHARRAK. Harpidetza eta eskarietarako: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com.

ASJU es una revista internacional de lingüística y filología vasca fundada en 1954. Se publican en ella artículos, notas y reseñas sobre los campos mencionados y otros relacionados con, o de interés para los mismos, en la actualidad de periodicidad semestral. Sin regularidad preestablecida ASJU publica en sus ANEJOS trabajos de formato superior al de un artículo.

Para correspondencia relacionada con los originales véase la INFORMACIÓN PARA LOS AUTORES al final del número. Para suscripciones y pedidos: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com.

ASJU is a International Journal of Basque Linguistics and Philology founded in 1954. It publishes highquality papers, notes, squibs and reviews about the above mentioned and other related topics in two issues per year (up to a total of 700 pages). Longer works are published as SUPPLEMENTS to the regular issues of the ASJU.

For correspondence about papers see the INFORMATION FOR AUTHORS at the end of this issue. For subscriptions and order: Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41 - 01005 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945231552. Fax: 945148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com.

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIII-1

1999



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DONOSTIA

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
SAN SEBASTIÁN

© Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS
Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Diputazioek 1918an sortutako erakundea
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - Tel.:943 - 31 08 55 - Fax 943 - 21 39 56 - 20007 Donostia
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@sk.ehu.es

ISSN.: 0582-6152. Depósito Legal: S.S.-400/1967
Inprimategia: Michelena artes gráficas - Astigarraga (Gipuzkoa)

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIII, 1, 1-308, 1999
ISSN: 0582 - 6152

Sumario

	Página
Summary	4
CAMINO, Iñaki Goñerriko hizkera (I)	5
INCHAUSPE, Veronique À propos de la construction historique de la pastorale souletine	79
SALABERRI MUÑO, Patxi Axularren eta haren obraren harreraz (Iritziak, ikerketak eta beste)	125
TORREGARAI, Elena; VILLOSLADA, Iñaki J.A. Mogelen “Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos”: antzinatearen erabilpena euskararen apologiaren auzian	137
URGELL, Blanca <i>Hiztegi Hirukoitza</i> eta <i>Diccionario de Autoridades</i> erkatuaz (III): Gaztelania	157
URKIZU, Patri Monjongo DASSANÇAREN <i>Laborarien abissua</i> (1692) eta honen bi aldaera ezezagun: Jean Pierre CHABALGOITYK idatzia (XVIII. m.) eta Bertrand GOYENETCHEREN <i>Marechalaren liburia</i> (1831). Aurkezpena, edizioa, oharrak eta hiztegia	239
Analytic Summary	305

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA “JULIO DE URQUIJO”

International Journal of Basque Linguistics and Philology

XXXIII, 1, 1-308, 1999
ISSN: 0582 - 6152

Summary

	<u>Page</u>
CAMINO, Iñaki Goñi Basque (I) (Orig. eu)	5
INCHAUSPE, Veronique On the historical construction of the pastoral of Zuberoa (Orig. fr)	79
SALABERRI MUÑOIA, Patxi On the reception of Axular and his work (Opinions, research...) (Orig. eu)	125
TORREGARAI, Elena; VILLOSLADA, Iñaki “Basque versions of several selected harangues and speeches by the best Latin authors” by J. A. Mogel: the use of antiquity in the cause of apology of the Basque language (Orig. eu)	137
URGELL, Blanca Comparing the <i>Trilingual Dictionary</i> and the <i>Dictionary of Authorities</i> (III): Spanish (Orig. eu)	157
URKIZU, Patri <i>Laborarien abissua</i> (1692) by Monjongo DASSANÇA, and its two unknown variants: the one written by Jean Pierre CHABALGOITY (18 th century) and the <i>Marechalaren liburia</i> by Bertrand GOYENETCHE (1831). Presentation, edition, notes and vocabulary (Orig. eu)	239
<hr/> Analytic Summary	<hr/> 305

Goñerriko hizkera (I)

(Goñi Basque (I))

Camino, Iñaki

Euskal Herriko Unib.

Filologia, Geografia eta Historia Fak.

Euskal Filologia Saila

Unibertsitatearen etorbidea, 5

01006 Vitoria-Gasteiz

Iruñe ondoko Goñerriko hizkera itzaliaren azterketa dakargu. Ikuspegi geolinguistikotik begiratuz aski erdigunekoa da Goñerriko euskara baina Nafarroatik so eginek franko mendebaldekoa. Baditugu XVIII. eta XIX. mendeko Goñerriko euskal idazkiak baina soilik erlatiboki dira diatopikoak. Alderaketarako Iruñe inguruko hizkerak eta Andimendiaz bestaldeko Sakanakoak erabili ditugu. Bi ardatzen arabera gabiltza: nola erlazionatzen eta egituratzen den hizkera hau ingurukoekin koherentzia geolinguistikoaren arabera batetik, eta bestetik zein ezaugarri berezi dituen. Lan honek O. Ibarren (1995), K. Zuazoren (1994) eta P. Salaberriren (1998) beste azterketa batzuen osagarri izan nahiko luke eta baiten ildo berean ulertu behar da.

Giltz-Hitzak: Hego nafarrera. Erdialdeko hizkerak. Ekialdeko hizkerak. Geolinguistika. Testu erlatiboki diatopikoak.

Ofrecemos una visión general y una descripción del habla vasca extinta del Valle de Goñi, cercano a Pamplona. Dentro del panorama de la lengua vasca es esta un habla central geolingüísticamente hablando, pero bastante occidental si la miramos desde Navarra. Poseemos textos de Goñi de los siglos XVIII y XIX, pero son relativamente diatópicos. Hemos comparado esta habla con las cercanas a Pamplona y con las del otro lado de la cordillera de Andia en la Barranca. Se pretende descifrar cómo se relaciona y se estructura esta habla con las de su entorno dentro de una coherencia geolingüística y cuáles son sus rasgos característicos. Entroncamos este trabajo junto a otros de O. Ibarra (1995), K. Zuazo (1994) y de P. Salaberri (1998).

Palabras Clave: Navarro meridional. Hablas centrales. Hablas orientales. Geolingüística. Textos relativamente diatópicos.

Nous offrons une vision générale et une description du parler basque aujourd'hui disparu de la Vallé de Goñi, près de Pampelune. Géolinguistiquement parlant, il s'agit d'un parler central dans le panorama de la langue basque, mais occidental si nous le considérons depuis la Navarre. Nous possédons des textes de Goñi des XVIIIe et XIXe siècles, mais ils sont relativement "diatopiques". Nous avons comparé ce parler avec ceux des alentours de Pampelune et avec ceux qui se parlent de l'autre côté de la cordillère d'Andia dans la Barranca. On essaie de découvrir comment est relié et structuré ce parler avec ceux des environs dans une cohérence géo-linguistique et quels sont ses traits caractéristiques. On relie ce travail à d'autres de O. Ibarra (1995), K. Zuazo (1994) et de P. Salaberri (1998).

Mots Clés: Navarrais méridional. Parlers du centre. Parlers orientaux. Géolinguistique. Textes relativement "diatopiques".

0. Atarikoa*

Andia mendiaz eskuinaldeko gain horien mazeletan bizi ziren goñerritarren eta olloibartarren —nahiago bada ollarandarren— mintzoa baxatarrenarekin —hots, mendiaz haraindiko sakanarrenarekin— nola erlazionatzen eta egituratzen den jakin nahiak bultzatu ditu hona ekarri diren alderaketa, datu aurkezpena eta gogoeta. Ikusi batera, zinez beharko luke izan desberdina mintzoa baldin orografiaren jauzia kontuan hartzen badugu: bi mundu direla dirudi. Gainaldeko ibarrak Iruñerriaren eta Estellerriaren artean daude, baina ezin atzendu daiteke salerosgoaren aldetik Altsasuk, Arakilgo Uhartek eta Irurtzunek izan duten erakarpena eta garrantzia (Casas & Abascal 1948: 30-31, 174 eta 183). Irudi luke Burunda, Aranatz, Ergoiena eta Arakil beste dinamika soziogeografiko bati loturik daudela: Altsasu, Gipuzkoako Goierri, Larraun, Irurtzun... Ez da zalantzarik, ordea, aldizkako lanetarako edo azienden bazkalekuak direla eta, Sakanako biztanleak gainaldeetako ibarretako jende horiekin ere bildu izan direla; izan ere, Goñerria eta Ergoiena, edo Olloibar eta Arakil, bereizten dituen mendiak alkartzten ditu.

Goñerriko mintzoa aztertzeak badu interesa, eta ez guti; azken batean, Euskal Herriko erdigune-erdigunean kokatzen da ibar hau, nahiz erdigunean izate hori geografikoki baino gehiago soziogeografikoki aztertu behar den. Goñerria hainbat hizkuntza joeraren mugari hurbil ageri zaigu. Aldakan duen Ergoieneko Lizarragaraino iristen dira *-a + a > -ea* bilakabide mendebaldekoaren honddar-honddarreko zantzua —*dovriñea*— eta *bali*az 'balira' adizkia (NEM I, 39); adibide adierazgarriak dira. Goñerria orografikoki —eta agian soziogeografikoki— babestuago dago mendebaldeko hizkuntza ezaugarrien eraginetik Ergoiena baino eta baita Euskal Herriko erdialdekoenetik ere. Baina Goñerria ez dago Iruñetik urrun, ezta ekialdeko hainbat hizkuntza ezaugarri ageri den Eguesibartik ere. XVIII. eta XIX. mendeetako idazkietan nabarmen dago apezek sumatzen zutela predikuak, balioko bazuten, bidegurutze lektalean egon zitezkeen herrietako entzuleen fedea sendotzeko idatzi beharra zegoela, alde bateko nahiz bestekoendako balio behar zutela. Goñi herrian agertu Ebanjelioak *ondo edo ongui* dakar. Goñerrikotzat jotzen diren testuetan *iru / irur* edo *lau etan oguei / irur oguei* bezalako pareak dakuskigu. Sortzez goñerritarra zen J. M. de Ibero idazleak *eguzqui / iguzqui* dakartza.

Berehala sumatuko denez, gutxienez zazpi ezaugarri baldintzatzen eta zailtzen dute hizkuntza azterketa honen jarduna:

a) Ohi denez, itzalitako hizkera bat aztertzeak arazo ugari dakar; ez dago alderaketan erabiltzeko baitezpadako diren hainbat hizkuntza ezaugarri eskuratzeko biderik.

b) Goñerriko hizkera aztertzeko eta alderatzeko baitezpadako diren Goñerri inguruko eremuetako hizkera itzaliei buruz nahi eta behar baino datu gutiago dugu, Goñerrikorako baino gutiago. Gares dugu adibiderik nabarmenena; datu guti izateaz landa, erdararen harrak erdi janik ageri dira hango emaitzak.

* Lan hau ez da Koldo Mitxelena Katedraren Lehen Biltzarrean 1997ko abenduaren 11n Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean irakurri zen "Goñerriko hizkera" komunikazioaren aldaki zabalxeago bat baizik. Bestalde, egin dizkiguten ohar ezinago interesgarriengatik zorretan gelditu gara Joxemiel Bidador, Kike Diez de Ultzurrun, Orreaga Ibarra, Frantzisko Ondarra, Patxi Salaberri Zaratieggi eta Koldo Zuazorekin. Mapak Xamarrek eginak dira. Lan hau EHU 033.130-HAO 85/99 ikerketa proiektuari dagokio.

c) Nahi baino testu gutiago dugu, baina Euskal Herriko beste alderdi batzuekin alderatuz gero ez dira horren guti.

d) Gure kasuan, datuen goera kaotikoa eta testuetako arazoak neurrigabeak izanik, guztiz ezinezkoa da hizkuntza corpusean homogeneitate diakroniko eta diatopikoa errespetatzea eta ondorioz, heterogeneotasun hori ahalik argien definitzen ahaleginduko gara. Hizkuntza ezaugarri baten geografia hedadura garai batean eta bestean berdina den edota aldaketarik izan den adierazteko eginahala egitea baitezpadakoa zaigu (cf. Peters 1988: 399).

e) Goñerrikitzat jotzen diren testu anitz erlatiboki diatopikoak dira: gaur egungo dialekto bat geografiako kokapen ezaguna duten —elkar hizketa bidezko— testuetako datuetan oinarrituz identifika dezakegu; ordea, Goñerriko idazki zaharrak “erlatiboki diatopikoa” den dialekto edo hizkera bateko ordezkarriz hartu behar ditugu; ia inoiz ez dakigu xuxen nongoa den idazlea, ez non idatzi zuen ezta noiz ere, soilik Goñerrian agertu testuak direla, ziur aski bertan predikatuak. Ez dakigu testuko ezaugarri guztiak hizkera bakar bati ote dagozkion, dimorfismoak eragin literarioari ala beste hizkeren nahasketari dagozkion... (cf. Colman 1988: 113).

f) Alderaketari ekiteko behar diren hizkuntza ezaugarriak hautatzeak aski buruhauste sortzen du hala teoriaren nola datuen aldetik; erkatzeko moduko datuak behar ditugu eremu baterako nahiz besterako. Eta garrantzizkoagoa dena, beti ez dago garbi zein hizkuntza ezaugarri hobetsi eta zein bigarren mailan utzi hizkeren arteko banaketak eta sailkaketak ezartzerakoan, bestela esan, erabakiak hartzeko unean. Garbi aitor dezakegu, halaz ere, lanaren bukaera aldean banaketak finkatzeko unean, fonologiaren alorra, aditzaren morfologia, atzizki bakan batzuk, deklinabideko aldaera batzuk eta atal lexikoa gertatu direla gure eremua banatzeko lanabes emankorrenak; ohi denez, sintaxia ez da horren emankor gertatu.

g) Baina garbi dago ere, guretako bai bederen, fikzio sinkronista oro gaintutuz, hizkeren sailkapenari buruz erabakiak hartzean diakronia guztiz aintzat hartu beharreko alorra dela; hizkerak egun ageri duten itxura eta hizkuntza ezaugarriek egun duten geografia hedadura bezain garrantzizkoa edo garrantzizkoagoa da lehenago zeukatena ahalik ongien ezagutzea (Janda 1982: 150 eta 155).

Aurkezten dugun lan honek azken urteotako beste batzuen osagarri izan nahiko lukeela aitortu behar dugu, nahiz ez dakigun geurea beste horiek duten mailara iritsiko ote den. Gure honek bezala Nafarroa Garaiko eremua jorratu duten lan horiek honakoak dira: Ibarra 1995, Salaberri 1998 eta Zuazo 1994. Berebat, Yrizarrek (1992: 494) eta Pagolak (1992: 42 eta 58) geure eremuko hizkeraz jaulkitakoak uste edo iritzi makurrak direla aipatzea dagokigu, egiantzekotasun geolinguistiko urrikoak izateaz landa, ez baitute inolako frogarik aurkezten ikuspegi berri eta intuitibo horien alde; azalduko ditugun datuek hain zuzen ere aurkako ondorioetara garamatzatela ikusiko da lantxo honetan eta bide bera erakusten du arestian aipatu Salaberriren lanak ere.

Dialektoen sailkapenaren erlatibotasuna da lan honek agerian uzten duen beste errealitate bat. Lehen ere jakina denez, hizkera bat dialekto bat baino gehiagoko partaide izatea ez da guztiz harritzeko moduko gauza. Hizkera edo dialekto baten geografia hedadura ezaugarri edo ezaugarri multzo konpartitu baten presentziatik

eratortzen bada, horretatik, hizkera bat edo dialekto bataldi berean hizkuntza eremu bat baino gehiagoko partaide izan daitekeela jarraitzen da (Winter 1973: 140); ikus Derynck ere (Melis, Verlinde & Derynck 1989: 116). Bonapartek ekialdeko Arakilgo herri bat, Murgindueta, Arakilgo Uharteko aldakira bildu zuen, Sakanako euskarari begira dagoenera hain xuxen: Lakuntza, Arruazu, Arbizu edota Larraungo hegoekialdeko Oderitz, Mugiro eta Baraibarko euskararekin batera gelditu zen Murginduetakoa Bonaparteren lanean. Egun zail da Murginduetako euskararen izaeraz jabetzea, ez baita ez testurik ez hiztunik, baina Echaideren 1965-7 bitarteko inkesta lexikoetako lanabesak xeheki aztertzen badira, aise ikusten da lexikoaren alderditik bederen, Murgindueta anitzez lotuago dagoela mendiaz bestaldeko Goñerriko hizkerara, bestela esan, Iruñerriko hizkerara, bere ezkerreko Sakanakora baino. Ez dugu behar bezalako berririk Murginduetako euskararen fonologian eta morfologian zer nolako ezaugarriak zeuden jakiteko, eta oro har, Arakilgo euskarari buruz ditugun datuak urriak direla aitortu beharra dago; gure lanaren helbururako interesgarriena den ekialdeko Arakilgo euskarari buruzko berriak bereziki landerrak eta andurrak dira zorigaitzez. Lan honek ageri duen ahultasunetarik bat horixe bera da, Arakilgo ibarreko euskara ezagutzeko baliapideetan dugun txirotasuna.

1. Sarrera

Mende honetan Ergoienetik Goñerrira bidean erauntsiak eta lainoak iluntzean harrapaturik blai-blai zegoen emazteki bati «seca, seca las *errápias*» ziotson erdara baldaranean bere txabolaraz sutondora eramane zuen artzain ergoien artean; hitz egokia ez etorki gogora! Urte hamarkada pare bat edo baziren euskaraz mintzatzeko gai ziren azken goñerritarrek mundu hau utziak zirela. Artean, Goñerriko etxeetara zerbitzura joan ohi ziren neska ergoien artean beren artean euskaraz mintzatzeko jarraitzen zuten, are gain haietako egonaldietan. Baina hiruretan hogeitau urte badu segurik Ergoienetik Goñerrira neskek zerbitzura eta gizonak eultzira joaten ez direla. Harako «trilladora» tresnak ere iritsi ziren —Urdaianera, esaterako, 1933an (Satrustegi 1967: 101)—, eta bestalde, uzta biltzeko etxean erriberanesak ere hartzen ziren, Murtxantetik edo Mendigorritik, esan digutenez; hauen iaiotasuna eta lanerako grina gozesten dituzte Olloibarko adinekoek; erriberanes hauek urte guztirako etxera mutil etortzea ere ezagutu dute Olloibarren. Ergoien artean, berriz, beren uzta bildu ondoren iganen ziren Goñerrira, gain haietan beranduago zoritzen baita garia. Arakilgo Urritzolakoak ere berena zoritzean iganen ziren Olloibarrera eta olloibartarrak berena zoritzean Goñerrira.

Industriak lantegiak ekarri zituen Sakanara. Altsasuko galdategia iritsi zen lehenik eta Irurtzungo lantegiak ondoren; hauetara laketu zuten sakanarrek. Andiko gain haietako mazeletako herrietako alorretan «agostero» ibiltzea ez zen lanbide gozosa gero, abuztuan goizeko hiruretarik gaueko hamaikak artean lan egin behar zen nagusiarendako hiruzpalau pezetaren truke, nagusiak garia zazpi pezeta kiloak salduko zuela jakinik, gainera; inoiz, bestalde, nagusiarenean goseak egon beharra zegoen eta etxe batzuetan tratua gogorra zen. Goñerritarrek saminko diote peko alderdikoak aberastu zirela eta berek berdin txiro jarraitzen dutela, nahiz, Dorraoko gizon baten gaur egungo ustean, Goñi herria da Nafarroa Garai guztian aberatsena; etxe gotorrak dira goitiko ibarrekoak, berrogei behi dutenak, ukulu handikoak, zutoin anitzekin.

Lehen arrunta zen goitiko eta beheitiko ibarron arteko hartu-eman galdurik dago. Lehengo denboretan aldi-lanaren bila Iruñera mendian barrena oinez joaten ziren urdiaindarrek Andia eta Goñerrian gaindi egiten zuten beren bidea (Satrustegi 1967: 108). Egungo egunean etena areagotuz doa eta beribilez egiteko modukoa zen kamio bakarra goñerritarrek eta olloibartarrek hertsu dute, baizik eta Lezaungo, Unanuko edo Dorraoko aziendak ohitura handia duela Senosiaingo putzu gazi batera jotzeko.

Ezkondu ere, ematen du aspaldiko garaietan aiseago ezkontzen zirela ergoiendarrak goñerritarrekin eta Andiko gainen mazelatako herri haietara jotzeko ohitura lehenago hedatuago zegoela. Egun, Unanun Goñira ezkondu den lagun bakar bat dute gogoan eta handik herrira ezkondu ere bakarria ezagutu dute, dagoeneko hilik dena. Batez ere adinekoak dira mendiaz bi alderdietako hartu-eman orain artekoak gogoan dituztenak. Olloibarko Iltzarbeko lekuko batek Javier Irigarayri ziotsoenez, «*lathyrus aphaca*» landareari “en Zuazu —Valle de Arakil— le lllaman *txintxérria*—” (Irigaray 1982: 283); galduxe diruditen ibarren arteko loturak herziagoak ziren garai bateko lekukotasuna dirudi arestiko honek. Bakan dira orain Ergoienetik artaldea udan Andira eramaten duten artzainak; esaterako, Dorraon ez da inor eta Unanun lau bat etxe baino ez; ardiak Urbasara eramatea ere arrunta izan da. Egun Irurtzun da ergoiendar, goñerritar eta olloibartarrendako elkargunea eta esan digutenez, baita Iruñea ere. Lizarrako feriara Lizarragakoek jotzen zuten sanandresean, unanuarrek ez horrenbeste.

Goñira joaten zirenak Dorrao, Unanu eta Lizarragako jendeak zirela zioskun Domingorenako Carlos Arzoz Lopez de Zubiria nagusi goñitarrak 1997ko azaroan. Ez zituen aipatu Arakil-Uharte, Satrustegi, Ihabar e.a. Unanuko Cristobal Mozo Marin (1926) eta Jazinto Lizarraga Garziandia (1923) jaunek ere halaxe esan ziguten, Urritzola, Irañeta, Uharte edo Arruazutik ez zirela Goñerrira joaten.

Ergoiendarrak eultzi garaian «agostero» joaten ziren Goñerrira “limosnaya beze-la lan billa”, edota bestela etxeetara, zerbitzura, neskato, mantenuaren eta sos batzuen truke; Olloibarrera guti joaten omen ziren. Goñerrira lagun taldeak joaten zirela zioskun Goñiko Domingorenako nagusiak. Dorraokoak eta Unanukoak denak joaten omen ziren: berek diotenez, Dorraotik hamabost eta hamasei urte bitarteko neska gazteak, denak joaten ziren. Ezagutu dute “trilladora denboran” Goñerritik Dorraora abuztuko amabirjinaren egunean berrogei «agostero» oinez jaisten, festetara iristeko. Garai zaharretan, mende honetako hogeigarren hamarkadan jaiotako lagunaren amen kidekoak, «neskiyek», baba jorrra joaten ziren martxoan Goñerrira, aitzurrean jardutera. Are Mendigorriaraino ere joaten ziren; gizonak laiatzera eta emaztekiak baba jorrra. Hiruretan hogeita hamabost urte inguruko unanuar batek dioskunez «amiña» martxoan Mendigorriaraino joana du horretara. Goñerritarrek ez ziren Ergoienera jaisten ez baldin bazen eskulan bila; haur gutiago izaten zen Goñerriko etxeetan eta lur sailak handiagoak dira, ez zegoen jaisteko beharrik.¹ Arakilgo Uharte eta Arruazu ere lur sailetan aberatsagoak ziren Ergoienera baino; ergoiendarrak

(1) Gutti goiti beheiti honelako zenbakiak ezagutu zituzten “Val de Goñin” egungo adineko unanuarrek hamasei urte zituztenean: “Amunarritzen” 30 bat etxe, Urdotzen 18, Aizpunen 8, Azantzan 17 eta Goñin 13-14; Unanun, berriz, 70, Lizarragan 80 eta Dorraon 60.

mutil joan ohi ziren Irañetara edo Arruazura. Eta bestela, Gipuzkoa alderdi horretara etxegintzara joan baino lehen —“Gipuzkoan beti jornal geixao”— basoko lanak ziren irabazpidea, Aralarko mugan dagoen Putterri puntan, esaterako, hura ere Ergoieneko eremua baita. Baita Goñerrian edo Olloibarren lantegia —egur bulkatze lana— unanuarrek eta dorraotarrek erdibana harturik ere, gain horietako biztanleak ez baitira baso lanean behetikoak bezain trebe.

Andia mendian ere topo egiten zuten jende hauekin, aziendaren zain zebiltzanean. Ergoienek erdara guti zekiten: “oker, beia tira palante!”, eta gain haietako herrietan «mintza praktika» egin beharra zegoen, Uztapidek Gasteiz ondoko Zurbaon bezala; hobaria zuten erdaraz gero «agosteroek» Ergoieneko gainerateko euskaldunen aldean.² Mende honetako ergoienek usu entzun zuketzen Goñerrian «habla en cristiano!» leloa, edota «ya vienen los baxatarros», iseka moduan bizi zutena: «burla bezela dok; [h]i ze yaiz ba!».³ Gainera ibarreko «Frantziko» haize mehearen eraginez gorriturik daudelakoan, «lepogorri» ezizena eman ohi diete goñeritarrei ergoienek. Gain haietakoak, bestalde, «jende belarri motxak» ziren; jabetzen dira ergoienek gaineko eremu hark euskalduna behar zuela izan aspaldian: aise jotzen dituzte euskal izentzat “Zirauki”, “Iturgoien” edo “Lezaun”.

1997ko azaroan 87 urte zituen Goñiko Domingoreneko nagusiak zioskunez, aita ez zuen euskalduna, baina aitona bai. Antzeko lekukotasuna bildu zuen Javier Irigarayk ere (1982: 274. or., 1. oh.): 1972-1974 bitarteko inkestetan, Urdozko Juan Anduezak ziotsoz —70 urte orduan—, Urdotzen sortutako amona guztiz euskalduna zuen: “este nombre recuerdo habérselo oído a mi abuela que hablaba vasco muy bien y era hija de Urdanoz” (276). 1904ko *Guía Eclesiástica de Pamplona*-k dioenez, Goñerri guztian Goñin eta Urdotzen euskaldunak gelditzen ziren (Fagoaga 1962: 211) eta ongi ezkontzen da hau Domingoreneko nagusiak zioskunarekin.

Baditu —edo bazituen— adiskideak gain horietan ekialdeko Arakilgo Urritzolako Bautista Etxarren jaunak, nahiz, zioskunez, guti ezkondu diren «Ollobar» aldera. Adierazi zigunez, hartu-emanik handiena, hilabeteko lehen eta hamabosgarren egunetan egiten zen Irurtzongo merkatuak zekarkien. Olarregiko atakan eta Oskian gaindi —inoiz herri izana azken hau— bezperatik jaitsiko ziren goñerritarrak hara, bai baitzuten han azienda gauez gordetzeko aukera; Urritzolan gaindi bakan jaisten ziren goñerritarrak Irurtzuna. Olloibartarrek egunean egiten zuten joan-etorria. Bere lauretan hogeita hemeretzi urteetan, 1930 urtearen inguruan «Ollobarren» euskara zerbait entzun zuela diosku mende hau oso-osorik ezagutu duen urritzolar honek; Goñerrian berriz, «gutxi» entzun zuela. 1904an Olloibarko Anotz, Saldise eta Ultzurrun euskalduntzat ematen dituzte. Ollo eta Senosiain herrietan 1929an adinekoak

(2) Idiek ezpondatik ihesi zelaira jotzen zuten aldi batez goldaketan ziharduen unanuar batek itau-rean Goñerriko “Amunarritzen”, idiak ezponda ondotik ezin eramank; nagusia dena maldizio ari zitzaion, oihuz: *te digo que te pongas por la orilla!* Eskolan ikasi erdara apurra ez horrenbesteraino iristen, ordea, eta *orilla*-ren antza izan zezakeen eta gogoan zuen ele bakarra eskolako *de rodillas* zen. Horra unanuarra idien aitzinean non belaunikatu zaigun!

(3) Hain zuzen ere horixe bera da Olloko Francisco Ollakarizketak *Erizkizundi*-an esan zukeena: Aita Eusebio Etxalarkoaren inkestako erantzunetan «Baxerrikoak = Etxarri Aranazkoak-eta» dator. Olloibartarrendako ere “baxatarros” dira goñerritarrak, eta J. M. Iribarrenek ere hala dio *Vocabulario Navarro*-n.

euskaldunak ziren (Fagoaga 1962: 212); ikus orain Bidador (1992) ere. Inguru hone-tako Ollakarizketa euskaldunaz Larrekok ere idatzi zuen: “El último euskeldun de Olló”, *La Voz de Navarra*, 1924/VIII/27, Iruñea. Francisco Ollakarizketa Sarasa hau bera da Aita Eusebio Etxalarkoak *Erizkizundi Irukoitz*-erako galdezkatu zuena; jaun hau 1924an Iruñean bizi zen; hiruretan hogeita hamabi urte zituen. Olló herriko azken euskalduntzat hartu zuten oker, besterik ere bai baitzen Ollon. Ollóibarko Izarbe herrian edota Itza zendeako Atondon baziren euskaldunak oraino.⁴ Honela ziotson Ollakarizketak Larrekori 1924an:

Soy natural de Olló y mis padres también eran del mismo pueblo y hablaban entre ellos en vascuence; yo aprendí con ellos; pero fuera de algún euskeldun con el que cruzara alguna palabra en Irurzun o en alguno de los pueblos de Araquil, yo no he hablado vascuence hace muchos años, pues en el pueblo nadie habla.

Irurtzunen aldakan dagoen Izurdiagan mende honetako lauretan hogeigarren hamarkadaren hasieran bost euskaldun gelditzen ziren eta hauen lekukotasunaren arabera:

en tiempos pasados hasta 1930-35 el vasco se empleaba dentro de cada hogar o en la calle pero nunca en las escuelas, llegándose a castigar dentro de ellas a los que lo hablaban (Idoy 1981b: 177).

2. Eremu geolektala definitu nahirik

Nafarroa Garaiko Euskal Dialektologiara azkentsu honetan Orreaga Ibarra eta Koldo Zuazoren proposamen makrodialektalek ekarri duten argitasuna eta zehaztasuna aitzinapauso sendoak ditugu inolaz ere. «Dialekto» deitzen ditugun eraikuntza teoriko horiek, izatez badira —teorikoki eta zientifikoki bai bederen— eta ikuspegi atomisten garaia aspaldi joana dugu. Colman-en hitzen tradizioan oinarritzen da azken garaiko Euskal Dialektologia eta gu ez gaude bertatik aldentzeko:

...we can recognise (or reiterate the recognition of) the validity of the term ‘dialect’ to describe a bundle of shared linguistic characteristics that differs from one or more other synchronic bundles of shared linguistic characteristics, even failing precise geographical location of those characteristics (1988: 112).

Baina dialekto edo euskalki banaketaz gain, gogora ekarri nahi dugu osagarriak diren beste ikuspegi batzuk ere badaudela. Ez genuke sobera tipofobo agertu nahi: dialektoak gauza bat dira, eta eremu lektal edo *continua* lektalak beste bat: hizkeren argazkiaren ikuspegi desberdinak ateratzea edo irudiari beste leku batetik begiratzea bezala litzateke. Irudikapen edo kontzeptu hauek guztiak Baliagarriak dira dialektologian, hizkuntza osatzen duten hizkeren arteko egituraketaren eta banaketaren argazki desberdin baina osagarriak ematen dituzte. Errealitatearen analisisan zehaztasunaren maila goratzeko edo apaltzeko gaitasuna duten tresnatzat har litezke halako izendatze teknikook. Literaturak behin eta berriz erakusten digun bezala, gerta lite-

(4) Itzako zendeako euskara, Ollóibarkoa, Oltzakoa, Goñerrikoa eta Gesalazkoa batera zekuskien Bonaparte printzeak.

ke *continua* lektalen errealitatea osoki ez egokitzea dialektoa definitzeko hautatu den isoglosen sistemarekin; izan ere, grafikoki adierazte aldera, hizkuntza-ezaugarrien konbinazio geografiko ilunsko eta difusoen antza hartzen dute eremu lektalek; dialektoen artean, gibelean edo pean dauden hizkuntza-ezaugarrien beste konbinazio posible batzuk dira edo horrelako zerbait direla dirudi.

Geurea baino hizkuntza aztertuagoei buruzko literaturan ohikoa da *sprachbünde* edo *linguistic area* delako irudia: hainbat hizkuntza-ezaugarriren bilgune den eremuari deritzote horrela. Balkanetako penintsula edota India ditugu adibide usu aipatuak (D'Souza 1994: 148): genetikoki sail berekoak ez diren hizkuntzen artean hedatzen —edo artetik iragazten— diren hizkuntza-ezaugarriak daude ideia honen oinarrian: hizkuntzen gainerik egituratzen diren ezaugarri linguistikoak barreiatzea litzateke kontua. Definizio bat nahi izatekotan ikus Indiarako Emeneau-k emana (1956: 16, 28. oinoharra):

This term 'linguistic area' may be defined as meaning an area which includes languages belonging to more than one family but showing traits in common which are found not to belong to the other members of (at least) one of the families.

Gure kasuan *language*-ren ordain "dialekto" erabilenez gendake eta *trait* izan beharrean "hizkuntza ezaugarri" edo "ezaugarri linguistiko". Beti iruditu izan zaigu Nafarroa Garaiko euskaran *sprachbünde* izenarekin adierazten den horren iduriko zerbait gertatzen dela (cf. Allières 1981: 112), badirela isoglosa batzuk zein bere bidetik doazenak, geografiaren gradualitatean elkarrekin gurutzatzen direnak: isoglosa hauek ez doaz guztiak batera, ez dituzte isoglosa multzo nabarmenak sortzen leku guztietan —ez Ultzama eta Basaburuan Orreaga Ibarrek aurkitutakoak bezain multzo nabarmenak bederen—, era kapritxozko eta beregainean hedatzen direla ematen du.

Esaterako, askori kontrakoa iruditu arren, hainbat nafarrendako enblematikoak diruditen *erran*, *ongi*, *aise*, *bertze*, *-en* etorkizuneko morfema, *a(u)nitx*, *gibel* eta *aitzin & altzin* eleen geografia hedadura ez da bat eta bera, eta leku batzuetan arestiko aldaera horiekin batera *atze*, *aurve*, *asko* edo *erraz* bezalako eleak ere erabiltzen dira; hau, gainera, hizkuntza aldaera ugariarekin gertatzen da. Ondorioa da eremu dialektala mugatzea ez dela aise, eta egiten ditugun abstrakzio operatiboek nahi luketenaren alderantziz, hizkuntza-ezaugarriak nahaska —eta ez batera— gorde-ezkatuta edo jauzika bezala agertzen zaizkigula, eremuak elkargainka jartzen zaizkigula; xuxen eta lañoki esateko, dialektoen mugak ezartzea ez da aise. Hizkuntza ezaugarri batzuk hemen hasten dira, ezaugarri hauetarik batzuk horragoxe bukatzen, tartean beste berri batzuk sortzen zaizkigu, besteren bat desagertzen zaigu... hizkuntza-ezaugarrien konbinaketa gehiegi eta zinez konplexuak ageri dira geure begien bistan.

Eman ditzagun gure lanean baliatu ditugun ezaugarrien adibide batzuk:

1) Izenordainetan *ore* 'hura' dugu gure eremuan (cf. Irigoyen 1981: 393), *ure*-rekin batera: *ore* eremu zabal batean erabiltzen da eta halakoxe hedadura zeharkakoa daukala dirudi, goitik beheiti ezker aldera: bada Anuen, Ultzaman, Atetzen, Ezkabarten, Txulapainen eta Arakilen, baina ez da Ergoienera iristen; hegoaldeetik Andia mendiaz bestaldera Goñerrian, Oltzan eta Olloibarren dugu, baina ez da mendebaldeetik Gesalazera iristen, ezta hegoaldeetik Eguesibar edo Izarreibarrera ere.

2) Guztiz bestelakoa da aditzean iraganeko *-n* morfema falta duten hizkeren geografia: oro har, Iruñetik beheiko eta eskuineko hizkeretan dugu ezaugarri hau; eskuinera dauden hizkeretan goiti jotzen du, gainera, ezaugarri honek. Iruñetik ezkertera goiti joanez ez dago *-n* gabeko adizkien arrastorik Anditik iparraldera (baina ikus Arakilgo Satrustegiko ze 'zen', Yrizar 1992: 591). Ezaugarri honen eremuak, Goñerriko alderdia salbu, arestiko ezaugarriaren eremuaren itzala edo negatiboa dirudi.

3) Nafarroa Garaia ezker eskuin banatzen duten ezaugarriak badira; gure adibidean ezkerreko aldaera Goñerriari dagokio eta eskuinekoa Eguesibarri: *bi / bida & bi, tanta / txorta, iltze / itze, zille / xilko, txal / aratxe*.

4) Banaketa arras bestelakoa da *aungi* 'ongi' aldaerak goitik behera duena ere; guk dakigula soilik XVIII. mendeko Gesalutzen eta Anditik bestaldera egungo Etxarrin eta Ergoienean ageri da, baina ez ondoko Goñerriko idazkietan. Aldiz, *auntzi* 'ontzia' dugu Dorraon, baina ez da Gesalazko idazkietan ageri.

5) Guztiz hegoaldekoa den banaketa ageri du "Izan" aditzeko aginduzko Nor sailleko bigarren pertsonako *zaitte* adizkiaren apokopeak: *zait & zeit* aldaerak ditugu mendebaldetik Gesalutzen eta erdialdetik Garesen; Utergako dotrina batean ere ageri da ezaugarri hau. Baita *-rgatik* motibatiboko atzizki analogikoa ere

Pentsa dezakegunez hizkuntza ezaugarriak aipatu ditugun eremu hauen muga barrenean hedatzen dira eta baita aipatu ez ditugun beste batzuetan ere: esaterako, Sakanan barrena Andiaz iparraldera, edo Sakanako mendebaldetik eskuin edota Iruñe inguruan barrena... Ezaugarriak, gainera, batzuk arkaismoak ditugu eta beste batzuk berrikuntzak; ez dute batzuek eta besteek zertan hedadura bera izan. Hizkuntza ezaugarriak anitz dira, gainera, nahi bezainbat aukera ditzakegu alderaketarako, eta Nafarroa Garaiko erdialdearen hedadura zabalak arras konplexua bilaka dezake hizkerez eta azpizkerez eduki dezakegun ikuspegia.

Testuinguru honetan mikrodialektologiaren premia nabarmentzen zaigu, xeheki aztertu hizkeren monografiaren, *continua* lektalen irudikapena laguntzen dutenena; hona, beraz, azpieuskalkien aldeko aldarrikapena, edota hizkeren eta azpizkizkeren guti gora beherako egitura argitze aldera egiten diren saioen aldekoa bederen. Hartara, Zuazoren 1998ko lan egoki eta sistematikoaren premia eta dakarren hobekuntza deusetarako auzitara ekarri gabe, egokia deritzogu dialektoaren kontzeptua erlatibizatzen duten Gimeno-ren hitzak oroitarazteari (1987: 695):

Es cierto que los continua lectales originan una mayor inconsistencia y complejidad que la representación de unas variedades lingüísticas como entidades discretas, pero la afirmación categórica de la existencia de límites (geo)lectales, como la negación de variedades ante la ausencia de discontinuidades absolutas, supone actualmente una tremenda simplificación desnaturalizadora... Sin embargo, también es insuficiente el tratamiento dado a las «hablas de tránsito». Un marco teórico y metodológico adecuado puede ser la comunidad de habla.

Dialektologiaren alderditik, Goñerriko hizkera egiten zen eremuko errealitatea eta errealitate honen baitako hizkuntza-datuek ezkutuan osatzen duten abstrakzioa aztertzen hastean, interesgarria litzateke arestiko eleetan sumatzen den kezka gogoran hartzea, bertako hizkerak erlazionatzeko eta egituratzeko duten era apurtxo bat argitzen lagundu baikaitzakete.

Geografia dialektal klasikoak bi paisaje edo *landscape* aurkezten dizkigu oro har: erdigunearen ingurukoak direnak batetik; erlatiboki homogeenak dira eta batasuna desberdintasunari nagusitzen zaio bertan hizkuntzaren aldetik. Bestetik, eremu transzional biziki dibertsifikatuak ditugu; hauetan, arras distantzia laburretan desberdintasun dialektal sakonak aurkitu ohi dira (Taeldeman 1998: 20). *A priori* jokaturik, Iruñerria konbergentzia eremutat jo beharko genuke, hala orografikoki gora-behera handirik eta iragangaiztasunik ez duen eremua delako, hala hiriburua izanik munta sozio-ekonomiko eta kulturala zukeelako; pentsa genezake Iruñe aldamenetako ibarretako hizkerak neurri batean batu edo berdinkaratu dituzten hainbat hizkuntza-ezagarri Iruñetik edo Iruñerrietik hedatu diratekeela. Hori dio ikuspegi intuitiboak, baina azterketa sakonak egin beharko lirakeke hau guztia honela izan ote den aztertzeko ala Iruñe aldeko hizkera ere banaturik ote zegoen jakiteko; cf. Artola (1985: 99) eta Salaberri (1996).

Gure iritzian, Nafarroako hizkerak neurri batean bederen banatzen dituzten ezauzgarri batzuk Iruñetik biziki hurbil iragaten dira: ikusi besterik ez dago Oltzako hizkeratik Eguesibarkora badela aldea, nahiz orografiaren eta distantziaren aldetik honetarako arrazoi nabarmenik ez dagoen; bien artean, gainera, teoriarik bederen homogeneizatzailerik lana bete lezakeen Nafarroako hiriburua dago. Pentsa liteke, bestalde, Iruñeko edo Iruñerriko euskararen barrenean ere aldeak zeudela gune batetik bestera; dena den, hurrengo atalean itzuliko gara gai honetara.

Ustea dugu, bestalde, hizkuntzaren aldetik eten, banaketa edo konbergentzia eremu garden-gardenik ez den gurea bezalako lurraldeetan —Eguesibar, Izarbeibar, Iruñerria, Oltza, Olloibar, Goñerria, Gesalatz inguruaz dihardugu—, dialektometria txit onuragarri litzatekeela, batez ere bere eredurik kualitatiboena balia baleza; horretarako, ordea, alderatu daitekeen datu-oinarri bateragarri bat behar da ezinbestean, eta begien bistakoak diren arrazoiengatik hori orain ezina da guztiz.

Gainerakoan, euskaldunek Iruñean zer nolako multzoa osatzen zuten, zer nolako indarra izan duten —beren hizkuntza ohiturek ingurumariko ibarretara hedatzeko eduki zezaketen ahalaren aldetik ikusirik batez ere— eta noiztik eduki duten xeheki aztertutik eduki beharko genuke, baina oraingoz azpigizarte euskaldunaren erakarpenean indarrari buruzko lan diakronikorik ez dago guk dakigula, datu guti baitago. Azkensu honetan, Jimeno Jurioren 1997ko ikuspegia lazki kritikatzeko duen Ciervide erromanistaren iritzia dugu:

La presencia real de vascohablantes en Pamplona fue un hecho posterior, de la segunda mitad del siglo XVI y del siglo XVII y fue el resultado de la inmigración interna, procedente de su entorno rural (1998: 511).

Historialarien iritzia ez da ordea, Cierviderena bera, eta toponimiako datuen arabera erreinuko hiriburuan euskara lehenagotik bizirik zegoela dioskute arlo honetan dihardutenek.

3. Nondik nora

Ingura gaitzen emaro-emaro geure lan eremura horretarako 16. orrialdean dakargun mapa baliatuz. Sakanan sartzen dugu Arakil ibarreko partaide den Irurtzun


herria. Sakana deritzanaren barrenean beti ere, Arakil ibarretik ezker, harantzaxeago, Aranatz dugu, administrazioz Ergoiena ere barrenean duena, eta Altsasu aldera, berriz, Burunda. Ibar hau dialektologiaren alderditik behar den bezala azterturik dago eta gu ez gara, beraz, ur horretan sobera murgilduko; aski du irakurleak Zuazo 1994 lan zehatz eta argira jotzea. Ergoiena Aranatzekin hartu-eman hertsian dakusagu, Arbizu eta Etxarriekin; Burundarekin ere, segur, izan duke lotura; baita, ordea, Andiarekin ere. Andiaz harat Goñerria dago eta berehala Gesalatz, Estellerrian. Andia eta Urbasa Zunbeltzen banatzen dira.⁵ Horiei guztiei loturik egon bide da Ergoiena, Iruñeko dinamika soziogeografikora bezainbat edo gehiago.

Oltzako zendeara edo Olloibarrera bezala, Iruñeko eragina iristen da Goñerrira ere, hizkerak ezagun du, eta pentsatzekoa da historian zehar Estellerriko eragina ere iritsi izan dela Goñerrira. Irurtzuna ere iritsiko zen zalantzarik gabe Iruñeko eragin orotariko hori, eta hori nabaritu beharko litzateke Arakil alderdiko ekialdeko herrietako euskaran, Itzako zendearen aldamenen dauden horietan. Baina Irurtzun Tolosako bidean dago, Gipuzkoara joateko erabili izan den kamioaren ertzean, eta merkatu garrantzizkoa izan da bertakoa: Larraun, Sakana, Iruñerriko mendebaldeko Itzako zendea edo Gulibar, Imotz eta Basaburua, Irurtzunen eraginpean bizi izan direla pentsatu beharko genuke, beraren dinamikaren barrenean edo gertatu direla. Esan daiteke Irurtzunek sal-erosketa eremu bat osatzen duela (cf. Velasco 1981: 96). Esate baterako, lana dela eta 1960tik aitzinera Irurtzunek Basaburu Nagusiko, Imozko, Larraungo ekialdeko eta Goñerriko jendeak bilarazi ditu (Idoy 1981b: 170).

Geure lanari eremu bat finkatzea gauza beharra da eta honen berri ematea dago-kigu orain. Lehenik Goñerriaren geografia-ingurua baliatu dugu, hurbilekoa. Hone-la, *a priori* jokaturik, Larraungo hizkera alde batera utzi dugu, nahiz, inoiz, ezaugarri baten hedaduraz dihardugunean batez ere, bertako datu zenbait ager daitekeen; Larraun urrunsko gelditzen da, Goñerri eta beraren artean Sakana guztia dago. Burunda ere maiz kanpo utzi dugu, nahiz ez beti. Hona bazterketaren arrazoiak: Burundako mintzoak mendebaldeko hizkerekin dituen loturak nabarmenak eta ezagunak dira. Imotz ere guti baliatu dugu; ditugun datuak arrunt fidagarriak dira (Pagola 1992b), baina Goñerriko hizkeratik urrun gelditzen da.⁶ Eguesibar ere urrunsko dago: bitarte horretan Olloibar eta Oltza nahiz Iruñerriko eremu gehiago ditugu, baina badu alderaketarako hobari handi bat metodologiaren aldetik, bertako mintzoa ezaguna da eta datuak egiaztagarriak; loturak ere nabarmenak dira Goñerriko eta Eguesibarko hizkeren artean, lan honetan ikusiko denez. Baliatu, Ergoieneko, Arbizu-Etxarrietako, Arakilgo, Olloibarko, Oltzako, Izarbeibarko eta Gesalazko hizkerak baliatu ditugu alderaketarako eta baita Eguesibarkoak ere; ondoko Elortzibar-ko Zabalegiko 1785eko prediku bateko datu batzuk ere baliatu ditugu bakanka, iturria beti Yrizar (1992) izanik. Iruñetik goiti eta Irurtzundik eskuin dauden iba-

(5) Nafarroa umela eta Nafarroa mediterranea eremu horretara biltzen dira, eta baita artzantzaren garrantziak eraginik, jendeak ere: izarbeibartarrak, Tafalla alderdikoak, estellerritarrak, ergoienarrak, goñerritarrak, erriberanesak... Inguruko herri eta ibarrek bereganatu nahi izan dute eremu hau, baina Gorteek beti lortu dute nafar guztien ondare izaten jarrai dezan. XVI. mendean 60.000 eta 100.000 aziendak buru artean zegoen bertako bazkalekuean eta XX. mendearen hasieran, berriz, 30.000 buru zeuden.

(6) Golderazkoak diren ezaugarri hauek, esaterako, Goñerrikoen guztiz bestelakoak dira: *etxe, eguzki, elkarrekin, gazte, ambeste, bost, putzu, ewri, aingeru, arratoi, eke, esan, iñor, emango, beste...*



rretako datu batzuk ere erabili ditugu eskuartean, hizkuntza-ezaugarrien hedadura zein den jakiteko batez ere. Hurrengo ibarrok dira aintzat hartu ditugunak: Gulibar —adizkiak soilik (Yrizar 1992)—, Imotz, Itzako zendea, Txulapain, Ezkabarte eta Olaibar ibarrak, eta batzuetan baita goraxeagoko Atetz, Odieta eta Anue ere. Esteribar-Erroibarko datuak gutitan aipatu ditugu; Artzibar eta Aezkoakoak ia bat ere ez, salbu arlo lexikoan.

Herriak zehazki hurrengoak ditugu: Ergoienetik Lizarraga eta Dorrao; Unanu lexikoaren alderaketarako baliatu dugu. Aranaztik Arbizu eta Etxarri. Arakildik, berriz, Arruazu, Uharte, Irañeta, Murginduetza, Ihabar, Urritzola eta lexiko apur baterako Izurdiaga; Egiarretako datu apur batzuk ere ikuskatu ditugu. Beste aldetik horrela gelditu da hautua ezinbestean: hegoaldeko Gesalazko Muzki eta Izarreibarko Gares eta Uterga —herri honetan agertutako dotrinako datuak bertakotzat jotzeko ohitura dagoenez gero—. Goñerri ondoan Ollok ordezkaten du Olloibar eta Oltzak nahiz Iberok Oltzako zendea: Iberon alkartzen dira Arakil eta Arga uhaldeak. Goñerriko ordezkari Goñi herria dugu bereziki. Eguzkialdera Gulibarren Zia eta Aginaga ditugu, datu bakan zenbait dutenak eta baita Larunbe herriko Oraien auzoa ere —lehen herria zena—. Imoztik Goldaratz baliatu dugu eta Txulapaindik Usiko, Beorburuko eta Nabazko datuak ditugu. Ezkabartetik Anotz dugu nagusi, baina baita Makirriain ere. Goiti, Atetz Zigandak ordezkaten du, Odieta Ziaurritzek eta Olaibar Olaitzek. Eskuin, Lantz eta Etulain ditugu Anuerako. Esteribarko berri Eugi eta Iragiko datuen bidez dugu eta Erroibarko datuak Mezkitritzen nahiz Lintzoainen bildu dira. *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* —aurrerantzean EAEL— da usu Itzako zendeatik eskuin dauden ibarrotako datuen iturria.

Jokalekua hautatzerakoan berebiziko garrantzia eta eragina izaten du aztergaiaren egoerak, Euskal Dialektologiarenak geure kasuan. Dakigunez, Nafarroako hainbat alderditako hizkerak hobeki ezagutzen ditugu beste batzuetakoak baino; Elkanoko Joakin Lizarraga idazlearen lanari esker, gezurra dirudien arren, hobeki ezagutzen dugu Eguesibarko euskara Larraun ibarrekoa baino. Bonaparte bera ere ibili zen Eguesibarko berri ikasten, eta ele multso pollita bildu zuen Elkanon. Hiztegi hau bera, gainera, beste hiru herritan ere bildu zuen, eta orain, hein batez bederen, egoki aldera daitezke lexikoaren alderditik Eguesibar, Gares, Oltza eta Goñerria (Ondarra 1982). Nahiago genuke zerrenda horretan berean Arakilgo, Larraungo, Olloibarko, Itzako zendeako, Gulibarko, Txulapaingo,⁷ Odietako,⁸ Zizurko eta Galarko eleak ere baldin baleude, baina printzeak egin zuena egin zuen, ez gehiago. Norbaitek egin beharreko lana da oraingoz Sakanako, Larraungo eta Basaburuko berri biltzea, eta lan horiek ere, helburuetarik bat bederen, Nafarroako euskararen barrenean ibarretako hizkerak duten antolatzeke era eta egitura argitzea izan beharko dute.

Goñerritik Eguesibarrera bitartean ibar gehiago daudela argudiatu, Elkanoko datu aberatsak azterketatik kanpo uztea egin daitezkeen gauza da, baina Elkanoko emaitza lexikoak adierazgarriak eta erakusgarriak direla uste baitugu, Bonapartek bildu datue-

(7) Damaso Intzak zioenez Otsakarren eta Beorburun Ultzamako euskara bera egiten zen (Yrizar 1981 II: 274).

(8) Basaburu Nagusiko euskararen arras antzekoa zekusan Aita Intzak Odietako (Yrizar 1981 II: 268-9). Kike Diez de Ultzurrunen ustez bereziki Ultzamakoaren iduria da Odietako euskara.

tarik batzuk hona ekartzea interesgarria iruditu zaigu. Hautatu ditugun emaitza hauek erakutsiko digutenez, muga antzeko zerbait bada Goñiko euskaratik Elkanokora, geolinguistikoki eta kualitatiboki garrantzia duela uste duguna. Muga honetatik eskuin, dakartzagun adibide hauetan, Elkano bere ekialdera dauden hizkera batzuekin lotzen da: Erroibarrekin edo Aezkoarekin gehienetan; Zaraitzu edo Erronkarirekin ere batera doa ele batzuen kasuan, eta beste aldi bakan batzuetan baita Zuberoarekin edota Ipar Euskal Herriko idazleen testuetan ageri diren aldaerekin ere.⁹ Aldiz, hautatu ditugun eleetan Goñi herriko emaitzak gehiago hurbiltzen dira Arakil aldeko nahiz Sakana aldeko euskarara edota Larraun alderdikora; beti ere ekialderagoko horietarik desberdina da Goñi-ko emaitza eta erdialdeko hizkeren kutsua hartzen du. Ikus ditzagun, bada, hurrenkera honexetan ikusi ere, Elkanoko, Garesko, Oltzako eta Goñi-ko emaitza hautatuok:

1 *abuña* / *espoma* / *apar*, *abuñe* (“de la bouche”, Bonapartek dakarrenez) / *apar* (ahokoa nahiz bestelakoa). 2 *akar in* / *akar in* / *mokoka in* / *mokoka in*. 3 *altaka*: (loren *altakan* & loren *ondoan*) / loren *ondoan* / loren *ondoan* / loren *ondoan*. 4 *altxatu*, *ortzi* ‘ezkutatu’ / *ortzi* / *ortzi* / *ortzi*.¹⁰ 5 *aitzinatu*, *aurreratu* / *aurreratu* / *aurreratu* / *aurreratu*.¹¹ 6 *antzaron* ‘oca, ganso, ánsar’ / *anzaron* / *antzara* / *antzara*. 7 *aran* / *ukarain* / *aran* / *okarin*, *aran*. 8 *aratxe* / *txal* / *txal* / *txal*. 9 *artxori* ‘estornino’ / *zozobeltx* / *zozobeltx* / *zozobeltx*. 10 *aspintx* / *aspintx* / *atximixke* / *atximixke*. 11 *aspintxatu* / *aspintxatu* / *atximisketu* / *atximisketu*. 12 *bardin* / *igual* / *berdin* / *berdin*. 13 *bartz* / *bartz* / *bartz* / *partz*. 14 *basillar*, *usillar* ‘occila’ / \emptyset / *usiller* / *usiller*. 15 *beatz* / *eripulgare* / *beatzandi* / *beatzandi*. 16 *berant* / *berandu* / *berandu* / *berandu*. 17 *bida*, *bi* / *bi* / *bi* / *bi*. 18 *bilkor* / *sebo* / *gilbor* / *gilbor*. 19 *bixar*¹² / *muxar* / *muxer* / *muxer*. 20 *elle* ‘artilea’ / *ile* / *ille* / *ille*. 21 *eri* / *eri* / *beatz* / *beatz*. 22 *eri* / *enfermo* / *enfermo* / *enfermo*. 23 *esnebelar* ‘euforbio’ / \emptyset / *esnori* / *esnauri*. 24 *estrabile* ‘barrukia, ukuilua’ / *estrab* / *estrab* / *estrab*. 25 *gau*, *gori*, *gura* / *au*, *ori*, *ura* / *au*, *ori*, *oré* / *au*, *ori*, *oré*. 26 *gibelatu*, *atzeratu* / *atzeratu* / *atzeratu* / *atzeratu*.¹³ 27 *gora*, *altu* / *altu* / *altu* / *altu*. 28 *ispiku* ‘lavanda’ / *esplego* / *ixkiripuru* / *ixkiripuru*. 29 *istarzain* ‘iztazaina’ / *istarzain* / *zangazpi* / *zangazpi*. 30 *itze* / *intze* / *iltze* / *iltze*.¹⁴ 31 *kafi* / *kabi* / *kabi* / *kabi*. 32 *-kal* (idurikal) / \emptyset / *-kal* (idurikal) / \emptyset . 33 *kokin*, *txar* / *txar* / *txar* / *txar*. 34 *kurexa* / *gurixa* / *puruxe* / *puruxe*. 35 *lertxon* / *lertxon* / *lertxon* / *gurilo*. 36 *listatu* / *erreluzitu* / *listetu* / *dristetu*. 37 *malda* & *lar* ‘sasia’ / *malda* & *lar* / *lar* / *lar*. 38 *mare* / *limako* / *mare* / *bare*. 39 *nombre*¹⁵ & *izen* / *nombre* / *izen* / *izen*. 40 *ordi* & *mozkor* / *ordi* / *mozkor* / *mozkor*.

(9) *Orotariko Euskal Hiztegia* nahiz Nafarroako beste hiztegi batzuk baliatu ditugu datu hauek izateko: Ultzamako eta Erroibarko datuetarako O. Ibarra (1995b eta 1996); Baztangoetarako M. Izeta (1996); Aezkoakoak geuk eratu baina argitaratu ez dugun hiztegiari dagozkie.

(10) Goñi-ko Ebanjelioan <ezue nei alchatu beguiec> bezalako adibideetan altxatzea ‘goratzea’ da.

(11) Nahiz Goñin Bonapartek *aitzin* eta *aurre* bildu zituen; Goñi-ko Ebanjelioak, bestalde, <*alcine*> dakar (Ondarra 1987: 131).

(12) Kasu honetan Eguesibar Erroibarrekin batera doa —*bizerra*— baina ez Aezkoarekin: *muxar*.

(13) Baina Goñin *gibel* eta *atze* bildu zituen Bonapartek.

(14) Mendiaz bestaldera ere *iltze* dugu Ergoieneko Lizarragan.

(15) Egun ere Nafarroa Garaiko ekialdeko hainbat ibarretan, hala *izen* nola *nombre*, biak erabiltzen dira euskaraz.

41 *orre* 'enebro' / *ipuru* / *ipuru* / *ipuru*. 42 *pe* & *azpi* / *azpi* / *azpi* / *azpi*.¹⁶
 43 *peña* / *peña* / *barga* / *barga*. 44 *puntx* / *pintxa* / *erren* / *erren*. 45 *saltarin* /
saltaporrai / *saltarin* / *martinsalto*. 46 *txindi* / *txispa* / *txispe* / *txispe*. 47 *txin-*
dila 'lenteja' / *txindila* / *txingill* / *txingill*. 48 *txorta* / *txinta* / *tanta* / *tanta*.
 49 *urrin* 'kerua' / *urrin gaixto* / *usai* / *usai*. 50 *urrin izan* / *urrin gaichto izan* /
usei izan & *izendu* / *usei izan* & *izendu*. 51 *usu* & *maiz* / *amenudo* / *maiz* / *maiz*.
 52 *xeatu* / *txikitu* / *txikitu* / *txikitu*. 53 *xilko* / *xila* / *txiliko* / *zille*.¹⁷ 54 *zar-*
tzutu / *zartzaro* / *zartzaro* / *zartzaro*.¹⁸ 55 *zirain* / *sangijuela* / *izein* / *izein*.

Hurrengo honetan, esaterako, Eguesibarko hizkera ez bezala, nabarmen doa Goñerria erdialdekoago diren hizkera batzuekin: *txintxurri* / *txintxurri* / *txintxurri* & *estarr* / *txintxurri* & *estarr*. Mendebaldera, Gesalätzen ere *estari* (sic) dugu testuetan (Lecuna 1973: 390).

Lexikoaren aldetik eta beste zenbait ezaugarriren aldetik dagoen «muga» edo lerro hori Eguesibarko Elkanotik ezker iragaten bada eta Goñerria bestaldera geratzen baldin bada, Oltzako zendeako euskara zein aldetan geratzen den jakitea da gure hurrengo kezka. Itxura guztien arabera, Oltzako zendeako lexikoak ere Goñerrikoak bezalako kokapen geolinguistikoa du. Hori horrela, Iruñeko euskarak nora jotzen zuen gehiago galdegin liteke, Oltza alderdikora ala Eguesibarkora; zenbat euskara mota egiten zen Iruñean? Ez dugu uste galdera honi erantzuteko bezainbat datu dugunik, ez dugu ongi ezagutzen Iruñeko euskara eta Garesko euskararen kasuan ere antzeratsu gaude.

Badirudi berezixkoa zela mintzo hura. Bonapartek Etxenikeri 1866ko abuztuaren 15ean igorri gutunean Garesen euskara erdi itzalirik dagoela eta «gutziz desberdina» dela dio (Urquijo 1910: 295). Jose Maria Satrustegi euskaltzainari aitona Garesko euskarazko esaera zorrotzak hango mintzaira berezian kontatzen zizkion (Yrizar 1992: 461). 'Ehun = 100' adierazteko, *egun* nahiz *bortzetan ogei* erabiltzen omen zen (Ondarra 1982b: 649), esaterako.

4. Baliabideak eta testuetako arazoak

4.1. Itxuraz, ikusi batera bi eremu ditugu azterketarako, Andiaz alde batera eta bestera daudenak. Esan ote daiteke eremu hauen artean biltzen diren isoglosen egituraketari dagokionez, bi eremuen artean dagoen eten lektala, azterketarako baldintzetan eremu batetik bestera dagoen lezea eta eten orografikoa bezainbatekoa dela? Datuek beharko ligukete erantzuna eman. Halaz guztiz ere, balizko erantzunak irudikatze eta hipotesiak frogatzeko xedetan aurkeztu ohi diren datuak eta alderaketa saila beren horretan eskaini aitzinetik ohar sail bat egin nahiko genuke. Lehen-lehenik ditugun datuak eta baliatzen ahal ditugun lanabesak aurkeztu

(16) J. M. de Ibero idazle munarriztarrak *pean eta azpien* dakar, ordea (Satrustegi 1987).

(17) Andiaz bestaldera ere *zille* dugu Arakilgo Irañetan (Erizk.), Etxarrin bezala. XVI mendeko Gas-teizen *Çila* zegoen.

(18) Nahiz Goñerrian *gaztezutu* erabiltzen zen. Bestalde, *-tasun* ere badugu: *Aurtasunean etciñen icendu bercetaco, beicic jostaceo, chanza, ta mille burle eguireco gurasoegui* (Ondarra 1991: 159).

behar ditugu, eta ondoren lanabes hauek dituzten kokken eta akatsen berri eman, ez baitira guti.

Lehenbizikotik aitortzen dugu ez dela egiteko erraza gertatu datuak hautatzea; hau ez da harrizkoa, dialektologia lanetan datuak hautatzea eta diskriminatzea izan ohi da burukomin gehien dakarren jarduna. Goñerriko hizkera ezagutzeko eta deskribatzeko era guztietako datuak behar genituen, baina ondorioetara iristeko nagusiki datu kontrastiboak nahi izan ditugu, aldeak erakusten dituztenak, hizkeren arteko lezeen berri ematen digutenak. Horrezaz gain, Goñerriko hizkerak inguruko hizkerekin eta eremu zabalagoekin dituen loturak ere adierazi beharra zegoen. Goñerriko hizkerari buruzko deskribapen orokor bat egiten den lehen aldia denez, onartzeko modukoa iruditu zaigu inoizka kontrastiboak ez diren datu deskriptiboak ere sartzea, izan ere beti ez da erraza gertatzen Goñerriaz landako inguruko ibarretako ezaugarri edo datu zehatz horiexek edo parekagarriak aurkitzea; ezin utziko dugu sartu gabe Goñerriko datu interesgarri bat ondoko ibarretan nola esaten den ez daki-gulako soilik.

4.2. Euskal Dialektologiaren egoera ez da desira genezakeena ere, baina arazoak arazo, urratsak egitea beste biderik ez dakusagu oraingoz. Gure datuetarik anitz lehen eskukoak ez izateak eta fragmentarioak gertatzeak eragin du orriotan agerpen maiztasunaz eta aldaera baten nagusitasunaz edota atzerabidean egoteaz horren guti mintzatzea; ezinbestean gertatu da honela eta ezagun duke hori deskribapenaren kalitaterik ezak. Inoiz, gainera, ezaugarri bat leku batean ez agertzeak ezaugarri horren inexistenzia postulatzeko tentaldira eramán gaitzake; testuetan oinarriturikako honelako lanetan era honetako arazoak biderkatu baizik ez dira egiten. Esate batera: hitz hasierako *tz-* (“tzakur”, “tzerri” e.a.) ez da ageri ez Goñerriko testuetan ezta Bonaparteren datuetan ere. Berrikuntza hori bada, ordea, ondoko Ollo herrian, *Erizkizundi*-ak dakarrenez. Zer pentsatu behar dugu Goñerriko, ezaugarri hau ez zegoela, ala bazegoen zerbait printzeak ez zuela islatu? Bonaparteren Aezkoako datuetan ere ez da ageri *tz-*rik, baina ibar horretako mende honetako mintzoan guztiz arrunta da ezaugarri hau.

4.3. Lanabesak aurkezten Andiaz hegoaldera ditugun lekukotasunetarik hasiko gara. Datuen eta testuen aldetik, XVII. gizaldiko Juan de Beriain idazlea, XVII. gizaldiko Urdozko salaketa bateko hitz batzuk (Satrustegi 1987), Izarbeibarko XVIII-ko Utergako dotrina bat (Ondarra 1980), Garesko Bonaparteren inkestako emaitzak (Ondarra 1982), Obanosen agertu diren bertso batzuk (Ondarra 1993e), Oltzako Bonaparteren inkestako emaitzak (Ondarra 1982), Ororbiako 1758ko testu bat (Satrustegi 1987 eta Ondarra 1995), Oltzako Iberoko guruzpideko otoitz bat (Arraiza 1988), Joseph Markotegi Goñikoaren Olloko XVIII-ko predikua (Knörr 1992), Goñiko Bonaparteren inkestetako emaitzak (Ondarra 1982), Bakaikuko ikertzaile Ondarrak berak argitaratu Goñerriko testu zahar eta lokalizazio arazoz beteak eta Olloibarko Ollon mende honen hasieran Eusebio Etxalarkoak *Erizkizundi Irukoitz*-erako bildu emaitzak baliatzen ahal ditugu. Estellerrira begira, Gesalazko Muzkiko XVIII. gizaldiko Martinez de Morentinen testu luzexkoak gelditzen zaizkigu (Lecuona 1973); nahi izanez gero, Muzkiko Elizalderen XVIII. gizaldiko dotrina ere baliatzen ahal da. Adizkietarako Bonaparteren zerrendak eta Yrizarren azterketak (1992)

balia ditzakegu. Toponimiaren aldetik P. Salaberrik argitaratu Eslaba aldeko datuak eta Artaxoako bakan batzuk —Jimeno Jurío & Salaberri 1998— erabil daitezke, eta baita Etxauriko zerbait ere (Ollaquindia 1997).¹⁹

Sakanara mendiaz bestaldera joz gero Ergoieneko euskara bizi eta ñabarra dugu batetik, oraintsuko artikulu batean aurkeztzen zaiguna (Solís 1993). Bestetik, Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*-eko —aurrerantzean EHHA— batzordeko Koro Seguiolak Dorraon egin inkesta lanaren emaitza bikaina baliatu ahal izan dugu, eta baita Isabel Razkin Lizarragak idatzi “Dorrauko euskara” lan argitaragabea ere. Arbizuko datu batzuk ere badira, EHHA-rako A. M. Echaidek bilduak. Etxarriko datuak ere baditugu (Karasatorre, Erdozia & Ulaiar 1991); orain, berriki, 1998an Maizek eta Mundiñanok batera atera duten lana balia dezakegu. Ezker, Burunda aldean Kandido Izagirrek argitaratu elkar hizketak eta datuak ditugu (1967), eta baita Ondarrak bere sorterri Bakaikun bildu eleak ere (1965). Koldo Zuazoren lana da, orain, Burundako euskararen itzulunguruak ezagutzeko lanabesik hoberena (1994).

Nafarroako euskaldunen mintzoak I eta II liburuetan atera ziren testuak ere —aurrerantzean NEM— baliatu ditugu: Ergoieneko Lizarragakoa, Aranazko Etxarrikoa, Arakilgo Arruazukoa eta Urritzolakoa hain zuzen. Bide beretik, egungo datuen artean eta ekialdeko Arakilerako, Irañetako, Ihabarko eta Urritzolako datuak baliatzen ahal ditugu, *Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikokoak*, eta baita guk geuk 1982.ean Antonio Arraiza jaun ihabartarrari bildu genizkion batzuk ere. A. M. Echaidek hiruratan hogeigarren hamarkadan egin inkestei esker, Arakilgo Murginduetako eta Lakuntzako nahiz Ergoieneko Unanuko berri badugu (1989). *EAEL*-n berean Ollolibar ondoko Gulibarko Larunbeko datu batzuk ditugu. Izurdiagako eltxo batzuk ere badira, transkribapena nahi genukeen bezain fidagarria ez bada ere (Idoy 1980-81). Eskuineragoko ibarretako egungo euskara amifiñ bat ezagutzeko berriz ere *EAEL*-ko elkar hizketak baliatzen ahal ditugu: Atezko Zigandakoa, Txulapaingo Usikoa, Odietako Ziaurritzkoa, Ezkabarteko Anozkoa edo Olaibarko Olaizkoa. Datu solte gehiago Artolaren zerrendetan dugu (1992). Daturik osoenak, dena den, XIX. mendekoak eta XX. mende hasierakoak ditugu eremu honetan: Txulapainerako Nabazko *Erizkizundi*-ko datuak eta 1826ko Nuingo idazkia ditugu eta Ezkabarterako Maki-riango 1828ko dotrinakoak. Ezker, Imozko Goldarazko datu zehatz eta fidagarriak ditugu, Rosa Miren Pagolak bilduak (1992b).

Gure jardunerako garrantzi handikoa den Arakil ibarrerako baditugu mende hasierako datuak, *Erizkizundi Irukoitz*-ak Uharte-Arakilen eta Irañetan bilduak; zorigaitzez, *Erizkizundi*-ak Ihabarren eta Egiarretan bilduak galdu ziren. Irañetako *Erizkizundi*-ko datuek dialektologian ohikoa den arazo baten aurrez aurre jartzen gaituzte eta diakronia eta diatopia nahaska eta eratzarki lantzeko arriskuaren aukeraz leialki ohartarazten. Datu zaharragoak ere baditugu, Juan Miguel Gastesi Irañetako seme (1798-1861) eta Lakuntzako erretorearen XIX. mende Erdiko *Mayatzeko illabetia*:

(19) Oroit Etxauribarko euskara, Gesalatz, Goñerri, Oltza, Ollolibar eta Itzakoa bezala, “ultra-pamplonés” izeneko azpieuskalkira zekarrela Bonapartek; erabilpenaren aldetik makalxe zegoen euskara Etxauribarren printzearen garaian, ondoko Zizurren, Arangurenen, Eguesibarren, Elortzibarren eta Izarbeibarren bezala, mapako hori kolore ahula lekuko.

Mariaren illabetia idazkietan hain zuzen ere (Ulayar 1987). Arakil berean Uharteko kristau ikasbidearen argitalpen bikaina ere balia dezakegu, baina ez dakigu nork eta noiz idatzia den; ezagun du, ordea, Uharteko hizkera jatorra ageri dela bertan (Ara-kama 1994: 569). Lakuntzako 1838ko otoitz batzuk eta zaharragoa izan daitekeen prediku bat ere baditugu (Satrustegi 1987: 229-234); azkenik, Arruazuko hizkera-
ren kutsu nabarmena duten Sakana aldeko idazki batzuk ere badira, Aralarko sain-
dutegian bilduak (Satrustegi 1987: 186).

Lanari ekiteko moduan gaude, beraz, baldin egonarri apur batekin, ditugun hiz-
kuntza datuak, testuak eta baliabideak xeheki aztertzen baditugu. Hona, orain, hauei
buruz egitea komeni den hainbat argibide:

4.4. Gure datuak hizkuntza ezaugarriak izanen dira, baina ez edozein datu, hau-
ratu dugun eremu hau dialektologiaren alderditik aztertzeko eta bertan azpierenmuak
banatzeko bezainbateko garrantzia edo gaitasuna dutenak baizik. Beste aldetik, edo-
zein bi eremuk edo gehiagok batera dituzten hizkuntz ezaugarri andana kontuan
hartu beharko dugu, eta baita ezaugarri hauek inguruko ibarretan zer nolako heda-
dura duten ere. Honela, ibarretako hizkerak bata bestearekin nola erlazionatzen eta
egituratzen diren aiseago ikusten da, eta bide batez, hizkera edo dena delako horiek
dialektoei —azken batean euskalkiei— loturik nola dauden ageri zaigu.

4.5. Lanerako darabiltzagun testu edo eskuizkribuak erlatiboki diatopikoak dire-
la diogu. Gure lanabesetan bada adibide bat. Goñin sortu Markotegi apezak prediku
bat idatzi zuen Ollon 1777an irakurtzeko. Kasu honetan badakigu egilea nor den eta
non sortu zen, badakigu idazkia noizkoa den, eta badakigu zein herritan egiteko ida-
tzi zuen. Nahi genituzke honelako zehaztasunak Nafarroa Garaiko beste testu zaha-
rretarako ere! Halaz ere Markotegiren idazkian anitz dira ez Goñiko sortzezko bere
hizkerari ezta aldaka-aldakako Olloibarkoari dagozkion hizkuntza aldaerak.

4.6. Handiak dira baliatzen ditugun testuetan gertatzen diren lokalizazio arazo-
ak. Esaterako: Bonapartek 1869. urteko lehen hilabeteetan Oltza herriko hizkuntza
datuak bildu zituen Donibane-Lohizunen Juan Martin Ugartek emanik; datu zeha-
tzak dira hauek. Bestalde, Oltza zendeako Ibero herriko gurutzearen otoitz bat ere eza-
gutzen dugu, eta pentsa liteke bertako hizkuntza ezaugarriek Iberoko iragan
mendeko euskara leial irudikatzen dutela. Bestetik, Izarbeibarko Muruzabalen aur-
kitutako sermoi batek, Oltza zendea dagoen Ororbia herri izena eta 1758 data dara-
matza, eta berarekin batera beste sei prediku gehiago daude idazkera berdinarekin.
Testu horretako hizkera benetan Ororbian egiten zena dela onartu behar ote dugu?
Bonaparteren Oltza herriko datu Donibane-Lohizunen bilduak eta Ororbia (1758)-
ko datuak bat ez badatoz, zer pentsatu behar dugu: Bonapartek ez zuela xuxen joki-
tu inkestagintzan? Ororbia (1758) delako hori ez zuela ororbiar batek idatzi, eta
Ororbian predikatu zela baizik ez dakigula?

Oltzako datuak —Bonapartek eskaintzen duen fidagarritasunagatik eta Iberoko
gurutzearen otoitzari suposatzen diogunagatik— ezagunxeak direnez, pentsa ote lite-
ke hauetan oinarritzea aski dela Ororbia (1758) izeneko testua Oltzako ala Goñerri-
koa den —han ere agertu baita idazki hau— jakiteko? Horrela ote da hori benetan?
Honela balitz, aiseago litzateke «Goñerriko testuak» izenburupean dugun idazki
andana horretan argitasun eta ziurtasun zerbait ateratzea. Eta ezin ahan-tzi da, bestal-

de, Bonapartek joan den mendeko bigarren erdialdean Donibane-Lohizunen Vicente Gulinarengandik bildu Goñi herriko inkestako erantzunak ere ezagutzen ditugula. Aski ote da hau guztia «Goñerriko testuak» izenburupeko idazki andana horretan zein den benetan Goñerrian mintzatzen zen euskaran idatzia eta zein ez jakiteko? Goñerrian agertu diren testu anitzetan itxura guztien arabera sumatzen den polimorfismoa eta Goñerriaz kanpoko hizkuntza ezaugarrien kopuru hazia dela medio, bakar-bakarrik Bonapartek Goñi herrian bildu ezaugarriekin zinetan eta benetan bat datozen testuetarako gorde liteke, esate baterako, «Goñerriko testua» izenburua.

Arestian esan bezala, Ororbia (1758) horrek haurride biki bat dauka, Aita Fernando de Mendoza kaputxinoak Goñerriko Munarritzen 1921.ean aurkitu sermoi batzuen artean dagoena. Testu batetik bestera alde zerbait dago hizkuntza ezaugarrien aldetik, baina ez da nabarmena; irakurketa arras zorrotza egin ezean, nornahik esan lezake bi testuak berdinak direla, bata jatorrizkoa eta bestea kopia baino ez dela. Honatx bi testuen arteko aldearen lekuko diren pare batzuk; lehena Satrustegik argitaratua da (1987: 96) eta bigarrena Ondarrak argitaratua (1995: 180-1): *Espeññecoa / Españñecoa, ciudedean / ciudade(an), vicie / vicia, iñ / eguin, corpuceco / gorpuceco, eiñ 'hain' / ein, garaitu / garaytu, nauronec / neuronec, niñe 'ninan' / nine, bainçe / beinze, disquioze / dizquioze, ssaquiñeçe / ssaquincece, bara 'baldin bada' / bara, tucela / duzela, çauren / zaurren, machetatic / manchetatic...*

Ondarrak dioenez jatorrizkoa Satrustegik 1987an argitaratu zuena da (92-96) eta kopia Ondarrak berak 1995ean kaleratu zuen “Goñerri aurkitutako testuak (VII)” (176-181). “Goñerri aurkitutako testuak (VI)” eta “Goñerri aurkitutako testuak (VII)” euskara berdina ez duten arren egile berarenak izan daitezkeela dio Ondarrak, bestalde.

4.7. Zorionez euskaltzain bakaikuarraren ikerketek beste fruitu bat ekarri digute berriki eta Juan Martin de Ibero (1729-1783) Munarrizko idazle goñerritarra ezagutzeko aukera izan dugu. Joakin Lizarraga baino lehen hasi zen euskal predikuak idazten, eta beraren idazkietarik zazpi Satrustegiren eskuetara iritsi diren Muruzabalgo sailean daude; beste hamasei Munarritzen agertu eta Aita Intzaren esku izan ondoren Ondarrak berak ditu.²⁰ Berriki ezagutu dugun idazle honexena da «Ororbia 1758» izendatzen den idazki orain artean arazotsua. Orain badakigu XVIII. mendeko lehen herenean Munarritzen sortu goñerritar batek Oltzako Izun 1755-1774 bitartean euskal predikuak idatzi eta predikatu zituela. Ondarrak dioenez (1996: 254-7), gainera, darabilen euskara Munarritzen ikasi zuena da funtsean, «Izu aldekoa ere aprobetxatzen duelarik». Iberoren idazkietan Bonapartek Oltzan nahiz Goñin bildu lexikoko aldaerak ageri zaizkigu; adizkietan berriz, aldaera zaharragoak ageri zaizkigu Iberorengan Bonapartek Goñin bildu zituenak baino; honela dio Ondarrak: «Oltzan eta Goñin ez bezalako adizkiak ipintzen baitira, jasoago edo estandardagoa pentsa lezakeen erregistroa erabiltzen zuela» (1996: 254).

4.8. Goñerrian agertutako testuetan badira Goñerriko hizkerakoak diren ezaugarri franko eta baita Baztango eta Gipuzkoako ezaugarri ugari ere. Testu hauetan xeheki azertu beharko litzateke eragina. Baina ez bedi pentsa *esan* eta *det* aldaerak

(20) Guk ez ditugu idazki horiek ezagutzen baina adierazi digutenez 1996ko ASJU 30/2-an argitaratzekoak dira.

alkarrekin agertzeak «gipuzkeraren eragina» edota zalantzarik gabeko «apez giputz baten sudur sartzea» salatzen dutenik. Goñerrira hurbil, Ergoienean edo Sakanako leku anitzetan arrunta da *esan* aldaera; Beriain eta Lizarraga idazleek *erran* aldaera erabili zuten arren, Iruñetik ez urrun, Antsoingo zendeako Añezkarren, Itzako zendeako Eritzen eta Saratsan, eta baita Irurtzunen eta Arakilgo Uhartan ere, *esan* erabiltzen omen zen Bonaparteren garaian (Mitxelena 1977, 296.or., 28. oh.). Horrez gain, Lizarraga, Unanu eta Dorraon *dezu* 'duzu' nahiz *dezie* 'duzue' ageri zaizkigu bigarren pertsonarako; behin Arbizura ezker *duzu* eta *duzubie* ditugu (Gaminde 1985). Oro har ezaugarriak guztiak aztertu beharko lirateke, ez soilki aldaera bat edo beste. Garbi ote dago testu hauetarik batzuetan *bezela* aldaera agertzea —eta ez *bezala* edo *<becala>*— Gipuzkoako eragina dela? Zergatik ez da inguru horretan berean asimilazio aurreratzaileak eragin berrikuntza bat bailitzan ikusten ahal? Ez ote zuen Bonapartek berak (Ondarra 1982: 173) Goñin *bezela* bildu?

4.9. Ibar batzuk mende honen hasieran erdararatu dira —Goñerria, Oloibar, Itza—; beste batzuk —Arakil, Gulibar— hizkuntza heriotze egoera gorrian daude; idatzizko datu garaikide homogeenorik ez dugu; testuak nahi baino urriago dira; inkesta homogeenoeak egiteko baldintzarik ez dago; soziolinguistika historikoaren ukitua duen azterketa filologiko eta dialektologikoa egin beharko litzateke kontserbatzen ditugun idazkien alorrean, polimorfismo maila nabarmena ageri baitute. Heriotze egoeran dauden hizkeretako ahozko datuetan ere polimorfismo gaitza —usu susmagarria— dago (Irañeta, Murgindueta, Ihabar), isoglosen aldaketa dakarrena (cf. Mitxelena 1977: 170, 7. oinoh.); berdin Urritzolako egungo euskararen ere.

Hainbat interpretazio argudia daitezke azken gai honetarako: batetik prestijioarena dugu; honela, Arakilgo ekialdeko hizkerek *esan*, *ostegun* edo [*xan*] 'jan' bezalako aldaeren aldeko isuria izan dute orokorra dirudien prestijio-norabide edo literatura-norabidean. Ez da aiantzi behar mende honen hasierako *Erizkizundi*-ko emaitzetan Irañetan *xan*, *xakin*, *xegi* eta *ortzillere* aldaerak ageri direla eta badakigu *erran* Arakilgo Uhartetik eskuin erabiltzen zela (Satrustegik ahoz esana). Hala ere, konplexua da irudia; arestian aipatu dugun legez, Bonaparteren garaian Arakilgo Uhartan, Irurtzunen, Itzako Eritzen eta Saratsan eta Antsoingo zendeako Añezkarren *esan* erabiltzen baitzen, ez *erran*. Koldo Artola ikertzaileak *esan* aldaera bildu du mende honen bukaeran Urritzolan, eta Egiarretarako ere *esan* dakar EAEL-k. Gulibarko Larunben ere *esan* bildu du Artolak; hondarreko herri honetan *beste* da, bestalde, bildu den aldaera; Txulapaingo Beorburun, berriz, *erran* bildu du *bestze*-rekin batera eta Usin *erran* eta *bertze* & *berste*; baita, azkenik, *bestenáz* aldaera ere.

Mapa konplexua du Arakil aldeko ekialdeko euskararen egungo egiturak. Irurtzun alderdi horretako hizkera, Urritzolako esaterako, ez dakigu xuxen Irurtzundik eskuin dauden Gulibarko eta Txulapaingoekin batera gehiago ote doan, gainerateko Arakilgoarekin eta Iruñerrikoarekin baino. Hala balitz, Irañeta eta Ihabarko euskaratik Irurtzun alderdikora eten bat dagoela adieraziko luke honek, Urritzolakotik mende hasierako Irañetakora dagoen aldea zaharra dela, ez dela Urritzolako egungo hizkeraren berrikuntza sail bat, Irurtzun ondoan izanak eragina. Hartara, hau honela balitz, Ihabar edo Irañeta bezalako herriak, mende honen hasieran *erran* edo *xan* erabiltzen zutenak —Iruñerrian bezala—, soilik Andiaz gaineko Goñerriarekin edo

Oloibarrekin leudeke loturik ezaugarri hauetan; mendebaldetik, aldiz, Sakanako *esan* eleak eta [*xan*] hots belareak eta Gulibarko *esan* aldaerek inguraturik leudeke Irañeta eta Ihabar. Irurtzun, ez dezagun ahantz, Gipuzkoako, Larraungo, Basaburuko, Imozko, Gulibarko eta Txulapaingo euskaldunak bildu behar izan dituen gunea da, itxura guztien arabera hizkuntza aldaketetarako eremu emankorra; daturik eza nagusi da oraingoz, ordea, eta ezin dugu gauza garbirik atera.

Baina bada gehiago. Mende honetan Iruñerrian eta honen iparreko herrixketan euskara itzali izanak eta Irurtzun aldean ere azken hamarkadetan euskara indargabetu izanak, ekialdetik edota Iruñeritik zetorkien hizkuntz eragina moztu die Arakilgo ekialdeko hiztun euskaldunei, eta euskaraz egiten den lekuetako hiztunekiko harremanak beren ohiturak antzaldarazi ditu, Sakanako mendebaldera «begira» mintzatu behar izan baitute gehiago, Lakuntza, Arbizu edo Etxarriko euskaldunei begira, hain zuzen.²¹ Horregatik, uste dugu galtzeko zorian dauden hizkeretako hondarreko hiztunekin egiten diren inkestetan kasu eman behar dela, hizkera aldaketa prozesu dinamiko eta norabide bakarreko baten aitzinean egon gaitezkeelako.

Gure ustez, Irañetan mende hasieran zeuden ezaugarri batzuk aldatu izanak eta bertako euskarak Sakanako mendebaldekoa isuria hartu izanak lotura izan dezake Urritzolan eta Irurtzun aldean gertatu ahal izan denarekin. Murginduetan, esaterako, *esan* eta *erran*, biak bildu zituen Echaidek hiruretan hogeigarren hamarkadan, eta Mitxelenak ere 1956ko Uharte, Irañeta eta Murginduetako hizkuntza aldaketen norabidearen berri ematen digu. Gure ustez egungo Irurtzun alderdiko Urritzola eta Izurdiaga, esaterako, berritzaile izan daitezke eta Ihabarrek eta Irañetak jasan dituzten hizkuntza aldaketa prozesu beretsuen menpe gertatu ahal izan dira.

Honek ez du *esan* nahi Urritzola batek eskuinera dituen ibarretako hizkerarekin —Gulibar, Itza, Txulapain— loturarik ez duenik. Arazoa konplexua da, gainera. Gogoan izatekoa da hizkerak, dialektoak, ez direla aldaketa diakronikorik gabe irauten duten mintzatresnak. Ezkabarteko 1828ko dotrinan **j*-ri dagokion hotsa txistukari sabaiaurrekoa da —*satera*, *ssauchi*—, baina egungo mintzoan frikari sabaikaria ageri da sistematikoki Artolaren Anozko grabazioetan (cf. Ibarra 1995: 282). Dotrina horretan *daus* ageri da, baina egungo mintzoan *euri* bildu du Artolak Anotzen. Txulapaingo Usin eta Beorburun ere frikari sabaikaria ageri da egungo mintzoan eta *eu* diptongoan bi sailetako adibideak ditugu hizkera honetan: Usin *eguri* 'euria' dago eta Beorburun *euri*, baina *berráun* eta *berréun* ditugu herri berean (Artola 1992: 216). Arrazoa dago mende honen hasieran Txulapainen gauzak Iruñerriko antzera izan zitezkeela pentsatzeko: Nabazko *Erizkizundi*-ko datuetan ez da ageri frikari sabaikaria behin baizik: *yain* 'janen'; txistukari sabaiaurrekoa da nagusi: *xan*, *xaiki*, *xain* 'janen'. Bestalde, *au* dagokio *eu* diptongoari, ez *eu* kontserbatzailea: *aurie* 'euria', *daus* 'deus'.

Nabarmena da Irurtzun alderdia trantsizio eremua dugula: bertan Bonapartek *zaidé* 'zait' & *dakit* adizkiak bildu zituen, esaterako. Irurtzuna hainbat ibarretako hiz-

(21) Antzeko zerbait sumatu uste izan dugu azken urteotan Nafarroako beste ertzean. Aurizko azken euskaldunen artean halako kutsu «Luzaidetako» hauteman dugu guk; lehenik Erroibar eta berehala Aezkoa erdararatu direnean, Luzaidetik etorri zaie euskararen agerpen bakarra, eta haiei begira mintzatu behar. Badirudi Aurizko XIX. mendeko gutun batean ere sumatzen dela Luzaideko euskararako isuria —J. A. Irigarayk Kike Diez de Ultzurruni kontatua—.

kuntza-joerak bildu dirateke, berrikuntzak eragin dituzketenak eta inguruko mintzoaren egonkortasuna hein batez «ukitu» duketenak. Bestalde, Iruñetik Irurtzun aldera dagoen eremuko euskarari buruz ez dugu behar hainbat berri eta honek egin beharreko interpretazioak zailak eta arriskugarriak bihurtzen ditu ezinbestean.

Eman dezagun adibide inozo bat: Burunda, Ergoiena, Aranatz, Lakuntza, Uhar-te, Irañeta, Murgindueta eta Ihabarren: *eu* > *au* bilakabidea dago. Urritzolan, berriz, *euri* aldaera bildu du Artolak, eta beste hauek eskuinerago: Larunbe (Gulibar): *euri*, Beorburu (Txulapain): *euri*, Usi (Txulapain): *eguri*, Anotz (Ezkabarte): *euri*, Ziaurritz (Odieta): *eguri*, Olaitz (Olaibar): *euri*. Honen guztiaren aitzinean Urritzolako *euri* horrek koherentzia luke, baina zalantza gelditzen zaio bati zenbateraino den fidagarria. Euskarazko datuak biltzeko gaitasun handirik ez zuen batek egindako lanean, Urritzolatik eskuin, Irurtzun ondoko Izurdiagako etnografiako gaiak landu dira eta bertan agertu diren euskal hitzen zerrendan *autziye* 'trillo', *autziyetu* 'trillar', *aulie* 'mosca' eta *auria* & *auriye* 'llyuvia' ditugu (Idoy 1981b: 198). Izurdiaga eta Urritzola elkarren aldakan dauden herriak ditugu, hain zuzen Izurdiaga Urritzolatik ekialdera dago, Arakil ibaia iragan eta berehala.

Honezaz guztiaz gain, Urritzolan berean *euri* eleaz gain *dause* 'deus ere' agertzeak (NEM I, 77) *eu* > *au* bilakabidea egon litekeela adierazten digu; lekukoa, gainera, Artolak zehatz eta ohiko arretarekin oharrarazten duenez, aldaera batzuk «zuzentzen» ahalegindu da erantzunak ematean, eta ezin ahantz daiteke lekukoak, aita Arakilgo urritzolarra zuen arren, ama Larraungo albiasuarra zuela; lekuko bidialektalaren adibide nabaria dugu hau. Itxura guztien arabera, gainera, hizkuntza aldaketetarako joera eta isuria nabarmena izan da Arakil alderdi horretan mende honetan zehar. Gainera, ez dago zertan ukatu Urritzolan *eu* > *au* bilakabidea nahiz *eu*-ren kontserbazioa, bi ezaugarriak batera, noiz nola erabiltzeko aukera; honelako gertakariak hitzunen ezaugarrien arabera neur daitezke soilik eta gu ez gaude hori egiteko moduan. Aitor dezagun, halaz ere, dialektologian eguneroko ogia direla kontu hauek guztiak eta usu honelako datuak baliatuz lan egin beste biderik ez zaiola gelditzen bati.

4.10. Goñerriko testutzat hartu ditugun idazkiak sinesgarritasun handiena eskaintzen zigutenak dira; ez dira Munarrizko bilduman agertu diren testu guztiak Goñerrikotzat hartu, Bonapartek inkesta bidez 1869an Donibane-Lohizunen Vicente Gulina goñitarrarengandik erdietsi datuetara gehien hurbiltzen direnak baizik. Baita, jakina, goñerriar direla dakigun apezten testuak ere, J. Markotegi edo J. M. de Iberorekin gertatzen den bezala, nahiz Markotegiren idazkian kanpoko hizkuntza ezaugarri franko dagoen. Jarraian, Goñerriko hizkeraren atalak biltzeko eta deskribatzeko baliatu ditugun idazkien zerrenda ematen dugu, Goñerriko benazko testutzat har ditzakegunena hain zuzen:

1. *Le Cantique des Trois Enfants*, Bonapartek 1869an argitara emana. Aurrerantzean: *Le Cantique*.
2. Goñiko ebanjelioa (Ondarra 1987). Aurrerantzean: (Eb).
3. «Ororbía 1758» izeneko testua, J. M. de Ibero Munarrizko seme eta Oltzako zendeako Izu herriko apez izan zenak idatzia (Satrustegi 1987 & Ondarra 1995). Aurrerantzean: (Ib).

4. Joseph Markotegi goñitarraren 1777ko Olloko predikua (Knörr 1992). Nabarmen dago idazle honek Goñerrikoak ez diren hainbat aldaera erabili zuela, baina idazkiko gehienak bere hizkerakoak dira. Aurrerantzean: (Mar).
5. Urdozko 1687ko zina (Satrustegi 1987). Aurrerantzean: (Ur).
6. «Bost predikua eta Elizakoak» izendatu duguna (Ondarra 1991). Aurrerantzean: (Pre I, II, III, IV, V) eta (Elizk). Agian XIX. mendekoak dira.
7. «Muruzabal 1751» izendatu duguna (Satrustegi 1987). Aurrerantzean: (Mur). Dituen bi ataletarik soilik bigarrenak du Goñerriko hizkeraren eitea (85-91 or.). Ezaugarri anitzetan J.M. de Iberoren hizkeraren iduria da bertakoa.
8. Ez ditugu ahortzi mende honen bukaeran bildu diren toponimoak eta fitonimoak (Nafarroako Gobernua 1993 eta Irigaray 1982).

4.11. Gainerateko “Goñerriko” testuak ez ditugu kontuan hartu, lokalizazio arazoz beterik baitzeuden: Goñerrikoak ez diruditen hizkuntza aldaera sobera ageri zuten eta susmatzeko arrazoi ugari eskaintzen zuten. Anitz dira baztertu ditugun idazkiak, eta nahiago izan dugu estutik aritu ezen ez zabalegi jokatuagatik azterketa lana zalantzaz eta fidagarritasunik gabeko datuez zamatu. Esaterako, “Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)” Goñerriko testu gisa ageri dira (cf. Arakama 1994: 576), baina hurrengo hizkuntza ezaugarriak ageri dira testu horretan: *arrazobe*, *cechan* ‘zitzan’, *bida* ‘bi’, *izattea*, *gogortasona*, *osason*, *dizutet*, *ezaiteala*, *guendu*, *esclabozat*, *dituzutela*, *dan* ‘den’, *esan*, *embestizecoz*, *eche*, *guiti*, *garachu* ‘garaitu’, *verezat*, *zeruda* ‘zerura’, *eizlari*... Horrelakoak Goñerrikotzat ez hartzeko asmoak bideratu gaitu hertsiki jokatzera.

Gure borondatea soilik Goñerrikoak diren ezaugarriak bereiztea baldin bada ere, horrek ez du adierazten, nahitaez, geure datuen artean ediren daitekeen oro ziur-ziur Goñerrikoa zenik; Goñerrikotzat erabili ditugun testuetako ezaugarri guzti-guztiak Goñerrikoak zirela xeheki ziurta daitekeela pentsatzea inozokeria da, baina hori izan da geure urratsak bideratu dituen asmo nagusia. Esate batera, bera sortzez goñitarraren arren, nabarmena da Markotegiren testuko ezaugarri anitz ez direla Goñerrian erabiltzen zirenetarik, baina Goñerriko aldaera ugari dago idazki horretan eta idazlea ezaguna dugu.

Hona hemen, beraz, baztertu ditugun idazkien zerrenda, oro har Ondarra argitaratzaileak eman dien izena gordeaz:

1. Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753), (Ondarra 1989). Ez dirudite arras Goñerrikoak.
2. Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.), (Ondarra 1990). Gipuzkoako aldaera ugari dakar.
3. Goñerrin aurkitutako testuak (IV), (Ondarra 1992). Sobera arazo ageri da, ez dirudi Goñerrikoa berekoa.
4. Goñerrin aurkitutako testuak (V), (Ondarra 1993). Goñerrikotik eta Gipuzkoako mintzotik du.

5. «Goñerrin aurkitutako testuak» saileko (vi), (Ondarra 1994). Aurrerantzean: (Tes VI). Bada idazki honetan literatura ukitutto bat, eta beraz, Goñerriko ahozko hizkerako ezaugarri batzuk falta ditu. Hasieran gure corpusera sartzeko asmotan izan baldin bagara ere, hondarrean estu jokaturik ez sartzea erabaki dugu. Ezin uka, ordea, ugari direla idazki honetan Goñerriko hizkerako ezaugarriak.
6. Goñerrin aurkitutako testuak (VIII), (Ondarra 1993b). Nafarrera da, baina ez dirudi bereziki Goñerrikoa.
7. Goñerrin aurkitutako testuak (IX), (Ondarra 1993c). Bi idazki dira eta Goñerrikotik nahiz kanpokotik du lehen testuak (303-305). Bigarrena (306-309) Goñerrikotzat jo liteke: bertako ezaugarri multzo nabarmena du, Goñerriko moldeetara arras inguratzen da; kaputxino batek idatzia izan daitekeela uste du Ondarrak (301). Halaz guztiz ere, testu honek arazo bat baino gehiago sortzen du: hegoaldeko alderdietan ageri diren bi ezaugarri dakartza, *zu & zitu* 'zuen & zituen' adizki laburtuak — Gesalatzan bezala— eta motibatiboko *-rgatik* atzizkia, zeinak (*h*)*argatik* edo *zergatik* izan dezakeen analogiaren sorburuan. Ezaugarri horiek biak batera soilik Izarbeibarko Utergako dotrinan ageri zaizkigu. Han ordea, esate baterako, *ure* 'hura' da erakuslea, ez testu honetan bezala iparralderagoko *ore*. Testu hau Goñerriko idazki fidagarrietara sartu behar dela erabakitzen baldin badugu, ondorioak dakartza honek ongi ezagutzen ez dugun eremu honetarako eta beraren banaketarako, gure ustez hegoaldeko hizkerak bereizteko balio duten bi ezaugarri —*zu & zitu* adizkiak eta *-rgatik* atzizkia— nahitaez iparralderagoko edo Goñerriko ezaugarritzat hartu beste biderik ez baitago. Ereduak markatzeko bi ezaugarri interesgarriren ahala ahultzeaz landa, beste arazo bat dakar erabaki honek: zergatik ez da Goñerriko gainerateko testu guztietarik bakar batean ere —edota Bonaparteren datuetan— *zu & zitu* edota *-rgatik* ageri? Batera nahiz bestera joko liteke baina edozein aukerak arriskua dakar. Hartara, zuhurtasunaren izenean testu hau Goñerrikotzat ez hartzea erabaki dugu.
8. Goñerrin aurkitutako testuak (x), (Ondarra 1993d). Baztangotik anitz duela dirudi.
9. «Langarika (17..)» izendatu duguna (Satrustegi 1987). Aurrerantzean: (Lan). Idazki honetan Iruñerriko euskara ageri da. Goñerriko ezaugarri ugari dakartza idazki honek eta geure testuen sailera sartzeko tentaldia izan dugun arren, Goñerrikoak ez diren ezaugarri bakan batzuk ageri direnez ez sartzea erabaki dugu azkenik.

4.12. Hizkuntza-ezaugarriei dagokienez, esan dezagun bukatzeko, geu ere tradiziozko banaketatik abiatu garelara: fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia eta lexikoa zein bere aldetik aztertu ditugu. Ahal denean bederen kontuan izanen dugu aztertzen den ezaugarria kontserbazio edo berrikuntza bilakabidea den. Bestalde, eta ohikoa denez, euskararen historian zehar izan diren aldaera

morfologikoen aukeraren barrenean hizkerek egin hautapenak ere bereiziko ditugu hala behar duenean.

Geure eremuan irudikatu nahi dugun banaketarako hizkuntza ezaugarri batzuk hautatu ditugula esan dugu. Ezaugarriak eremu espezifiko honetarako behar genituenek Koldo Zuazok nafarrera deritzan euskalkia definitzeko erabilitako bostak (1998: 215-6) ez ziren aski guretzat. Orreaga Ibarrek Nafarroa erdiz erdi ebakitzeko baliatu zituen batzuk ere aprobeitza zitezkeen (1995: 690), baina ez beren horretan. Geure eremura pixkirrin bat inguratutik, Iruñerriko hizkera aurkezteko Patxi Salaberrik (1996) hautatu ezaugarriei so egin diegu; hauekin hobekixe molda gaitzke, baina beste ezaugarri batzuk gehiago ere erantsi behar izan dizkiogu sail horri.

Eremu honetako testuak eta hizkuntza datuak ahal bezain xehe aztertu ondoan aukeratu ditugu ezaugarri kontrastiboak; ezaugarriok datuetarik ondorioztatu dira, ez dira alde aurretiko ustekizun batzuetarik atereak. Honenbestez, eta ezaugarri kontrastiboak aurkeztearekin batera, Goñerriko hizkeraren ikuspegi orokorra emanen dugu, uste baitugu bazegoela deskribapen horren beharra. Adibide bat ematea aski izanen da. *Orotariko Euskal Hiztegia*-n, (An-olza) zakura sartu dira Goñin Bonapartek bildu eleak eta honela ezin bereizi dira Oltzako eta Goñiko hitzak. Jokabide honen oinarrian Bonapartek Goñiko euskara Oltzako sailera bildu izana egon liteke, baina ez dezagun ahantz badagoela beste ikuspegi bat ere, Goñerriko hizkera eta Oltzako zendeakoa sail banatan ezartzen dituen (Yrizar 1992: 494-5).

5. Goñerriko hizkeraren ezaugarriak

5.1. Fonetika-fonologia

5.1.1. Bokalak

5.1.1.1. Goiko bokalen ondoko silabako beheko bokalean hurbileko asimilazio aurrerakariaren maila handia dago Goñerrian: *San Luques* irakurtzen dugu ebanjelioan (129). Hitzen oinarria aldatu du bilakabideak, ez da soilik mugatzailea eransten den eremukoa: *ziller, illebeta, iller, illeraka* 'ainarra, txilarra', *argizegi, aite, igende, indertsu, ikeratu, ikesi, iketz, illergi, irekin, izen & izendu* 'izan', *larumbet, sukeld, buler, ude, udere, ugelde, uketu, zuger, zuletu, zumerike* 'zumea', *zurruke* 'zurrunka', *aztiger, egundeño, gize-txar, elize* —baina Gesalazko Muzkin *eliza*—, *urketu*... Ez du mugarik aurkitzen bilakabideak beheko bokala duen eleari *bat* edo *batzuk* zenbatzaileak jarraitzean: *eramo zue Elizeco paraje goyti betera* (Ib, 180), *paratu zizquio arri bezuc aurre[an]* (Ib, 180), *siñuetes* (Ib, 107).²² Ezta deklinabideko adlatiboko atzizkia lotzean ere: *infernureco* (Ib, 105).

Hitz eraketaren eremuan elkartzen diren bi hitzen muga izateak edota zenbait eratorpen atzizkik inoizka bilakabidea baliogabetzen dute (cf. Ortiz de Urbina 1986): *itsutasun* (Ib, 178), *mintasuneren* (Ib, 108), *arguitasun* (Pre III, 152), *martinsalto, txintxilinkarda* 'kilkerra', *goiztar* —ordea, Olo herrirako *goiztertu* dakar *Erizkizundi*-ak, nahiz Bonapartek Gares, Oltza eta Goñin *goiztar* bildu zuen—; gisa berean, Arakilgo Izurdiagan ere *goizter* bildu da (Idoy 1981b: 201), eta Ana Maria Echaidek ere aldaera hori bildu du Arbizun (EHHA).

(22) Eskuin, Ezkabarteko dotrinaran ere bada bilakabide hori: *escu betean* (390).

Dena den, *-garren* atzizkiaren kasuan asimilazioa dago: *iruguerren* (Ib, 177), *lauguer[r]en* (Ib, 105). Baita *-ago* konparatiboarenean ere: *andiegoac*, *niego* (Ib, 106 eta 108). Konpletiboko atzizkiarekin antzera gertatzen da: *dugule* (Pre II, 146), *induleia* ‘egin duela eta’ (Pre I, 142). Asimilazio hau jasan dezaketen aurrizkien artean *ba-* balintzazkoa dugu Markotegiren adibidean: *gustioc nai bedugu ... conseguitu* (227).²³

Asimilazioa itxura berriko erdal maileguetara ere iristen da, baina ez guztietara; ez dago erraz adibide guztiak besarkatzeko moduko erregela aurkitzea: esaterako, datuetan *ijada* ageri da, ez **ijeda*, nahiz *urekan* dugun eta ez **urakan*. Hona orain bilakabidea jasan duen mailegu sorta bat: *ziudede*, *isle*, *arimele* ‘animalia’, *bille* ‘villa’, *eride* ‘herida’, *fritetu*, *frute*, *fuñe* ‘lepatxuria’, *ginde*, *letxuge*, *lime*, *mule*, *pisetu*, *plume*, *pregunte*, *primedera*, *juntetu*... Juan Martin de Iberoren testuetan *Erregue Espeñeco* ageri da (105), eta prediku batean *bevide venenosoac* (Pre II, 149). Hurrengo ere nabarmena da: *bentures* (Pre III, 155).

Aldameneko Gesalazko Muzkiko XVIII. mendeko testuetan ageri den egoera ez da guztiz berdina; agian ibar hau bilakabidearen sorgunetik Goñerria baino baztertua- go egoteak baduke zer ikustekorik. Goiko bokalek eragin asimilazioa bada —*yguzquie eta illarguie*, *gauceric ocultoenac*, *pensamentu guciec*, *azpien*, *ermosure*, *erresucitetu* (Lecuona 1973: 374-5 bitarteko adibideak guztiak)—, baina ez du Goñerrian bezainbat indar; asimilatu gabe ageri da hitzaren barrenean beheko bokala —*izarrac*, *gloria*, *anima*— eta baita atzizkietan ere hainbat kasutan: *lecura* —baina *mundure*—, *ecubietaco* (sic), *seculaco*, *divala*, *andibatequi*; inoiz mugatzailea lotzean ere asimilaziorik gabe jarraitzen du: *topatuco dituzte veren corpuzac* (374-5 bitarteko adibideak guztiak). Elizalderen 1735eko dotrinaran ez zaigu asimilazio hau ageri.

Erizkizundi-ak dakarrenez Ollo herrian bazegoen hurbileko bokal asimilazioa: *éskue*, *égie*, *il de*, *litzeke*, *inder*, *goiztertu*, *orduen*, *egun betes*, *mendire*, *iturrire*, *estulke*, *dauket*. Oltzako Iberoko otoitzean sumatzen denagatik ematen du badela bokal asimilazioa baina ez Goñerrian hainbatekoa: *urriquerituric*, *didena* ‘didana’, *gloriera*, *dauquet* ‘daukat’, *dituden*, *Purguetorioco*, *ceruen*, *ure & ura* ‘hura’, *nauzuleric*, *icendu*, baina baita *izan* ere. Aurkako bidekoak ditugu hurrengo adibideok: *vicia*, *minzatu*, *icaraturic*, *izardi*, *bigarren*. Hurrengo adibidean analogia zenbait gertatu ahal izan da: *dizquidelaric*. Itzako zendean asimilazioa zegoen *Zubipuntecoa* toponimoak erakusten duenez.

Izarbeibarren ere asimilazioa bazen; Utergako dotrinaran hurrengo adibideak ditugu: *becatuac* ‘bekatuak, absolutibo pluralean jokaturik’ (209), *Jangoicue* (210), *cerueren* (203), *lurreren* (203), *digule* (207), *duguleric* (211), *iñiquen* (216), *barin beda* (209), *escuiteco* (205), *fundetu* (216), *garizume* (205). Halaz guztiz ere, Izarbe ibarreko asimilazioan berezitasun funtsezko bat bada, eta honen adibideak hala Utergako dotrinar nola Garesen bildu lekukorasunetan ageri dira.²⁴ Arestiko adibideetan ikusi dugun legez, asimilazio hau goiko bokalen ondoan gertatzen da, baina baita erdiko *o* bokalaren ondotik ere: Utergako dotrinaran *Demonioe* (207) edota *sabioe* (210) ditugu. Garesko berri Escalonilla herriko de Carlos izeneko apezak eman zuen 1806an (Apat-Echebarne 1974: 75):

(23) Ezkabarteko Makirriaingo dotrinaran ere *balimbedu* ageri zaigu (381).

(24) Basaburuko Berueten *beórrék* ‘behorrak’ bildu da absolutiboan (EHHA).

Yo experimento lo mismo en Puente la Reyna en donde no dicen *gizona* sino *gizone*, singular; no *ardoac*, sino *ardoec*, plural y algunos *ardoic*...

Uste dugu, bestalde, Martínez de Morentinen Muzkiko testuetan ageri den *arracioec* adibidea sobera guti dela bilakabide hau Gesalatzan ere bazela argudiatzeko: *Cer nauzu bada? Peregitu eta condenatu seculaco? Eztare; bada baliezala arracioec; eztago medio-ric icusi duzun vezala* (378).

Mendiaz bestaldean ere goiko bokalek eragin asimilazioa bortitza da: *ziri betzuk* (Dorraon Koro Seguroiak bildua, EHHA), *elize, garizume* (Lizarraga), *indderra, bite-neun* 'berrehun' (Etxarri), *inder, izen* 'izan', *zazpiñe* 'zazpina' (Irañeta), <*animeren*>, <*excelencieren*> Gastesi irañetar semearen 1850eko testuan (Ulayar 1987: 57), *makill bet* (Ihabar), *trípek, lárrue, ongárrie, lúrrre, ziri bet* (Urritzola, EAEL), *bizkerra, aulie, andregeye, abuztube, aitzurre* (Izardiaga), *juntetzen* (Gulibarko Larunbe). Arakildik ekialdera goazen ber asimilazio joera honek ez du etenik. Ergoienetik ezker Burundan asimilazio mota honek dituen baldintzetarako (ikus Zuazo 1994: 309). Aldiz Larraunen asimilazioa guztizkoa da: *malluu* 'mailua' (Intza 1957: 92).

Testu zaharretan asimilazio hau ez agertzeak galdera sortzen du gugan: edota bilakabidea ez zen emankorra Beriainen eta Elizalderen garaian edota literatura ukituak eragin zuen asimilaziook dotrinetan ez agertu izana. Gesalazko arazoa nabarmena da: Martínez de Morentinen testuetan (1777) asimilazio maila nabarmena dago eta Elizalde berrogei bat urte lehenago ez dakar honen arrastorik bere dotrinan; iduri luke idazlea jabetzen dela argitaratzeko den dotrina horretan bilakabide horiek ez dutela lekurik. XVII. mendeko bigarren erdikoa dirudien Urritzolan agertu testu batean berriz, bada asimilazioa: *maravilles, Jaune, Ostie, azpien, dizuden, jaquiñiquen, yzen* 'izan'. Halaz guztiz ere literatura ukiturik ez duen Goñerriko Urdozko zinean (1687) ez dator asimilazioaren arrastorik (cf. Melero & Múgica 1994: 445).

5.1.1.2. Kontsonante ozen bustien ondoko beheko bokala palatalizatu daitekeela ikusiko da hurranen adibideetan; adibide guztietan asimilazioa aitzineko norabidekoa dela dirudi, ez du ematen gibelerantz gertatu denik, adibideren batean zalantza egon litekeen arren. Zenbait kasutan kontsonante bustira urtu den aurretiko *i* batek ondotik duen beheko bokala asimilatu duela pentsa liteke, *telletu, oñeze, muñe* edo *gazañe*-ren kasuetan bezala; beste batzuetan, berriz, kontsonante ozen sabaikariaren aitzinetik dagoen diptongoan palatalizazioa edo are soilketa gertatu dela kontu egin liteke: *ai > ei > e*, eta honela azaldu *oreñik, erreñe* 'erraina' —J. M. de Iberok ere *erreñe* dakar: *erreñe guciogui* (105)—, edo *erreñu* —hala 'tximista' nola 'pertsonearen itzala'—; esaterako, *gueñetic* dugu Bonapartek Goñin bildu *Le Cantique*-n, baina *gueñen* Juan Martín de Iberoren idazkietan (100).²⁵ Badirudi muga adlatiboan ere bilakabidea gertatzen dela; hona J. M. de Iberoren adibide bat: *echeco manejue azqueneco atsarçereño* (109). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere *-reño* dakusagu: *eriocereño* (207), *soñeguireño* (211); Garesen, ordea, *gañean* eta *lañuac* ditugu *Le Cantique*-n.

Erdararikako maileguen kasuan ordea, ezin *i*-ren eraginik argudia daiteke, eta ageri zaigun palatalizazioa kontsonante ozenak eragin —eta aitzinerantz eragin—

(25) Hegoalderago *Legargaña* izena dugu Etxaurin, nahiz toponimia ez den honelako bilakabideen berri izateko eremurik egokiena (Ollaquindia 1997: 258).

duela pentsatu beste biderik ez dugu ikusten: *telarañe, bañetu, donzelle, kañe, lagañe* 'legaña', *goñeta, goñetu*. Ez da ikusten, ordea, gibeleranzko asimilaziorik: *estañu, kas-kallu, kallu* 'callo', *mallu, malluke*. Ez dugu uste *engeñetu*-ren kasuan bigarren *-e*-horretarako kontsonante sabaikariak eragin gibeleranzko asimilazioa aipa daitekeenik, aitzineko *e*- horrek nahiz ondoko *-e*- horrek asimilaturik egon baitaiteke, eta ez kontsonanteak nahitaez. Bestalde, literaturan bada prediku batean *engañetu* ere (Mur, 88). Juan Martin de Iberok ere badu antzeko adibide bat: *acompeñecen* (101); adibide honetan iduri luke *ñ* ondoko erdiko bokal palatal "asimilatuak" gibelerantz asimilatu duela aitzinean duen beheko bokala; aiseago argudia liteke honela, sudurkari sabaikariak gibelerantz asimilatzen duen adibide bakarra balitzateke bestela; dena den, cf. Salaberri (1994: 8).

Gesalatzu dagokionez muga adlatiboko aldaeretan *-reño* arrunta dela aipa daiteke: *pensamentu oculotoetereño* (372). Bada, bestalde, *oreño* aldaera ere (378). Beste adibide batzuetan zabuka dago: *du oreñec propiedadde bat* 'oreinak' batetik, baina *oreña juaten den vecala* bestetik (380). Oltzan kontsonante sudurkari sabaikariak *bañetu* eta *engañetu* mailegutan beheko bokala palatalizatu duela dirudi. Izarbe ibarreko Utergako dotrinan, berriz, *ceñecen* 'zeinatzen' ageri da (Ondarra 1980: 211), eta lehen silabako *e* horrek ondokoa asimilatu ez baldin badu, sudurkari sabaikariak beheko bokala asimilatu duela pentsatu beharko da. Ordea, ez dago honelakorik Bonaparteren Garesko eta Elkanoko datuetan: *oñaze, kaña, bañatu*; baita, bestalde, *lastalla* (Elk), *gastaña* (Elk) & *kaztaña* (Gar), *mallu* (Elk) ere.

Mendiaz bestaldean ere badira antzeko asimilazioak, kontsonante ozen palatalen inguruan ageri direnak, baina hauetan ere, badirudi urtu den *i* bokalak eraginik dau dela: *geñen* (Irañeta), *mellu* 'mailua', *larreñ* 'larraina', *zeñe* 'zaina' (Lizarraga), *atalgēna* 'etxeko ate nagusiaren goiko atala' (Dorrao), *méllak* 'mailak' (Dorrao).

Hurrengo adibidean kontsonante palatalak ondoan duen beheko bokala goratu duela ezagun du: *óllerráikiñ, óllerrá, óllexkoá* (Dorrao). Litekeena da EHHA-rako Ultzamako Suarben bildu den *bortz péñe* 'bost peña, bost haitz' aldaeran ere asimilazioa aitzinerantz gertatu izana.

Ergoieneko beste hauetan, berriz, kontsonante palatalak ondoko bokal palatala irentsi du: *bálla* 'ballea, ibarra' (Dorrao); *Goñaa* 'Goñira' (Unanu). Iduria da ekialde-rago Iruñe ondoko Txulapaingo Usin bildu den *ítzan* 'etxean' (EAEL, 200).

Azken adibide honetan ez dakigu despalatalizazioaren ondoko ibilbide hau dagoen —*dañu* > *dainu* > *deinu* > *deñu*— ala kontsonante palatalaren asimilazioa gibelerantz gertatu den: *dēñubak* 'dañoak, kalteak' (Dorrao).

5.1.1.3. *e - u > i - u* erako asimilazio atzerakariak Goñerriraino eta are Burundaraino iristen dira: *iguzki* eta *iduki* ditugu Goñin Bonapartek bilduak; bigarrenaren aldaera gehiago dugu testuetan: *idugi, irugi, iruki, igiri* eta *irigi*. Beste adibide bat ere badugu: *agirtu* 'agertu' (Pre II eta IV, Ib, Eb, Mar). Horixe bera da Utergako dotrinan ageri dena ere (219), idatzi zena hori baldin bada, Ondarra argitaratzaileak ez baitu arrunt garbi zer ageri den; Beriainek *aguertu* dakar (1621: 55). Olloibarren *iruki* dugu, Utergako dotrinan *irugi* eta *agirtu*, eta Garesen *iguzki* eta *iruki*; Elkanon *iruzki* eta *iruki* & *yuki*. Mendebalderago *yguzquie* (374) eta *idugu* (383) ditugu Gesalatzan, eta mendiaz bestaldera *iruzki* Arakilgo Irañetan, Ergoie-

neko Lizarragan, Dorraon eta Unanun eta baita Altsasun ere; Lizarragan *idui* 'eduki' dago; Lakuntzako prediku batean *udiqui* metatesiduna ageri zaigu (Sarrutegi 1987: 232) eta Arakilgo Urritzolan *iukitzen* 'edukitzen' bildu da (EAEL). Eskuin, Txulapaingo Nabatzen ere *iduki* dugu (Erizk.) eta baita Ezkabarteko dotrinan ere (395), baina *eúkitze* 'edukitzen' bildu du Artolak Gulibarko Larunbe herriko Oraien auzoan.

Bestelako asimilazioetan *aingiru* dugu Goñerrian eta Oltzan —Garesen eta Elkanon *angiru*, eta Gesalazten <*aingueru*>—; asimilatu gabeko <*Aigeru*> dakar Gastesi irañetarrak XIX. mendean eta <*aingueru*> dakar Aralarren aurkitu sakaneraz idatzi 1833ko predikuak ere (Sarrutegi 1987: 201). Arakilgo Ihabarren *aingeruek* dakar Artolak. Ezkabarteko dotrinan *aingeru* (395) nahiz *aingiru* (391) ageri dira eta Odietako Ziaurritzen biak bildu ditu Artolak. Beriainek hala *aingueru* nola *ainguru* dakartza.

5.1.1.4. Ez da *u* bokala Nafarroako ekialdean bezala palatalizatzen: *zuletu* 'zulatu' eta *bargazulo* ditugu Goñerrian eta *Azarizulo* toponimoa Olloibarko Artetan (Bidador 1992); Ollon *zulo* bildu zen (Erizk.). Etxaurin *Iturzuloeta* dugu (Ollaquindia 1997: 258). Elkanoko Lizarragak ere *zulo* & *zulotto* darabiltza, baina baita *zilatu* ere: *Egia da, zistatzen ta zilatzen du tela orratzak, baña zistatus ta zilatus aisatzen du bordadura* (Ir aizoz 1979: 328). Izarbeibarren *Arzuloa*, *Orsozulo* edo *Azarizulo* ditugu (Garesko Udala 1993) eta beheitixeago *Azarizuloa* eta *Garizuloa* ditugu Artaxoako toponimian (Jimeno Jurío & Salaberri 1998). Eskuinaldera oraino *zúlua* dugu Ezkabarteko Anotzen. Baztan-Erroibartik eskuin *zilo* dago.

Bestalde, *buluxi* adibidea dugu Goñerrian, asimilazio atzerakariak labializazioa eraginik; Beriainek *billosiric* dakar (9), baina 1828ko Ezkabarteko dotrinak *bulusiec* (382). Badira adizkietan disimilazioaren ondorioz sortu palatalizazioak —Beriainek *naygula* 'nauzula' dakar (95B)²⁶—, baina Goñerrian ez da, dirudienez, honelakorik ageri, baina Anditik bestaldera Ergoienean palatalizazioaren zantzuak bildu ditu K. Seguroiak: *fan bié izu; prodúzitu izún... lóyá* (EHHA). Inoizka ageri da *gizi* 'guzti'-ren adibide zenbait gure eremuan: Gesalazko testuetan bada, nagusi *guci* den arren: *gauce temporale gicietatic* (383). Markotegik ere *guichi* dakar: *cerengatic gaiz guichiego da eramán dezan...* (237).²⁷

Ezaguna denez Nafarroako erdialdetik ekialdera hasten da agertzen *-tuko* > *-tiko* palatalizazioa: Ultzama, Baztan, Esteribar eta Erroibarren ezagunak dira. Gure inguruan geografiaren arabera Txulapaingo Usin ageri da bilakabidea: *kanbiátiko*, *pástiko* (EAEL, 200); ondoko Olaibarko Olaitzen ere badugu: *soñétiko da* 'sonatuko da, joko da' (EAEL, 203) eta baita Odietako Ziaurritzen ere: *konpóndiko* (Artola 1992: 217). Ezkabarteko Anotzen ere bada: *aitíko* 'adituko', *paratíko* 'paratuko' (Artola 1985: 103 eta 109). Handik ezker ez zaigu ageri; Goñerriko, Gesalazko, Oltzako eta Eguesibarko testuetan ez dago alerik ere.

5.1.1.5. Kontsonante sudurkariaren ondoko erdiko bokal biribil belarea ez da igotzen Gipuzkoako hizkeran bezala Goñerrian, baina bai Ergoieneko Dorraon eta

(26) Ekialdera, Aezkoan eta Erronkarin ere badira honelako gertakariak (Camino 1997: 299).

(27) *interesa guiti vatengatic* eta *bana orduen guitiago lembaño* dakartza «Muruzabal (1743)» izendatzen den predikuak (Sarrutegi 1987: 75 eta 77).

Lizarragan, Arakilgo Uharteko dotrinan (596), Irañetan (Erizk.) eta Lakuntzako predikuan: *nun / non* (Goñerria, Olloibar, Oltza, Gares, Elkano, Utergako dotrina, Txulapaingo Nabazko inkesta, Makirriaingo dotrina).

5.1.1.6. Nafarroako beste eskualde batzuetan bezainbat indar eta maiztasun ez baldin badu ere, sinkoparen bilakabidea bada Goñerriko hizkeran: *abre, abrats, atra, lembixko, bedratzi, bigarna...* Juan Martin de Iberoren testuetan, berriz, hurrengoak ditugu: *intresac* (178), *bere gorpuceco preudaric oberna* (180), *adiñic obernan* (109), *orgatic* (177 & Pre I, 140). Ondokoak beste testuetakoak ditugu: *arsalde* (Pre I, 142), *obrena* (Mur, 84). Ez dakigu J. M. de Iberoren testu bateko *dembra* (100) ahozko mintzoaren erakusgarri leiala ote den, baina ez da ohikoa inguru honetako beste testuetan.

Beste leku batzuetan sinkopa jasaten duten hurrengo adibideak osorik ageri zaizkigu Goñerrian: *arrapatu, arras* ‘arratsa’, *arratsean, pasatu*,²⁸ Bonaparteren datuetan, eta *lassatu* ebanjelioan (130). Juan Martin de Iberok *batere* (179) dakar.

Olloibarko Ollon hurrengo aldaerak bildu ziren: *abrats, ikus nue, tor zere* (Erizk.). Ibero herriko guruzpideko otoitzean *maindre* (152), *devocioric obrena* (152) nahiz *bedraci* (151) ageri dira. Adizkien artean, berriz, *baicindramazquite* (151). Izarbe ibarrean sinkoparen agerpen zenbait aurki daiteke. Utergako dotrinakoak dira hurrengoak: *lembisque* (205), *lendabiscue* (205), *obrena* ‘hoberena’ (209), *bedracigarrena* (204), *gruce sandu* (212), *atracean* (213). Garesko datu urrietan Bonaparteren lekukotasuna dugu: *abrats, atra, bedratzi, lembixko*; eta aditzaren morfologian *etorko* (Ondarra 1982: 173). Sinkoparik gabe ageri dira hurrengo hauek: *arrapatu, batere, eraman, liburu, ugadera*. Elkanoko Lizarragak ere badu sinkopa adibide sorta bat: *abrats, atra, bedratzi, berla* ‘berehala’, *kalma* ‘calima’, *orgatik*; baina *arrapatu, eraman*.

XVII. mende hasierako Beriainen lanean (1621) sinkopa ageri da: *braço* ‘biezaio’ (44), *drauçu* (73), *bapedra* ‘bakoitza’ (31), *mayndre* ‘maindirea’ (11), *atra* (106), *bedraci* (106), *bonlaco* (54); baina *abaratzic* ‘aberatsik’ ageri da (73), sinkopa estaltzeko idatzia? Elizaldeek darabiltzan adizkietan ere sinkopa ageri da.

Mendiaz bestaldean sinkoparen agerpena ez da ezezaguna: Burundan ematen du joera zerbait badela: Ziordian *bedrátzi* bildu zuen Echaidek (1989: 354), baina *bederátzi* Izagirrek Altsasun (1967: 85). Hortik eskuin arrastoak nonahi ageri dira: *bedratzi, andre, ikusko* (Lizarraga, Solís 1993: 99 eta 113); aditz nagusiaren partizipioko morfeman badira adibideak Ergoieneko Dorraon: *odódda etor dók* (EHHA). Aranatzen berriz, hona pare bat adibide: *bigernak, bedratzi* (Etxarri); Arakilgoak dira hurranenak: *atra* (Arruazu), *pasten* (Ihabar), *ordu et garnean* (Murgindueta). Ekialdeko Arakilgo Urritzolan honddar bat aurki daitekeela dirudi: *átrea diré & ateá*. Baina sinkoparik gabeko adibideak ere ugari dira mendiaz bestaldera: *mendderi* ‘maindirea’ (Lizarraga), *ata & atera* (Irañeta), *atea* (Larunbe). Zuazoren arabera sinkopak Uhartetik eskuin du indarrrik gehien (1998: 216). Ezaugarria, ezaguna denez, guti asko Nafarroa Garai gehienean ageri zaigu: Bortziritan, Ultzaman, Zaraitzun eta Erronkarin nabarmena da, baina Nafarroako beste alderdi anitzetan ere bada, non gutiago, non gehiago. Imotzen *jar* (*t*)*zutén & bát(r)* ez ditugu Latasan, Gulibarko Larunben *pártzen* ‘paratzen’ eta *arpatze*, Txulapaingo Usin *pástiko* ‘pasatuko’ —baina *mainderiak* Beorburu—,

(28) Ergoieneko Lizarragan ere sinkopa gabea da: *pasatu*.

Atezko Zigandan *ab(r)átsak*, Ezkabarteko Anotzen *atra*, Odietako Ziaurritzen *abriad-ki* ‘aberearekin’, *pastu* ‘pasatu’, Anueko Lantzen *orgátik* —adibide gehienak EAEL-tik atereak dira—.

5.1.1.7. Ez dirudi aferesiak Goñerrian agerpen nabarmena zuenik, ez inguruko beste hizkeretan hainbatekoa bederen. Aferesirik gabekoak ditugu Bonapartek Goñin bildu hurrengo adibideak: *ekarri*, *etorri*, *eman*, *ikusi*, *ipurdi*... Ditugun datuen artean *zautu* dugu adibide bakarra, Oltzan bezalaxe, besterik ez —baina Elkanon *ezautu* eta Garesen berriz, *izautu*—. Testuetan ere ez da ageri, baina honek ez du gauza handirik frogatzen; aipagarriak dira, halaz ere prediku batzuetan agertu *ezaun-ceco* eta *ezautuco* (Pre III, 153). *Erizkizundi*-ko Olloko emaitzetan agerpen nabarmena du bilakabide honek: *torr bear du*, *tor zere*, *kusi & ikusi*, *man & eman*... Andiaz hegoaldera aferesia ez da guztiz ezezaguna. Gesalazko predikuetan *cildu* ‘isildu’ dugu (383), eta ez behin: *cilcen cituela vere vecatuec* (390). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan nabarmen ageri da: *man*, *ran & raten* ‘erran & erraten’, *zautu*, *cusi*, baina ez Garesen: *ebaki*, *eman*, *erran*, *etorri*, *ikusi*, *izautu* ‘ezagutu’. Elkanoko Lizarragaren lanean ez da ageri: *ekarri*, *emaste*, *emasteki*, *etorri*, *ezaundü*; cf., halaz ere (Ibarra 1995: 275).

Mendiaz bestaldean ere bada zerbait bederen. Zuazoren arabera Ergoiena-Lakuntza lerrotik eskuin gertatzen da bilakabide honen indarra nabarmen (1998: 215). Ergoieneko Lizarragan, esaterako, *karri*, *makomie* nahiz aferesirik gabeko *etortzen* eta *ezautu* ditugu. Etxarrin *kus giñuben* adibidea aipa dezakegu (NEM I, 17). Arakilen ere badira adibideak: Uhartin *san* ‘esan’, *zaotzen* ‘ezagutzen’, *torri*, *kuskok*, *man*, *makomioik*, *lleatu*, *karzien* bildu ditu Arakamak (1994: 574). Irañetan *man & maten* bildu zuen *Erizkizundi*-ak. Guk Ihabarren *kusi & ikusi* bildu genituen 1982an. Herri berean Artolak *tór zén* eta *maten* —*eman*-ekin batera— bildu zituen (1992). Urritzolakoa da *torri zen* ere (NEM I, 75). Herri honetakoak dira EAEL-ko adibideok ere: *mán*, *kártzen*. Ekialdera nabarmena da aferesiaren agerpena: Basaburuko Arraratsen, Imozko Latasan, Gulibar-ko Larunben, Txulapaingo Usin eta Beorburun, Odietako Ziaurritzen, Olaibarko Olaitzen, Atezko Zigandan eta Anueko Lantzen adibideak ditugu (EAEL).

5.1.1.8. Hiatuseko kokagunean —agian adibide zenbaitetan diptongoa esan beharko litzateke, baina idatzizkoak ez du honetan laguntzen— Bonaparteren datuen arabera bokalak ez dira hersten Goñerrian: *beroa*, *izoztea*, *ichesoac*, *ugueldeac*, *baleac*, *umeac*, *cervitzucoac*, *justoen*... Goñerrira hurbil, gizaldi honen hasierako Ollo herriko emaitzetan hersketa dugu hiatusetan: *lúzia*, *érian*, baina *bésoa*. Ondoko Oltzan ez dago hersketarik Bonaparteren datuetan eta ezta Iberoko guruzpideko kantuan ere: *doacabea*, *gurucean*, *aurrean*, *modestoa*, *estacioa*... Salbuespena da *vicicia* ‘bizitzea’ (150). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan hiatusaren hersketaren arrasto zenbait ageri zaigu: *biaz* ‘behatza’ (211), *biarris* ‘belarriz’ (206), *cusicia* ‘ikustea’ (206), *eguitia* (217), *bear* (220) & *biar* (212), *lurrian* (216). Bonapartek Garesen bildu datuetan ez dirudi dagoenik, *ósoa* eta *sémea* baitakartza. Gesalatzen oro har ez dago, arrasto zenbait baden arren: *egotia* (375), *zezaquiela* (390). Eguesibarko Bonaparteren datuetan ere ez da ageri, ezta Lizarragaren testuetan ere.

Mendiaz bestaldeko ibarretan gertatzen da hersketa gizaldi honetako adibideetan, eta iragan mendekoa izan daitekeen Lakuntzako predikuan ere hersketa nabarmen ageri da. Ergoieneko Lizarragan hurrengo adibideak ditugu: *labie*, *nerie*, *izatie*, *liyue*,

goxue, *zortzitekue*... Diptongaturik ebakitzen dira *-ie* eta *-ue* horiek, gainera (Solís 1993: 96-8). Bilakabide hau, tarteko kontsonante bat galdurik ere gerta daiteke: [*bjatzen*] ‘beratzen’, [*gjo*] ‘gero’, [*bjandu*] ‘berandu’ (102. or.). Dorraon erdiko bokal belarearen testuinguruko adibideak ditugu: *-ora-* & *-oda-* > *ua*: *geldittukuakigu*, *basua*, *kanpua* (Zuazo 1994: 307).

Hiatus hauetan inoizka bokal zenbait galtzea ez da guztiz harritzeko modukoa Sakana alderdiko mintzoan: Burundako ereduak, asimilazioaren aitzineko maila erakusten dutenak, Zuazok adierazi ditu dagoeneko: *ondúun*, *soruu*, *frailiik*, *lenguun* (1994: 303); Larraungo *ogii*, *eztii*, *buruu*, *malluu* e.a. gogorazten dizkigute adibideok (Intza 1957: 92). Maila bat aitzinera eginez eta soilketa agerian utzirik, *etxen* dugu Ergoieneko Lizarragan (NEM I, 37); *póltsikun*, *diánen* ‘direnean’ —baina baita *diánién* ‘direnean’ ere—, *óstok*, *gánado guzik* eta *basúrdek* Dorraon (EHHA); *mendizalik* Etxarriin (NEM I, 17); *kaikuk* Arbizun (EHHA). Ez dezagun ahanztz Sakanaz bestaldera Goierri dugula eta bilakabide hauek han guztiz erabiliak direla. Ergoienak eta, hartu-emanan izan dute Goierriekin lanerako; herri hauen muga administratiboak, gainera, oso sartzen dira iparraldera Goierri aldera, herri guztiak luxeak baitira, goitik behera doazenak, Goierriko mugatik Andi alderat.

Ekiialderago, Arakilgo Urritzolan *garik* bildu da (NEM I, 75). Herri honetakoak dira EAEL-ko adibide hauek ere: *ardíri*, *lurrén*, *ókullún*, *lekúik*, *estúik*. Bitarteko asimilazioen bat ere ageri da herri honetan: *luzeén* ‘luzean’, *arriik* ‘harriak’. Ezin ahanztz da aldaerok eman zituen lekukoaren ama larraundarra zela. Damaso Intzaren arabera (1957: 92), *eztii*, *erbii*, *ogii* saileko adibideak erabiltzen dira Larraunen. Arakilgo Murginduetan, halaz ere, bilakabide hau bera sumatzen da: *eúntzií* (Echaide 1989: 112).

Ekiialdera gizaldi honetako datuetan non gehiago, non gutiago, erdiko bokaletan hersketa badela dakusagu: Arakilgo Egiarretako datu guti dago eta bertan ez dago arrastorik: *bateán*, *ondoreán*. Urritzolan denetarik dago: *kolória*, *trinketián*, *Madòzkuá* / *ésénea*, *sukéldéan*, *gañeán*, *sekrétoa*, *Jaingóikoái*, eta bestalde *gánaderók*. Gulibarko Larunben *makumeá*, *bateán* / *gatzián*, (g)*añéakuá* bildu dira. Txulapaingo Usin *goiséak*, *gíxekokak*, *léna(g)okoák* / *urriak*, *mainderiak*, *gáztia*, *lábía* bildu dira. Atezko Zigandan ere denetarik dago: *asteán*, *itxeán* / *bídia*, *bátian*. Odietako Ziaurritzen *alorreán*, *bátean*, *bértzean* / *aízia*, *bería*, *bizkárrian*, *kárruan* ditugu. Ezkabarten badirudi hersketa maila handirik ez dagoela; Makirriaingo dotrinan ez da ageri: *doacabea*, *estacioa*, *gurucean*, *modestoa*, *aurrean*, eta Anozko egungo datuetan ere maila apala dago: *lépoa*, *úsoak*, *ziénean*, *zuenean* / *usúak*, *arránua*. Olaibarko Olaizko datuak murriztak dira: *káfia* ‘kafea’ / *kopatxóa*.

Goiti ere denetarik dago: Basaburuko Arraratsen *-oa-*ri eusten zaio, baina ez *-ea-*ri: *kárroa*, *sóloan* / *bestía* ‘bestea’, *áiriín* ‘airean’, *itxién* ‘etxean’. Imozko Latasan ere denetarik dago: *ekía* ‘kea’, *lénguak* ‘lehengoak’ / *atsaldeán*, *májoa*.

5.1.1.9. Hiatuseko kokagunean jarraituz, esan dezagun ‘goiko bokala + *a* mugatzailea’ testuinguruan mendiaz bestaldean ageri diren epentesien antzeko deus ez dagoela Goñerriko hizkeran: *ainguiruec*, *ceruec*, *guciec*, *iturriec*... (Bonaparte 1869).²⁹

(29) Hegoaldera Izarbeibarko toponimian *Sarasoroba* dugu Ziraukin, *Ozondoba* Obanosen... (Garesko Udala 1993); Artaxoa aldean ere ezaguna da bilakabide hau: *Cercondoba*, *Morondoba*, *Osondoba* (J. Iriagaray 1974: 396). Cf. orain M. Belasko, euskara galdu ondoko egoeraz eta azentu aldaketaz, in Jimeno Jurío & Salaberri (1998: 19-20).

Burundan sekundarioak diren hiatusetan ere koka daiteke aldi bakan batzuetan konsonante epentetikoak: *lubak* 'loak', *txintxuba* 'txintxoa' (Izagirre 1967: 73 eta 82). Ergoieneko Lizarragakoak dira hurrengo epentesi adibideak: *aziye*, *garraxiye*, *nastube*, *mellubaki* (Solís 1993). Arbizun ere *-b-* eta *-y-* epentesiak ditugu, baina herskariak dira izatez (Hualde 1996: 50). Uharte Arakilen, *Erizkizundi*-rako *eskube* edo *digube* 'digute' bildu zituen Iraizozko Polikarpok. Irañetaraino iristen da epentesiaren bilakabidea *Erizkizundi*-ko datuen arabera: *egiye*, *erraiye*, *eskube*, *eskuben*, *maistrube*, *gaubero...* Arakilen gaindi goazela, behin Ihabarreraz gero badirudi epentesirik ez dagoela. 1982.ean Antonio Arraiza jaunari hartu genizkion datuetan *burue* eta *egie* ditugu, eta Koldo Artolak 1987.ean egin inkestetan ere halakoak ageri dira (1992: 192 eta 194). Halaz ere, Urritzolan bokal palatalaren ondoan epentesidun adibideak bildu ditu Koldo Artolak: *árriyie*, *gáriyie*; hauekin batera, epentesirik gabeko adibideak ere badira: *zúbie*, *záldie*, *zórrie* (1992: 192). Ondoko Izurdiagan, datuak zuzenak baldin badira bederen, bokal palatalaren nahiz belarearen ondoko epentesiak bildu zituen Idoyk: *abendube*, *neuba* 'negua', *eztarriye*, *afaye*, *aundiye* (1981b: 197-8).

5.1.1.10. Mugatzailearekiko hiatusetan '*-a + a*' loturaren *-a* emaitza berritzailea ageri da Goñerrian Andiaz hegoalde inguruko hizkera guztietan bezala. Andiaz iparrera ezaguna da Burundan *-ia* bukaera indartsu dagoela oraino Urdiainen, esaterako, eta honelakoak dira Altsasun edo Bakaikun ezagunak diren adibideak. Bilakabidearen honddar gisa jo beharko genuke, hartara, bilakabide hau ez dagoen Ergoieneko Lizarragako *dotriñea* aldaeraren agerpena, testuan antzeko lagunik ez duena (NEM I, 39). Dorraon ere ez dugu EHHA-ko datuetan antzeko deus aurkitu. Urbasako toponimian bada, ordea: *Arrangarteko txabolea*.

5.1.1.11. Goñerriko diptongoetan *-ai-* > *-ei-* bilakabiderako adibide guztiak besarka ditzakeen erregela zehatz bat bilatzea aise denik ez dirudi; alderdi batetik, *-ai-* > *-ei-* bilakabidea betetzen den adibideak ditugu, hauetarik batzuk kontsonante ozenen inguruan: *gueñetic*, *gueñen*, *leiño* 'lainoa'. Hurrengo adibidean txistukari sabaikariak goiko bokala irentsi du: *exkide*. Kontsonante sabaikarien ingurunetik kanpo ere adibide ugari dugu: *zelei*, *izein* 'sanguijuela', *zembait*, *zerbeit*, *bezein*, *orei* 'orain' (Elkano, Gares eta Oltzan, berriz, *orai*), *mingein*, *zein* 'zaina' — baina *zain* 'zein'; ikus beheitiago *-ei-* > *-ai-* bilakabideaz dioguna —, *xei* 'jaia' (Oltzan *xai*), *urdei*, *norbeit*.

Baina hertsu gabeko adibideak ere badira: *ezpain*, *gain*, *gaitz*, *gaixto*, *garaitu*, *belaungain*, *egitai*, *nornai*, *gaituk* —baina *neiz* 'naiz'—; hurrengo adibidean txandaketa ikus daiteke: *usai* & *usei*. Juan Martin de Iberoren testuetan ere txandaketa bera dugu: *Eingueruec*, airean *artuco zeituste* / *eingueruec* eirean *arrepatauco zutelaco desseoarequi* (Ib, 177). Egungo toponimian bada adibide zenbait: *Mendigein* edo *Genberoki* lekuko.

Olo herrian ez dirudi bilakabide honetarako joera handirik zegoenik: *orai*, *naiz*, *aiz...*, salbu *xai* & *xei*, *erei* & *ereikitzaile* eta *xei* adibideak. Oltzako zendeako Iberoko otoitzeko lekukotasuna aintzat harturik ez dirudi bilakabide honek han indarrik zuenik: *añ*, *zaitut*, *zaizun*, *cerbait*, *baicic*, *orai*, *baitan*, *chaisten...* Gesalazko ibarrean ere badira adibideak adizkien sailean, baina ez da sistematikoki betetzen den erregela bat: *ceizu* 'zaizu' (379), *ceit* 'zaitz' (379), *gueitu* 'gaitu' (386). Betetzen ez diren artean, *zaicen* 'zaizuen' (377), *eztaiteque* (380) edo *zaide* 'zait' (382) ditugu.

Adizkien sailetik landa bilakabidearen arrastoak aurki ditzakegu: *geizqui* (388), baina baita *gaizqui* ere (ibid). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan badira arrastoak: *seyec* 'jaiak', *beitode* 'baitaude', *ezbeizaquegu* 'ez baitezakegu'. Ematen du, dena den, bilakabide hau ohiz jasaten duen *jai* hitzaz landa *bai(t)* bezalako gramatika ataletara mugatzen dela hersketa. Garesen ez dirudi gertatzen zenik: *eraiki* 'erein', *zembait*, *norbait*, *zerbait*.

Mendiaz bestaldean ere nabarmena da *-ai-* diptongoaren hersketa. Burundan bada, Izagirrerren lanak lekukotasun ugari dakar. Ergoioean eta Aranatzan ere ageri da: *neiz* 'naiz', *yeiz* 'haiz' (Etxarri), *neiz* 'naiz', *garei*, *bei* 'bai', *beia* 'baina' (Lizarraga); herri honetako euskararen salbuespenak dira *aiene* edo *salbatzaille* bezalako aldaerak; bestalde, *otsain* & *otsein* edota *aingeru* & *ingeru* bezalako dimorfismoak ere badira (Solís 1993: 100). Arakil aldean ere bada bilakabide hau baina ez dakigu zenbaterainoko eragina edo indarra duen: Arruazuko datuetan gehienak adibide kontserbatzailleak ditugu: *nunbéitt* / *núnbaitti*, *zerbáit*, *áitta*, *aizák*, *nonái*, *garái*, *náikoa*. Irañetakoak dira beste hauek: *aizetu* 'haizatu', *nolanai*, *itaiekin* / *larreinetik*. Ekialderago ere adibide zenbait bada: *orein* 'orain' (Ihabar) eta *eizetu*, *keiku*, *jeio* (Izurdiaga). Badira Arakilen adibide kontserbatzailleak: *jai*, *naiz* (Egiarreta); *zaió*, *érraietán*, *ayétatik* (Urritzola).

Arakildik eskuin adibide kontserbatzailleen agerpena nabarmena da EAEL bildumako datuetan, baina beti ageri da hersketa bat edo beste: *deláik*, *ápaindú*, *oái* 'orain', *záio*, *aíxkidieí*, *áidieí* 'ahaideei' / *urdéien* (Gulibarko Larunbe). Txulapaingo Usin ere berdin: *áitu* 'aritu', *náiz*, *nónbait*, *maindériak*, *oráingo* / *ízein* 'izanen'. Ditugun Ezkabarteko adibideetan ez da ageri hersketarik, ez mende honetako Anozko datuetan ezta Makirriaingo XIX. mendeko dotrinan ere, eta ezta ditugun Odietako datuetan ere. Basaburuko Arraratsen eta Gartzaronen ere adibide kontserbatzailleak dakuskigu eta baita Imozko Latasan ere; Atezko Zigandan, ordea, badira adibideak: *ei* 'ari', *zeikién* 'zitzaidan' / *zaiikién* 'zitzaidan', *orái*, *aiséago*, *expáizen*, *èzaiékén*, eta Ultzaman ere badirudi badirela (Ibarra 1995b: 149). Anueko datuetan ez zaigu ageri. Esteribarko eta Erroibarko datuetan —geuk 1982an Eugin eta Mezkitritzen eta 1983an Lintzoainen egin grabazioetan— apenas ageri da adibide bat edo beste; ia beti *ai* diptongoari eusten zaio.

5.1.1.12. Oltzan bezainbateko maiztasunarekin edo indarrarekin ez bada ere —Iberoko guruzpideko otoitzean *ogai* 'hogeí', *oraitu* 'oroitu' (oinarrian *oreitu* dukeen), *zaiñ* & *ceiñ* 'zein', *sai* 'sei' ditugu, eta Oltzan *layo* 'leiho' bildu zuen Bonapartek—, badira *-ei-* > *-ai-* bilakabidearen arrastoak Goñerriko hizkeran. Bonaparteren datuetan *zain* 'zein' dugu; Goñerriko egungo toponimoa da, bestalde, *Baisário* 'behien sarroia'. Prediku batean *bañere* 'behin ere' dugu *beñere*-rekin batera, (Pre II, 145), eta baita *zañequin* (146) ere. Markotegiren lanean ere adibideak ageri dira: *edo-zain*, *ogai*, *berrogai*, *zañ* & *zain* 'zein', *daizen* 'deitzen' —Muruzabal 1751 izeneko predikuan bezala (83)—, baina Bonapartek Goñin *deitu* bildu zuen, eta *deizen* dakar J. M. de Iberok ere (104)—. Iberorena da *berrogai*, halaz ere (92). Bilakabide honek datibo pluraletak *-ei* > *-ai* aldaketa eragin du inoiz: Bonapartek Goñi herrian *semei* & *alabei* pluralak bildu zituen; halaz ere, *eman ziote Jangoicoac vizia guizonai* dakar Markotegik (233): cf. antzera Oltza zendeako Iberoko guruzpideko otoitzean ere: *minzatu ceiquioten Christoren Magestadea Jerusalengo alabai* (Arraiza 1988: 150).

Zernahi den ere, betetzen den adibideak baino, dirudienez, bilakabideak salbuespenak gehiago ditu Goñerrian: *beiti*, *bein*, *leitu*, *bei*, *ogei*, *sei* (Bonaparte). Ondoko Olloibarko Ollo herrian bizirik zegoen bilakabide hau mende honen hasieran; ez kasu guztietan, *bein* ‘behin’ baitakar, baina *bai bet* ‘behi bat’, *zain & zein* ‘zein’ eta *oraitu*, “oreitu” zahar batetik, agian? Jakin beharra da Goñin ere *oreitu* zela, baina *oroitu* Oltzan, nahiz Iberoko otoitzean *oraituric* dakarren; Gesalitzen ere *oreitu* dugu (386). Gogoan har dezagun Beriainek *oroytu* zerabilela, egun Ezkabarteko Anotzen bildu dena (Artola 1985: 105). Ekialderago, Aezkoan ere *oreitu* ageri zaigu. Beheitiago, Izarbe ibarrean, Utergako dotrinan *daizen* ‘deitzen’ dugu (Ondarra 1980: 221). Gesalitzen ere ageri zaigu aldaketa hau: *daitu* ‘deitu’ (372), *daizen* (374) eta baita *zain* ‘zein’ (378) ere, baina *oguei* (377). Testu zaharragoetan *oguey* dakarte Beriainek eta Elizaldeek eta ez da bilakabide honen arrastorik beren lanean.³⁰

Mendiaz bestaldean Burundan da nabarmena joera hau; Altsasuko adibideak ugari ditugu (Izagirre 1967: 47), eta baita Bakaikukoak ere: *besolai* ‘idi lehia’ edota *dai* ‘deia’ dakartzat Ondarrak (1965: 390 eta 391); Etxarrin *nai < ne(r)i* ‘niri’ dugu (NEM I, 19), eta inguruko Dorraon ere *nái* ‘niri’ bildu du Koro Seguroiak (EHHA) —Arakilgo Urritzolan, ordea, bilakabiderik gabeko *nei* dugu (NEM I, 75)—. Lizarragakoa da *otsain* ‘hots egin’ adibidea (Solís 1993: 117). Toponimiaraino iristen da bilakabide honen arrastoa Ergoienean, Lizarragako *<Baizáianchabola>* lekuko (Nafarroako Gobernuak 1992b: 51). Arakilgo Uharteko dotrinan badira irekiduraren adibideak: *daicen* ‘deitzen’, *saigarna*, *gaityego* ‘gehiago’ (573). Irañetan jaio eta Lakuntzako erretore zen Gastesiren lanean *zaiñ preciosa* dugu (Ulyar 1987: 57). Ihabarren *bedáik* ‘bederik’ ageri da (EAEL). Ekialdera goazen ber, bilakabidearen indarra galduaz doala dirudi: Ameskoako toponimian, Altsasun eta Arbizun *araitz* ‘haritza’ ageri zaigu (Salaberri 1998: 66 eta EHHA), baina ekialdeko Arakilgo Izurdiagan *areitz* bildu da (Idoy 1981b: 198). Irañetan *erein*, *eriten* eta *eraiten* bildu da (EAEL), baina Egizarreta eta Urritzolako adibide guztiak jatorrizko *-ei*-dunak ageri dira. Gure eremutik iparrerago ezaguna da bilakabide hau: Larraungo Baraibarren eta Oderitzen nahiz Basaburuko Berueten *ogai* ‘hogeia’ dugu (EHHA). Ditugun datu apurrek, ordea, ez dakarte bilakabidearen adibididerik ekialdera: Itza, Txulapain, Ezkabarte alderdi horretan. Nabatzen, esaterako, *beia* ‘behia’ bildu zen mende hasieran eta *sei*, *oguei*, *zeiñ* ‘zein’ adibideak dakartza Makirriango dotrinak.

5.1.1.13. Nafarroako hainbat eremutan gertatzen den bezala, Goñerrian ere *-eu-* > *-au-* bilakabidea aurkitzen dugu: *auri*, *auli*, *aun*, *aundu*, *berraun* ‘berrehun’, *daus*, *naurritu*. Aldameneko Ollon ere badira bilakabidearen arrastoak: *eun & aun*, *auri & euri*; baina *deus*. Oltzan ez da ezezaguna bilakabide hau: *aundu* ‘ehun’, *daus* ‘deus’, *auri*; halaz ere, Goñin ez bezala, *uli* dugu eta ez **auli*. Oltzako Ibero herriko guruzpide otoitzean berriz, izenordainetan txandaketa ageri zaigu —oinarria **neure* eta ez **niaure* baldin bada, bederen—: *naure & neure*, *zeure & zaurorrec* (146 eta 147). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere *daus* elean eta izenordainetan gertatu da aldaketa: *naurau* (210), *naure*, *gauren*, *daus*. Ez dakigu *eu*-dun ohiko beste hitzetan zer gertatzen

(30) Artaxoan ageri zaigun *Seigorteta* toponimoak aldaki bat du 1600. urtean: *Saygorteta*. Ez dakigu bilakabide honen hedaduraz mintzatzeko bezainbat balio duen, ez baitago guztiz garbi lehen atala ‘sei’ zenbakia denik ere (Jimeno Jurío & Salaberri 1998: 168).

zen, dotrina bat ez da testurik egokiena lekukotasun horiek biltzeko. Garesen Bonapartek bildu lekukotasunetan *auri*, *daus* / *eundu*, *uli* ageri zaizkigu. Gesalatzan ematen du arrastoak badirela: *zaure* (379), *gauren* (383, 386), *daus ere* (373, 383). Eguesibarren ez du ematen bilakabideak guztizko indarra zuenik: *euri* eta *uli* dakartzza Bonapartek *daus*-ekin batera nahiz Elkanoko Lizarragak *deus* zerabilen. Adibide sendoena Bonapartek bildu *aundu* 'ehundu' dugu. Ekialdera badakigu Artzibarren bilakabidea bazela. Aezkoan ere bada egun. Garai bateko Beriainen eta Elizalderen idazkietan ez da ageri bilakabide hau: *neure* eta *deus* darabiltzate biek, esaterako.

Mendiaz bestaldean bilakabide hau dela eta ematen du agerpena zabala dela. Lehendik ere bagenekien Altsasu alderdi horretan ezaugarri hau badela (Izagirre 1967: 47). Ergoieneko Lizarragan *eu* eta *au* ageri dira: *euri*, *euli*, *euskera* (Solís 1993: 100), baina *auskaldune* (NEM I, 39). EHHA-ko inkestetan *auskeas*, *laurriyak* 'neurriak' sailekoak ditugu ondoko Dorraon, eta *auriketá*, *aun* 'ehun' Arbizun. Etxarrin ere bada: *auriyik* (NEM I, 19). Uhartan *auri* eta *laurri* 'neurria' ageri dira (Erizk.). Ekialderago Irañetan ere berdin: *auri*, *naurri*, *auskera*, *Auskelerrri* (Erizk.). Eskuinera go oraino, Ihabarren bilakaeradunak bildu zituen Artolak 1987an: *aúlié*, *áurié*. Urri-tzolan, ordea, *éulié* eta *éuriye* ageri dira (Artola 1992: 192). Halaz ere, herri berean *dause* 'deus ere' agertzeak (NEM) bilakabidea egon daitekeela adierazten digu; leku-koa, gainera, Artolak oharrarazten duenez, aldaera batzuk «zuzentzen» ahalegindu da erantzunak ematean; ondo-ondooan dagoen Izurdiagan, esaterako, *auli*, *auri*, *autzi* 'eultzia' bildu dira (Ydoi 1981b: 198). Hortik eskuin, bilakabideak gora-beherak ditu: *úlie* eta *eúrie* ditugu Gulibarko Larunben; *úlie* eta *eúrie* Txulapaingo Beorburun, eta *úlie* eta *eúrie* ibar bereko Usin (Artola 1992: 192). Halaz ere ibar horretako mende hasierako Nabazko emaitzetan *aurie* eta *daus* ageri dira —baina *neure* 1536ko Beorburuko ezkon-zin batean—. Ezkabarten, Odietan eta Olaibarren ez da ageri EAEL-ko testuetan, baina Ultzaman diptongo sekundarioetan berragertzen zaigu (Ibarra 1995b: 153-5) eta gauza bera sumatzen da Anuen ere. Ezkabarteko 1828ko dotrinan, ordea, *daus* dugu (389).

5.1.1.14. Diptongoen sailean *-au-* ere aipagarri da; bilakabide bat baino gehiago jasan dezakeela esanez hasi behar da. Monoportongazioa gertatzea ez da harrigarri: *-au-* > *-o-*: *doden* 'dauden' (Eb), *zoden* 'zeuden' (Pre V, 164), *arrotze* 'arraultzea'. Egungo toponimian *Ozolór* —Izarbeibarko Tirapun *Ozalar* (Garesko Udala 1993: 11)— eta *Bizcarrondi* ditugu (Nafarroako Gobernua 1993). Beti ez da gertatzen, ordea: *auntxume* & *auntz* & *aunzkera* & *aunzki*, *aur*, *aurpegi*, *aurten*, *aurre*, *auts*, *autsi*, *belaun*, *belaungain*, *iraun*... Prediku batzuetako adibide bakan batzuetan, eta beti ere adizkien sailean, monoportongatzea gertatu beharrean bokal belareak behekoa asimilatzen du: *goude*, *zoude*, *etzoude* (Pre II, 146 eta 150 eta Pre IV, 160). Goñerriko hizkeran *au* > *ou* bilakabidearen agerpen bakarrak direla aitortu behar da halaz ere.

Gure idazkietan bazterrekoa den arren, aipa dezagun bederen, badela inoizka *au* > *eu* bilakabidea prediku batzuetako adizki batzuetan: *deude* 'daude' ageri da *etzoude* 'ez zaude' bilakabidea eta *estoquegu* 'ez daukagu' monoportongazioa dakartzan testu berean (Pred IV, 160 eta 161). Ez dira adibide bakarrak: *deude* 'daude' dugu (Pred III, 151), *deuquezun* (Pred III, 155), *deuzquien* 'dauzkan' (Pred IV, 157), *deuquet* (Pred IV, 158), *deuden* (Pred IV, 161). «Langarika (17..)» izeneko testuak ere badakar: *infernuen*

errecen deuden aietatic (142), *ibilliric deuquen vide ore* (ibid.). Gesalarzen Muzkiko Martinez de Morentinek ere baditu honelakoak (382): *geude*; baina baita *dauqui & zaude* ere (382). Oltzan ez da ageri ez monoportongazioa ezta palatalizazioa ere: *gauce, dauquet, daude, lauretan, pausu, au* 'hau', *zauden* 'zeuden', *ezauceco, aurpeigui* 'aurpegia', *naute, nauzu, aurrean*. Ollon ere berdin: *gaues, gaur, nerau, dauket, gauza, au* 'hau', baina *ozalan & ozelan* ere badago (Bidador 1992: 294). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan *au > o* monoportongatzen dela ikusten dugu, baina ez *eu* bihurtzen dela: *beitode & dode* 'daude'; *gode* 'gaude', *doque* 'dauka', *doquet* 'daukat' (Ondarra 1980).

Mendiaz bestaldean, Ergoienean, *au > ou* asimilazioa ele arrunten artean aurkitzen da egungo mintzoan: *gour, erountsi, lou* 'lau' (Lizarraga); baina ez beti: *autsaki* (Lizarraga).³¹ Baita Dorraon ere: *Dorrouti* (EHHA), *gour* (Razkin) Badira monoportongazioak eremu honetan ere: *gobe & gaube* (Lizarraga). Arakilen bilakabidearen hondar zenbait sentitzen da: *badouket* 'badaukat' bildu zen Irañetan (Erizk.). Uhartan, berriz, monoportongazioa: *doket* 'daukat' (Erizk.) eta Murginduetan ere bai: *eztokat* 'ez daukat'. Ihabarren ere bai: *giñokéna* 'gindaukena = geneukana'. Artolaren datuetan ez da *au* diptongoaren borobiltzerik ageri ekialdeko Arakilen, baina cf. Arakamak Sakanako ekialdeaz dioena (Zuazo 1994: 311); ekialdera, Itza, Txulapain, Odieta eta Ezkabartere inguruan ere ez dago *au > ou = o*-rik Artolaren datuetan (1992: 197).

5.1.1.15. Ezaugarri arras berezi bat bada inguru honetako testuetan Euskal Herriko beste lekuetan ageri ez dena; beste eremuetan ezagunak ez diren diptongoez dihardugu. Esaterako, J. M. de Iberok *aiguie* 'egia' dakar (94), baina *eguie* ere badarabil (101). Arrunta da ibar hauetako testu zaharretan *beigui* 'begia' (Ib, 104) elea aurkitzea.³² Bestelako aldaera arruntak ere badira: *beguie* Bonapartek berak itzularazi eta osatu Ebanjelioan. Oltzako zendeako Ibero herriko guruzpidean ere diptongodunak ditugu: <*veiguietacoa*> (Arraiza 1988: 147), eta baita <*aurpeigui*> eta <*aurpeguieren*> ere <*aurpeguico*> aldaerarekin batera (149). Ez dakigu otoiitz honetan ageri den <*aguiteco*> balizko *aigiteko* baten idazkera makurra ote den (146). Utergako dotrinan *baigui, aiguiere*ren 'egiaren' ageri dira, baina Bonapartek Garesen *begi* bildu zuen, eta hori bera da *Erizkizundi*-ak Ollon dakarrena. Bonapartek *beiti* 'beti' bildu zuen Goñin, nahiz gero hau ez den testuetan sekula ageri; eta adierazgarriago dena, ezta Bonapartek berak argitarazi eta osarazi zuen *Le Cantique*-n ere, *beti* baitakar. Ikus, bestalde, Ondarra (1981: 357). Bestaldera ez dugu honelako adibiderik: Ezkabarterko Makirriango dotrinan *vegui, eguie* eta *beti* ditugu.

Ez dakigu adibide hauen sorrerak zer lotura eduki ahal izan duen *beñe, geñen, oreñik, -reño* gisako adibideekin, zeinetan *ai > ei* eran hertsu den diptongoko bigarren atala kontsonante bustiak irentsi duen. Hiztunak kontsonante palatal horren aitzineko *e* hori inoiz *ei* izan delako zantzua gogoan baldin badu, eta hizkera hauetan *ei > ai* nahiz *ai > ei* bilakaera arrunta baldin bada, ultrazuzenketaren bidez *beigi/baigi, aur-*

(31) Lizarragako hurrengo adibidean silabatze berria gertatu dela ematen du eta jatorrizko diptongoa deuseztu dela: *gure arurreko zarrak* 'gure aurreko zaharrak' (Solís 1993: 113). Honelako deusen arrastorik ez dago Goñerriko datuetan ezta Andia mendiaz goitiko ibarretakoetan ere.

(32) Goñerriko hizkera leial ordezkatzen ez duenez gure corpusetik landa utzi dugun "Goñerriin aurkitutako testuak (VI)" saileko bigarren testuan *beiguiratu* ageri da *beguiratu*-rekin batera (Ondarra 1994: 535).

peigi, *beiti* edo *eigi/aigi* sortu ahal izan direla pentsa liteke, baina beti ere bilakabidearen gibelkako bidea bustidura testuinguru batetik bustidurarik ez dagoen beste batera iragan dela aitorturik, horregatik, ez dugu uste arestiko arrazoiak deus argitzen duenik.

Beste adibide bat diptongo ez arrunten sail hau bukatzeko: *araigui* & *areigui* 'hargia' ditugu Munarrizko testu ugari horien artean (Ondarra 1981: 357), nahiz guk Goñerrikotzat hartutakoetan ez diren ageri; Beriainek ere *aragui* dakar (75, 109), eta halaxe ageri da Utergako dotrinan ere. Arakilgo Lakuntzako 1838ko otoitzetan ere *aragui* dugu (230) eta baita Ezkabarteko Makirriango dotrinan ere (384).

5.1.1.16. Bokal belareari dagokionez eta mendiaz bestaldean, Ergoieneko Dorraon *áuntzi* 'ontzia' —baina Urdiainen *untzi*, Echaide 1989— eta *áungi* 'ongi' aldaerak aurkitzen ditugu egungo bereko mintzoan (EHHA). Lizarragan ere *ongi* nahiz *aungi* ditugu. Gesalazko Muzkin ere <*aungui*> dakar Martinez de Morentinek XVIII. mendean. Oroit hizkera hauetan *au* > *o* monoptongazioa arrunta dela eta beste hau ere ultrazuzenketa kasua izan daitekeela.

5.1.1.17. Ondarrak dakarrenez (1981: 357), Goñerriko Munarritzen 1921.ean agertu ziren testu ugari horien artean *auñece* 'oinazea' adibidea ageri da, baina ez guk Goñerrikotzat erabili ditugun testuetan; Oltzako Iberoko kantuak ere *oñace* dakar. Utergako XVII. mendeko kristau ikasbidean ere bada honelako diptongo ez ohiko bat: *auñ* 'oina' (206). Garesen, bestalde, Bonapartek *oin* aldaera bildu zuen, eta *oiñ* dakar Iberoko kantuak ere; Gesalazten ere *oin* dugu: *oin sagratu evetava* (382). Bestaldera, *oiñ* eta *oñez* dakartza *Erizkizundi*-ak Txulapaingo Nabatzen eta *oiñ* dakar Ezkabarteko Makirriango dotrinak ere.

5.1.1.18. Honetatik guztitik bilduma llabur bat egitea egokia dateke. Goñerriko hizkera hainbat berrikuntzaren partaide da: goiko bokalek eta sabaiko kontsonante ozenek eragin asimilazio maila gora du, eremu guztiko gorena. Diptongoetan, *ai* > *ei*, *ei* > *ai*, *eu* > *au* eta *au* > *o* = *ou* = *eu* berrikuntzak aipa daitezke eta baita *aigi* 'egia' eta *beigi* 'begia' aldaerak ere. Sinkopa maila ertain bat bada Goñerrian, baina ez ekialdeko hizkeretan bezainbatekoa; aferesia, berriz, arras maila apalean ageri zaigu Goñerrian, baina eskuin, Nafarroa Garaiko erdialderat ugalduz doa agerpena. Berritzaile ageri da Goñerria '-a + a > -a' bilakabidean ere, Nafarroa Garaia ia guztia bezala eta baita *e-u* > *i-u* igoeran ere. Kontserbatzaile ageri da —XVIII eta XIX. mendeko datuen arabera bederen— hiatoetako erdiko bokaletan, *u* bokala ez palatalizatzean, sudurkari aitzineko *o*-ren kasuan eta goiko bokalen ondoko epentesirik ez gertatzean; badi-rudi, bestalde, aferesiak ez zuela agerpen nabarmenik Goñerrian, nahiz testuak ez diren honetarako lekukorik fidagarriena.

Hain zuzen ere, Goñerriko euskara kontserbatzaile ageri den ezaugarri horietan guztietan da berritzailea ezagutzen dugun mende honetako Ergoieneko eta Sakanako euskara: *non* > *nun*, hersketak hiatoetan, epentesia, aferesi batzuen agerpena... Bestalde, Goñerriko *aigi*, *beigi* bezalakorik ez da Ergoiena-Sakanan, eta Ergoieneko eta Etxarriko *aungi*-rik ez da Goñerrian. Azken bi ezaugarri arabera bereiz daitezke Gesalazko eta Goñerriko hizkerak, ahantzi gabe goiko bokalek behekoan eragin asimilazio maila goragoa dela Goñerrian Gesalazten baino. Olloibarko euskara eta Goñerrikoa bereizteko ezaugarri guti batzuk ditugu: ozen sabaikariek eragin bokal

palatalizaziorik ez dago *Erizkizundi*-ko Olloko datuetan —*gañen, lastaila*—, baina bai aferesia; bestalde, Ollon ez dugu şumatu Goñerriko *ai* > *ei* hersketa, ezta *au*-ren bilakabideak ere; bestalde, Olloko datuek ez dakarte *beigi* edo *aigi*-ren gisako deus, baina ez da atzendu behar Ollobarpeko Oltzan badirela, eta beste anitzetan bezala, 1923. urte inguruko inkestan agertu ez izanak ez du adierazten bilakabide hori Ollobarren gertatu ez denik; dena den, orokorra da arazo hau testuen —eta testurik ezaren— morrontzan idatzi behar izan den artikulu honetan.

Goñerrikoa Oltzakotik bereizteko, berriz, diptongoak balia ditzakegu: testuetako lekukotasunaren arabera ez dirudi Oltzan Goñerriko *ai* > *ei* eta *au* > *o* = *ou* = *eu* betezen direnik. Utergako dotrinan ageri den hizkuntza egoera da Goñerriko hizkerarekin antz handia duen beste bat: salbu Izarreibarko *gizone* erako palatalizazioa eta dotrina horretako aferesien eta hiatotako bokalen hersketaren agerpena, hizkera arras iduriak ditugu biak.

Iruñeritik goiti dauden Itza, Atetz, Txulapain, Odieta, Ezkabarte eta Olaibarko hizkeretan ez dira gertatzen Goñerrian diptongoetan gertatzen diren berrikuntzak, eta bestalde, ibar horietako hizkeretako hiatotako hersketak ez dira ageri Goñerriko datuetan. Arazo gehiago dago Arakilgo hizkera Goñerrikotik bereizteko. Batetik, bereizketak ezartzen dituzten ezaugarriak berrikuntzak direlako eta Arakilgo eta Goñerriko testu garaikide guti dugulako: *non* > *nun* dugu Arakilen, eta baita datu kontraerriak ere, hiato epentesidunak nahiz gabeak baititugu ekialdeko Arakilen: Ihabarren gabeak eta Urritzolan gabeak nahiz dunak; Izurdiagan, berriz, dunak. Bestalde, Goñerriko *ei* > *ai* ez da ageri Arakilgo ekialdean, Ihabar eta Uhartan bai, baina Urritzolan eta Izurdiagan ez. Ez dago Arakilen *aigi* edo *beigi* bezalakorik ere.

Bukatzeko Eguesibarko eta Goñerriko euskara alderatuko ditugu: ozen bustien agerpen urria edo goiko bokalen inguruko beheko bokalaren palatalizaziorik eza, *u*-ren palatalizazioaren hasikinak —Elkanoko Lizarragak *zulo* idazten du, baina baita *zilatu* ere— eta Eguesibarko diptongo kontserbatzaileagoak —salbu *eu* > *au* bilakabidea— ditugu aldeak ezartzen dituzten ezaugarriak bi ibar hauetarako.

5.1.2. Kontsonanteak

5.1.2.1. Aditzetan, jatorrizko **e*- zaharraren emaitza *x*- sabaiaurrekoa zen Goñerrian, Elkanon eta Oltzan bezala:³³ *xo*, *xaitsi* 'jaitsi', *xaitxi* 'abereak jaitsi', *xakin*, *xan*, *xanazi*, *xantzi*, *xardoki*, *xarri*, *xei*, *xeki*, *xeyo* —Oltzan *xayo*—; baina hots igurzkari belarea ere bazen ele batzuetan bederen: *eizera joan*, *josi*. Jakina denez, baita maileguetan ere: *juntetu*... Olluibarko mende hasierako datuetan sabaiaurreko hotsa nagusi zela ageri da: *xates asperu de*, *xaiki* & *xeiki*, *xain*, *xar zaite* & *exar* 'eser zaitez & eseri'. Behin bederen sabaikaria eta beste bitan belarea ere badira, halaz ere: *yan* & *jan*, *jar zaite* 'eser zaitez'.

Garesen berriz, [*x*-] hots igurzkari belarea erabiltzen zen: *jan*, *jakin*, *jo*, *jarri*, *jaiki*, *jaiio*, *jai*, *jokatu*. Baita, bestalde, *txujen* 'xuxen' eta *txujentasun* ere (Ondarra 1982b: 648); horiezaz landa, *bejain* 'bezain' eta *bejala* 'bezala' —Elkanon ere *bejala*— dakar-

(33) Eta baita Eslaba aldeko herri batzuetan ere (Salaberri 1994b: 1053).

tza Bonapartek (Ondarra 1982: 171-172), eta baita *ijan* eta *ijandu* 'izan' ere. Baina ibar bereko Utergako dotrinako <s>-ak txistukari igurzkarri sabaiaurrekoa salatzen du: *seyec* 'jaiak', *seietan* 'jaietan', *sabe* 'jabea', *saguicean* 'jaikitzean', *saio* 'jαιο', *saquitea* 'jakitea'. Dotrina berekoak dira, halaz ere, igurzkarri belarea salatzen duten hurrengo grafiak ere: *jαιο*, *jaichi*, *jarri* 'eseri', *juan* (Ondarra 1980: 191).

Mendiaz bestaldean [x-] hots belarea ageri zaigu beti mendebaldean: [*xanci*], [*xendu*] 'kendu', [*xende*]... (Lizarraga), *jarri* (Lizarraga, Arruazu). Ergoieneko Dorrao-koak dira *jáunka* 'zaunkaka' eta *jáski* 'saskia' bereziak ere (EHHA). Hots sabaiaurrekoari eusten zioten Uhartte-Arakilgo adinekoek ekialdean —Irañeta, Murgindueta eta Ihabarren bezala— 1956 urtearen inguruan; gazteek, aldiz, hots belarea baliatzen zuten, mendebalderagoko herrietan legez (Mitxelena 1977: 170, 7. oinoh.). 1925erako ageri da hots belarea Uharteko *Erizkizundi*-ko erantzunetan: *jeki*, *jan*. Guk 1982an Ihabarren hots belarea baizik ez genuen bildu: *jan*, *jakin*, *jo*, *jokatzeko*, *joan*. Mende hasierako Irañetan *Erizkizundi*-ak bildu lekukotasunetan, ordea, *xan*, *xarri*, *xegi* 'jaiki' edo *xakin* ageri zaizkigu. Urritzolan 1980an egin bilduman belaredunak bildu zituen Artolak aita urritzolarra eta ama larraundarra zituen hiztun batengandik: *jéixtekò*, *jaiò*, *jarriko*, *jásorzekò* (EAEL). Ondoko Izurdiagan ere hots belarea bildu da: *jan*, *jeio*, *jolastzen*, *juan* (Idoy 1981b: 202). Egiarretan ere belarea bildu da: *jai*, *joan*, *jan* (EAEL, 197).

Eskuinaldera Txulapain eta Ezkabartera jo behar da hots sabaikaria entzuteko: *yatagún* 'jaten dugun' bildu da Usin (EAEL, 200) eta *yoán*, *yéiki* edo *ióka* 'joka' Anotzen (EAEL, 202 eta Artola 1985). Goraxeago, Basaburuko Beruete, Arrarats eta Igoan ere sabaikaria dugu, Imozko Muskitzen bezala. Atetz, Odieta, Ultzama, Anue, Esteribar eta Erroibar ere —azken honetan aspaldiago sabaiaurrekoa zegoela dirudien arren— hots sabaikaria baliatzen duten ibarrak dira. Belarea berriz, Araitz eta Larraun ibarrei dagokie goitik eta baita Basaburuko hegomendebaldeko herriei eta Imotz guztiari ere —esan bezala, Muskitz salbu— (Ibarra 1995b: 244). Dena den, gauzak zerbaitxo aldatu direlako susmoa izateko arrazoiak daude. Esana dugu Arakilen sabaiaurreko hotsetik belarera iragan direla mende honetan; hain zuzen ondoan zituzten Sakanako euskaldunek hots belarea ematen zuten. Txulapaingo mende hasierako inkestan *xan*, *xaiki* eta *xain* & *yain* emaitzak ditugu, eta Makirriaingo dotrinako *satera* 'jatera' edo *ssauchi* 'jaitsi' bezalako grafietan oinarriturik gauza bera pentsatu du O. Ibarra ere (1995: 282), XIX. mendean hots sabaiaurrekoa ebakitzen zela; Artolak Ezkabarterako egungo hizkeran bildu datuetan denak y- dira.

Egoera zaharraren berri ematea ez da aise; beren sorterrien aldamenetako alderdietan ondoko garaietan x- hots sabaiaurrekoa izan duten hitzak idaztean, Beriainek eta Elizalde sistematikoki <j-> erabili zuten —*Iaun*, *Iaungoico* salbu utergarrak—: Beriainenak dira *jaquin*, *jayo*, *janci*, *joan*, *jauna* —*Iauna*-rekin batera—, *jarri*, *jayci*, *jayqui* edo *jossi*; Elizalderenak, berriz, *Jaun*, *Jangoyco*, *jayo*, *jausi*, *jarri*, *mereji*, *jayac*, *jauchi*, *jan*, *jaquinduria*, *jabe*, *jaquin*. Grafia horien gibelean zein hots egon daitekeen jakiteko azterketa berezituena berri beharko genuke.

5.1.2.2. Nafarroako beste hainbat lekutan legez, bokal arteko -g- ageri zaigu beste hizkera batzuetako hasperenketaren ordain: *ago* 'ahoa', *leigo* 'leihoa' —baita *leio* ere (Pre I,138)—, *ligo* 'lihoa', *igesi*, *igo* 'eiho', *igor* 'inor', *ugelde* 'ibaia'. Ordea, *aun* dugu

'100' Goñerrian, bokal arteko kontsonante igurzkaririk gabe —Ergoieneko Lizarragan ere *eun* da—. Izarbe ibarreko Utergako dotrinan *agu* 'ahoa' (206) dugu, eta baita *igor* 'inor' izenordaina ere (219). Etxaurin *Hugalzabaleta* toponimoa bildu da (Ollaquindia 1997). Ezker, *ugalde* dugu Gesalatzen ere (382) eta Ollon ere *ugelde* ageri da. Ergoieneko Dorraon *agua* 'ahoa' dugu, eta *agotic* Lakuntzako predikuan (231). Elkanon, Garesen eta Oltzan ere *ago* bildu zen eta *agu* dakar Utergako dotrinak. Eskuin, goiti, *ago* dugu Imozko Goldaratzen ere. Era berean, *ligu* 'lihoa' dugu Txulapaingo Beorburun eta *ago* Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan, baina baita *eun* '100' ere; aldiz, *egun* dugu Txulapaingo Nabazko datuetan. Aspaldikoa da bokalarteko kontsonante hori; Beriainek ere *ago* du (1621: 7).

Bokalen batze hori hitz hasieran denean eta lehen bokala *o* delarik, Nafarroako beste anitz lekutan bezala —Burunda barne— gogortze bilakabidea gertatzen da Lizarragan eta etimologikoa ez den herskari belare bat sortzen: *guai* 'orain', *guañi* 'oraindik' —baita *oñi* ere—; Arbizun: *goaiko* 'oraingo' dugu (EHHA). Lizarragako hurrengo adibideetan metatesia dago: *guartu* 'ohartu', *guatze* 'ohea' —baina Gastesi irañetarrak *ogatze* (59)—. Goñerrian bada *goatze* adibidea, baina Bonapartek ez dakar "goartu"-rik eta Goñerrikotzat jo ditugun testuetan ere ez dago; bai, ordea, Goñerrian agertu diren testuetan: *estuze guarzen*, *guizonac zein issu vizi diren* (Ondarra 1993c: 308). Bestalde, *orei* eta *oreñik* ditugu Goñiko Bonaparteren adibideetan, *g*-rik gabe. Gesalazkoak dira *guace* eta *guartu* (381, 384), eta Ollon ere *goartu* bildu zen. Ihabar, Urritzola, Larunbe, Beorburu, Usi, Anotz, Ziaurritz eta Olaitzen, eta ekialderago ere bai, *guatze* bildu du Artolak (1992: 191). Beriainek <*obaye*> 'hoa' du oraindik, ez gerora nagusituko den *goaye*: Ezkabarteko Anotzen *guaye!* bildu da (Artola 1985: 108).

5.1.2.3. *-rtz-* / *-st-* kontsonante taldearen erabilpenak nabarmen bereizten ditu mendiaz bi aldeetako ibarretako hizkerak: *ortzegun*, *ertze*, *bertze*, *ortzilare*, *aimbertze* edo *borz* —baina Oltzan *bortz*— aldaerak ditugu Goñerrian. Olloibarren, ditugun datu urrien arabera, *ortzegun* nahiz *ortzegun* erabiltzen ziren mende honen hasieran. Izarbe ibarreko Utergako dotrinan *berze*, *borz*, *enberze* sailekoak ageri dira (Ondarra 1980). Garesko Bonaparteren datuetan, berriz, *bertze*, *ortzegun* eta *ortzilare* ditugu, eta bitxiago dena, baita *artzeazken* ere (Ondarra 1982: 136). Halaz ere, Garesen "beste" ageri zaigu *bata bestea* egituran. Gesalatzen ere *aimverce* & *verce* aldaerak ageri dira, nahiz lau testuetakoren batean inoiz *beste* (390) ere baden. XVII. mendeko Beriainen lanean eta XVIII.eko Elizalde gesalaztarrarenean *verce* & *borz* ageri zaizkigu.

Mendiaz bestaldean *-st-* taldea ageri da: *beste* (Ergoieneko Lizarraga, Gulibarko Larunbe), *amabost* (Lizarraga)... Aipagarriak dira Burundako Ziordiko *ortzeguna* & *ortzielia* aldaerak (Echaide 1989: 51-2), dauden datuen arabera inguru honetako *-rtz-* taldearen adibide bakarra baitira. Nahiz XX. mende bukaerako Arakilgo ekialdeko Ihabarko eta Murginduetako inkestetan (Echaide, Artola, Camino) *-st-* taldea ageri zaigun, *-rtz-* da mende hasierako lekukotasuna; esaterako, *Erizkizundi*-ko Irañetako *ortzegun* eta *ortzillere* aipa daitezke. 1925eko Uharteko datuetan, berriz, *ortzilare*, ageri da, baina baita *ostegun* ere. Ekialderago, Ihabarren, *bestia* 'bestea' eta *bost* bildu genituen geuk 1982an, eta *éstiak* Artolak 1987an (1992: 194). Urritzolan, *beste*, *bost* eta *béstelá* bildu zituen Artolak 1980an (EAEL), eta Idoyk Izurdiagan *beste alde ortan*, *oste-*

gune eta *ostielie* (1981b: 204). Gulibarko Larunben *beste* dago (EAEI); bidegurutzea Txulapain eta Ezkabarten hasten dela dirudi: Txulapaingo Usin *bérste*, *bérzeik*, *bestenáz* (EAEI) bildu dira; Ezkabarteko berrietarako ikus (Artola 1985: 110). Ondoko Odietako Ziaurritzen, berriz, *-rtz-* ageri da (EAEI). Atetz, Ultzama, Esteribar, Anue eta Erroibarren ere *-r(t)z-* ageri dira transkribapenetan. Berriz *-st-* hotsa entzuteko Imotz eta Basaburu aldera goiti joan beharra dago.

5.1.2.4. Herskari horzkariaren aitzinean hartzen du apikari bihurtzeko joera mailarik handiena txistukari bizkarkari frikariak; Goñerrian ematen du bateko nahiz besteko adibideak ageri zaizkigula: *gastezutu* ‘gazte denbora’, *gastiget*, *ister*, *estarr*, *orrastatu...* ditugu Bonaparteren datuetan; baina baita beste sailekoak ere: *buztan* ‘isatsa’ vs. *busten* ‘zakila’, *eztul...* Juan Martin de Ibero idazleak ere baditu: *gaste* (Ondarra 1995: 180). Aditzetan ere betetzen da bilakabide hau; hona J. M. de Iberoren adibide bat: *usten* ‘uzten’ (103). Aspaldikoa da, gainera: *egosten* —“egotzi”—tik—dugu 1687ko Urdozko zinean. Bonapartek bildu datuetan bilakabide honek Elkanon du agerpenik handiena: *bustin* eta *izoste* dakartza Eguesibarko herrirako eta *buztin* eta *izozte* Gares, Oltza eta Goñirako. Ollon *gaste* bildu zen mende hasieran eta Gesalazko Muzkiko testuetan ere bada bilakabide hau: *egosteco*, *usten* (380), *dituste* & *dituzte...* Oltzan ere badira arrastoak: *busten*, *ister*; Gareskoak dira, bestalde, *istar* eta *bustan*. Beheiti badirudi zantzia utzi duela: Artaxoako toponimian *Bustina* eta *Zuasti* aldaerak ditugu (Jimeno Jurío & Salaberri 1998).

Aldiz, ez partikularekin ez dirudi beti gertatzen zenik; Bonapartek bizkarkaria dakar: *extere* (Elkano, Oltza eta Goñin), eta *extire* Garesen. Gure eremuko testuetan batez ere «predikuak» izendatu ditugun testuetan (Ondarra 1991) ageri da bilakabidea: *estute* & *estaquit* (Pre I, 137). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere apikaria aurkitzen dugu herskari horzkariaren aitzinean adizkien testuinguruan, beti ere: *ditustenac* (213), *esta* ‘ez da’ (220).

Honelakorik ez dago mendiaz bestaldean: *yaztun* ‘eraztuna’ dugu Altsasun; *gazte*, *emaztia*, *extarriya* ditugu Etxarri Aranatzan; *gazte* Lizarragan; *goizter* Arbizun; *extoket* Arruazun; *gazte*, *aguztua* edo *extaki* Uhartan; *noizti*, *gazte*, *agoztu* Irañetan; *gazta*, *buztena*, *buztiñe* Ihabarren; *gazta*, *buztiñe* Urritzolan; *abuztube* Izurdiagan. Handik eskuin, Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan eta Txulapaingo Nabazko datuetan ere ez da ageri hots apikaria; Nabatzen, esaterako, *gazte* dugu, txistukari bizkarkariarekin; Ezkabartekoan *dolorezcoa* gisakoak ageri dira. Artolak Ezkabarten bildu datuetan *bistu* ‘biztu’ adibidean baizik ez da ageri apikaria. Eredu honetatik goiti *gazte* eta *gazta* —non ez *gasna* ekialdekoa— ageri dira egin diren Nafarroa Garaiko iparreko inkestetan (cf. Pagola 1992b).

5.1.2.5. Goñerrian *-l(d)-* taldeak *-r-* berrikuntza eman du “baldin” aurrizki indargarrian Euskal Herriko beste hainbat lekutan bezala: *baldimbada*-rekin batera *barin badio* dugu (Mur) delakoan (82); *barimeda*, *barimedago*, *barimecere* dakartza Iberok (103, 104 eta 108), Markotegik *barimba* dakar (235) eta «Elizakoak» izendatu sailean *barimbada* dugu (166). Inoiz dena galtzen da: *bambe dode* ‘baldin badaude’ (Pre V). Ondoko Gesalazten ere bada: *barimezauste* (388), eta hauekin batera *balibace* (371), *ezpalin bada* (372) eta *balibadaquigu* (373) ditugu; osorik dago hurrengo adibidean: *Baldiñetan iru orduren demburuen ezpadu opacen uric* (380). Utergako kristau ikasbidean

ere badator: *uzizen barinbeda* (209). Bonapartek hurrengoa dakar: *balimbadu & baldin* (Elkano) —baina *barin* darabil Elkanoko Lizarragak— / *badimbadu & badin* (Gares) / *balimbedu & baldin* (Oltza eta Goñi).

Ez dirudi mendiaz bestaldean honelakorik dagoenik. Etxarri Aranatzen *balin & baldin* bildu dira (Karasatorre et alii) eta Ezkabarteko Anotzen eta Olaibarko Olaitzen *balin* dugu. Testu zaharren artean Ezkabarteko Orrioko apezak 1750ean gaztelaniatik itzuli idazki batean *baldiñetarian* daukagu (Satrustegi 1987: 81).

5.1.2.6. *-rk-* kontsonante taldea *-rg-* ebakitzen da Sakanako leku batzuetan; berrikuntza honen testuingurua izenaren morfologia da, *-ko* genitibo lokatiboa *-r* kontsonantean bukatzen den izen edo aditzondo bati lotzean, eta baita txistukari bati lotzean ere: *orgo* ‘horko’ dugu Etxarrin edota Arruazun Sakanan, baina Arbizun Echaidek *orkua* bildu du (EHHA). *Fagadiedergo zuloa* Andiko toponimoa dugu, bestalde, sakanarren ahoan. Burundako Bakaikun *Lixuberrizárgo espáldia* ageri da (NTEM X, 45), eta txistukariaren ondorengo adibideak ere baditugu: *Allozgo lineà* Dorraon, *Arbízizgo bargà* Unanun edota *Anbelzgo zulúe* Etxarrin (Salaberri 1998: 84). Eguesibarren ere baziren honelakoak: *Emausgo Castelurá*, *Parisdic Veneciará* dakartza Joakin Lizarragak, eta baita *gorgo* eta *gordik* aldaerak ere, nahiz Bonapartek *ortik* eta *orko* dakartzan soilik (Ondarra 1982: 171). Honelakorik ez dago Andiaz beheitik herrietako testuetan ez inkestetan, salbu Olloko *Garesgoa* adibidea, ondoan *Iribeskoa* aldaera duena, gainera. Bonapartek Elkanon, Garesen, Oltzan eta Goñin *orko* baizik ez zuen bildu. Ekialderago berriz ageri zaigu: Esteribar, Erroibar, Aezkoa eta Zaraitzun badira *-rg-* sailekoak bederen; Aezkoan baita *-rd-* ere *gordik* bezalako aldaeretan. Txulapaingo Nabazko emaitzetan *Etxarri Aranazkoa* eta *Aranaztik* bildu dira *ortik*-ekin batean. Berebar, R. M. Pagolak Nafarroa Garaiko iparreko herrietan egin inkestetako emaitzetan denak dira *-rk-* eta *-rt-* (1992b).

5.1.2.7. Goiko bokal sabaikariaren ondoko kontsonante ozenek bustidura jasaten dute Goñerrian, bai *i* diptongoko osagai denean, bai erabateko bokala denean: *oñeztur*, *gañetic*, *baño* ‘baino’, *illune*, *billo* ‘biloa’, *dotriñe* —ikusten denez, baita mailegu gordinetan ere, nahiz *erreine* ‘erregina’ esaten zen—, *ibilli*, *ille*, *iriñ*, *zikiñ*, *zille*, *ziller*... Baina *elorry*; cf. Nafarroako beste leku batzuetan *elorry*. Inguruko hizkeretan ere indarra du kontsonante ozenak palatalizatzen dituen asimilazioko bustidurak, bai mendiz alde batera nola bestera. Honakoak bildu ziren Olo herrian: *langille*, *mutille*, *billorik*, *sollik*, *egundaño*. Gesalazkoak dira hurrengoak: *illic*, *fiñe*, *milla*, *baiziñate*, *bañe & baña* ‘baina’, *zañec* ‘zainak’, *oreño* ‘oraino’.

Palatalizazio bilakabideen banaketa ez da berdina Eguesibar-Gares alderdian eta Goñerrian: nabarmen dago Elkanon ez zirela emankorrek XIX. mendean Goñerrian ageri zaizkigun palatalizazio bilakabide batzuk (Oñederra 1990: 172-6).³⁴ Elkano-koak eta Gareskoak dira hurrengo adibideak, Goñin eta Oltzan beti palatalizaturik ageri direnak: *ilabete*, *ilargi*, *ilunsarre*, *mila*, *dotrina*; baina aipa dezagun Elkanon *izozzilla* eta Garesen *billo* ‘biloa, ilea’ palatalizatuak ere bazirela (Bon). Bestalde, Bonapartek Elkanon (*d*)*iñagu* bildu zuen, bustidurarekin; Lizarragak *dinagu* dakar, ordea.

(34) Hegoaldera Eslaba alderdiko euskarari Elkano eta Garesko sistema egozten dio Salaberrik bustidurari dagokionez (1994b: 1051).

Utergako dotrinan, dena den, Lizarragaren lanean palatalizatu gabe ageri diren *villusiec* eta *sīnestacea* ditugu, eta baita *iñiquen* 'eginik', *illec* 'hilak', *saquiñiquen*, *ceñ* 'zein', *eriocereño*, *gallitu* 'gelditu' ere, esaterako; ez dugu uste, bestalde, *gallitu* horretan nahi-taezkoa dela *-ld-*ren bustidura proposatzea, beste azalpenak egon baitaitezke.

Mendiaz bestaldean ere indartsua da bustiduraren bilakabidea. Ergoieneko Lizarragakoak dira adibideok: *mellu*, *zeñe*, *larreñ*, *illate*, *ille*, *illun* —baina *pilota*— (Solís 1993).³⁵ Uhartan indartsua da: *ill*, *mutilla*, *makilla*, *ozpiña*, *argiña*, *soñeko*... (Erizk.). Arakilgo Irañetakoak ditugu hurrengoak: *soñeko*, *gañera*, *egundaino*, *ooñiken*, *garilla*, *illuntasun*, *ortzillere*; halaz ere, sabaikaria beharrean, *lastaile* ageri da, Uhartan *lastailla* delarik (Erizk.). Ihabarkoak dira 1982an bildu genituen adibide hauek: *miñe*, *ibilli*, *beño*, *zalle*. Urritzolan ere badira adibideak: *zāñek*, *ezpañā*, *ollárra*, *illarra*, *zurgíñe*, *búztíñe*, baina *iríne* (Artola 1992). Eskuinera palatalizazioa bada Txulapainen —*ill*, *egille*, *mutille*, *garille*, *iñede* 'gauinarea', *orañik*, *aiñ*, *oñ* 'oina' (Nabatz)— eta baita Ezkabarteko dotrinan ere: *mille*, *illeren*, *guññuzen*, *iñen* 'eginen', *iñiqueco*, *zeiñ*, *edozeiñ*, *ezpañen*, *soñetic*...

5.1.2.8. Trabarien bustidurak bereizten du Goñerriko hizkera aldamenekoetarik; Bonapartek, segurik, ez zuen halako bustidurarik aipatu. Ager lezakeen adierazgarritasunagatik dakargun adibidea hoberena ez bada ere, esan dezagun *guti* dugula Goñin, ez **gutti*.³⁶ Ollon ordea, adibideren batean bederen, trabarien bustidura ageri zaigu: *aitte* & *aite*. Bustidura hori adierazgarria ere izan daitekeenez, ez da adibiderik egokiena gure helbururako, baina ez dugu besterik. Gaineratekoan, *guti* dakar Olloko inkestak, ez **gutti*. Olloko datuak, bestalde, kontuz hartzekoak dira, bertako ia hondarreko euskaldunarenak baitira; nahi genukeen baino bakanagoak gainera.

Mendiaz bestaldean ugari dira adibideak Ergoieneko hiru herrietan. Hona Lizarragako batzuk: *ette* 'aita', *itten*, *geldittuko*; Unanun ere bada: *itturrama* (Nafarroako Gobernu 1992b); Dorraon: *goitti*, *beitti*, *gettun* 'gaitun', *aitta* (Razkin). Sakanan barrena ere bilakabidea erruz ageri da: *itturri*, *useittu*, *aittu* (Etxarri, Karasatorre et alii 1991, 14, 17, 18); *itten*, *moittu* (Arruazu, NEM II, 123); *zurittu*, *deittu*, *leittu* Irañetan (Erizk.); *zittuten*, *izerdittik* 'izertaturik' (Urritzola, NEM I, 75). Arakilgo Egiaurretako adibideak ez dira fidagarriak adierazgarriak izateko itxura baitute: *attúna*, *ttántto ta ttántto* (EAEL, 197). Ollobar ondoko Gulibarko Larunben ere badugu: *garbittu*, *ittéko*, *itten* (EAEL, 199). Hemendik ekialdera ematen du bilakabidea ez dela emankorra: Txulapainen Usiko datuak ditugu: *eitéko*, *aitu*, *itautén* 'egiten duten' (EAEL, 200) eta Nabazko inkestan *aite* 'aita' bildu zen. Ezkabarten Anozkoak: *íten*, *góiti* (Artola) eta Makirriaingo dotrinan ere berdin: *iten*, *zitigun*, *zition*, *tirezule*; Odietan Ziaurrizkoak: *itekó* (EAEL, 201); Olaibarren eta Esteribarren ez dago bilakabidearen arrastorik (EAEL). Iparreraxeago jo behar da berriz trabariaren bustidura entzuteko: Basaburuko Arrarats eta Gartzaronen, Imozko Latasan, Atezeko Zigandan, Ultzaman eta Anueko Etulainen adibideak ageri zaizkigu (EAEL).

(35) Aipa dezagun kontsonante bustiek ondoko bokal katean guztizko asimilazioa eragiteko gaitasuna dutela Dorraon: *Goñaa* 'Goñira' (geuk bildua). Berdin gertatzen da txistikariak eraginik ere: *Juanitoín kotxa* 'kotxea' (Razkin).

(36) Urbasako toponimian *Bentagutia* dugu. Beriainek, hala ere, hiru aldiz <*gutti*> dakar *Tratado*-an eta pentsa liteke grafia horrek bustidura adierazi nahi zuela: *guttiago* (26), *ayn gutti* (26) eta *ayn dembora guttian* (45). Gesalazko testuetan bada <*guchi*> (378).

5.1.2.9. Mendiaz bestaldera aurkitzen dugun beste asimilazio adibidea —izenaren kategoriaz dihardugu, ez aditzarenaz— *-ind-* / *-ild-* taldeetan gertatzen dena da. Ez da honelako bilakabiderik ez Goñerrian ez mendiaz hegoaldeko ibarretan. Ollon, esaterako, *inderr* bildu zuen Eusebio Etxalarkoak (Erizk.).

Ergoieneko Lizarragan *menddere* ‘maindirea’ adibidea dugu, eta hurrengoak Etxarrin: *indder*, *minddu*, *arinddu*, *gildde* ‘gerezia’, baina *bildu* hala ere (Karasatorre et alii, 1991). Gastesi irañetarrak ere badakartza adibideak: *bañimyuzu* (59). Ekialderago *gille* ‘gerezia’ bildu da Arakilgo Izurdiagan (Idoy 1981: 201), baina *gilda* Arbizun (EHHA); *-ld-*ren palatalizazioa dugu goitixeago ere, Intzako 1801eko idazki batean: *billurre* ‘bildurra’ (Satrustegi 1987: 184). Eskuin, Txulapaingo Nabatzen *inder* eta *bel-dur* bildu ziren *Erizkizundi*-an eta *inderra* dakar Ezkabarteko dotrinak ere (399).

5.1.2.10. Ondoko kontsonante txistukaria bustitzen ahal du goiko bokal palatalak Nafarroa Garaiko hainbat eta hainbat hizkeratan; ohiko adibidea *bakoitz* > *bakotx* da, Beriainengan oraino busti gabe dagoena —*Iesu Christo çure Seme bacoysça*—, baina frikarietan ere gertatzen da: Beriainek dagoeneko <*yxuri*> dakar. Goñerrian ere ageri zaigu bilakabide hau: <*issuri*> (Eb, 131), *ixildu* (Bon). Goñerrikoa da *bakotx* ere. Ondoko Ollon, ordea, *isiltasun* bildu zen (Erizk.).

Bustidura gertatzen da ditugun Ergoieneko adibide anitzetan; usu kontsonante herskari ahoskabeen aitzinean gertatzen da, baina bokal aurreko adibide bat ere bildu dugu. Lizarragako euskararen hurrenaren adibideak ditugu: *gexue* ‘gaisoa’ batetik eta *jexten* ‘jaisten’, *sinixtetu* ‘sinetsi’ eta *pixkat* ‘pixka bat’ bestetik (Solís 1993: 102, 108-9). Arakil aldera Lakuntzako predikuak *bacochari* dakar (233) eta Ihabarren ere *bakótxan* dugu (Artola 1992: 215); Irañetan *bakoitzak* bildu da, ordea (EAEL). Eskuin, bustidura dugu Gulibarko Larunben: *aíxkidieí*; Txulapaingo Usin: *bakótxak*; Nabatzen: *ixildu*; baina Beorburun *lemízen* ‘lehenbizian’.³⁷ Odietako Ziaurritzen *bakótxak* bildu da, baina baita *aristién* ‘arestian’ ere; Ezkabarteko Makirriango dotrinan ere <*s*> eta <*ss*> grafiek irudikatzen dute bustidura: *gaisstoen*, *isstente*, *lebmissicoa* —*lembizico*-rekin batean—, *pisque bat*, *bacocha*. Egungo mintzoan *lemíxiko*, *béren gíxe* ditugu (Artola 1985: 107).

Ondoa goiko bokal palatala duten txistukariak ere busti ohi dira: dagoeneko Beriainek <*billosiric*> “billoxirik” dakar. Goñerrian ere ageri zaigu: *biluxi* & *buluxi* (Bon), <*veres*> “berex” (Eb, 130). Elkanon eta Oltzan *berexi* bildu zuen printzeak eta *beraxi* Garesen. Ergoieneko Lizarragan ere *bexten* ‘bereizten’ dugu, eta baita *e* ondoko *exkin* ‘izkina’ ere. Eskuinera Odietako Ziaurritzen ere *beréxi* dago eta beheitixeago Ezkabarteko dotrinan <*bulusiec*> dugu.

5.1.2.11. Beste hizkera batzuetan hasperena dagoen testuinguruan *i* bokalaren ondoko hots antihiatiko bat aipa daiteke Ergoienean; Lizarragako euskararen *iyes* ‘ihes’, *iyor* ‘inor’, *oyu* ‘oihua’ edo *ziyuen* ‘zihoan’ ditugu. Etxarrin *biyurtu* ageri zaigu (EAEL, 150); Arakilgo Irañetan *iyesi* dakar *Erizkizundi*-ak eta *liyoak* bildu da EAEL-n.

Hasperena ageri den testuinguruaz landako ‘i + g’ loturan ere *-y-* antihiatikoa dugu: Ergoieneko Lizarragan hurrengo adibidea bederen bildu da: *iyende* ‘igandea’.

(37) Beorburuko *itxán* ‘etxean’ adibideak ezagun du kontsonante palatalak hitz hasierako *e-* hertsia eta hiatuseko *-e-* irentsi duela.

Uharteko dotrinan ere *ityende* dugu, eta *igen* ‘igan’ aldaerarekin batera *iyen* dakar (576). Uhartan *iyei*ke ‘igerika’ edo *iyeltsero* bildu ditu Arakamak (1994: 576, 20. oh.). Eguzkialderago, Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan ere ageri zaigu: *iyendeac* (396) —baita *ygende* ere (381)—, *iyen* (380), baina ez Txulapaingo Nabazko inkestan: *iges*i, *igande*. Aspaldiagoko Beriainek *ygende* & *igande* dakar *Tratado*-an nahiz dotrinan, eta baita Elizaldek ere; Utergako dotrinak *igen* ‘igan’ dakar. Goñerrian eta goiko alderdiko gainerateko ibarretako emaitzetan ez da ageri hots antihiatiko hau: Goñin Bonapartek *igende* bildu zuen.

5.1.2.12. Hitz hasierako txistukari afrikatuaren artean soilik sabaiaurrekoak ageri dira Bonaparteren Goñerriko datuetan: *txuri*, *sardiñ* & *txardiñ*, *txakur*, *txal* ‘txahala’, *txiki*, *tximike* ‘tximitxa’, *txintxere* ‘zizarea’, *txori*, *txupetu*, *txutitu*... Honetan mendiz bestaldeko joerarekin batera ageri zaigu Goñerria, baina Ollo herriko emaitzetan, berriz, *txerri*, *txakur* edota *zerri*, *zakur*, *zulo* emaitzekin batean hitz hasierako afrikatu bizkarkariak ere baditugu, Nafarroako ekialderagoko joeraren antzera: *tzerri*, *tzakur*, *tzulo*. Ezaugarri hau bada Eguesibarren Lizarragaren testuetan: *tzakur*, *tzar*, *tzerri*, *tzorrotz*, *tzorrostu*, *tzut*, baina Bonapartek ez zuen Elkanorako ezaugarri honen berri eman bere hiztegi alderatzailean; Ollon agertu zirela ikusirik pentsa ote daiteke Goñerrian eta Oltzan ere erabiltzen zirela?

Mendiaz bestaldean Ergoieneko Lizarragako emaitzak eman daitezke mendebalderako: *txuri*, *txerri*, *txintxo*, *txuitu*, *txiki*, *txarki*, *txarra* (Solís 1993) eta *tx-dunak* dira Razkinek Dorraon bilduak ere. Arakilgo Irañetan ere *txerri*, *txakur*, *txuri* bildu ziren (Erizk.), baina ekialderagoko Egiarretan *tzoratu* bildu da (EAEL, 197); Ihabarren *txú-riakín* ageri zaigu. Eskuin, Ezkabarteko Anotzen *tzakurréki* eta *tzutítzen* & *tsutítu* (EAEL, 202) eta baita *txutítu* ere (Artola 1985: 108). Odieta Ziaurritzen ere bildu dira: *tzakúr*, *tzikírétu* ‘osatu’. Ekialderago Ultzaman, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan eta Zaraitzun ere entzun daitezke honelakoak.

5.1.2.13. Bokal arteko *-r-* samurra galtzeko joera ez zen iragan mendeko Goñerrian orain mendiaz bestaldean gertatzen dena bezainbatekoa. Ollokoak dira hurrengo adibideak: *itxera*, *billorik gabe*, *erosi*, *bere*, *mendire*, *iturrire*; *txikitaik* dago halaz ere. Bonapartek Goñerrian bildu lekukotasunen artean ez da ageri Ergoieneko Lizarragako hurrengo adibideen antzekorik: *non* ‘noren’, *gio* ‘gero’, *gue* ‘gure’, *elizaa*, *etxetaa*, *artaa*...; hauez gain, *biandu* ‘berandu’ ere bada, *era* > *ea* > *ia* emanez. Dorraon paretsuko *lurriá botá* ‘lurrera erori’ bildu da (EHHA) eta guk Unanun *Goñáa* ‘Goñira’ entzun dugu. Etxarrin ere halaxe da (Karasatorre et alii): *alabaai*, *gauzaai*, *Mariaai*, *Joxeei*, *etxiaa*, *zuluaa*, *etxetaa*, *zulotaa*. Ikusten denez, dardarkariaren galeraz landa, bokalaren luzapena ere gertatzen da. Arbizukoa da hurrengoa: *atáa* ‘atera’ (EHHA). Irañetako datuetan ere ageri da: *itxea* ‘etxera’ (Erizk.). Ekialderago Ihabarren ere bada: *lekué* ‘lekura’, *jarríik* ‘jarririk’ (Artola 1992: 215); baita Urritzolan ere: *bi alde-taá* (EAEL). Datu zenbait bada eskuinaldeko ibarretarako: Nabazko inkestan *zorritz beteik* ageri da, eta Ezkabarteko dotrinan *vicic* ‘bizirik’ (403), *duenay* ‘duenari’ (389) edo *figureic* ‘figurarik’ (389). Ezkerretik Burundan ere nabarmena da galeraren maila (Izagirre 1967).

Oroit, bestalde, mendiaz bestaldeko eremu batean, aditz faktiboen sailean eta *era*-duten beste ele batzuetan dardarkari samurra galtzeak hitzaren hasieran eragin duen

hiatusa diptongo bihurtu dela eta hainbat kasutan edo hainbat herritan gero hots sabaikaria indartu dela: hauen sailean sar ditzakegu Etxarriko bereko *yosi* 'erosi', *yon* 'egon' edota *yaaman* 'eraman'. Etxarrikoak dira hurrengo adibideak ere (Karasatorre et alii 1991: 165): *iakusi* 'enseñar', *ialgi* 'cribar, pasar en la baya', *ian* 'beber', *ianäzi* 'abrevar ganado, hacer beber', non *ä* horrek ohikoa baino luzetasun handiagoa adierazten duen; *ianion* & *ianeon* 'anteayer', *iäntzi* 'desnudar', *iäntzun* 'contestar, responder', *iaztune* 'anillo'. Ergoieneko Lizarragan ere honelakoak ditugu: *yostia* 'erosteä', *yaman*, *yoten* 'egoten', *yakusi*, *yan* 'edan', *yos* 'beraz, geroz', *yo* 'gero' (Solís 1993). Dorraon ez omen dago honelakorik: *eran*, *eman*, *eranaun* (Zuazo 1994: 306). Indartze bilakabidearen joera horrek jarraipena du Imotzen eta Basaburuan (Ibarra 1995b: 221).

Geure eremuan Sakanan ekialderago goazen ber aldaera osoagoak erabiltzen dira: Lakuntzako erretore zen Gastesi irañetarraren 1850eko testuan, esaterako, *eracutsi* ageri zaigu (Ulyar 1987: 59); Arakilgo Ihabarkoa da *eakusten* adibidea (Artola 1992: 215).

Ez Goñerrian eta ez inguruko ibarretako hizkeretan ere ez zen horrelakorik gertatu, eta itxuraren aldetik urrunsko gelditzen dira Sakanakoetarik Bonapartek Goñin bildu hurrengo adibideak: *erabazi* 'irabazi', *erakutsi*, *eramo*... Oltzako Iberoko otoitze-koak dira, berriz, *eracusten* (150), *eranci* (151) eta *erauchi* 'eratsi' (151). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere aldaera osoak ageri dira: *eracusi* (219). Gesalazkoak dira *eramo* (374) eta *eracusi* (376).

5.1.2.14. Bereziki gure eremuko hegoaldean *r* eta *d* kontsonanteen arteko nahasketarako joera dago, aditzaren morfologia ere guztiz harrapatzen duena. Garesen *erozein* bildu zuen Bonapartek eta *benerica zoce* dakar *Le Cantique*-k, eta Oltzan ere bai. Aldiz, Goñin *edozein* dakar printzeak. Gesalatzen, bestalde, *edorico* 'eroriko' ageri da testuetan (389).

5.1.2.15. Honako atal honi ekiteko aski datu ote dugun ez dakigu xuxen, baina Bonaparteren emaitzen arabera hitz hasierako herskarien testuinguruan ez da Goñerrian gertatzen ahostunaren eta ahoskabearen arteko txandaketarik. Ergoieneko Lizarragako *bekatu* & *pekatu* edota *kostatu* & *gostatu* bezalako parerik ez da ageri Goñerriko lekukotasunean. Izatekotan, antzeko bi adibide bildu ditugu: *gastigetu/kastigetu*, eta *gardu/kardo*, baina bai pare batean bai bestean adiera desberdina dute ezkerreko eta eskuineko osagaiek, non eta bereizketa hau ez den inkestagintzak beharturikako emaitza. Gainerakoetan aldaera bakarra da Bonapartek dakarrena, soinu ahostunarekin ala ahoskabearekin, baina ez biekin: *bertz* 'caldera', *bikor* 'garaua', *borru*, *bekatu*,³⁸ *butzu*, *gardu*, *garitx*, *gatu*, *gerezi*, *goñeta*, *goñube* 'sotoa', *gorosti*, *gurilo*³⁹ 'lertxuna', edo *gurutze* ditugu, esaterako, ahostunen artean eta *kanabeta*, *karatxori* 'txolarrea', *kendu*, *kisu*, *korputz* —baina J. M. de Iberoren testu batean <*gorpuz*> (104), *kostatu*, *paradiso*, *partz* 'bartza', *pike*, *piper*, *puruxe* 'guraizeak' edo *torre* kontsonante ahoskabea dutenen artean.

(38) Baina *pecatu* Lakuntzako predikuan (Satrustegi 1987: 231); 1838ko otoitzetan, berriz, *becatari* (230).

(39) Burundako Altsasun *kurrillo* bildu zuen Izagirrek (1967: 71).

Eskuinera sail ahoskabeko aldaerak dakuskigu Odietako Ziaurritzen, Goñerrian ahostunak direnak: *pikor*, *putzu*⁴⁰ (Artola 1992). Aldiz, beheiti, Ezkabarteko dotrinan Goñerrikoen gisako ahostunak: *becatu*, *baque*, *gorputz*, *gurutze*.

5.1.2.16. Frikari ahostun horzkari eta belare, edota belare eta ezpainbikarien arteko nahasketa ez dirudi Goñerrian nabarmen gertatzen zenik. Ditugun datuetan bi aldiz ageri zaigu soilik: toponimo batean: *Bagerte* eta *Baberte*,⁴¹ eta *bigeldu* (Bon) adibidean —baina bada *vieldu* ere (Pre III, 152)—. Bilakabide honen arrastoak Burundan eta Ergoienean ditugu, hitz hasieran nahiz bokal artean: *sudur* & *sugur* (Lizarraga), *guntzurin* & *buntzurin* (Lizarraga); Unanun, berriz, *bultzurin* dugu. Bitasun honen adibide bera gertatzen da Burundan herri batetik bestera: Bakaikun *bultzurrun* bildu da eta Ziordian berriz, *giltzurdin*. Etxarri, Arbizu eta ekialderago, Arakil aldera, belaredunak bildu ditu K. Zuazok: *gultzurin*, *giltzurrun...* (1994: 317). Goñerriko gainerateko datuetan ez zaigu, dirudenez, honelako txandaketarik ageri: *sudur*, *giltzurrun*. Aipa dezagun Goñerriko *ugelde* 'ibaia' *ubelde* dela Ergoieneko Lizarragan. Urritzolan *obi* dugu 'ogia' eta eskuin, *obi* & *ogi* dugu Ezkabarteko Anozko egungo datuetan (Artola 1985: 105-6).

5.1.2.17. Goñerriatik beheiti, Sakana alderdian, erabilpen maiztasun handia du *f* fonemak Euskal Herriko beste alderdi batzuekin alderatzen baldin badugu. Arakilgo Urritzolan, esaterako, *safai* 'sabaia' dugu, eta Ergoieneko Lizarragan, bestalde, ohiko *fede*, *afaldu* edo *ofrezitu* adibideez gain, *joan*-etik datorren *fan* dugu, baina baita *fake* 'bakea',⁴² *fago* 'bagoa' eta *kafi* 'kabia' ere (Solís 1993: 110). Hiru hauek, *bake*, *bago* eta *kabi* dira Goñerrian, eta ez dago Andiko gaineko alderdi horietan *fan*-ik, *joan* baizik, soinu belarearekin; halaz ere *fan* bildu zen Ollon eta oikonimoetan *Fantikorena* edo *Fangorrena* ditugu Olloibarren *Juan*-etik (J. M. Bidadorrek a. e.). Badira, jakina, beste hizkeretan aurkitzen ditugun *f* arruntak Goñerrian ere: *afaldu*, *afari*, *falaztada* 'olatua' eta maileguetan *fuñe* 'lepazuria', *ferrata* 'herrada' (Ib, 102), *rafe* 'etxagaineko hegalpea', *infiernu* edota *ofrezitu*, esaterako. Ergoienaz gain, Estellerria, Burunda eta Etxarri/Arbizu alderdia dira *f*-ren erabilpenean maiztasun gora ageri duten eremuak (Zuazo 1994: 320-1). Itxura guztien arabera hortik ekialdera gauzak Goñerrian bezalatsu gertatzen dira.

5.1.2.18. Oro har ezaugarri pare bat baizik ez dago gure eremu guztia harrapatzen duena; Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan bokal artean hasperenketak duen kokagunean ageri zaigun *-g-* da batetik, ukitu ditugun hizkera guztietan —ez dugu Burundako berri— betetzen den ezaugarria; *i* bokalaren inguruko txistukarietan gertatzen den bustidura ere aski arrunta da Nafarroa Garaian; bi hauekin ez, baina gainerateko ezaugarriekin eremu banaketak finkatzen ahal ditugu.

Bada batasuna Ergoiena, Aranatz eta Arakil ibarreko mendebaldeko herrien artean ezaugarri batzuetan; zenbait aldiz baita Burundarekin ere. Ezaugarri horietan Goñerriak beste jokabide bat dauka eta beste ibar batzuekin batera gainera. Batera

(40) Eta halaxe dira guztiak, *putzu*, Pagolak Nafarroa Garaiko iparrean egin inkestetan (1992b).

(41) Guztiz paraleloa da Orbaizetako *Bagola*, *Babola* & *Baola* adibidea.

(42) Aralarren agertu 1833ko Sakanako idazki batean *ceruban faquia pasatu* ageri da (Satrustegi 1987: 197).

doaz Burunda, Aranatz, Ergoiena eta Arakil **j*- zaharraren emaitza belarean, nahiz Arakilgo ekialdean mendearen hasieran sabaiaurrekoa zen hotsa; *-st-* taldean ere batera doaz, nahiz Burundan *-rtz-*ren arrastoa ageri den eta Arakilgo ekialdean mende hasieran *-rtz-* zegoen. Batera doaz *-rk-* > *-rg-* eta *-zk-* > *-zg-* bilakabideetan. Burunda, Ergoiena eta Etxarri/Arbizu alderdian, gainera, *f-*ren agerpena beste lekuetakoa baino azkarragoa da —ez dakigu Arakilgo berri—. Bustidura pare batean ere batera doaz Goñerriaren aurka Ergoiena, Etxarri-Arbizu alderdia eta Arakil: *-ind-* eta *-ild-* batetik, eta *-it-* bestetik, bustirik ageri dira eremu hauetan. Azken bustidura honetan bidelagunak dituzte Iruñetik goitiko ibar batzuk: Gulibar, Atetz eta Anue gutienez. *-y-* antihiatikoan ere batera doaz Ergoiena, Etxarri-Arbizu alderdia eta Arakil, eta bidelagun dute honetan Ezkabarteko euskara. Iruñetik goitiko hizkerak eta Sakana alderdikoak batera doazen beste ezaugarria *-zt-*ren kontserbazioa da. Beste berrikuntza batean ere oro har batera doaz: bokal arteko dardarkari bakunaren galera maila handixea dute ibar hauek guztiek.

Ezaugarri hauen guztien aitzinean bestelako jokabidea ageri du Goñerriko mintzoak: mende hasierako Arakilgo ekialdean bezala *x-* hots sabaiaurrekoa zegoen Goñerrian, eta baita Olloibarren, Oltzan, Utergako dotrinan, Eguesibarren eta Artzibarren ere; Garesen, ordea, belarea zen ahoskera. Gesalazko berri ezin eman dugu, grafiak ez baitu argitasun handirik eskaintzen, baina ez da ahantzi behar Muzki eta Gares ez daudela urrun eta Morentinen testuetako <*j*> horiek eduki dezaketela zer ikustekorik Garesko hots belarearekin; ez jakin. Dirudienez garai batean Erroiabarren, Ezkabarten eta Txulapainen ere sabaiaurrekoa erabiltzen zen; egun sabaikaria dago Erroiabar, Esteribar, Anue, Odieta, Ezkabarte, Txulapain eta Atetzen. Baina ezaugarri gehiagok ere biltzen dituzte hizkera hauek guztiak, *-rtz-* kontsonante taldeak esaterako: mende hasierako Arakilgo ekialdea, Goñerria, Gesalatz —adibide zenbaitetan *-st-* ere baden arren—, Olloibar, Oltza, Gares, Utergako dotrina, Eguesibar, mende hasierako Txulapaingo datuak, Ezkabarte, Odieta, Atetz, Anue, Esteribar, Erroiabar eta Artzibar batera doaz *-rtz-* taldean.

Geografian eremu murriztagoa hartzen dute Iruñetik ezker hainbat ibar biltzen dituzten hurrengo ezaugarriek: ez dira *-it-*, eta *-ind-* / *-ild-* kontsonanteak bustitzen —edota honelako bilakabiderik ez zaigu idazkietan ageri bederen— Goñerrian, Gesalatz, Olloibarren, Oltzan, Garesen, Utergako dotrinan eta Eguesibarren. Iruñetik goiti Gulibarren, Atetzen eta Anuen *-it-* bustitzen da. Hegoaldeko hizkerak batzen dituen beste ezaugarri bat *-zt-* > *-st-* bilakabidea da: Goñerria, Gesalatz, Olloibar, Oltza, Elkano, Gares eta Utergako dotrinako datuak. Ematen du Iruñetik goiti dauden hizkerak hegokoez bestela doazela ezaugarri honetan.

Ozenen bustidura maila apala da Eguesibarko hizkerari izaera berezia ematen dion beste ezaugarri bat; beti-beti ez bada ere, Gares berarekin batera doa, baina ez Utergako dotrinako datuak. Berebat, Utergako dotrinako datuek bezala bustidura maila nabarmenagoa ageri dute Iruñetik goiti dauden Txulapaingo eta Ezkabarteko hizkerak, *i* bokalaren ondoko ozenak ere bustitzen baitira hauetan. Ergoiena, eta Arakil ere azken hauekin batera doaz, baina ez Burunda despalatalizatzailea. Goñerria, Gesalatz eta Oltza ere palatalizatzaileak dira, Olloibar bezala, baina ekialdera, Esteribar, Erroiabar eta Artzibar Eguesibarko joera ez horren palatalizatzailean sartu behar dira.

Hegoaldeko hizkerak batzen dituen beste ezaugarri bat *baldin* aurrizkian gertatzen den *-ld-* > *-r-* soilketa da: Goñerria, Gesalatz, Gares —*badin*—, Utergako dotrina eta Eguesibar harrapatzen ditu, baina ez Sakana alderdia ezta Iruñetik goitiko ibarretako hizkera ere. Ekialdean *balin* dago Erroibar eta Aezkoan. Bokal arteko dardarkari bakunarekiko jarrera kontserbatzaileak harrapatzen duen eremua ere arestikoaren iduria da: Goñerrian, Gesalatz, Olloibarren, Oltzan, Garesen, Utergako dotrian eta Eguesibarren ageri diren datuetan bokal arteko dardarkari bakuna ez da galtzen; aitor dezagun datu hauek gehienak iragan mendekoak edota aitzinekoagoak direla, baina Olloibarkoak gizaldi honen hasierakoak dira eta bokal arteko dardarkari bakunari eusten zaio adibideetan. Aipa dezagun, bestalde, hegoaldeko geure eremuaren barrenean izen guti batzuetan *r* eta *d*-ren arteko nahasketa dagoela dirudiela —ez dihardugu orain adizkiez—: Gesalatz, Garesen eta Oltzan, hain zuzen.

Arestiko hedaduraren aldean, aurkeztuko ditugun bi berrikuntza hauen banaketa ñabarragoa da: hitz hasierako *tz*-ren banaketa —daturik ezak sor ditzakeen zalantzak zalantza—, hurrengo da: agian Arakilgo ekialdea —Egiarretako *tzoratu* salbuespen bat baino zerbait gehiago baldin bada—, eta hurrengo hauek ziurtasunez: Olloibar Iruñetik ezker eta eskuin Eguesibar; hiriburutik goiti, berriz, Ezkabarte, Odieta, Ultzama, Esteribar, Erroibar, Aezkoa eta Artzibar. Aldiz, lehen ere aipatu dugun hurrengo honetan hedadura ez da guztiz berdina, Sakana eta Burundan bai baititugu ekialderago agertuko diren *-rg-* taldeak aditzondoetan: *-rg-* Burundan eta Sakanan, *-zg-* Ergoienean, *-sg-* Olloibarren, *-sg-*, *-sd-*, *-rg-* eta *-rd-* Eguesibarren, eta ekialdera Esteribar, Erroibar, Aezkoa, Zaraitzu eta Garaziko *-rd-* edo *-rg-* ditugu gogoan gutienez.

Ezagun duenez, kontsonanteek ere aukera ematen digute geure eremua berrikuntza batzuen arabera banatzeko, baina argi dago berrikuntza guztiak ez direla eremu beretara iritsi eta ñabarra dela geure eremuan kontsonanteen inguruko ezaugarriek sortzen duten zatiketa askotarikoa.

5.2. Izenaren morfologia

5.2.1. Hitzzen formari dagozkionak

5.2.1.1. Goñerriko testuetan ez dirudi hitzen berezko *-a* galtzen denik: *gauçe gucietan* (Ib, 106).⁴³ Gares eta Elkanon ere *gauza* dugu; Oltzan berriz, Goñin bezala *gauze* dakar *Le Cantique*-k. Gesalazko testuetan *anaia bat* (382) eta *gauçe temporale* (383) ageri dira.

Goñerriko testuen garaiko mendiaz bestaldeko berri guti dugu: Lakuntzako predikuan *gauza negargarrie!* dugu (Satrustegi 1987: 233) eta Gastesi irañetarraren testuan (1850-1854) *gauza bat*; Lakuntzako predikuan, ordea, *Eliz ama sanduac* ageri da (231), baina ez da adibiderik egokiena galera frogatzeko. Egungo mintzoan badaude bilakabide honen adibideak, esaterako Ergoienean, eta dirudienez indartsua da joera: *makin bet*, *punt ure*, *kazul zopa*, *amorri* 'ama horri' (Solís 1993: 99). Etxarrin ere bada: *gauz*, *eliz*, *anei*, *makill* (Karasatorre et alii, 1991). Ekialderago ageri da adibideren bat;

(43) Zuhurtasunagatik testuen sailera sartu nahi izan ez dugun batean, Goñerrikoa izateko itxura duen idazki batean *maquilla bate(an)* dugu (Ondarra 1994: Tes VI-1, 528).

hona Arakilgo Ihabarko bat: *màkil betián* 'makila batean' (Artola 1992: 215), baina Urritzolan berriz ere osorik dugu adibidea: *gáuze at* (EAEL). Goiti Imozko Latasako adibidea eman daiteke: *ólako gauzík* (EAEL, 191). Eskuinera *gauze guzien gañean* osorik ageri da Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan (381) eta Txulapaingo Nabatzen ere *gauze* dugu; halaz ere bada adibide zenbait bi ibarrotan: *makíl bet* dugu Ezkabarteko Anotzen eta *gáuiz oník* Txulapaingo Usin.

5.2.1.2. *-l-z* bukatzen diren erdaratikako maileguetan *-le* da gehienik bukaera Goñerriko euskal eleetan: *arbole* (Bon), *mortalea* (Ib, 107), *reflexione naturale* (Pre II, 149); salbuespena egiten du hurrengo adibideak: *liburu espiritualac* (Pre I, 138). Gesalitzen ere horrela da: *gauze temporale gicietatic* 'guztietatik' (383) eta Beriainek ere halakoxeak zerabiltzan: *caudale, mortale*, Elkanoko Lizarragak bezala. Mendiaz bestaldera, ordea, Lakuntzako predikuak *arbola baten* dakar (234) eta Gastesi irañetarraren testuan *mortala* (57) ageri zaigu.

5.2.2. Erakusleak

5.2.2.1. Singularrean: *au, ori, oré* dira Oltza eta Goñirako Bonapartek dakartzan emaitzak; Ollon ere *au, ori, ore* bildu dira. Absolutibokoez landa, *on-, orr-, ar(r)-* dira oinarriak Goñerrian. Eskuinaldera goazen ber, garrantzizko beste desberdintasun bat Eguesibarko euskaran erakusleek hitz hasieran daramaten herskari ahostuna da: *gau, gori, gura*; ezaguna denez, ezaugarri hau Nafarroako ekialdera hedatzen da eta Esteribar, Erroibar eta Aezkoa ibarretan bederen bizirik dago egun, eta iraganean Artzibarren, Urraulgoitin eta Longidan ere bai (Camino 1997: 228-9).

5.2.2.2. Absolutiboaz aipa dezagun *oré* hirugarren graduko aldaera ez dela Elkanoko, Garesko eta Gesalazko euskaran ageri; bi lehenetan *ura* da eta Gesalazten *ure*. Oltzan ere *oré* bildu zuen Bonapartek. Ollorako hurrengo adibide pareta daukagu: *gogoratu zai de au edo ore & baleki inen luke au edo ure*. Eskualde honetako hirugarren graduko erakuslearen berezitasun hau ez da mendiaz bestaldera galtzen eta ekialderat sartzen da: guk 1998an Urritzolan *óre* bildu dugu. Hori bera erabiltzen da Uhartzen ere (Satrustegi 1982: 22), eta Gastesi irañetarraren testuetan ere *ore* dugu: *plume ostu ore* 'luma ebatsi hura', *pestiore* 'izurrite hura' (Ulayar 1987: 58-9), nahiz EAEL-k herri honetan *üre* bildu duen. Ekialderago, Txulapaingo Beorburun, Usin eta Nabatzen, Atezko Zigandan, Odietako Ziaurritzen eta Ezkabarteko Anotzen ere *ore* dugu⁴⁴ (EAEL, 192, 200, 202) eta Ultzamako Suarben ere *óre* bildu du Koro Segurolak azken urteotan (EHHA); Anueko Etulainen ere bildu da (EAEL, 196). Goizuetan *ora* dago hirugarren graduan (Zubiri & Perurena 1998: 107). Ezkurran ere badago *ore*, baina bigarren graduko *ori*-ren irekidurari dagokiola uste dugu.

Bada Goñerrian *oren* genitiboa ere: *estut mereji oren Divina Magestadea Sar dadien ene ostatu pobre ontan, ene corpuç becatari ontan, beñe alare orren itç Sandue erran esqueros...* (Ib, 102); baita Iberoko kantuan ere: *oren Amorioari* (146); baina *Magestade orrei* (146). Ez dakigu Odietako Ziaurritzen bildu den *oren* bigarren ala hirugarren gradukoa den: *ur óren kontué* (Artola 1992: 217). Ezkabarteko dotrinan *orei* dugu (403) eta baita *orrei* ere (403).

(44) Baina Makirriaingo dotrinan *ure*.

Dena den ez da *oré* Goñerriko euskaran ageri den aldaera bakarra (Eb, 131; Pre I, 139); *ure* ere (Eb, 131) ageri da idazkietan. Mendiaz bestaldera Ihabarren (Artola 1992: 215) eta Ergoieneko Lizarragan aurkitzen dugu berriz ere *ure*. Dorraon, berriz, *úa* eta *urá*. Eskuinerago *úre* dugu Txulapaingo Beorburun eta *uré* Odietako Ziaurritzen.

5.2.2.3. Euskal Herriko hainbat lekutan bezala, egoera inplosiboan herskari bela-rearen aitzinean usu agertzeak sortu ohi duen indartzearen oihartzunez, hirugarren pertsona singularreko erakuslean bakunaren ordez kontsonante dardarkari bortitza aurkitzen dugu Goñerrian ere: *arrek, arren, arri, arreki, arrendako...* Badira, ordea, salbuespenak; prediku batean *aren Anime* ageri zaigu (Pre V, 166). Indartze bilakabide honetan bidelagun ditu Goñerrikoak inguruneko hizkerak: Eguesibarko Elkanokoa, Izarbe ibarreko Gareskoa —Utergako dotrinako hizkera barne—, Oltzakoa, Ollokoa eta Gesalazkoa; bestaldera Ergoieneko Lizarragan gauza bera gertatzen dela ikus daiteke: *arri, arren, arrutz* (Solís 1993). Arakilgo Lakuntzako 1838ko otoitzetan, Urri-tzolan, Txulapainen eta Ezkabarten ere ageri da.

5.2.2.4. Pluraleko aldaerak: *abek* (Ib, 104), *aubek*⁴⁵ (Pre I, 139) & *ebek* —*ebengati* (Ib, 99), *ebegui* (Ib, 105)— ageri dira lehen graduan Goñerriko idazkietan; *oyek* (Ur) —*oyen* (Pre II, 145)— bigarrenekoan, eta *ayek* (Pre I, 139,) da erabiliena hirugarrenean, nahiz honetan *eiek* ere baduen: *eiec gu(c)iec eman cezquiola* (Ib, 95); *vide illun eyec* (Mur, 87) & *vide alegre ayec* (Mur, 87); ezaguna da *ai > ei* bilakabidea Goñerriko dip-tongoetan. Honelako aldaerak ezagunak dira Gesalazten: *eiec* (374), *escusa eyen castigotan* (382). Mendiaz bestaldera Ergoieneko Dorraon *eyek* erabiltzen da, nahiz herri horretan, Goñerrian ez bezala, *aik* ere baden —Lizarragan ere bada *aik*—. Gastesi irañtarrak *ayetas* dakar (62) eta *ayék* bildu da Arakilgo Ihabarren. Ezkabarteko Anotzen ere *ayék* dugu. Beriainen *ayec* dakar gehienetan, baina baita *ebec* (1621: 76) ere.

Goñerrian ez bezala laburragoak izateak ematen die berezitasuna mendiaz bestaldeko bigarren eta hirugarren graduko erakusleei: *oik* (2) eta *aik* (3) ditugu Unanu, Etxarri eta Lakuntzan. Arruazun *oetan* (2) dugu. Badira, dena den, Ergoienean bestelako aldaerak ere: *oyek* bizirik dago egungo Dorraoko euskaran *oik* eta *orik*-ekin batera. Burundan, berriz, *oik* & *oyeg* (2) eta *aik* (3) ditugu Bakaikun, eta *oik* & *orik* (2) eta *aik* (3) Ziordian. Ekialdeko Arakilgo Murginduetan, ordea, *oyek* (2) eta *ayek* (3) ditugu, Goñerriko aldaeren antzera. Hauek berak dira Ollo herrian Eusebio Etxalarkoak bildu zituenak: *oiek* (2) eta *aiek* (3). Gesalazten *aiec* ageri da (376).

Harrigarria badirudi ere, bada aldea lehen graduan Goñerritik Olloibarrera, bertan *abek, ebek* eta *ok* bildu baitzituen Eusebio Etxalarkoak; Olloko Francisco Ollakarizketa lekukoa Iruñean bizi zen Eusebio Etxalarkoak galdezkatu zuenean; Larrekok zioenez Ollo beste inor ez zen euskaraz mintzatzen. Iruñean beste herri batzuetako eta bereziki Iruñeaz goitiko beste euskaldun batzuekiko hartu-emanaren ondorioztat har ote dezakegu Ollakarizketak inkestan *ok* hori eman izana? Ez jakin, baina jabetu gaitezten Andiaz iparrera aldaera hau guztiz arrunta dela: Ziordian, Bakaikun —*ebek*-ekin batera—, Lizarragan, Lakuntzan eta Murginduetan *ok* dugu eta Dorraon, Unanu, Etxarri eta Uharten, berriz, *auk*. Dorraokoak dira *otatik* nahiz *auteti* ‘hauetatik’ aldaerak. Beriainen garairako, dagoeneko, *oboc* behin (1621: 73) eta *obec* —franko-

(45) Oltzako Iberoko kantuan ere *abek* eta *aubek* ditugu.

tan— ditugu. Gastesi irañetarraren testuan *aubec* (58) epentesiduna dugu. Ekialdera-go, Txulapaingo Nabazko datuetan Goñerriko berak ageri zaizkigu: *ebek, oiek, aiek*. Eskuineago, Ezkabarteko dotrinan *ebec* dugu lehen graduan, baina *hoc* lagun duela; *oiec & oyec* bigarrenean; *oyék* bildu da Anotzen mende honen bukaeran (Artola 1985: 108). Goiti Intzako 1772ko idazki batean ere *oc* eta *oetati* aldaerak ageri dira (Satrustegi 1987: 131), eta Odieta Ziaurritzen *ókeri* datiboan.

5.2.2.5. Erakusleen arloan aldea dago aldaera indartuetan Goñerriatik mendiaz bestaldeko Burundara, Ergoienera eta Aranatz alderdira: Burundako Altsasun *ebéik & ebaik* bildu zituen K. Izagirre zenak: *aik ebeindako artzen zein ura eta akabo ain dantzak* (1967: 58). Dorraoko *erak* edo Etxarriko *iak* ere ez dira ageri Goñerrian. Hona Dorraoko adibide bat: *lókerák, kárruen txarráñtxak, éyei lotzekó, éraikin tréñzatú ta anillue jarri bí puntetán; béstelá, érak ásten dianén, bí arí, ordúen dalká...* (EHHA). Dorraon berean *een* bildu da genitiboan eta *erakin* sozietiboan. Arbizutik Arakil aldera aldaera *b-dunak* hasten dira: Uharteko hirugarren graduko erakusle indartua *berak* da. Aldaera *b-dunak* badira Ergoienean ere, eta Arbizun soilik *b-dunak* erabiltzen dira (Zuazo 1994: 329). Goñerrian *berau, berori, beroré* bildu zituen Bonapartek eta Oltzan, berriz, *berau, beroi, beroré*. Elkanon *berau, beroi, berura* eta Garesen *berau, berori, berura*. Olloko datuetan *ure bera* ageri da.

5.2.3. Izenordainak

5.2.3.1. Izenordain arruntak: Goñerrian eta Garesen *zek* da bigarren pertsona pluraleko izenordaina; bidelaguna dute ibar hauek mendiaz bestaldean Ergoienera Lizarra: *zek* (abs.) & *zen* (gen.). Halaz guztiz, bada Goñerrian *zuek* aldaera ere: *cer erranen dut, nere oyente estimetuec, zuec estequicena* (Pre I, 138), eta J. B. Ibero idazleak *zuen* darabil genitiboan (106). (Mur) izendatu dugun testu Goñerrikotzat hartuan ere <*zuec*> dugu (90). Ollon ere *zuek* ageri da. Elkanon eta Oltzan ere *zuek* erabiltzen zen eta Gesalazko testuetan ere ez dago palatalizaziorik: *zuen & zuetaz* (372), nahiz gero adizkietan *zaze* 'ezazue' sailekoak ditugun. Beriainek ere palatalizatu gabeko *zuec* dakar (1621: 113).

5.2.3.2. Izenordain indartuak: Bonapartek Goñin bildu zituenak dakartzagu lehenik: *nerau, neronek, neroni; erori, erorrek, erorri; gerok, gerok, gerobei; zerori, zeorrek, zerorri; zeroek, zerok, zeroi*. Hauez gain testuetako adibide zahar osoagoak ditugu: *nauronek* dakar J. M. de Ibero idazle munarriztarrak —Ondarraren argitalpenean *neuronek*—, eta honetan Beriainen aldaeretara inguratzen da: *neurau* (1621: 113), *ceurori* (1621: 43, 113). Genitiboan, berriz, *nere* (Pre II, 145; Eb) dugu⁴⁶ —Elkanon eta Oltzan bezala, baina Beriainek eta Elizaldek *neure* dakarte—, eta pluraleko lehen pertsonako genitiboan *gauren* dago Goñerrian (Ib, 104) —baina baita *geren* ere (Pre III, 151)—; lehen pertsona pluraleko *-n* analogiko hori Beriainen garaikoa da: *gauerren* (1621: 17, 28...). Bonaparteren emaitzetan ez bezala, Goñerriko pluraleko bigarren pertsonako Ibero idazlearen datu zaharragoetan *zauroc* (abs.) eta *zauren* (gen.) ditugu (106) —Ondarraren argitalpenean *zauren & zeuren* (1995: 180)—.

(46) Izenordain arrunten artean lehen pertsona singularreko aldaera *ene* da: *etorcea ene oñetara* (Pre I, 144).

Ollo herrikoak Goñerrikoen oso iduriak dira (Erizk.): *nerau, erori, ure bera, gerok, zerori & zerorrek* (erg.). Gesalutzen genitiboan <guere> dugu: *egozagun guere baitatic* (376), eta baita *nere* ere (372), monoptongaziorik gabeko *zaure*-rekin batera (379).

Andiaz bestaldera Dorraoko datuetan singularrean “-ori” da oinarria absolutibotan: *neroi, yeroi, beroi, gerok, zeroi, zerok, beroik* (Razkin). Arakilgo Irañetakoak lehen pertsonako singularrean Goñerrikoak bezalakoak dira (Erizk.): *nerau, erorri, bera, gerauk, zerori, zerauk, berak*; Lakuntzako predikuan ere *nerau* (231) daukagu. Genitiboetarako Gastesi irañetarraren *cere* ‘zeure’ aipa daiteke (Ulyar 1987: 57), edo Lakuntzako predikuko *gueren* (232); baita Egiarretako *nere* ere. Ekialderago oraindik, Ezkabarteko Makirriaingo dotrinako *nere* (385) eta *gueren* (379); *nere* dago Txulapaingo Beorburun ere (Artola 1992: 215). Nabazko datuetan Goñerrikoen antza handia aurkitzen dugu izenordain indartuetan: *nerau, beroi, zeroiek, beraiek* (Erizk.).

5.2.3.3. Izenordain zehaztugabeetan geolinguistikoki irudi nahasixkoa dugu: *ior* eta *igor* ditugu Goñerrian; *iñor* dakar Bonapartek Oltzarako —baina Iberoko kantuan *ior* dugu (150)— eta Izarbeibarren *igor* dugu hala Garesen nola Utergako dotrinan. Elkanon, ordea, *nigor* dago Bonaparteren arabera eta *niór* darabil Elkanoko Lizarragak (1984: 43). Mendebaldera, Gesalutzen ere sudurkaria dugu: *inior* (373), *iniolaco* (382), baina Elizalde *yor / yon* zerabilen, Beriainek bezala. Ezkabarteko 1828ko dotrinan ere *n-dun* aldaera ageri da: *nior* (381). Ez dago *ior* edo *igor*-ik Pagolak Nafarroa Garai-ko iparreko herrietan bildu emaitzetan (1992b).

5.2.4. Deklinabidea

5.2.4.1. Ergatiboko pluralean *-ak* aldaera darabil Goñerriko hizkerak; hori da Bonaparteren inkestetako lekukotasunak dioena bederen. Testuetan ere nagusi da *-ak* aldaera, baina Juan Martin de Iberoren idazkietan *-ek* dugu, Beriainen garai bateko idazkietan bezala. Bonaparteren garaia baino lehen bereizten zelako lekukotasuna ote da munarriztar idazleak damaiguna, ala literaturaren eragina dago tartean? Ergatibo plurala bereizten du idazle honek:

Eciñ gora zaquetela aniş aldiz gueisoec nei baute ere viotça Jangoicoagana (108). *Aniş barbaroec, eta gentillec, federic eşçutenec, Jangoicoa ezauçen eşçutenec* ere (ibid.).

Beñe beldur neiz Aitec eta Amec berec dutela culpe gucie! (ibid.).

Esta atra bear Eliceti, aniş debocio baguecoec, eta desatentoec, edo errespeto baguecoec Jesu Xto errecibitu dutunari [sic], iten dutena becela (102).

Gure atsoec manaçen dioten gucie in veaurte Jangoicoac berac manatu balioquete becela (107).

Eta au eiñ claro egonic ere, hume gueistoec, hume desobedientec, errespeto baguecoec, iqueten dute atrebimentue equençeco gure atsoegui drechoat ein clara, berec iñ eta desiten dutela gauce gucies, gureatsoegui comuniquetu bague, eta iduquişen dituste desprieturic campocoac lirequen becela, marabiten jabe estirela gureatsoac (109).

...ece murmureçen zute bere basalloec sobre obedicen ciola, eta sandu gloriosoarrec errespondaçen ciote (110).

Ibero idazleak *-ek* morfema darabilen arren, ugaria da *-ak* erako adibideen saila Goñerrian. Bonaparteren zerrendek dakartenez, pluraleko ergatiboan *gizonek* erabiltzen zen Eguesibarko Elkanon eta Izarbe ibarreko Garesen, baina *gizonak* Oltzan eta Goñin (Ondarra 1982: 164); guk adibide bat dakargu: *Nola munduec, pasioneac, eta etsai gaistoac, gure animen contrarioac, forjacen dituste istentero mille traba* (Pre IV, 162). Estellerrirako Elizalde apezaren dotrina dugu; bertan *-ek* da beti ergatibo pluraleko morfema (Salaberri 1994: 10); berantxago Gesalazko testuetan *-ak* ageri da:⁴⁷

Sanduric inocentenac pasatu zute veren vicie penitencie orrorosoaten (377).
*...ez zute eguin arren baiten confesorearen arracioac mellaric*⁴⁸ *batere* (382).
...eta gaiztoac eramoco dituste Deomioac [sic] *cadena arrastraturic* (385)

Eguesibarren eta Izarbe ibarrean *-ek* zen ergatibo pluraleko morfema Bonaparteren garaian: *alabek* nahiz *otsoek* dakarte printzearen zerrendek Elkano eta Gareskotzat. Ez da atzendu behar, halaz ere, Izarbe ibarrean absolutiboko pluraleran *-o + ak > -oek* hersketa gertatzen zela. Utergako dotrinan ere *-ek* saileko ergatibo pluralak ditugu (Ondarra 1980: 213): *Norc erran zue Credoac? Amabi Apostoloec*.

Itxaron zitekeenez, *-ak* dugu mendiaz bestaldeko lekukotasunetan. Dorraon hurrengo bildu du Koro Seguiolak: *kási lenágoko zarrák géyo usétzen tzuen* (EHHA). Guk Arakilgo Ihabarren 1982an honako adibidea bildu genuen: *gizonak esan dute*, eta EAEL-ko datuen arabera Urritzolan ere ez da bereizten. Lakuntzako predikuan ere *-ak* ageri zaigu: *Siongo Ancianoac bete cituzten beren buruec autses penitencie eguiteco* (231). Ezagun denez egungo mintzoan Arakildik eskuin ez da *-ek/-ak* bereizketa gordetzen. Ezkabarteko Makirriango dotrinan (1828) bereizketa egiten da: *nola itembaitute Bienabenturatu Zerueta daudenec* (393) / *Dire espiritu bienabenturatu batzuec daudenac Jangoicoa gozatzen* (394); egungo mintzoan ez da bereizketarik egiten. XIX. mendeko Erroibarko dotrinetan ere bereizten ziren eta egungo mintzoan ere *-ek* morfemak bizirik dirau, hiztun batzuek dena *-ak* egiten duten arren. Ezaguna denez ondoko Aezkoan guztiz bereizten da singularra pluraletik.

5.2.4.2. Datiboan, Bonaparteren datuetan *-ei & -eri* dira atzizkiak pluralean: *semei, alabei & gizoneri* dakartza (Ondarra 1982: 164 eta 174). Ordea, testu zaharretan *-egi* aldaera ageri zaigu; morfema hau gehien bat pluraleko aldaeretan ageri den arren, singularrekoetan ere bada: *errancio Jesusegui* (Eb, 130-1); *Jangoicoas landara, ioregui estiola eimberçe zor hume batec* (Ib, 104-5); *gureatsoategui 'guraso bati'* (Ib, 106); hona, berriz, pluraleko aldaera batzuk: *ebegui* (Ib, 105), *zuegui* (Pre I, 140), *ece antigoegui erran ceiquiotela* (Pre I, 141). Hurrengo adibidean, gibeleranzko asimilazioari zor zaio la dirudien *amigui 'ama + datibo'* ez dakigu singularra ala plurala den: *Eite, eta Amigui zor ceiotela atencio, errespeto, eta obediencie gucie* (Ib, 104).

Andiaz hegoaldean berriz ere *-egi* ageri zaigu datiboko singularrean nahiz pluralean Gesalazko ibarrean:

(47) Bada adibide bat bederen *-ek* duena, baina argitaratzaileak letra etzanean eman du: *balequite guizonec noiz izain lizaquen Juicioco egun ure* (373).

(48) Eta ez **melle*; berdin Iberoko kantuan ere: *mella* (148).

...ezuten *nai manifestatu confesore bategui veren onetan* (383).

...emateco tormentu desdichatu aiegui (374).

Izarbe ibarrean ere bada *-egi & -ogi* pluraleko morfemetan Utergako dotrinan: *San Pedro eta San Pablo Apostoloegui* (206), *zordunegui* (217), *onogui manco diotela ceruco glorie* (205). Elkanoko Lizarragak ere bazerabilen *-egi* pluralerako.

Mendiaz bestaldera badira *-gi* morfema horren kidekoak pluraleko aldaeretan Ergoienean: *aigi* 'haiei' eta *oigi* 'horiei' ditugu Lizarragan (Solís 1993: 112), eta herri berean genitiboko *aigen* (113) nahiz *oigena* (115) ageri zaizkigu, analogiaz edo gerta-
tuak diruditenak.

Bonapartek Garesko eta Oltzako datuetan *-eri* dakar pluralerako: *gizoneri* (Ondarra 1982: 164 eta 173). Gesalatzan *-egi-z* gain *-eri* ageri da: *erran cioten vere discipuloe-ri* (383); "anitz" zenbatzaile zehaztugabeen ere bai: *cumplituco daquiote verce anizeri vezala* (372). Ollon *-ei* ageri da eta Eguesibarko Elkanorako ere *-ei* dakar printzeak; hori bera dugu Oltza zendeako Iberoko otoitzean: *estut emanen eriozea neure vicioei* (Arraiza 1988: 150). Baina bada *-ai* ere, agian *ei > ai* bilakabideari zor zaiona: *emen minzatu ceiquioten Chistoren Magestadea Jerusalemgo alabai* (ibid.). Aditik iparrera Arakilgo Uhartean ere ageri zaigu *-ai* morfema plurala: *gizonai* (Erizk.); Gastesi irañetarrak *-ei* dakar: *penetan daudenei & escatu dutenei* (61) eta Lakuntzako predikuan ere *pecatarieei* eta *cristaubei* dugu (232-3); otoitzetan, berriz, *zordunei* (229). Egungo mintzoan *-ei* ageri da Arakilgo Urritzolan: *beátzi beieí, esáten tzióñ, esáten tziotén* (EAEL). Eskuinera *-ai* ageri zaigu Txulapaingo Nabazko datuetan —*gizonai*— baina *-ei* morfema Gulibarko Larunben —*aiék, be(r)e aixkidiéi ta... áidiei r'álá, repártitzen (t)zaioté* (EAEL, 199)—; Ezkabarteko Makirriaingo dotrinak ere *-ei* dakar: *zor gaituztenei* (393), baina egungo datuetan *-ai* bildu du Artolak: *eskolara yoáten tzirénai* (1985: 108). Odietako Ziaurritzen badirudi *-ei* dela: *aziendéi* (EAEL), baina ezker, goiti, *gizónai* dugu plurala Imozko Goldaratzen (Pagola 1992b).

Ergoieneko Dorraon, berriz, *-i* soila ageri zaigu batzuetan: *áuntzi, ardíyi, aziénda óbentsuení jartzen, béyi ta bíorri* (EHHA). Baita *-ei* ere: *béko kíméi; kíma esáten dógu guk ille orrí* (EHHA); *kámpoko ta denéi* (EHHA). Erakusleetan *eyi* dugu *eyei*-rekin batera.

Testu zaharretan *-ei* darabil Berriainek; Elizaldeek ere nagusiki *-ei*, baina pare bat aldiz *-eri*. Aldaeren gaiaz landa datiboak eremu honetan osagarri zuzenaren betekizuna izan dezakeela aipa daiteke: Bonapartek "hegoaldeko goi-nafarrera" deitzen zuen horretan —cf. Ibarra 1995 eta Zuazo 1998—, Nor Nork aditz saila erabiltzen den testuinguruan osagarri zuzena absolutiboan beharrean datiboan erabiltzen zela adierazi zuen: gure inguruko adibideak ere Bonaparteren ildotik doaz:

Absolvi dezaque penitente damutassunarequi eldu denari edozain confessorrec (Mar, 240).

Eta berce orlaco preceptoequin defendacen du guizonegui ayetatic gucietatic, ceñec paratu dezoqueten peligroan quebrantaceco bere legue Sandue (Pre I, 142).

Ez pazue amatu Dinari (Pre II, 148).

Gertakari hau bera dakar Bonapartek argitaratu *Le Cantique*-k Elkanon —*bedeica zoce Jaunari*—, Garesen —*benerica zoce Jaunari*—, Oltzan —*bedique zoce Jaunei*— eta Goñin: *bedique zoce Jaunei*.

Esan azkenik Zuberoan, Erronkarin edo Aezkoan legez, denborazko balioa hartzen duela datiboko morfemak Beriainen erabilpenean: *eta launaren etorceari Aldareira, ofrecioceco sacrificioan vere Ayta eternoari* (Camino & Lakarra 1993: 1043).

5.2.4.3. Inguruko hizkeretan eta Euskal Herriko mendebaldean eta erdialdean nagusi denez, edute genitiboko atzizkia *-an* da singularrean: *Jangoicoan & Jaunen*, biak *Le Cantique*-n. Aspaldiagoko datuetan Ibero idazle munarriztarraren *-ren* dugu: *diabrueren* (Ondarra 1995: 179); baina baita *-an* ere: *lucifer infernucoan leguea* (109).

Gesalutzen ere *-an* dugu: *Aman seveletic* [sic] (376), *vaperan culpac* (374), baina baita *-aren* ere: *izeren* (377), *velenoaren* (380), *odol preciosisimoaren* (377). Andiaz beheitiko Olloko adibideetan *-an* dugu oro har singularreko morfema —*amana, aitana, senarrana*—, baina bada *-ain* ere: *garagartzaroin*. Eguesibarren —*eta oro har Nafarroako ekialdean*— ageri zaigu nabarmen *-ain*: Elkanon *ilargiain* bildu zuen Bonapartek. Patxi Salaberri Zaratiegik dioskunez, ekialdera *-ain* ageri da XVIII. mendeko Ibargoitiko idazki batean. Izarbe ibarrean ere *-an* ageri da Utergako dotrinan: *jarriric aite etermoan escuiteco aldean* (205); asimilazioz *-en* gerta daiteke; *-aren* ere ageri da: *soberbien contra, abericien contra, luxurien contra, ireren contra, guleren contra, embidieren contra, Perezaren contra* (206). Garesko datuetan, berriz, *-an* dugu: *ilargian argi* (Ondarra 1982: 160).

Mendiaz bestaldean *-an* ageri da. Horixe dakusagu ekialdeko Arakilgo Urritzolan: *Óri dá... gáztan sekrétoa... bai* (EAEL). *-aan* bukaera aurkitu zuen *Erizkizundi*-ak Arakilgo Uhartan eta Irañetan: *amaana, senarraana* adibideak lekuko. Goraxeago, Basaburuko Berueten ere *-an* bildu du EHHA-k: *mayátzan*.

Baina bada *-ain*-en adibiderik ere. Ergoieneko Dorraon bildu ditu adibideok Koro Seguroak (EHHA): *arramain* 'arramaren = adarraren'; *txérri belárriyein típoá* 'txerri belarriaren tipoa'; *Ernia dá azíyeyin jéyoéra*. Dorraon berean, *-aen* osoagoa ere ageri da: *gantzaen koipia* (Koro Seguroa, EHHA).

Eguzkialdera, *-an* dugu Txulapain ibarrean Nabazko datuetan eta baita Ezkabarten ere Makirriango dotrinan, nahiz hondarreko honetan *-aren* osoagoa ere ageri den: *amana, senarrana* (Nabatx); hona Ezkabartekoak: *ymbidien contra, gulen contra, Jaunen* 'Jaunaren', *borondatean contra, Ama Virginen / ssabearen, Jaingoicoaren, poderosoaren, zeruaren*.

5.2.4.4. Sozietiboan *-ki* da atzizkia: *diligencia andiarequi* (Mar, 228), *catea batequi* (Ib, 179). Ez da ezezaguna, halaz ere *-kin* atzizkia; hona prediku batzuetarik ateratako adibideak: *enemigo poderosoarequin & victorien esperanzarequin* (Pre I, 140), *edan dugu-le veneno lentoat, zañequin eldu gaden mundu ontara* (Pre II, 146).

Andiaz beheitiko Ollon ere *-ki* ageri da: *nereki* eta *egon bear naiz arreki* bildu ziren. Oltzako zendeako Ibero herriko guruzpideko otoitzean *zurequi* (147), *andiarequi* (152), *arrequi* (ibid) edo *gloriosoarequi* (ibid) ditugu. Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere *-ki* atzizkia ageri zaigu: *humildadearequi, baruequi* (207), *Jangoicoarequi* (211). Garesen, ordea, ematen du *-ki* baino gehiago *-kin* erabiltzen zela (Ondarra 1982b: 649).

Beriainek nagusiki *-ki* zerabilen, baina badu *-kin* ere: *guciarequin ere* (1621: 44), *confiança andiarequin* (73); Elizaldeek soilik *-ki* zerabilen.

Mendiaz bestaldean Burundan *-kin* da nagusi Altsasuko Izagirrenen datuetan. Ergoieneko Lizarragan, ordea, *-ki* dugu: *aitte ta amaaki lanien* (NEM I, 37); Dorraon,

berriz, EHHA-ko datuen arabera nagusi da *-kiñ* —*trápubeikiñ* — baina *-ki* ere bada: *búrniyéki*. Arbizun ere ematen du *-kin* nagusi dela (EHHA). Ekialderago *-kin* arras hedaturik dago; gure datuetan Arakilgo Uharten, Irañetan, Ihabarren, Urritzolan nahiz Gulibarko Larunben ageri da. Dena den, *-ki*-ren adibiderik ez da falta: *nereki* dugu, esaterako, 1925eko Irañetako datuetan (cf. halaz ere Zuazo 1994: 328). Handik eskuin Txulapaingo Nabatzen *-ki* dago beti *Erizkizundi*-an eta baita Beorburuko egungo datuetan ere; berebat, XIX. mendeko Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan *-ki* dago. Ezkabarteko egungo datuetan *-ki* nagusi da guztiz, baina inoizka *-kin* ageri da: *beiékin* (EDEL). Odietaiko Ziaurritzen *-ki* bildu du Artolak: *uráki, áiziaki, abriáki* (1992 nahiz EDEL).

5.2.4.5. Destinatiboko kasuan mendiaz bi alderdietan *-tako* atzizkia baliatzen dela esan beharra dago. Ibero idazle munarriztarraren adibide bat dakargu: *erreserbaçen dute berendaco bici diren artioco ebeco señoria* (109). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere *-dako* dugu; hona adibide bat: *Man zagule Jangoicuec mantenimentu combeniente animerendaco corpuzendaco eta gracie espiritualea sacramentuequi animendaco* (Ondarra 1980: 217). Bonapartek Garesen, Elkanon eta Oltzan ere *-tako* bildu zuen eta hori bera ageri zaigu Ollon eta Gesalazko testuetan ere.

Aspaldiko lekukotasunetan Beriaian dugu; *-tako* darabil: *atracedo prouechu auniz veretaco, eta verce christio fielendaco* (41); *-ko* sintaktikoaren aitzinetik *-ta-* darabil, bestalde, *beriotzea ayn dolore, eta pena anditacoa* sailekoetan (12); prolatiboan, berriz, *-tzat* darabil (cf. 5.2.4.8. atala). Muzkiko Elizaldeek ere *-tako/-dako* atzizki destinatiboak darabiltza.

Anditik iparrera, hona, esaterako, Ergoieneko Lizarragako lekukotasun bat: *guañi dee badoi mendderioik gue etxien,... eta eztakit zeñendako izan dian dee eta or doi kutxen* (Solís 1993: 113). Dorraon ere berdin: *parétiak sérbitzen dó étxiendakó ta órrendáko* (EHHA). Lakuntzako predikuan ere *-tako* ageri da, baina *-tzat* Aralarko 1833ko predikuan: *iretzat* (Satrustegi 1987: 189), *guretzat* (194).⁴⁹ Bakanka ageri zaigu *-tzat* mendiaz bestaldera: *kobratu zun ta zazpi milla peztak soldaurentzat* (Urritzola, NEM I, 77), *arkomientzat* (Arbizu, EHHA, A. M. Echaideren datuetan). Eskuin, berriz ere *-tako* atzizkia ageri da ibarretan: *amandako, senarrandako* Txulapaingo Nabatzen (Erizk.) eta *guerendaco, gorputzendaco, beretaco* Makirriaingo dotrinan.

Testuetako lekukotasunaren arabera, Nafarroako beste hainbat lekutan bezala, motibatiboaren adiera har dezake destinatiboko morfemak Goñerrian ere: *cergatic ayen sentimentu guciac deude iceliric bezela, cergatic deude vildurturic erioceandaco* (Pre II, 145).

5.2.4.6. Motibatiboko aldaeran *-gati* nahiz *-gatic*, biak dakartza J. M. de Ibero idazleak: *ebengati* (99) alderdi batetik, eta *becatu confesaturiquequen gatic & es neiz iago deteniçen, exemploetara joateagatic* (103), bestetik. Esatekoa da, halaz ere, mende bat beranduagoko datuak diren Bonaparteren lekukotasunean motibatiborako *-gatic* ageri zaigula (Ondarra 1982: 166). Izarbeibarko Utergako dotrinan ere aldaera herskaridunak eta gabeak ditugu. Bonapartek, Elkano, Gares, Oltza eta Goñirako *-gatic*

(49) Testuan ageri diren *guretaco* horiek 'gure arteko' dira adieraz: *eta oin celosua bada guretaco nor izaen da Aingueru Santuboni devociyo eztonic* (Satrustegi 1987: 201).

atzizkia dakar; hori bera erabili zuten Beriainek XVII. mendean eta Muzkiko Elizaldek XVIII.ean.

Mendiaz bestaldera *-gatic* dugu Lakuntzako 1838ko otoitzetan: *gu becatarien gatic* (230). Egun *-gati* erabiltzen da Sakanan. Eskuin, Txulapaingo Nabatzen: *gizonangatic* (sing.) eta baita Ezkabarteko dotrinan ere: *salbatzeagatic* (382).

Utergako dotrinan, halaz ere, beste aldaera bat gehiago dago lehian: *-gati* eta *-gatic* aldaerez landa, nominalizatutako aditzetan *-rgati(k)* itxuraz analogikoa ere bada: *generalagati* (221) / *gaucengatic*, *bedracigatic*, *arceagatic* (221) / *enzuteargati*, *arceargati*, *errateargati* (221) / *comeceargatic* (221). Honelako aldaera bat ageri da «Tes-IX-2»-n ere: *emanen dut martir vizie amaceargatic vnoz osoarequi Juan soberano ore* (309); 4. 11. atalean dihardugu honetaz. Ez dakigu, bestalde, Gesalazko *luceceangatic* (382) errata eta, beraz, bilakabide honen arrastoa ote den.

5.2.4.7. Instrumentaleko atzizkirako txistukari apikaria baliatzen da: *borchas* (Pre IV, 161), *berris*; baina *egiezk...* Markotegiren predikuan, esaterako, nagusi da apikariaren agerpena, baina *cembat aldis* ugariren ondoan bada *cembat aldiz* bat orrialde berean (229). Bonapartek bildu morfologiako zerrendetan Elkano, Gares, Oltza eta Goñirako hala atzizki apikariduna nola bizkarkariduna ageri dira, biak. Ollon apikaria ageri zaigu nagusi: *beres*, *ures*, *gaues*, *ortas*, *artas*, baina baita *nitez* ere. Gesalazten ere apikaria nagusi ageri da, baina ez da bizkarkariaren adibiderik falta: *denboraz* (373), *corpuzac ciquinqueriez beteric* (385). Beriainek eta Elizaldek apikaria zerabilten soilik, eta horixe bera ageri zaigu Utergako dotrinan: *maten digunes* 'ematen digunaz' (204), *valle negarresco ontan* (205), *señele ortas* (211).

Mendiaz bestaldera bizkarkaria dago Burundan, baina apikaria ageri zaigu Ergoieneko Lizarragan: *aburritzen giñenien lixutzes; ogei egunes o amabostes o* (Solís 1993: 112). Bizkarkariaren agerpen bat, bederen, bada datuetan halaz ere: *eta guk nolabett in giñuen ezkontza batez beste* (Solís 1993: 113). Dorraon ere apikaria dakusagu: *béres*, *májiñaldís* 'hamaika aldiz' (EHHA). Aranatzan, Arbizun, *gēnes ein* bildu da (EHHA). Ekialdera bidean apikaria erabiltzen dela darakuskigute datuek. *Erizkizundi*-an Uharten eta Irañetan *beres* edo *ures* adibideak ditugu, baina baita bietan *gauex* bizkarkariduna ere; Uharten *oñez* ere badakar. Ihabarren apikaria bildu genuen geuk 1982an: *oñes*; antzera, *úskeras* edo *itxés itxe* aldaerak bildu ditu Artolak (1992: 214). Urritzolan txistukari bizkarkaria eta apikaria ageri zaizkigu: *gau étez* (EDEL), *zenbaténas*, *zörtzi eúnes o amárres* (EDEL). Gure eremutik eskuin txistukari bizkarkaria dugu hala Txulapaingo Nabatzen (Erizk.) nola Ezkabarteko Makirriango XIX. mendeko dotrinan.

Erakusle eta izenordainetan *-zas* atzizkia ageri da Beriainen testuetan: *(h)arças*, *oneças*, *niças* (1621); Amekoako Bakedaoko 1555ko ezkon-zin batean ere *çuçaz* dugu; ez dakar honelakorik Muzkiko Elizaldek XVIII.ean. Ezaguna denez iparrera ezagunak dira aldaera hauek: Intzako 1772ko idazki batean *ozaz zer provechu duen* ageri zaigu (Satrustegi 1987: 132), eta Intzako 1801eko beste batean *onezaz* (179).

Pluraleko morfemaz ere bada zer iruzkindu, *-es* nahiz *-etas* aldaerak baititugu Goñerriko testuetan; prediku berekoak ditugu hurrengo hauek guztiak: *becatues & gauces* (Pre III, 155), baina baita, bestalde, *danzetas & lapurquerietas* ere (ibid.). Gesa-

latzen badirudi *-es* zegoela: *eztuce casoric eguin nere castigos* (372), eta hori bera zera-biltzen Elizalde gesalaztarrak —*sacramentues landara* (78)— eta Beriainek ere: *veztituric veztidures ceyn eliča sanduac baitauzqui ordenaturic* (10).

5.2.4.8. Prolatiboa: Nafarroako anitz lekutan ohi denez *-tako* erabiltzen da; hona hemen J. M. de Iberoren adibidea (108): *Emperadoreac nombratu zue bere lecuen, seme bat emperadoretaco*. Muruzabal 1751 idazkian ere berdin: *Maria SSa. pura ta garvitasuna bera ez zue iduqui despreciotaco contacea berce manchatu gucien artean* (85); *tratacen dute Sn. Pedro neciotaco* (87). Ondoko Oltzako Iberoko otoitzean ere horixe bera da aldaera: *icendu baiciñe eriozera sentencietu, eta iduquitue Barrabas baño gaistoagotaco* (Arraiza 1988: 147). Izarbe ibarrean Utergako dotrina dugu lekukotasuna eta hor ere *-tako* ageri da: *Erratea confesoreari bere becatuec ciertocac ciertotaco, dudosoac dudototaco ez quendu eta ez añaditu* (209). Lizarraga Elkanokoaren testuetan ere atzizki hau eta *-tzat* ditugu, baina *-tzat* zerabilen Beriainek: *vere laũgoicozat dauzquitene*y (1921: 16), *eguin çuten arças burla, yduquituric heroçat* (1921: 11). Utergako 1547ko ezkon-zin batean ere *arçen aut neure alarogaçat* ageri zaigu, eta *emazteçat* 1548ko Olatzagutiko beste batean; *-tzat* dago Zufiakoa (1552) eta baita Galarreko Espartzakoetan ere (1557).

Mendiaz bestaldean Burundan *-tako* da morfema: *Gu geo neska formalak gaitun gaure burubai, e? Txikitxotako ez genden gu, e?* (Izagirre 1967: 58). Arbizun Echaidek bildu duenez (EHHA), *iritaako* erabiliagoa da *iritzat* aldaera baino. Dorraon hurrengoak ditugu, *-r* ondoko *-e*- loturazkoa dutenak (EHHA):

Ez, ubéldian ez..., kamínotáko da.

Púnta mí ói, aprótxatzen eztaná, suégurretako kendú ta óñi gélditzen dá.

Gogórta dá, zúretáko ézta ittén, gútxi azítzen da.

5.2.4.9. Inesibo singularreko *-n* aldaera zaharra erabiltzen zen Goñerrrian: *gueiñen* dugu *Le Cantique*-n eta *b(e)re abrearen gañen* Ebanjelioan (131). Markotegik ere bada-rabil: *barrenen* (235). Baina bestelakotik ere bada, mugatzailea baliatuz, alegia: *gure pechoaren varreanean* (Pre II, 146). Honelako adibidea da Gesalazko “bat” zenbatzaileari dagokiona: *pasatu zute veren vicie penitencie orrorosoaten* (377).⁵⁰ Goñerritik eskuin ere bada: *gañen* dugu Txulapaingo Nabazko emaitzetan, eta *bárne(n)* Beorburun (Artola 1992: 216), baina *gañean* Ezkabarteko dotrinan; Arakilgo Urritzolan *barnén* bildu da (EAEL).

Euskal Herriko erdigunean inesiboaren agerpen pleonastikoa nabarmena da. Honela gertatzen da geure testuetan ere, eta aspalditik gainera, 1687ko Urdozko zineko agirian bai baita adibide bat: *çaute ysilican*. Lehenxeagoko testu batean Beriainen inesiborik gabeko aldaerak ditugu: *galdeguinica, jaquinica, emanica*; baina bi aldiz *-rikan* dakar: *criaturican* (93B, bi aldiz). Ikusi bezala, partitiboko atzizkiari lotzen zaio inesibokoa Goñerriko testuetan: *cegolariquen* (Eb, 129), *eguinic en [sic] beridec* (Eb, 131), baina baita, arras bakanka, egia esan, ablatibokoari ere: *tropicquen beres* (Eb, 130). Moduzkoetan ageri zaigu nagusiki Gesalazko predikuetan: *egonican zure anima*

(50) Ez dakigu noraino den fidagarria *lurran* adibidea: *Juicio Universaleco egunean, preceditu bear dute señale formidable bazuec iguzquian Yzarretan: Yllarguian eta lurran, bada lurran egonen dire gendeen (sic) locaturin (sic)...* (Lecuona 1973: 383).

ori erituric (379); *izanican zure anime zernetaco Errege aren esposa* (ibid.). Partitiboarekin ere erabiltzen zen: *doloreriquen bague edo propositoringuen [sic] bague* (388-9); behin ablatiboari loturik: *eman zuenetiquen* (384). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere ageri da: *saquiñiquen* (212), *iñiquen* (215).

Mendiaz bestaldera jarraipena du ezaugarri honek: Ergoieneko Dorraon hurrengo adibidea bildu du Koro Seguiolak: *eizeikan otzena* ‘haizerik hotzena’ (EHHA). Burundan ere ezaguna genuen: *eztúka gaiyoo arrópaiken* (Izagirre 1967: 50); *zuk ezte-zúla nai oiléskoiken* (58). Etxarri eta Arbizun ere bada *-rik / -riken* bikoiztasuna (Zuazo 1994: 327). Ablatiboan ere berdin: *oáñddikén* (Dorrao, EHHA). Arakilgo Lakuntzako predikuan ere bada.

Bizidunetan, ekialdeko hizkeretan legez, inesiboko morfema *beiten* (Ib) / *baiten* (Bonaparte) dugu norbaiten barrenekotasunaren adiera azaltzeko bederen: *eta presente barimedagore lecu gucietan, eta gure beiten arquicen barimeda ere, escaquete icusi gure beiguiet, cerengatic beite spiritu purissima* (Ib, 104); *eta nic gaur evitececo gaizqui aubec ene aizaleen beiten, nai nuque imprimitu oyen viocetan argui bet* (Pre II, 145). Izarbe ibarreko Utergako dotrinan ere *baiten* dugu: *Nic siñestazen dut Jangoico aite gucis poderosuaren baiten* (203). Oltzan ere *baiten* dakar Bonapartek, baina *baitan* Garesen eta Elkanon. Gesalaten ere bada; guk ablatiboko adibide bat hartu dugu: *Ea egozagun guere baitatic* (376). Beriainek ere badakar: *vere baytan erranes* (122).

Mendiaz bestaldera ez da falta: Lakuntzako 1838ko otoitzetan *ginistacen dut espiritu Sandubaren baitan* ageri da (230). Eskuin, Ezkabarteko dotrinan ere *baiten* ageri da.

5.2.4.10. Agerpen urrikoa bada ere, mugagabe denean, inoiz *-ta-* lekuzko artizkia aurkitzen dugu lotura sintaktikorako baliatzen den —eta beraz balio lokatiborik ez duen— *-ko* atzizkiari loturik, ekialdeko hizkeretan legez: *unguendu preci(os) eta urriñ anditecoaçuc* (Ib, 98); Oltzako Iberoko kantuan ere bai: *axuri paciencie gustis anditacoa!* (150). Beriainengan nabarmena da ezaugarri honen agerpena: *eta sufritu anbat dolore eta trabaju, eta heriotzea ayn dolore, eta pena anditacoa* (1621: 12); *Meza ençuten duena baytago negociacen laungoycoarequi escacen diola auniz gauza, eta importancia anditacoac* (1621: 29).

Xedezko balioa duelarik, *-ra-* artizkia hartzen du *-ko* morfemak euskaraz, batez ere erdialdeko eta mendebaldeko hizkeretan; ekialdekoetan nabarmenak dira *-ko* soila daramaten egiturak: *ondarréko, súko, argíko, ongarríko, goizéko, e(g)unéko...* (Camino 1997: 392). Goñerrian, bietariko adibideak ditugula dirudi. Prediku batekoak dira hurrengoak: *Doctriñe ontas oreicea bada gauce ona, ala neguco, nola udeco, ala Garizume, ta aste sanduco, nola Bazcoetaco* (Pre III, 151). Hurrengo idazkietan *-rako* dugu: *Aite eta Amac, honrraçen eta errespetaçen estuena, norendaco iquenen da ona? Infernureco sollic* (Ib, 105). *Cembatenas probeago, edo necesitetuago orduen sucureco [jokorako] prontoago* (Pre IV, 163). Olloko datuetan ere *-rako* dugu: *eldu den illerako*; berdin Gulibarko Larunben ere: *itxel(r)áko* (EAEL) eta Txulapaingo Usin ere bai: *bérak itxérakó beár duéna*. Ezkabarteko dotrinan *-ko* nahiz *-rako* ditugu: *ta humec izetembaute azi dechaten Jangoicoaren zerbitzuco zerureco* (399).

5.2.4.11. Ablatiboan, hala singularrean nola pluralean, *-tik* nahiz *-ti* aurkitu ditugu Goñerrian: *gueiñetic* ageri zaigu *Le Cantique*-n, baina *-ti* ere agertzen da testuetan: esaterako, Juan Martin de Iberok *erioçeti & erioçetic* edo *becatuti* darabiltza singularre-

an (99), eta *manchetati* (100) edo *penetati* (103), nahiz *amabietatic* (102) pluralean. Andiaz hegoaldera berriz ere *-ti* zaharra ugari ageri zaigu Gesalatzan: *urteti urtera* (384), *illeti illera* (385), *urte bateti vercera* (ibid.), *emendi seguicen da* (ibid). Izarbe ibarrek Utergako dotrinan ere nagusi da *-ti*, baina inoizka *-tik* ere ageri da: *guazetic saguicean*, *icheti atracean* (212), *nondi* (212), *becosquiti* (211). Oltza, Gares eta Elkanon Bonapartek *-tik* bildu zuen, eta horixe bera dago Ollon ere: *goititik*, *beititik*, *urrititik*, *xeietik eldu dere*, *ken ortik*, *nondik*, *ilunetatik*, *txikitaik*; halaz ere *igo ze goiti* dugu, ablatiboko atzizki zahararekin, egitekoa adlatiboarena izan arren. Dagoeneko, *-tik* dute Berriainek: *aytztetic*, *cerutic*, *agotic* eta Elizalde: *iguzquitic*, *nondic*.

-rik morfema zaharra fosilizaturik ageri zaigu Goñerrian, ez da emankorra; hona agerpen bat: *ariquetan socuen galdu artio* (Pre IV, 163). Oltzako Iberoko otoitzean ere ageri da behin aditz izen bati loturik: *ene veigiac nola geldituco dire negar eguiteric?* (150). Dena den, *-tik* aldaera nagusi dago kantuan: *Jesus il cen lecutic onaraño* (151). Bestalde, *-(r)ik* dugu *orañik* aldaeran Elkanon, Garesen eta Oltzan, eta *oreñik* Goñin.

Mendiaz bestaldean ere *-ti* aurki dezakegu. Ergoieneko Lizarragan, esaterako, *men-diteti*, *goititi* ditugu, motibatiboan bezala: *aprobetxatziati* (Solís 1993: 112). Egungo Dorraoko mintzoan bi aldaerak batera dakuskigu pluraleko bi adibideotan: *ótatik & áuteti* (Koro Seguroiak bilduak, EHHA). Arbizon ere biak ageri dira: *arrúntzetik ataa & astizkenetí* (EHHA). 1925eko datuetan, Arakilgo Irañetan ere, berdin: *gaurti*, *lendi*, *Madrildi*; baina baziren beste sailekoak ere: *ken ortik* (Erizk.). Garai bereko Uharteko datuetan ere bi sailetakoak ageri dira: *noiztik*, *txikitatik*, *ordutik*, *maietik* alde batetik, baina baita *nondi* ere, bestetik. Guk Ihabarren *-tik* bildu genuen 1982an: *eldu naiz etxetik*. Hori bera ematen du darabilela ekialdeko Arakilen Urritzolako EAEL-ko lekukoak ere: *artátik*, *safàietik*, *atzétik*. Eskuin, Txulapaingo Nabatzen *-tik* ageri da: *emendik altziñe*, *xaietik*, eta baita Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan ere: *soñetik* (386), eta egungo datuetan *értetik* nahiz *gibelétik* (EAEL); halaz ere bi ibarretan *-(r)ik* daku-sagu, *aspaldik* eta *orañik* aldaeretan Nabatzen eta izenordain zehaztugabeen Makirriainen: *zertaic* (386). Odietaiko Ziaurritzen ere *-tik* dago: *alórretik*, baina *-(r)ik oáñik* adibidean.

Bestalde, eta denboraren adiera duten adibideetan *-danik* morfema ageri zaigu Goñerrian *berla danic* egituran (Ib, 106); Gesalatzan ere *-danik* dugu: *oraidanic izan vear diogu veldur* (376). Bada, halaz guztiz, *-di* ere Goñerrian, itxuraz sabaikari bihurtua: *oreiñi* (Ib);⁵¹ Ergoieneko Dorraon ere *oñi* bildu du Koro Seguroiak (EHHA).

Bizidunex denaz bezainbatean, Bonaparteren datuetan *-gandik* ageri da (Ondarra 1982: 164), eta baita XIX. mendekoak izan daitezkeen prediku batzuetan ere: *parte asqui dena dividiceco bere vioza Caridade Divinoaren gandic?* (Pre I, 142). Halaz ere, XVIII. mendeko idazki batzuetan *-ganik* dugu; hona J. M. de Iberoren lekukotasuna: *humeric maitena ganic*, *eramo beairtuçela sentimenturic eta pensalombreic andienac* (109). «Muruzabal 1751» izendatzen den predikuan *-ganik* eta *-gandi* ageri zaizkigu: *virtute onenganic etorri zequiola grandeza gucia* (83) & *J(a)ngoicoaren ganic esperazen zuen premioangatic* (86); eta bestetik, *virtute onengandi etorri baldimbazequio aimb(e)rze ondasun* (85). XVII. mendeako Berriainek eta XVIII.eko Elizalde, biek *-ganic* zerabilten. Eskuin

(51) Iturria Ondarra dugu (1996: 256).

eta beranduago, Ezkabarteko dotrinak *-gandic* dakar: *jayo zen Virgina Marie gandic* (380). Arakilgo Lakuntzako predikuan ere atzizki bera dugu: *Asueroren gandic* (231).

Pluraleko morfemaz den bezainbatean, esan dezagun ekialdeko hizkeretarik erdialdekoetara desberdintasun nabarmena dagoela: *-etaik* ageri zaigu Eguesibarren eta *-etatic* Gares, Gesalatz, Oltza Olluibar eta Goñin. Halaz guztiz ere, aipagarria da Gesalazko predikuetan badela *-etarik*-en adibide bat bederen erakusleen sailean: *ate-racea tormentu avetatic* (382). Gaineratekoan, aldaeraz mugagabe diren baina adieraz pluralak direneta *-etatic* erabiltzen zela dirudi: *lau aldetatic* (374), *vi urtetatic veraco aur guciegui* (376). Elizaldek beti *-etatic* zerabilen. Beriainek ez, honek *-etaric* nahiz *-etatic* zerabiltzan. Ollon ere pluralean *-etatic* erabiltzen zela dirudi: *ilunetatic*. Muga-gabean *-taik* dakusagu: *txikitaik*. Oltzan ere *-etatic* ematen du zela pluraleko atzizkia, Iberoko otoitza lekuko: *ocasio gucietatic* (Arraiza 1988: 146), *izerdi valsetan alde gucietatic* (149), *atracen beren lecuetic* (149), *naure culpen vestiduretatic* (151), *oietatic varrena da videa* (ibid.). Izarreibarko Utergako dotrinan *-etati* & *-etatic* dugu: *gucietati* & *gucietatic* (Ondarra 1980: 176); *Jangoicuen legeco mandamentuetatic* (209).

Mendiaz bestaldera *-etatic* & *-etati* da beti morfema. Ergoieneko Dorraon *otatic*, *auteti*, *kaparratati* pluralak bildu dira (EHHA) eta Arakilgo Uhartean *txikitatic* muga-gabea dugu 1925.ean (Erizk.). Egiarretan *bezpétatic* 'bezperetarik' bildu da (EAEL), eta Gulibarko Larunben *ixtetatic*. Txulapaingo Usin *bérste* (*b*)*átzutátik* dugu; trantsizioa Ezkabarte aldera dagoela dirudi, bertako XIX. mendeko dotrinak bietarik baitakar: *guzietaic*, *Trinteteco iru personetaic*, *bietaic* / *etsayetatic*. Egun ematen du *-etarik* dagoela: *bi áletaik* 'bi hegoetarik' (EAEL), *denetáik* (Artola 1985: 108). Odietan ere *-etarik* dago: *baztár guzietaik* dakar Artolak Ziaurritzen (1985: 217).

5.2.4.12. Adlatiboko kasua: Nafarroan nahiz Euskal Herriko leku anitzetan ohi denez pleonasmok ageri zaizkigu erakusleen aldaeretan; Bonapartek honelakoak bildu zituen: *onera*, *orrera*, *arera* (Goñi eta Oltza); Elkanon eta Garesen, berriz, *onara*, *orrara* eta *arara* erabiltzen ziren. Gesalazten, ordea, *-ara* dugu: *Hospitaletic onara* (382). Ezagunak dira hauek ekialdera: Ezkabarten *árá* bildu du Artolak (1985: 104).

Pluralean *-etara* > *-etera* asimilazio aurrerakaria gertatzen da batzuetan Goñerrian: *becatuetera* (Ib, 98). Hurrengo adibideak asimilaziorik gabekoak ditugu: *exageracioetatic jurementuetara*, eta *jurementuetatic perjurioetara* (Pre III, 141). Gesalazko Muzkiko testuetan ere bada asimilazioa: *pensamentu ocultoetereño* (372), nahiz *verce egun batevaño* ere baden (379). Ekialdera *zeruetara* asimilaziorik gabea dugu Ezkabarteko dotrinan (380).

Bestalde, egungo mintzoan bederen, bokal luzapena aurki dezakegu dardarkari bakuna galtzen duen adlatiboko morfeman mendiaz bestaldeko Ergoienean: *eliza*, *etxia*, *montonia*, *kanpuua*, *tokia* (Solís 1993: 98). Ez zegoen honelako deusen antzerkorik iragan mendeko Goñerrian, dirudienez.

5.2.4.13. Hurbiltze adlatiborako, ez da ekialdeko *-rat* aldaera erabiltzen Goñerrian: morfema hori erakusleetan bederen erabiltzen zen Iruñerriko Zizurren 1683ko idazkiaren arabera: *Gares videa azpico alde larreas onat* (Jimeno Jurío 1986: 102); Elkanoko Lizarragak era bazerabilen, eta ez nahitaez erakusleetan: *ikusten baitut animalaeen oinkuntze anitz orrat*, *baña bat ere ez atzerat* (Iraizoz 1979: 144). Bonapartek *oneta*, *orreta*, *areta* bildu zituen Goñin eta Oltzan, eta *onata*, *orrata*, *arata* Gares eta

Elkanon (Ondarra 1982: 171). Ekialdera *-rat* atzizkia Esteribarko Eugin ageri zaigu, are erakusleetarik landa: *eta baikorleat kartzen zuzten Eugire* (NEM I: 31). Aezkoan, ordea, *onáta, orráta, aráta* dira erabilienak; *onat* sailekoak arras guti entzuten dira; arras iduria da Erroibarko egoera (Ibarra 1998).

Mendiaz bestaldean, erakusleetan bederen, *-nutz(a) / -rutz(a)* sailekoak ditugu: *onutz, orrutz, autz* Etxarri Aranatzen (Karasatorre et alii 1991); Ergoieneko Lizarragan *arrutz* bildu da (Solís 1993: 98) eta *onutza* eta *orrutz* aldaerak jaso ditu K. Seguroiak (EHHA); *arutza* erabiltzen da Burundako Altsasun (Izagirre 1967: 62). Ekialderago ez dakigu atzizki hau baden, baina bada *aldera* posposizioa, Uhartan eta Irañetan bildu zena (Erizk.). Txulapaingo Nabatzen ere *mendi aldera* dugu (Erizk.), eta *èrri áldera* egungo Ezkabarteko Anotzen (EAEL); erakusleetan *-rata* dago, halaz ere, herri honetan: *orráta* (Artola 1985: 107).

5.2.4.14. Muga adlatziboan *-ño* atzizkia dugu; Bonapartek bildu aldaerak aipa daitezke: *oneraño, orreraño, areraño* Oltzan eta Goñin bildu ziren eta *onaraño, orraraño, araraño* Elkanon eta Garesen. Txulapaingo Nabatzen ere badugu: *onaraño*, eta baita Ezkabarteko 1828ko dotrinan ere: *bulerretaraño, escunecoraño* (386). Beriainek ere bazerabilen: *azqueneraño* (1621: 10, 97), *yçuli arteraño* (32) —*-raino*-rekin batera: *egoci arterayno* (98), *ariqueta prefacioryno* (124)— eta baita Elizaldek ere: *bularretaraño* (4).

Bada denborari lotutakorik ere: «Muruzabal 1751» izendatzen den prediku Goñerrikotzakokan, *oreño* dugu (87) eta Arakilgo Egiarretan *oraino're* ageri zaigu (EAEL); *oreño* hori bera ageri zaigu Gesalitzen (378), eta bada *arte* posposizioari lotutako aldaera bat ere: *lenago ibili zituen pausu guciac ariqueta billitu [sic] arteño vere dirue* (384) —ikus honetaz (De Rijk 1992: 709)—; Gesalitzen bada *arteo* ere: *Noiz arteo lucecen duzu zure conversio eta penitencie ori?* (379). Olloko datuetan ere *egundaño* nahiz *orai artio* ageri dira. Goñerrian ere badira: *ariquetan socuen galdu artio* (Pre IV, 163). Eskuin Txulapaingo Nabatzen *onarartio* dugu eta Gulibarko Larunben *oztu ártio* (EAEL). Ezkabarteko dotrinan *arteo* ageri da: *comecatu arteo* (401), baina egungo datuetan *ártio* dago Anotzen: *sekàtu ártio & erdetsi ártio* (Artola 1985: 105 eta 107).

5.2.5. Atzizkiak

5.2.5.1. Atzizki banatzaileetan apagarria da bokal ondoan *-ra* dela aldaera Goñerrian: *bire*. Ollon ere antzera egiten zen —*seire, irure, bire / bana*—. Garesen ere *-ra* ageri da: *bira, seira, amekara*, baina *ogeira & ogeina*, eta baita *iruna* eta *launa* ere.

Bonaparteren lekukotasunetan, ordea, badirudi erdialdeko —edota goitixeagoko nahi bada— aldaerak ere Goñerrikotzat eta Oltzakotzat hartzen direla, *amekara & amekana* adibideak ageri baitira bi ibarrotarako. *Iru* eta *lau*-ren kasuak zailagoak dira erabakitzen: *irune & laune* ageri da Oltzan eta Goñin, baina litekeena da hor oinarriak *irur* eta *laur* izatea, nahiz Bonapartek bi ibarrotarako *iru* eta *lau* dakartzan. Elkanon ere *-ra* da nagusi, inoiz *-na* ere badakarren arren (Ondarra 1982: 164): *bira, seira, amekara, ogeira*; baita *amekana, iruna, launa* ere ordea.

Mendiaz bestaldean, *-na* ageri da: Arakilgo Urritzolan *ebun ta hogeña duro* (NEM I, 75), *bíne* (EAEL). Arakilgo Uhartan eta Irañetan *zazpiñe* ageri zaigu (Erizk.).

Eskuin, Txulapaingo Nabazko inkestatik ezin da ondoriorik atera, kontsonantean bukatzen diren hitzak ageri baitira soilik: *launa, bana, amarna*.

5.2.5.2. Beste leku batzuetako *-tza* atzizkiaren aldaera *-tze* da Goñerrian: *erioce* (Pre II, 145; Mur) —nahiz *eriozaren* ere baden (Pre IV, 160)—, *arrotze* ‘arraultzea’, *ardantze* (Bon)... Gesalazko testuetan *barace* ‘baratzea’ dugu (389) eta lehentxeagoko Elizalde idazleak *erioze* dakar; Beriainek berriz, *berioce* eta *aurquince* ‘aurkintza’. Geure alderdi honetako toponimian *ardantze* eleak duen agerpenak adierazgarri deritzogun eremu banaketa funtsatzen du: Sakanan, Etxarrin *ardantza* dago oraino, baina Lakuntza eta Arruazura orduko *ardantze* hasten da; aldiz, *eriotza* dakar Lakuntzako predikuak (233). Andiaz beheiti, Deierrin eta Gesalatzan *-tze* dugu (Salaberri 1998: 81-2); Izarbeibarren *Ardanzedia* dago Adiosen (Garesko Udala 1993: 8) eta beheitiago *Ardantzemakurra* ageri da Artaxoan (Jimeno Jurío & Salaberri 1998). Eskuin, goiti, *eriotze* dugu Txulapaingo Nabatzen.

5.2.5.3. *-ka* eratorpen atzizkiari inesiboko *-n* morfema lotzea da inguru honetako hizkeren beste ezaugarri bat; berrikuntza honek neurri batean eremu honetako hizkerak ezagutzeko aukera ematen digu: *becatoreac inguruquen, eta bueltacan dabilçela* darabil Juan Martin de Iberok (99); «Muruzabal 1751» izendatzen dugun predikuan ere badator: *enzun meza bat prisecan* (90). Gesalazko Martinez de Morentinen testuetan ere bada: *prisacan* (379), baina baita *-ka* ere: *juain dira marrusca desesperaturic* (374). Iberoko kantuan *osticocan* eta *tiracan* ditugu baina Olloko datuetan *eztulke* ageri da. Elkanoko Lizarragaren lanetan ematen du *-ka* dagoela: *emanca, ozca, golpeca, gainga* (1984: 36).

Mendiaz bestaldera Burundan ere bada *-kan*: *ibaikan* ‘igerian’, *mutxikan* ‘jolasean’ Bakaikun (Ondarra 1965), eta Ergoienean ere ageri da: *sáltokan, zilipurdiken, itzúlken* (Dorraon Koro Seguiolak bilduak, EHHA); baina Dorraokoak dira *priséka* eta *bueltaka* ere. Euskaltzaindiaren proiektu bererako A. M. Echaidek *elkarri jokan* bildu zuen ondoko Arbizun. Lakuntzako predikuak badakar *-kan*: *lastercan* (234). Uhartan *malluka* dakar *Erizkizundi*-ak, eta *mailluka* Irañetan. XIX. mendeko Gastesi irañetarrak *chilincheca* (59) dakar. Ihabarren, berriz, *arriké* eta *aldixke* bildu dira (Artola 1992: 215). Goraxeago ekialdera, Basaburuan bederen, ezaguna da *-kan*: Koro Seguiolak EHHA-rako *bueltakan* aldaera bildu du hala Etxalekun, Igoan nola Berueten —azken honetan *bueltaka*-rekin batera—. Odietako Ziaurritzen *bueltaka* bildu da, eta Gulibarko Larunben *zintzilika paátze uté* (EAEL, 199). Beheiti, ekialderago, *eztulka* dugu Txulapaingo Nabatzen; Beorburun *bueltaka* sailekoak dira Artolak bildu adibide gehienak, baina behin *bueltaká(n)* dakar (1992: 216). Eskuin, Ezkabarten *marróka, brínkoka* eta *ióka* ditugu. Aspaldiago, Beriainek *odola chirriaca ceriola* (1621: 9) dakar.

5.2.5.4. Euskal Herriko ekialdean bezala, franko erabilia da *-ki* atzizkia Goñerrian modua adierazteko: *obequi* (Ib, 105), *lazqui* (Pre I, 137). Inguruko idazle zaharren artean ere hori ageri da: Elizaldek *ongui, obequi, galanqui, ordinarioqui, ligeroqui, comunqui* dakartza eta Beriainek *obequi* edota *ongui*. Burundaraino iristen da *ondo* & *obeto* pareta —Ergoieneko Lizarragan *ondo* bederen ageri da—, eta baita Aranoraino ere beste aldetik (Zuazo 1998: 15). Gure eremutik eskuin *-ki* dago nabarmen: *ongi* Txulapaingo Nabatzen...

5.2.5.5. Modua adierazteko *-(r)ik* atzizkia ageri da gehienik Goñerriko lekukotasunean: *iquenic aniz deituec* (Mur, 88); *Phariseoac chutituric eguiten zue otoiz au* (Eb, 129); *contentu, gozo, eta alegries beteric* (Ib, 97). Ez dirudi *-ta* arras ohikoa denik: *Maistrue cer eguinte erdechico dut vicice seculcoa?* (Eb, 130). Oltzan ere *-rik* dugu Iberoko otoitzean: *ilces josiric* (149), baina baita *costea* 'gostarik & kostata' partizipioa ere (147).⁵² Gesalatzan ere atzizki hori dugu: *desesperaturic* (374). Beriain eta Elizalderengan ez dago *-rik* baizik. Nafarroako erdialdean Ultzaman ez dago *-ta-rik* (Ibarra 1995b: 496), eta behehiteago Txulapaingo Nabatzen ere *-(r)ik* saileko *ilik* 'hilik' ageri da. Halaz ere, ekialdean, *-rik* nagusi den arren, bada *-ta* atzizkia, esaterako Aezkoan (Camino 1997: 421).

Mendiaz bestaldean eguzkialdera joaz gero Ihabarren *-rik* ageri da ditugun datu bakanetan: *jarrisk, ixinik* (Artola 1992: 215). Mendebaldera joaz gero Ergoieneko Dorraon *-ta* ageri da: *lánzárra... ibillíta dáóná; burúba sartutá* (EHHA); baita *-rik* ere: *patáta, por ejémplo, lúrrien ustélduik eldu á* (EHHA). Burundan ere bi sailak batera ditugu eta maiztasun berdintsua dute Zuazoren arabera (1994: 339). Arakilgo Lakuntzako predikuan *-(r)ik* ageri da: *illic, prevenituric* (234), baina *-ta* dugu Gastesi irañetarraren idazkian: *instantiartatic asita* (Ulayar 1987: 60). Eskuin, Txulapainen, *ñnik* dugu Beorburun, eta *lépoa... lúzetuik* nahiz *bilduik* adibideak Ezkabarteko Anotzen.

5.2.5.6. Mailegu zaharretako *-one(m)* bukaera *-io* da: *arratio* (Bon), *arracioric* (Pre I, 139); halaz ere Markotegik *cherry monton bat* dakar⁵³ (235); ez dezagun ahanz *móntio* badela Nafarroa Garaian ekialderago. Gesalatzan ere *arracio* dugu (378). Izarbebarren ere *-zio* dugu Utergako dotrinan: *arrazio* (212).⁵⁴ Lizarraga Elkanokoak ere halakoxeak zerabiltzan: *arrazio* (1984: 38) eta baita Beriainek XVII. mendean ere: *arrazio*. Bonapartek, bestalde, *arratio* bildu zuen Elkano, Gares, eta Oltzan.

Mendiaz bestaldean *arrazoia* & *arratoia* ditugu Etxarrin (Karasatorre et alii 1991: 122) eta Lakuntzako predikuan *arrazobie* (233). J. M. Satrustegik Arruazuko kutsu nabarmena aurkitu dion Aralar aldeko 1833ko testu batek *arrazore* 'arrazoia' dakar (1987: 187). Ezkabarteko dotrinan *arrazuñen contra* dugu (397). Pagolak Nafarroa Garaiko iparreko herri guztietan bildu emaitzetan *arratoi* ageri da (1992b).

5.2.5.7. *-xe* da atzizkia Goñerrian: *ausse* (Pre IV, 157). Ergoienean, ordea, bada *-xen*: *bezelaxen* (Lizarraga). Dorraon biak: *bélaxe & bélexen* (EHHA). Irañetan ere *-xen* ageri zaigu: *olaxen* (EAEL, 169).⁵⁵

5.2.5.8. Oltza eta Goñerria bereizten ditu garaia edo denbora adierazten duen *-zutu* atzizkiak: Goñerrian *gastezutu* eta *aurzutu* bildu zituen Bonapartek; Oltzan ordea, *aurtzutu* eta *gastezutu*. Eguesibarren *aurtzutu*, *gastezutu* eta *zartzutu*, baina Garesen *aurtzuta*, *gaztetasun* eta *zartzaro*. Ez da ezezaguna *-zaro* Goñerrian: Gares, Oltza eta Goñin *zartzaro* bildu zuen printzeak. Ez dago garbi zein den atzizki hauen hedadura Nafarroa Garaian. Ekialdean badakigu Erroibarren, Aezkoan eta Erronkarin -

(52) Hori bera dakar «Muruzabal (1743)» izendatzen den predikuak ere: *zemat costea zauden Jaun soberano oni* (Satrustegi 1987: 78).

(53) Ergoieneko Lizarragan ere *monton* dugu: *ekartzen ziiñuen guzie, dena montonia* (Solís 1993: 113); Arakilgo Irañetan ere *monton* dago (EAEL, 169) eta Ihabarren ere *mõnton bát* bildu da (Artola 1992: 215).

(54) Eslaba aldeko toponimian ere *-io* ageri da *sario* edo *gristio* eleetan (Salaberri 1994b: 1060).

(55) *-xe* nagusi den arren, Aezkoan ere *-xen* ageri zaigu.

zutu dagoela eta *-zitu* dela Zaraitzun erabiltzen dena. Bestalde, Azkuek *Morfología Vasca*-n (122-3) goi-nafarreratzat jotzen du *-zitu* —*lanzitu*, *mutikozitu*— baina ez du adierazten zehazki nongoa den.

Mendiaz bestaldera, erabili ditugun lanabesetan ez zaigu Sakana alderdi horretan *-zutu* edo *-zitu* atzizkia agertu; Txulapaingo Beorburun *gazté-denborán* dago, Usin *gáztia nitzén denbóran* eta Odietako Ziaurritzen *gazté-denbóran*.

5.2.5.9. *-kal* atzizkia Eguesibarren eta Oltzan bazela diosku Bonapartek, baina Izarbe ibarrean eta Goñerrian ez zegoela: *zure idurikal* da Elkanoko eta Oltzako adibidea. Ez Beriainengan ez Elizalderengan ez da ageri atzizki hau, baina Lizarragarengan bai. Ekialdeko hizkeretan bada; Ipar Euskal Herrian arrunta da eta Aezkoan eta Erroibarren ere bildu da. Andia mendiaz bestaldean ez dirudi erabiltzen denik.

5.2.5.10. Superlatiboko aldaeraz denaz bezainbatean, «Muruzabal 1751» izendatzen den predikuan *-eñe* atzizkia ageri dela dugu aipagai: *O Jaun divinoa, ceñ curseturic daude codicie, ire, odio, lujurie, gule, blasfemie, jurem(en)tu falso, maldicioa eta b(e)rce vicioen mediosco infernuco bide gogorreñe?* (86). Hau da aurkitu dugun adibide bakarra eta bada bestelakorik ere gainera: *acusazaleric andiena* (90).

5.2.5.11. *-to* atzizkia ere geure eremuari dagokio: Oltzako toponimian *Eunçetoo* dugu Ororbian; Olloibarren *gastetto* dakar *Erizkizundi*-ak; Elkanoko Lizarragak ausarki zerabilen eta Ezkabarten ere agertu da Anotzen: *telátto úre* (Artola 1985: 106). Aezkoan eta Nafarroa Beherean ere bada. Berebat, Arakilgo Lakuntzan *Pagatto* toponimoa dugu (Salaberri 1992: 628).

5.2.6. Begien bistakoa denez, morfologian beti ez da aise izaten ezaugarrien arteko kronologia erlatiboa finkatzea; berrikuntzen eta hautapenen arteko bereizketa ez da beti nabarmena izaten eta batzuk eta besteak non nola eta noiz nola nahaska ageri zaizkigu. Bestalde, ezaugarri franko dira dimorfismo egoeran ditugunak, eta zail da horrela ezaugarri baten arabera eremuen arteko banaketak ezartzea.

Badira gure eremua banatzen ez duten ezaugarriak:

1) *-tako* atzizki destinatiboak eremu guztia harrapatzen du, nahiz Andiaz iparrrera baden inoizka *-tzat* atzizkia; gure adibideetan Arbizon eta Urritzolan. Prolatibotan berdin gertatzen da: *-tako* atzizkiak eremu guztia harrapatzen du, baina gogoan hartu behar da XVI. eta XVII. mendeetako lekukotasunetan *-tzat* arras erabilia zela. Egun *-tzat* prolatiboan soilik Arbizon ageri da gure datuetan eta ez da *-taako* atzizki adierakidea bezainbat erabiltzen, gainera. Gure eremua banatzen ez duen beste ezaugarri bat erakusleetako bokal arteko *r* azkarraren —*arrek*, *arrei*— agerpena da, leku guztietan baitago aukera hori. Datiboan pluraleko *-ei* atzizkiak ere eremu guztia batzen du.

2) Soziatiboko atzizkian Iruñetik goiti dauden ibarretako egungo datuetan *-ki* nagusi bada ere, azertu ditugun gainerateko eremu guztietan *-ki* / *-kin* txandaketa nabaria ageri da bildu ahal izan ditugun datuetan.

3) Eremu ez homogeneoa du pluraleko datiboa den *-ai*-k ere: Arakil, Oltza, Txulapain eta Ezkabarten ageri da gure datuetan.

4) Itxura ñabarra du instrumentaleko atzizkiak sortzen duen banaketak: Burundan *-z* dago, Ergoiena eta Arakilgo alderdi batean *-s*, baina bada *-s* eta *-z* arteko txan-

daketa Arakilgo gune batzuetan ere; Iruñetik goitiko Txulapainen eta Ezkabarten -z dugu, baina Arakilgo ekialdean bezala bi txistukarien arteko txandaketa dago Goñerrian, Gesalätzen, Olloibarren, Oltzan, Garesen eta Eguesibarren. Azkenik, Utergako dotrinan -s ageri zaigu. Antzekoa gertatzen zaio ablatiboko singularreko atzizkiari ere: Iruñetik goitiko Txulapain, Ezkabarte eta Odietan soilik -tik dago dirudienez, eta baita Oltza, Olloibar, Eguesibar eta Garesen ere, baina franko ibarretan -tik/-ti txandaketa dugu: Ergoienean, Arakilen, Goñerrian eta Utergako dotrinan. Bestalde, nagusi dago -ti aldaera Gesalätzen.

5) Ez da arras ohikoa -kan atzizki indartu eta berriak eratzen duen irudia; hegoaldera ore erakuslea iristen den eremu idurira hedatzen da, Gesalatzera, Goñerrira eta Oltzara, baina ez Izarbeibarrera, ezta Eguesibarrera ere; mendebaldetik Burundaraino eta erdialdetik goiti ere hedatzen da, Basaburura; ez dago guztiz garbi Txulapaineraino iristen ote den. Iduria da ore erakuslearen eremua, nahiz hau ez den Gesalätzen ageri eta ekialdetik -kan baino urrunago Anue eta Ultzama alderdiraino iristen den.

Baina espero zitekeenez, badira gure eremua nola edo hala banatzen duten hizkuntza ezaugarriak:

1) Eremu txikienetik hasirik Utergako dotrinako motibatiboko -rgati(k) atzizki analogikoa da gertakaririk bereziena, eremu horri izaera berezia edota halako nortasun bat ematen diona.

2) Eremu handixeago batean, pluraleko datiboko -egi atzizkiak —Gesalätzen eta Goñerrian singularrean ere erabiltzen da -gi— Eguesibartik hegomendebaldera bitarteko hizkerak nahiz Ergoienekoa batzen ditu; hedadura iduria dute bigarren pertsonako zek izenordainak —Gares, Goñerria, Ergoiena— eta eiek hirugarren graduko erakusleak: Gesalatz, Goñerria, Ergoiena.

3) Hedadura handixeagoan, ablatibo pluraleko atzizkiak aski ongi banatzen du eremua bi alderditan: mendebaldetik Gulibar eta Txulapain alderdiraino -etati(k) ageri zaigu eta behin Ezkabarte eta Odietara iritsirik, -etaik nagusitzen da ekialdera. Hegomendebaldean berdin gertatzen da, Eguesibarreraino -etatik dago Gesalätzen, Goñerrian, Oltzan, Olloibarren eta Izarbeibarren, baina hortik eskuin -etaik. Eguesibarko eremu hau bera da -riken, -tiken saileko -n-ren pleonasmorik ez dagoena, bertatik ezker bai baitira bi atzizki pleonastiko hauek Goñerrian, Gesalätzen, Utergako dotrinan, Sakanan eta Burundan; ekialdean Aezkoan edo Garazin berriz ageri zaigu -(r)ikan pleonasmoa. Genitiboko singularreko atzizkiak ere antzera banatzen du eremua: Ergoienekoa eta Olloibarkoa dira -ain-en agerpen bakarrak mendebaldera, gainerakoan -an baitago erdialdean eta mendebaldean: Gesalätzen, Goñerrian, Olloibarren, Oltzan, Arakilen eta Iruñetik goitiko Txulapainen eta Ezkabarten; baita peko aldetik Garesen eta Utergako dotrinan ere. Aldiz, Elkanon -ain dugu eta hori bera da ekialdeko ibarretan ageri den atzizkia. Berebat, erakusleen hitz hasierako g-, Eguesibartik eta Estebartik eskuin ageri zaigu hegotik nahiz iparretik ekialdeko Erronkariraino.

4) Hedadura handiagoan oraino, gure eremua batera banatzen duten ezaugarriak dira -io atzizkia mailegu zaharretan —arratio gisakoetan—, -ra atzizki banatzailea, -zutu atzizkia eta -ek ergatibo pluralekoa; lau ezaugarri hauek hegomendebaldeko hizkerak eta ekialde guztikoak biltzen dituzte —ek-rekiko J. M. de Iberoren jokaera

literarioa ez bada bederen—, baina ez Iruñearen gain-gainekoak; oroit bedi, halaz ere, 1828ko Ezkabarteko Makirriaingo dotrinan pluraleko ergatiboan *-ek* ageri dela. Desberdin jokatzten dute Andiaz iparrera dauden hizkerekiko hegomendebaldeko gure eremukoek pluraleko erakusleen aldaerei dagokienez —*ebek & abek, oiek, aiek* vs. *ok, oik, aik* Andiaz harat— eta genitiboko pluraleko izenordain indartuetan —Goñerriko Ibero idazlearen *gauren* vs. Arakil edo Ezkabarteko *geren*—; ezaugarri hauetan ekialdeko beste hizkeretara gehiago jotzen dute hegomendebaldeko gureek. Eta gisa berean, ekialdeko hizkeretan gertatzen den bezala, kontserbatzaileago jokatzten du hegomendebaldeko eremuak hitzen berezko *-a*-ren kontserbazioan Andiaz harako eta Iruñetik goitiko hizkera batzuek baino. Antzera, *-l-z* bukatzen diren erdal maileguetan ere ekialdekoekin batera doaz hegomendebaldeko hizkerok *-le* bukaeran; Andiaz harat daudenetan *-l* da bukaera.

5) Geografia hedadura handiagoa harturik, gure eremuko ipar-mendebaldeak bakartzen du hurrengo ezaugarrien bidez eratzen den irudiak: *erak* edo *iak* erakusle indartuak, *-ta, -do* eta *-xen* atzizki moduzkoak, *-tza* atzizkia eta *-rutz* hurbiltze adlatibokoa ditugu Ergoiena alderdi horretan; ordea, Arakilgo mendebaldetik eskuin iparretik eta gutienez Gesalaztik eskuinera hegotik, *berak* erakusle indartua, *-rik, -ki, -xe, -tze* eta *-rata* atzizkiak —edo *aldera* posposizioa Arakil, Txulapain eta Ezkabarten— nagusitzen zaizkigu Arakilgo, Iruñeko hegomendebaldeko, Nafarroako erdialdeko eta ekialdeko eremuetan.

Bibliografia

- Altuna Otegi, F., 1995, “Acto contriciocoa eriotzaco orduracò: Garcia de Albeniz araiarraren araberazko eskuizkribua (1778)”, *ASJU* 29/1, 83-132.
- Allières, J., 1981, “La dialectologie basque”, in *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 103-113.
- Apat Echebarne [A. Irigaray], 1974, *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Diario de Navarra, Iruñea.
- Apecechea, J., 1985, “Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín Lizarraga (año 1782) V”, *FLV* 46, 283-304.
- Arakama, J., 1994, “Uharte-Arakilgo dotrina”, *ASJU* 28/2, 569-613.
- Arana Martija, J. A., 1994, “Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bidelagun Nafarroan zehar”, *Euskera* 39/2, 435-440.
- Aranzadi Zientzia Elkartea, 1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*: Egiairreta, Urritzola, Larunbe, Usi, Ziaurritz, Anotz eta Olaitz herrietako etnotestuak: 197-203.
- Arraiza, J., 1988, “Ibero. Viacrucis en vascuence del siglo XIX”, *FLV* 51, 143-154.
- Artola, K., 1985, “Ezkabarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan”, in *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, 95-112.
- , 1992, “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze saiakera)”, *FLV* 60, 187-227; 214-en Ihabar.
- Azkué, R. M., 1969 [1923-5], *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Aurrekoetxea, G., 1992, “Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa”, *Uztaro* 5, 59-109.
- Bidador, J., 1992, “Noticias y restos del euskera de Val de Olo”, *FLV* 60, 277-295.
- Bonaparte, L. L., 1869, *Le cantique des trois enfants dans la fournaise, dans les trois sous-dialectes du basque haut-navarrais méridional, tel qu’il a été recueilli de la bouche des gens de la campagne*, Londres.

- Camino, I., 1991, "Aezkerazko Testuak II: Orbarako Dotrinak", *ASJU* 25/3, 929-960.
- _____, 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- _____, 1998, "Zer dago dialektologiaren gibelean?", in Camino (arg.), 111-144.
- _____, 1998b, (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- _____ & Lakarra, J. A., 1993, "Beriain osatuz", *ASJU* 27/3, 1029-1048.
- Campión, A., 1880, *Orreaga. Balada escrita en el dialecto guipuzcoano, acompañada de versiones a los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades de la región bascongada de Navarra desde Olazagutia hasta Roncal*, Librería de Joaquín Lorda, Iruñea. [Dorraoko itzulpena].
- Casas, J. M. & Abascal, A., 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Zaragoza.
- Ciérvide, R., 1998, "El Euskera en la Navarra medieval en su contexto románico", *FLV* 79, 497-513.
- Colman, F., 1988, "What is in a name?", in J. Fisiak (ed.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam, 111-137.
- Díez de Ulzurrun, P., 1960, "El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828", *Euskera* 5, 377-403.
- Echaide, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, [Ziordia, Bakaiku, Lakuntza, Unanu, Murgindueta eta Oderizko datuak].
- Elizalde, F., 1735, *Apezendaco doctrina christiana uscaras*, Iruñea.
- Emeneau, M. B., 1956, "India as a Linguistic Area", *Language* 32, 3-16.
- Ostermin, A., 1973, *Aproximación al ritmo de la prosa de Axular*, Deustoko Unibertsitatea, Lizentziatura tesina.
- Salaberri, P., 1997, *Axularren prosa erretorikaren argitan*, Bilbo, EHU.
- _____, 1998, *Axularren historia*, Iruñea, Pamiela.
- _____, 1999, *Axular. Antologia*, Bilbo, Ibaizabal-Kriseilu.
- Sarasola, I., 1971, *Euskal literaturaren historia* (gaztelera: 1976, *Historia social de la Literatura Vasca*, Madrid, Akal).
- Urgell, B., 1991, "Axular eta Larramendi", *ASJU XXV-3*, 901-928.
- Urquijo, J., 1907, "Una observación de M. Dubarat", *RIEV I*, 37.
- _____, 1911, "Axular y su libro", *RIEV V*, 538-555.
- _____, 1912a, "Axular y su libro (continuación)", *RIEV VI*, 292-303 eta 547-551.
- _____, 1912b, *Una fuente del Guero (Axular imitador de Fr. Luis de Granada)*, Saint Jean de Luz: J. Dargains.
- _____, f.g., "Las citas del Guero", eskuizkribua, 8.022 zkia.
- _____, f.g., "Variantes de las dos primeras ediciones del Guero", [1900?], eskuizkribua, 9.186 zkia.
- Villasante, L., 1961, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao, Ed. Sendo (2. edizioa, zuzendua eta gehitua: 1979, Ed. Aranzazu).
- _____, 1972, *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Ed. Franciscana Aranzazu, Oñati.
- _____, 1973, *Axular-en hiztegia*, Aranzazu, Oñati.
- _____, 1974, "Bibliografía Axulariana", *FLV XVI*, 135-152.
- _____, 1978, *Estudios de sintaxis vasca*, Ed. Franciscana, Oñati 1978
- _____, 1980, *Sintaxis de la oración simple*, Ed. Franciscana, Oñati
- _____, 1981-1982, "Las oraciones causales en Axular" *FLV 37*, (1981), 9-18; *FLV 38* (1981), 9-21; *FLV 39* (1982), 9-20; *FLV 40* (1982), 359-386.
- Vinson, J., 1880, "Le Guero Guero d'Axular", *Revue de Bibliophiles II*, 104-109.
- _____, 1891, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Paris, J. Maisonneuve (Orain: *Essai {...}*), 1983; *Bibliographie de la Langue Basque*, San Sebastián, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 1984).
- _____, 1898, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque (Additions et corrections; citations et références; Journaux et revues)*, Paris, J. Maisonneuve (Orain: *Essai {...} Complement et supplément*, 1983; *Bibliographie de la Langue Basque*, San Sebastián, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 1984).
- Xarriton, P., 1997, "Axular-i galdezka", *Egan 3/4*, 131-146.

J.A. Mogelen “Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos”: antzinatearen erabilpena euskararen apologiaren auzian

(“Basque versions of several selected harangues and speeches by the best Latin authors” by J. A. Mogel: the use of antiquity in the cause of apology of the Basque language)

Torregerai, Elena
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia - Miraconcha,41
20007 Donostia

Villoslada, Iñaki
Santa Klara kalea, 29, 4.esk
20100 Errenteria

J.A. Mogelen Versiones Bascongadas euskal literaturaren mugarri bat dira, euskarazko lehenengo exempla bilduma baitira. Euskal Herrian XIX. mendearen hasierako tradizio klasikoaren transmisioaren forma berezi hau W. Von Humboldek gorpuzten duen euskal hizkuntzagatik Europan suzpertu zen interesaren ondorio bat da. Horren ondorioz, Mogelen obra garaiko kultura europarraren ereduaren arabera euskara aurkezteko behararen emaitza da. Hauen arabera gure hizkuntza, hizkuntza klasikoaren perfektzioaren paradigmarekin konparaketari eutsi behar zion bera gaitasuna erakusteko eta kultur tresna bihurtzeko.

Giltz-Hitzak: Tradizio klasikoa. Erretorika. XIX. mendea. Euskara.

Las Versiones bascongadas de J.A. Mogel constituyen un hito en la literatura euskérica, ya que forman parte del primer catálogo de exempla traducido al euskara. Esta particular modalidad de transmisión de la tradición clásica en la Euskal Herria de principios del siglo XIX se produjo principalmente a causa de un interés europeo por la lengua vasca de carácter coyuntural, personificado en la figura de W. von Humboldt. Como consecuencia de ello, la obra de Mogel es el resultado de la necesidad de presentar en sociedad al euskara de acuerdo con los patrones del conocimiento en la cultura europea de la época, según los cuales, nuestra lengua debía resistir la comparación con el paradigma de perfección de las lenguas clásicas y demostrar su capacidad para convertirse en instrumento de cultura.

Palabras Clave: Tradición clásica. Retórica. Siglo XIX. Euskara.

Les Versiones Bascongadas de J.A. Mogel marquent date dans la littérature en langue basque, puisque elles font partie du premier catalogue d'exempla traduit en cette langue. Cette particulier modalité de transmission de la tradition classique au Pays Basque du début de XIXème siècle s'est produit à cause d'un intérêt européen par la langue basque de type conjoncturel, personifié par W. Von Humboldt. Par conséquent, l'oeuvre de Mogel est le résultat du besoin de présenter en société à l'euskara selon les modèles de la culture européenne de l'époque, pour lesquels, notre langue devait résister la comparaison avec le paradigme de perfection des langues classiques et démontrer ainsi sa capacité de devenir un instrument de culture.

Mots Clés: Tradition classique. Rétorique. XIXe siècle. Euskara.

1802. urtean, Tolosan, F. de Lama editoreak J. A. Moglek idatzitako izenburu luzeko liburuxka bat argitaratu zuen "*Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos. Demonstracion practica de la pureza, fecundidad y eloqüencias del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios Escritores extraños, y contra algunos Bascongados, que sólo tienen una noticia superficial del idioma patrio*".

Europako literatura eta historiografiaren barruan, "Peru Abarka"ren autorearen beste liburuxko honek, gaiaren aldetik, batez ere, ez zekarren inolako berrikuntzarik, Erdi Arotik bertatik, baina, neurri handiago batean, Berpizkundearen garaitik, Mendebaldeko literaturan barnean Antzinatearekin zerikusirik zuten obra ugari baitzeuden: mundu klasikoaren autore nagusien berrikuspenak ziren batzuetan, edota herri bakoitzeko hizkuntzan Antzineko pentsamenduaren eta gertaeren itzulpenak bestetan, baita ere Erroman eta Grezian kokatutako obren argitalpenak, etabar.¹ Euskal Herrian, berriz, J.A. Mogelen lan hau, garai hartan, berri-berria zen, XIX. mendearen hasierara arte, Euskal Literaturan, inork ez baitzuen horrelako pausorik eman.²

Dakigunez, lehenagotik ere bazeuden Euskal Herrian letragigon batzuek egindako idazle klasikoaren hainbat itzulpen, edota, autore horien *dicta* famatuena euskarazko bertsiotzak. Baina Mogelen liburuaren berdin-antzekorik ez zegoen. Beraz, Mogelen testua arakatu ondoren gure buruari galdetzen badiogu zertan datzan Markinako apaizaren obraren berritasuna, esan beharko genuke lehenengo aldiz etsenplu bilduma oso bat irakur dezakegula euskaraz. Zer dira, baina, *exempla* hauek? Eta are gehiago, zer dira etsenpluen bildumak? Eta zertarako balio dute? Bada, lehenengo eta behin esan behar dugu etsenpluaren generoa, generoa bada, tradizio klasikoaren funtsezko elementua dugula. Berez, etsenplua Antzinateetik zuzenetik datorkigu; dagoeneko K.a. I. mendean autore ezezagun baten *Rhetorica ad Herennium*-ek,³ horrelaxe definitzen zuen *exemplum*-a: "fidagarria den pertsonaia ospetsu batek kontatzen duen gertaera edo ahoskatzen dituen hitz gogoangarriak". Definizio hau guztiz latindarra izan arren, etsenplua aski ezaguna eta erabilia zen oraindik askoz lehenagotik, Greziako literatura eta historiografian, mota horretako istorio eta adibideak *polis* klasikoaren hizlarien artean oinarritzko tresnak izanak ziren eta. Baina, egia aitortzeko, ahozko eta idatzizko diskurtsoetan etsenpluen erabilerari fama handiena eman ziona, Cicero maisua izan zen. Bere obra ospetsuetan mota guztietako etsenpluak aurkitzen ditugu: historikoak, moralak, filosofikoak, literaturatik ateratakoak, eta abar.⁴ Hari irakurriz, konturatzen gara etsenpla hauek irakurleari eta publikoari portaeraren eredu gisa eskaintzen zitzaizkiela. Aldi berean, helburua gizartearen irudi idealizatu bat transmititzea zen.

Etsenpluak figura erretoriko gisa jarraituko du bere ibilbidea Antzinateetik, Erdi Aroan eta Aro Modernoan zehar. Gehienetan, "*miroir des princes*" deituriko tipoko liburuetan azalduko dira. Obra hauek gobernariei beren estatuak gobernatzeko aholkuak emateko idazten ziren. Hezkuntza lan hori Antzinateko etsenpluen bidez egiten zen nagusiki, errege eta jauntxoaren gertaera edo esakerak gogora ekarriz.

(1) I. Muñoz Valle, *Actitudes ante la cultura clásica a lo largo de la historia*, Madrid 1971.

(2) J. Kortazar, "Mogel eta bere garaia", *ASJU* 1982, XVI, 51 orr., Mogel XVIII. mendeko gizona izanez, guztiz neoklasikoa zen X. Altzibar, "J.A. Mogel", *Bidegileak* 11 orr., "*Versiones bascongadas...*" obra neoklasikoa da, irakasteko asmoarekin idatzita.

(3) *Rhetorica ad Herennium* IV 49, 62.

(4) A.W. Robinson, *Cicero's use of people as exempla in his speeches*, UMI 1989.

Horretarako, obra hauen egileek adibide hauek guztiak berariaz prestatutako bildumetatik ateratzen zituzten. Beraz, askotan ez ziren jatorrizko iturriak erabiltzen, hau da, Antzinateko klasikoak zuzenean ez ziren erabiltzen. Erdi Arotik aurrera, batez ere, bildumek beste helburu bat izango dute, erlijiosoa, gero ikusiko dugun bezala. Holako prozedurak, etsenpluaren jatorrizko zentzua aldatzen zuen noski, baina, aldi berean tradizio klasikoaren iraupenerako bide berriak zabaltzen zituen.

Erdi Arotik aurrera etsenpluen zabalkuntzarako eremu aproposena Elizaren predikazioarena izango da ia beti. Horretan eskeko ordenen nekeak eta lanak funtsezkoak gertatu ziren. Askotan fraile hauek sermoiak prestatzeko zituzten koadernoetan Ebanjeliotatik ateratakoekin batera Antzinateko etsenplu asko eta asko aurkitzen dira.⁵ Eta hor argi ikusten da goian aipatzen genuena, hots, etsenpluen helburuaren aldaketa. Antzinateko etsenpluak politikarien hezkuntzarako erabiltzen ziren, baina Erdi Arotik aurrera zentzu politiko hori gobernuari buruzko tratatuetan oraindik gordetzen bada ere, etsenpluen helburu nagusia herritarren hezkuntza erlijiosoa izango da, eta ez lehen bezala, herritarren hezkuntza politikoa. Antzinateko jatorrizko etsenpluetatik teknika erretorikoa gordeko da bakarrik, pertsuasioarako tresna bat izaten jarraituko dute, alegia. Hau guztia kontuan harturik Erdi Aroko etsenpluez aritzean J. Le Goffek hurrengo esan ahal izan zuen: "*Un récit bref donné comme veridique et destiné à être inséré dans un discours (en général un sermon) pour convaincre un auditoire par une leçon salutaire*".

Hurrengo mendeetan etsenplua figura erretoriko gisa sendotuko da. Gehienetan, etsenplua pertsuasio modu bezala erabiltzen da predikatzaileen eta liburu moralen egileen artean.⁶ Edonola ere, azpimarratu behar dugu apaizek eta moralistek aukeratzeko zuten etsenplu kopurua oso murrizta zela, anekdota gutxi eta ezagun batzuk erabiltzen zituzten eta. Horrelaxe etsenpluaren erabilera bera teknika bihurtu zen eta bertute edo pekatu bat ilustratzeko Ebanjelioekin istorioekin gertatzen zen bezala, etsenplu egokiak bazeuden, behin eta berriro errepikatzen zirenak. Era honetan, Scipio, buruzagi erromatarra lizunkeriaren kontrako etsenplu modua erakusten zen; Solonek, beste aldetik, gobernari zuzenaren irudia errepresentatzen zuen, eta abar. Era honetan, predikatzaileen lana errazten zen, publikoa ohituta baitzegoen etsenplu horiek entzutera eta, noski, bere esanahia ezagutzen zuen, istorioaren Antzinateko testuinguru historikoa berarentzat erabat ezezaguna izan arren. Predikatzaileentzat horren lagungarriak ziren etsenplu bilduma horietan kontatzen ziren anekdotak ia beti berberak izaten ziren.

Hau guztia kontuan hartu eta gero, gure ustez, J.A. Mogelen *Versiones bascongadas* liburua euskarazko lehenengo etsenplu-bilduma bezala defini daiteke. Bertan, Damocles eta Falisco maisuaren istorioekin batera, Alejandroren gaisotasuna, Catilinaren arenga, Ciceronek Catilinaren kontra egindako diskurtsoaren hastapenak, Germanikok soldaduei egindako errieta, eta lizunkeriaren kontrako Scipionen hitzak irakurtzen dira. Guztiak dira Antzinateko gertaera eta esaera aski ezagunak eta behin eta berriro errepikatuak. Baina Mogelen obraren bitxitasuna ez zetzan gaian, baizik eta euskararen erabilpenean Antzinateko ereduak zabaltzeko; horiek dira, gure ustez, bere obraren berrikuntza eta garrantzia, Euskal Literaturarako.

(5) J. Berlioz, M.A. Polo de Beaulieu, *Les Exempla médiévaux*, Carcassonne 1992, 19 orr.

(6) Ibid. 18 orr.

I. Tradizio Klasikoaren Transmisioa

Mogelek berak liburuaren gipuzkerazko lehenengo edizioaren hitzaurrean hauxe adierazten digu: “*Es la primera vez que hablan en Bascuence Ciceron, Salustio, Tacito, Tito Libio, y Curcio*”. Dena den, Markinakoa ez zebilen erabat zuzen, izan ere, urte batzuk lehenagotik latinetik euskarara idatzitako itzulpen batzuk bazeuden: Silvain Pouvreaux egindakoak eta 1786. urtean Labastidek Cesarren Komentarioei buruz egindako itzulpena.⁷ Lan hauek tradizio klasikoaren transmisioaren ikuspuntutik aztertu ondoren, esan behar dugu Antzinateko idazle nagusien testu batzuen euskaratze-lana letragizon gutxi batzuen ardura intelektualari zor diogula. Aldi berean, honek Euskal Herrian ere Europa osoan bezala kultura klasikoaren ezagutza gutxiengo baten eskuetan zegoela adierazten digu. Orobat, nabarmendu behar dugu, gure herrian Klasikotasunaren testuen itzulpen lana askoz ere neurri txikiagoan eman zela eta, batez ere, beranduago. Baina, ez zen kezka intelektuala bakarrik letragizon horiek idazle klasikoen euskarazko itzulpenak egitera bultzatu zuena; Mogelen obraren atzetik bazeuden beste interes batzuk.

Interes aniztasun hau itzultzeko aukeratutako testuetan bertan atzeman daiteke. Badakigu Markinakoa poesia latindarra zuela oso gustukoa, Horazio batez ere, Vargas Ponceri bidalitako gutunetan idazle honen erreferentziak azaltzen baitira. Gainera, bere iloba Bizenta Mogelen liburuan “*Ipui onac*”-etan berak itzultitako Esoporen alegiak azaltzen dira.⁸ *Versiones bascongadas*-en testuak, ordea, historiagileenak dira. Testu horiek pertsonaia famatuen diskurtsoak dira, hortaz, pentsa dezakegu, azken finean, Mogelen interes nagusia ez zela Salustio, Tito Libio edo Tacitoren pentsaera bera, baizik eta testu horien oratoria maila, hau da, beren eredu erretorikoa. Ikuspuntu honetatik, aukeraketa hori ez zegoen urrun bere poesiari buruzko gustuetatik, zeren eta Mogelek Horaziorenganako miresmena poetaren hizkuntz trebetasunean oinarritzen baitzuen. Momentuz, Mogelen lehentasuna ez zegoen Historiaren kontakizunean, baizik eta Antzinateko historiagileek pertsonaien ahotan jartzen zituzten hitzetan. Hizkuntz trebetasunagatiko kezkek, *Versiones* egiterakoan apaizaren helburu zehatza agerian uzten digu: euskal hizlarietako ondo hitz egiteko eredu eskaintzea. Baina, zeintzuk izaten ziren bere garaiko hizlariak? Elizako predikarzaileak, dudarik gabe, eta horientzat dira liburuxkaren diskurtsoak: “*Hai multitud de eclesiásticos que no pueden hacer unas pobres versiones...dejan por miedo la instrucción de sus parroquianos y he deseado darles doctrinas travajadas para que o las lean del pulpito o se faciliten en hablar al estilo de la religión, con lo que no habrá tanto trabajo en predicar.*”⁹

J.A. Mogelen bizkaierazko bertsioaren hitzaurreko azken lerro hauen arabera, badakigu apaiza oso kezkatuta zegoela elizgizonetako ez zutelako oratoria sakratua behar bezala lantzen.¹⁰ Beraz, esan dezakegu Markinakoa helburu nagusia, bere obran tradizio klasikoen itzulpenak eskaintzean, predikazioaren hobekuntzarako tresna bat

(7) J. Vinson, 128 orr.

(8) J. Kortazar, *op. cit.*, 49 orr., Mogelek Vargas Ponceri idatzitako eskutitz batean bere alegietako iturri klasikoak aitortu zituen.

(9) J. Gárate, “Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel”, *Ensayos euskarianos*, Bilbo 1935, 218-219 orr.

(10) X. Altzibar, “Juan Antonio Moguel y su obra literaria”, 352 orr.

ematea zela. Bere ustez, idazle klasikoaren testu hauek oso baliagarriak ziren hizlari berriei diskurtsoaren teknikak erakusteko, ondo hitz egiteko eredu bat baitziren. Honekin guztiarekin, Mogelek Euskal Herrian tradizio klasikoaren transmisioaren ardatz bat erakusten digu, predikazioarena, hain zuzen ere.¹¹ Pentsatu behar dugu sermoiak nagusiki kultura gabeko laikoei zuzenduta zeudela. Beraz, beraietan Ebanjelioetako istorioak eta Antzinateko etsenpluak parekatzea oso garrantzi handikoa da, sermioen bidez, nola edo hala publikoari kultura forma bat eskaintzen baitzaio. Noski, kultura hori ez zen markagabea, Elizaren mezu bat zuenez, gizarte eredu bat proposatzeko eta jarraiarazteko diseinatuta zegoen. Edozein kasutan, helburu ideologiakoak oso zehatzak izan arren, horrek ez zuen, inola ere, galarazten Antzinateko etsenplu famatuaren errepikapenak tradizio klasikoaren transmisioari laguntzea.

Beraz, predikazioa funtsezko elementua izan zen Euskal Herrian tradizio klasikoaren transmisiorako. Testamentuetako eta Antzinateko istorioen kontaketa bateratuak oinarrizko ezagupen maila ematen zion publikoari. Teknika honen arabera, Ebanjelioetako pasarteekin gertatzen den bezala, mundu klasikoari buruz errepikatzen zen anekdota bakoitzak bere garaia eta esanahia zituen. Antzinateko istorioekin batera, predikatzaileek testu klasikoetan agertzen diren ideia nagusi batzuk: dekadentzia, barbarotasuna, *otium*-a eta antzekoak, garai guztietako sermoietan transmitituko dituzte. Modu honetan, entzuleak kultur klasikoaren funtsezko kontzeptu eta ideia batzuk barneratzen zituen, testuinguru historikoa ezagutu ez arren. Azkenik, kontzeptu horiek guztiak bere kultura propioaren parte bihurtuko dira.

Tradizio klasikoaren erabilpena euskal predikazioan begi bistakoa da XVIII. mendeko bi euskal predikatzaile nagusien obretan, Aita Kardaberaz eta Aita Mendiburu. Hernanikoaren *Euskararen Berri Onak* gainera, euskara kultur hizkuntza bihurtzearen aldekoa izanik, latinaren eta grekeraren eredia onartzen zuen gure hizkuntzaren garapenerako. Edonola ere, biek sermoietan autore klasikoaren aipamenak erabiltzen zituzten ideiak sendotzeko. Ohitura honek tradizio klasikoari oihartzun zabalagoa eman zion, biak ere bere garaiko euskal predikatzaile famatuena izan baitziren. Entzulegoari dagokionez, Kardaberaz, bietako herrikoiena izan zen eta bere predikatuak Euskal Herria osoan ziren ezagunak.¹² Mendiburu berriz, hizkuntz dotoretasunaz gehiago kezkatzen zen. Dakigunez, Mogelek bion sermoiak entzun zituen eta gustukoak izan zituen.¹³ Beharbada Kardaberaz eta Mendibururen adibideak eta ondorengo bere bizitzako esperientziak —bizkaitarren utzikeria euskararen kontue-

(11) I. Villoslada, E. Torregerai, "Euskararen Berri Onak eta tradizio klasikoaren transmisioa XVIII. mendean Euskal Herrian", *Tokiko Historia III. Ihardunaldiak*, Gasteiz 1995 (prentsan).

(12) I. Villoslada, E. Torregerai, *op. cit.*

(13) J.M. Lojendio, "Mogel", *Egan* 1954, 2-4, 157 orr., dena den, Mogelek Kardaberaz nahiago zuen "Uste dei libru onetako euskera izango dala aditua Giputz guzian. Bizkaiko erri askotan, ta Naparroa geienean. Kardaberaz libruak aditzen errazagoak dira Euskal-errietan, Mendibururenak baiño. Onak itz asko artu ditu Napar euskeratik, ta nola urruti dauden bata besteagandik Naparroa ta Bizkaia, ez ala Giputzak (bada oek erdian daude) errazago egiten zaie Bizkaitarrei aditzea Kardaberaz itzkeren giputz utsekoa, Mendibururen giputz-naparra baiño. Au ez da esatea, Mendibururen euskera ederra ez dala da egiaz eta itzaz garbiago ta euskeratsuagoak Kardaberaz zen libruetakoak baiño ala ere onenak leku zabalagoan aditzen dira, esan dedan arrazoiagatik. Nik ere oni jarraitu diot aleginez, arrazoi beragatik." X. Altzibar, "Juan Antonio Mogel y su obra literaria", *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, 324 orr.

tan—,¹⁴ Mogelen iritzia gipuzkoarren alde makurtu zuten, bere ustez Gipuzkoako apaizak euskal hizkuntzak behar zuten trebetasun eta lanaz Bizkaikoak baino gehiago arduratzen ziren. Honek esplikatuko luke bere obratxoaren “*Versiones bascongadas...*”en lehenengo argitalpena gipuzkerazkoa izatea, Mogelek Probintzian aurkitu baitzuen bere itzulpen lanak merzei zituen errekonozimendua eta bultzada: “*Haviendo leído algunos clérigos guipuzcoanos las versiones bascongadas de las arengas latinas y gustados por la pureza del idioma, el impresor de tolosa deseo imprimirlas.*”¹⁵

Dena den, *Versiones bascongadas* idazteko ideia ez zen sortu Mogelen, euskal hizkuntzaren apologistaren, kezka intelektual propioetatik. Berez, apaizak testu latin-darrak euskarara itzuli zituen W. von Humboldten eskaera bati erantzuteko: “*...un pasaje de Salustio traducido por el Cura Moguel a instancia mía*”.¹⁶ Lan honen bidez, Markinakoak prusiarrari lagundu behar zion Europako beste jakintsuen aurrean euskara aurkezten: “*El sabio prusiano quiere demostrar que el idioma bascongado es eloquente, puro y fecundo. Por su súplica e influzo, he hecho las versiones de varias arengas...*”, eta bide batez, hizkuntza klasikoen parean euskararen gaitasuna kulturaren edozein mailatan erakutsi behar zuten: “*euskararen garbitasun, aberastasun, zernahi adierazteko gaitasun eta adierazkortasun eta elokuentzia erakusteko eta frogatzeko*”¹⁷. Beste modu batean esanda, euskarak Euskal Herritik kanpora ateratzeko tradizio klasikoaren eredia jarraitu egin behar izan zuten Europako jakintsuen artean onartuta izateko.¹⁸ Humboldtek eredu klasikoaren bidez euskara hizkuntza ikasgarria bihurtu nahi zuten.

II. Testuen Azterketa

II.1. *Versiones bascongadas*-en argitalpenak

Mogelek bide ezberdinak jorratu zituen bere obra argitaratzeko. Murgak eskatu zion bezala *Versiones bascongadas*-etako gipuzkerazko lehenengo bertsioa, bizkaieraz ere moldatu zuen eta biak argitaratzeko prestatu zituen.¹⁹ Lehenago Tolosako F. de Lama editoreak gipuzkerazko bertsioa argitaratu zuen; geroxeago bizkaierazko bertsioa agertu zen. Bien artean ezberdintasun nabarmenak daude, lehenengo eta behin, argitalpen

(14) Hitzaurrea “*Sarri alkarregaz berba egin dogu, Bizkaiko jaun, abade ta nik legezko soñokoa darabilen askoren nagitasun, alperreteria ta ardurarik eza, euskerea ikasteko liburuakaz nururik ausi бага, bada eztaukee liburu bizkai euskerea irakatsi leienik.*”

(15) J. Garate, “Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel”, *Ensayos euskarianos*, Bilbo 1935, 218-219 orr.

(16) W. Von Humboldt, *Correcciones y adiciones al Mithridates de Adelung sobre la lengua cantábrica o vasca*, RIEV, Donostia 1933, 71 orr.

(17) X. Altzibar, “Humboldt...”

(18) W. Von Humboldt, *Correcciones...*

(19) X. Altzibar, 29 orr. 52 o. “*Se Juntaron los amigos Murga, Consiliario de Vizcaya, Presidente, Ortes, Mazarredo, Azedo, Herran Torre alta, Corcuera, Romarate de numero, el Excmo. Sr. D. Josef Domingo de Mazarredo, veterano, e yo el Secretario nombrado por estas Juntas por ausencia de los Amigos Secretarios y Vicesecretario (...)* Habiendo presentado D. Juan Antonio Moguel un Ensayo manuscrito de Poesía Bascongada en varias fábulas traducidas del Castellano y diferentes versiones Bascongadas impresas de algunas arengas de autores latinos se acordó darle por su aplicación y zelo manifestándole el sentimiento que tiene la sociedad de que el estado de sus fondos no le permita contribuir a la impresión de dicho Ensayo y le nombró Socio Literato” (Bilbao julio de 1802). Archivo de la Diputación de Alava (Fondo Prestamero). *Juntas Generales de la RS.B.* (eskuzko kopia).

moduetan: gipuzkerazko bertsoia aparteko liburuxka bezala argitaratu zuen Mogelek, aurrean azalgarria den hitzaurre batekin; bizkaierazkoa, berriz, *Peru Abarka* liburua- ren gehigarri bat bezala argitaratu zen. Sarrera moduan Mogelek bi apaizen —Fr. Pedro de Urliaren eta D. Juan de Sandiaren— arteko eztabaida²⁰ eskaintzen digu itzulpenen zergatia hobeto argudiatzeko eta bizkaitarren utzikeriaz euskararekin kezu azaltzeko. Gipuzkerazko eta bizkaierazko hitzaurren artean mamizko ezberdintasunak daude, gure ustez. Gipuzkerazkoak ideologikoki pisu handiagoa du, bizkaierazkoa, ordea, praktikara zuzenduago dago, ekintzara bultzatzeko pentsatuta. Dirudienez, Mogelek pentsatu zuen lurralde bakoitzeko irakurleek itzulpen beharrari buruz azalpen ezberdinak behar zituztela. Baina honetaz, geroago jardungo dugu.

Versiones bascongadas-ek argitalpen batzuk izan ditu urteetan zehar. Aspaldian J. Garatek *La época de Astarloa y Moguel* bere obra famatuan zerrendatu zituen. Lehenengo 1802. urtean Tolosan egin zen; 1857. urtean, Berlinen,²¹ Carl August Fr. Mahn hizkuntzalariak bere *Denkmaeler der baskischen Sprach-n* sartu zituen. Horregatik hau bigarren argitalpentzat jotzen dugu. Lehenengo bi hauek gipuzkerako bertsoiak ziren, bizkaierazkoak, lehen esan dugun bezala, *Peru Abarkaren* argitalpen anitzekin aterako dira.

II.2. Testuen aukera

Gipuzkera eta bizkaierazko bertsoien artean ezberdintasun gehiago ere badaude. Garrantzitsuenetarikoa bat testuen aukeraketan dago. Ez dugu pentsatu behar Moge- lek intentzio gabeko testurik aukeratu zuenik, soilik beren dotoretasuna edota ikus- garritasunagatik. Etsenplu bakoitzaren atzetik asmo ideologiko bat zegoen eta itzulpenen aurkezpen orokorrean ere. Hori dela eta, Markinakoak latinetik euskarara itzuli zituen testuen aukera bera aztertzea da, oso datu esanguratsuak baitaude tra- dizio klasikoaren transmisioaren ikuspuntutik. Komeni da, Mogelen testuen selekzioa bi adarretatik aztertzea: batetik, testuen selekzioaren historia laburra egitea, horrela ikusiko baitugu tradizio klasikoari buruz zeuden iritzi ezberdinak eta perspektiba ani- tzak. Bestetik, idazleen selekzio bera, nagusiki historiagile latindarrena.

Hasiko gara ikusten, beraz, Mogelen liburuxkan azaltzen diren etsenpluak nola aukeratu ziren. Humboldt-ek latindar testuak euskaratzeko oinarrizko enkargua egin zuen, hala ere, Mogelek mandatua aurrera eraman zuen modua polemikoa izan zen. "*Versiones bascongadas...*" en euskaratuko testuei buruzko eztabaida Humboldt- en eta Mogelen arteko bitartekariarekin sortu zen, J.M. de Murga y Barredarekin hain zuzen, garai hartan Bizkaiko Diputazioko lehendakaria zenarekin.²² X. Altzibarren iritzi- z, Murga Euskal Herrian Humboldt- en informatzaile politikoa zen. Dirudienez,

(20) X. Altzibar, "J.A. Mogel"..., 11 orr., ematen duenez, bi elizgizon hauek Añibarro eta Mogel izango lirakeke.

(21) Vinsonek esaten du 1847. Urtean izan zela.

(22) F. Verástegui, "La RSBAP, W. Von Humboldt y José María Murga. Una aproximación de la psicología a la historiografía política", *W. Von Humboldt Un puente entre dos pueblos*, RIEV 41, 1996, 513 orr "...Don José María Murga y la Barreda, natural de la villa de Marquina en el señorío de Vizcaya, primogénito de Don Miguel Antonio de Murga y Andonegui, de edad de 7 años no cumplidos, se hallaba tan extraordinariamente adelantado en el saber, que traducía con facilidad y elegancia los autores clásicos latinos, los franceses y los italianos que leía y escribía corrientemente el carácter griego poseía la historia sagrada y la mitología"

ahalduna gizon kultura eta tradizio klasikoan aditua zen, Hunboldt bera bezala.²³ Idazlan politiko ezberdinak idazteaz gain Antzinateko pertsonaia ospetsu batzuen biografiak bildu zituen: “*Vidas de célebres varones griegos y romanos*”.²⁴ Hau guztia kon-tuan harturik ez da harritzekoa Verastegui Murgaren eta Humboldtten arteko eskutizetatik aterata ematen duen informazioa. Bertan, prusiarrak euskal testuetako adibide bakarrak erlijiosoak direnez gero, bizkaitarrari Tacito, Salustio edo Tito Livioaren itzulpen batzuk bidaltzea eskatzen dio, ahalik eta literalenak posible bada, bere herriko filologoaren artean euskara ezagutzera emateko. Humboldtnek adierazten duenez, Murgari egiten dio enkargua kulturako pertsona zelako eta euskara dotorea hitz egiten duelako. Ematen duenez, Murgak ez zuen bere burua gai ikusi lana behar bezala betetzeko eta horregatik, J.A. Mogeli eskatu zion egiteko, Humboldtten beraren iritziz Bizkaiko hizkuntzalari hoberenetariko bat hura baitzen.²⁵ Markinakoak, bere kabuz, Humboldtten eskaerari Quinto Curcioren etsenplu bat erantsi zion: “*Hizo aquel amigo con la mejor voluntad lo que se le pedía y añadió un trozo de Q. Curcio...*”.

Baina, itzulpenak ez ziren izan Murgaren gustukoak, Markinakoak nagusiki arenga militarrek itzuli zituelako eta bere ustetan aukera horrek ez zuen Humboldtnek eskatutakoa betetzen. Eta horrelaxe adierazi zion prusiarrari hurrengo eskutitzean “...pero por razones que hubo para ello, usó del dialecto Guipuzcoano que yo apenas entiendo; y fuera de esto eligió en todos los Autores citados arengas, que es donde la traducción, que Vm. Quería literal quanto fuese posible, exige mayor libertad; y de esta forma se tomó tanta que a veces pareció a mi escrupulosa conciencia que no solamente ponía unas figuras por otras, sino aún que se apartaba del sentido.”. Bere ustetan Mogelen hankasartze bat zena konpondu nahian, Murgak apaizari etsenplu proposamen bat egin zion Humboldtten oinarrizko eskaerari, bere iritziz, hobeto moldatzen zena: “*Así me ballé con que su trabajo, aunque mui apreciable y digno de remitirse a Vm. Con elogio como lo hago, no era propio para los fines que Vm. deseaba y hube de cansar de nuevo al mismo amigo, rogándole que me traduxera en ambos dialectos Vizcaino y Guipuzcoano, y con la mayor exactitud que permitiera el genio de ellas, las dos historias de Damocles, el favorito de Dionisio de Siracusa, y del Maestro de los niños Faliscos que por su sencillez recomienda y copia Rollin en el Tratado de los Estudios*”.²⁶

Mogelen lehenengo etsenpluen bildumak hurrengo anekdotak biltzen zituen: Quinto Kurzioren Alejandro Handiaren gaixotasuna, Salustioaren Catilinen hitzaldia, Ciceronen diskurtsoa Catilinen kontra, Tacitoren Germanikoren hitzak soldadu matxinatuen kontra, Tito Libioren Scipionen diskurtsoa Hispaniako menpekoei, Dionisioren Damoclesen istorioa eta Tito Libioren Falisco maisuaren kontakizuna.²⁷ Antzinateko etsenplu ezagunetariko batzuk, dudarik gabe. “*Versiones bascongadas...*” en argitalpenetan etsenpluen ordena batzuetan aldatzen bada ere, guztietan anekdota berberak azalduko dira.

(23) J. Gárate, “Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel”, *Ensayos euskarianos*, Bilbo 1935, 215 orr.

(24) X. Altzibar, “Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)”, *Euskera* 1986, 1, XXXI, 24 orr.

(25) X. Altzibar, “Humboldt, Astarloa eta Mogel”, *RIEV* 41, 589 orr.

(26) F. Verástegui, *op. cit.*, 514-515 orr.

(27) J. Gárate, *La época...* 54-55 orr. A. Abbadie, *Grammaire euskarienne*, 44 orr. Rodríguez Ferrer, 16 orr. Allendesalazar, *Euskalerrriaren alde* V, 586 orr. Aita Zavalak esaten zuen bertsiok bizkaieraz zeudela. 1802. urteko lehenengo argitalpean Talisco eta ez Falisco idatzita dago.

Beraz, zer esan nahi du hiru pertsonaren partehartzeak liburuaren itzulpenen aukeraketan? Lehenengo eta behin, dudarik gabe, gaia garrantzitsua zela. Humboldtten asmoa ez zen nolanahikoa, berak ikuspegi filologikotik ezagutzera eman nahi zuen euskara Europan. Berarentzat, itzulpenak, modu batean, euskararen aurkezpen karta ziren. Humboldtnek egin zuen eskaeran Salustio, Tito Libio eta Tacito egotea guztiz esanguratsua da; hirurak historiagileak ziren, K.a I. mendeko. eta K.o. I. mendeko autoreak, Erromako urrezko garaietako kronikalari ospetsuenak; baita ere Erromako gerra inportanteen kontagileak eta, aldi berean, pentsalari politikoak. Humboldtnek euskaraz ezagutzen zituen testu bakarrak erlijiosoak zirenez, politikaz aritzen ziren testuetan euskararen gaitasuna erakutsi nahi zuen. Inola ere ez da ahaztu behar prusiarrak autore hauek aukeratu zituela bere herriko filologoei erakusteko. Orduan, pentsa dezakegu jakintsu horien artean hiru idazle latindar hauek errespetatuenak edo ospe handienetakoak izango zirela.

Mogelek Humboldtten asmoa ezagutzen zuen, eta euskarara itzultzeko autoreen obretatik arenga militarrik aukeratu zituen. Baina ez kasu guztietan, honetan Murga ez zen zuzen ibili. Apaizak bere kabuz aukeratu zituen etsenpluak aztertzen baditugu, Quinto Curcioren Alejandro Handiaren gaisotasuna eta Ciceronen Catilinen kontrako hitzaldia Senatuaren aurrean, konturatuko gara Mogelek arenga baino gehiago indar dramatikoko uneak bilatzen dituela. Markinakoa halako "klimax" behar du pertsonaien hitz jariora justifikatzeko eta horregatik estatusuneko momentuak aukeratzeko. Hau guztia oso argi ikusten da liburuaren beste etsenpluak ere aztertzen baditugu: Catilina bere azken batailan, Germanico matxinatuen aurrean edota Scipio garaituei errukitasuna eskaintzen. Guztiak krisi larriko uneak dira eta aiprosenak dira hizkuntz trebetasuna erakusteko. Beraz, Mogelek bere etsenpla bilduma osatzeko muturreko egoerak aukeratzeko, non pertsonaiek diskurtso aberatsak egiteko aukera ederra baitzuten, eta gogora dezagun, gure ustez, Mogelen kezka nagusia "*Versiones bascongadas...*" idazterakoan euskal hizkuntzaren aberastasuna eta gaitasuna frogatzea zela. Hortan datza bere etsenpluen aukeraketaren arrazoibidea eta honek ere esplikatuko luke Ciceroren Catilinen kontrako diskurtsoa sartzea beste etsenpluen artean. Esan dugu Humboldtnek Salustio, Tito Libio eta Tacito eskatu zituela euskararen aberastasuna erakusteko, baina Europako tradizio klasikoaren arabera hizkuntz trebetasunaren irudia, dudarik gabe Cicero zen. Are gehiagó, Euskal Herrian bertan Aita Mendibururen hizkuntz trebetasuna adierazteko, Cicero euskalduna esaten zaio. Hori dela eta ez da batere harrizkoa Mogelen helburua euskararen gaitasuna erakustea bazen, Ciceroren hitzaldi bat euskaraz ematea; zer hori baino frogabide hoberik, euskararen gaitasuna erakusteko?

J. M. de Murga ordea, ez zegoen ados Mogelen aukeraketarekin. Hala eta guztiz ere, Humboldtten enkargua jaso zuenean Markinakoa gizon aiprosena iruditu zitzaion lana betetzeko. Beharbada, politikariak pentsatu zuen Mogelen aukera guztiz bestelakoa izango zela apaizaren hezkuntza kontuan harturik. Dakigunez, *Peru Abarkaren* autoreak eskola garaitik filosofiarekin harreman estuak izan zituen. Calatayuden ospe handiko maisu bat izan zuen, B. Pou,²⁸ *Theses Bilbilitanae Institutionum Historiae*

(28) L. Villasante, "Miscelánea. J.A. Moguel, estudiante en el colegio de jesuitas de Calatayud", BAP 1962, 325-327 orr.

Philosophicae-en autorea. Obra honi Mogelek latinezko hitzaurre bat idatzi zion.²⁹ Hel-dutasunean apaizak filosofia ikasten jarraitu zuen eta Pascalen pentsaerak itzuli zituen.³⁰ Hori zela eta, pentsa zitekeen Mogelen aukera latinetik euskarara tradizio klasikoaren testu famatuak itzultzean filosofiaren aldetik joango zela. Edota poesiaren aldetik, Mogelek, izan ere, Horazio zuen gustukoa eta horregatik, Astarloari bidalita-ko eskutitzetan Markinakoak askotan erabiltzen zituen Horazioaren hitzak.³¹ Honez gain, Mogelek, idazle latindarrak bezala, pentsatzen zuen poesiak gizonen erabilgarri-tasunerako eta gusturako izan behar zuela, hau da instrukzioak erakargarria izan behar zuela. Baina Humboldtten enkargutik desbideratu zenean Quinto Curcio eta Cicero-nen etsenpluak aukeratu zituen, biak, dramatikoak izatean, aproposenak irudituko baitzitzaizkion euskararen aberastasuna eta malgutasuna frogatzeko.

Murgaren ideia itzulpen selekzioari buruz berriz, oso bestelakoa zen. Berak pro-posatzen zituen etsenpluak, Damoclesen ezpataren istorioek eta Falisco maisuaren kontaerek, ez zuten zer ikusirik Mogelek egindako aukeraketarekin. Azken bi etsen-plu hauetan inportanteena ez zen hitzaldiaren estilistika, baizik eta testuaren mezua, guztiz moralizantea zena. Gogoratu behar dugu Murgak Antzinateko pertsonaia ospetsuen biografiak idatzi zituela, beraz, berarentzat tradizio klasikoaren erabilgar-ritasuna ejenplaridatean zetzan eta horregatik ez zituen Mogelen itzulpenak gustu-ko izan, hizkuntza mezua baino garrantzitsuagoa baitzen. Bestetik, Murgak Mogeli egindako gomendioaren bidez, iturrien berri ematen digu eta horrela badakigu bi etsenplu hauek Rollinen tratatutik atera zituela. Rollin, XVII. mendeko Frantzian erretorika klasikoaren maisu ospetsua izan zen. Antzinatean aditua, bere obra ezagu-nenean, *Ikasketen tratatuan*, aholkuak ematen erretorika hobetzeko eta publi-koaren sentimenduak astintzeko. Helburu horrekin, bere ustez, Antzinateko etsenplu esanguratsuenak izan zitezkeenak bildu zituen.

Hortaz, gure ustez "*Versiones bascongadas...*"en egituran apurketa nabaria dago. Alde batetik, Mogelek aukeratutako testuak daude, Alejandro Handia, Catilina, Cicero, Germanico eta Scipioren arenga militarrik, eta bestetik, Murgak proposatu-takoak, Damocles eta Falisco maisuaren istorio moralistak. Ildo honetatik esan deza-kegu bi lagun bizkaitarrek tradizio klasikoaren erabilgarritasunaren bi ideia ezberdinak zituztela, apaizarentzat testu klasikoak, kasu honetan, euskararen gaita-suna neurtzeko tresna dira, politikariarentzat ordea, edozein kasutan, tradizio klasi-koak bere ereduaren funtzioa gorde behar du. Dena den, iritzi ezberdintasan honetan, gure ustez, ñabardura ideolojiko sakona ikus daiteke, guztiz garrantzitsua. Mogel predikatzailea izateaz gain hizkuntzalaria zen eta horregatik euskararen tre-betasuna lantzeaz arduratzen da batez ere. Murgak, politikaria izanik, kontrol lana zehatza egiten du. Bere kezka nagusia, hizkuntz dotoretasunez gain, euskaraz ema-ten denaren komenientzia politikoa da eta aukeran, nahiago ditu mezu moralaz bete-tako etsenpluak.

(29) X. Altzibar, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloatarrak, Frai Bartolomé*, Bilbo 1992, 117 orr.

(30) X. Altzibar, *J. Antonio Mogel Urkiza. Jaiotzatik 250. urtemuga*, Eibar-Markina 1995, Mogelek *Pascalén gogamenak* izeneko obra 1790. urtean itzuli zuen.

(31) A. Zelaieta, *Peru Abarcáren berrinakurtzea*, Donostia 1979, 118 orr. Horacio, *Ad Pis.* 139 *Ad Pis.* V.

II.3. Itzulpenak eta neologismoak

J.A. Mogelek, Murgak eskatuta, "*Versiones bascongadas...*" en bi bertsio egin zituen, bat gipuzkeraz eta beste bat bizkaieraz. Hemen ez dugu egin behar bi euskalkien arteko ikerketa filologiko konparatiborik, baina bai esango dugu itzulpenen artean ezberdintasun nabarmenak daudela, batez ere bi arlotan: perifrasiaren erabilpena eta hitzen aukeraketan.

Adibide moduan ikus ditzagun Salustioaren testuaren bertsio ezberdinak:

Jatorrizko testua:

*"Comptum ego habes, uerba uiris uirtutem non addere; neque ex igaro strenuum, neque fortem ex timido exercitum oratione imperatoris fieri. Quanta cujusque animo audacia natura, aut moribus inest, tanta in bello patere solet. Quem neque gloria, neque periculo excitant, nequincquam hortere, timor animi auribus officit."*³²

Gipuzkeraz:

"Ezagaturic daducat, ene Soldaduac, ez dirala itz soil, ta utsequin azcortcen, ta pizcortcen guizonen biotz erori, ta macalduac. Soldadutegua, nagui ta buru-zalea bada, leena gueldituco da, erausi, jardun, ta equin guciequin."

Bizkaieraz:

"Ezagaturik daducat, neure soldaduak, eztireala berba soil ta utsakaz azkortu ta bizkortuten gizonen biotz iausitu ta makalduak. Soldautegua nagi, burugin ta lepozalea bada, irautsi, iardun ta ekin guztiakaz leena geratuko da eta igituko ezta ezetara."

Goian esan dugun bezala hiru itzulpenen arteko ezberdintasuna nabaria da. Mogelek perifrasiak erabiltzen ditu esaldiari jatorrizko zentzua bilatu nahian, baina ez du inolaz ere itzulpen literalik egiten. Modu honetan erakusten du euskararen aberastasuna, baina aldi berean, Mogel Salustioaren testua interpretatzen ari da. Hau guztia oso argi ikusten dugu Mogelen itzulpenen ondoan gaur egungo itzulpen kritiko bat jartzen badugu:

*"I am well aware, soldiers, that words do not supply valour, and that a spiritless army is not made vigorous, or a timid one stout-hearted, by a speech from its commander. Only that degree of courage which is in each man's heart either by disposition or by habit, is wont to be revealed in battle. It is vain to exhort one who is roused neither by glory nor by dangers; the fear he feels in his heart closes his ears"*³³

Ikusten dugun bezala, Mogelek itzulpenetan Catilinaren diskurtsoaren ideia edo mezua atera du, baina ez du hitzez hitz euskaratu. Hori zen Murgak ikusi zuena Mogelen bertsioak irakurtzean eta kezkatuak utzi zuena. Horregatik, apaizak Salustioaren testuaren beste bertsio bat egin behar izan zuen Humboldtentzat, eta honek *Adelungen Mithridatesi zuzenketak* liburuan sartu zuen. Gipuzkerazko itzulpenaren beste bertsio bat zen:

(32) Salustio, *Cat.* 58.

(33) *Sallust*, Oxoniensis 1968.

“Ezaguturic daducat, soldaduac ez diela itzac guizonai azcortasunic erasten; ta aguintariaren irautnsi ta equiñ-equin ez dala Soldauteguia nagui baldana bada pizcortzen, ez da ere beldurtia sendotzen”³⁴

Aldaketa, ordea, ez zen hain handia. Izan ere, itzultze-lanari dagokionez Mogelek uste zuen testuak euskaratzeko inportanteena ez dela jatorrizko hitzei leial izatea, baizik eta euskararen dotoretasuna. Beraz, itzultzaileak testuaren mezua errespetatzen badu, bere hizkuntz trebetasunaz kezkatu behar du. Garrantzitsuena ez da testuaren mamia, hizkuntzaren zuzentasuna baizik, kasu honetan, euskararen zuzentasuna.

Euskalki bat baino gehiago erabiltzean Mogel bakoitzaren aditz, hitz eta modu propioak erabiltzeaz arduratu zen. Hitzei dagokienez, esate baterako, gipuzkerazko testuetan aurkitzen ditugun *etsai*, *burni*, eta *eman* hitzak bizkaierazko itzulpenetan *arerioa*, *burdin*, *emon* gisa azaltzen dira. Gure ikerlanarentzat interesgarriagoa da, dudarik gabe, Mogelek bere itzulpenetan erabiltzen duen hiztegia. Idazle klasiko hauen testuetan askotan Erromako testuinguru politiko eta historikoaren konzeptuak azaltzen dira. Horregatik, interes handiko gauza iruditzen zaigu Markinakoak euskaraz darabilen terminologia berezia aztertzea, prozesu honetan atera daitezkeen ondorio ideolojikoak oso aberatsak baitira. Erromari dagozkion konzeptu batzuk euskaratzeko neologismoak erabiltzen ditu batzuetan, baina, beste batzuetan Mogelen garaiko euskal erakundeen izenak edo Espainiako Koroaren erakundeak ematen ditu Antzinako erakundeen ordezko gisa.

Hona hemen hitz deigarrienen zerrenda:

<i>Centurio</i>	<i>Euntaria</i>
<i>Consul</i>	<i>Ondocuslea</i>
<i>Forum</i>	<i>Auzitegia</i>
<i>Imperator</i>	<i>Agintari</i>
<i>Imperium romanum</i>	<i>Erromako agintaritza</i>
<i>Legatos</i>	<i>Ekautuak, bialkinak</i>
<i>Res publica</i>	<i>Taldeaguintea/Taldegauza/Taldelurr</i>
<i>Summus uir</i>	<i>Abade nagusia</i>
<i>Senatus</i>	<i>Batzarra</i>

Zalantzarik gabe, hitz andana honetan Erromako konzeptu politiko nagusien interpretazio pertsonal baten aurrean gaude. Gehienetan, gure autoreak Antzinateko erakunde politikoak bere arokoekin asimilatzen ditu eta horregatik lehenengoak izendatzeko bere garaiko hitzak erabiltzen ditu. Horrela, botere eta justiziarekin zerikusia duten hitzak ordezkatzeko XVIII. mendeko hitzak darabiltza: *agintari*, *auzitegi*, *batzarra*. Erromako erakundeak bere garaikoenekin ezin direnan pareketu, ordea, Mogelek neologismoak erabiltzen ditu: *euntaria*, *ondocuslea*, *taldegauza*.

Orain, ikus dezagun Mogelen interpretazio hauen esanahi ideologikoa hitzez hitz: — *Consul*:

Mogelek bi hitz erabiltzen ditu *consul* itzultzeko: *ondocusle* eta *begirale*. Hala ere, bi hitzei zentzu berbera eman nahi zien: zainketa lana. Dakigunez, *consul* Erromako

(34) W. von Humboldt, *Correcciones y...*, 74 orr.

errepublikako goi kargu nagusia zen, oreka eta kontrol funtzioak betetzen zituen. Ikuspegi honetatik kontsulak estatuko goi mailako boterea errepresentatzen zuen. Mogelek *begirale* titulua ematen dio konsulari intentzio osoz. Berarentzat consula Erromako *begiralea* edo *ondoecuslea* da, hitz batez, Erromako zaindaria zen, eta ez zeukan agintzeko gaitasunik.³⁵

Aldiz, Mogelek *imperator* euskaraz definitu behar izan zuenean *agintaria* erabili zuen, honek agintzeko gaitasuna bai baitzeukan. Mogelek, Erromako gizartean boterea edo agintzeko gaitasuna itzuli behar duenean *agintari* edo *gerra-buru* hitzak erabiltzen ditu, hau izango litzateke adibidez Falisco maisuaren istorioaren kasua: "Erromarrac inguratu cituzten Faleriocoac Camilo Aguintari, edo guerra-buru zutela.", "Camilo agintari edo buru ebeela..."

— *Senatus*:

Mogelek *Senatus* batzarra hitzarekin itzultzen du, baina erabilpen ezberdinak ematen dizkio. Senatua Erromako *patresen* bilera zen, benetan gobernuaren burua, estatuko erabakiak hartzen zituen. Erabat aristokratikoa zen eta itxia. Erakunde honen izena itzultzeko *batzarra* hitzaren aukeraren zergatia Mogelek berak adierazten digu: "Para la voz Senado tenemos en uso Batzarea es decir Junta de ancianos, o varones de maduro juicio y autoridad pública". Erromako senatuaren esanahi politikoa guztiz ezberdina izan arren, XVIII. mendean oso ohikoa zen asanblada aristokratikoak Erromako senatuarekin identifikatzea, ohore emateko modu bat bezala. Baina esan dugun bezala, zentzu politikoa erabat ezberdina zen.

— *Legatos*

Erroman legatu hitza bi funtzio ezberdinetako erabiltzen zen. Cesarren garaitik legatua legio baten agintea zuen ofiziala zen, senatuaren partaide zen eta enperadorea ordezkatzeko zuen. Gero, Prinzipadoaren hastapenetan legatua askotan probintzia inperialetako gobernadorea zen. Mogelek itzulitako Tacitoren testuan legatuak Senatuaren enbaxadoreak dira, enperadorearen errepresentanteak dira eta hiru kasuetan zentzua berbera da.³⁶ Hala ere, Mogelek testu berebetean legatos hitzarentzat bi euskal ordain eskaintzen dizkigu: *batzaarreko ecautuak* eta *bialkinak*. Gure autoreak euskararen aberastasuna erakutsi nahiz, irakurleari hitz berbera itzultzeko aukera ezberdinak ematen dizkio.

— *Forum*

Auzitegia, eztabaidatzeko bilerak egiten den lekua. Baina Antzinatean, batez ere Erromako errepublikaren garaian eztabaida horiek judizialak izateaz gain, politikoak ere baziren. Foruma irekia zen, eta sistema politikoa mugatua izan arren, auzi politikoak denak entzuteko lekua bazegoen. Baina Mogelen Antzinateko Errejimenearen gizartean ez dago eztabaidarako aukerarik, sistema politikoa absolutista zenez eraba-

(35) Larramendik bere hiztegian *consul* itzultzeko *bacarquidea* proposatzen du, baina aukera honetan ez dago Erromako erakundearen arrastorik.

(36) Tacito, *Ann.* I, 42 "hic tantum, interfici centuriones, eici tribunos, includi legatos..." "Hostium quoque ius et sacra legationis et fas gentium rupistis" 43 "Vos quoque, quorum alia nunc ora, alia pectora contueor, si legatos senatui..."

ki guztiak erregearen esku daude. Horregatik auzitarako egiteko leku bakarra epaitegia zen, eztabaidagarria zen gauza bakarrak arazo judizialak ziren eta. Orduan, ulergarria da Mogelen aukera Forum hitza itzultzerakoan, eztabaidatzeko lekua hartu behar bazuen, bere garaiko eztabaida-leku bakarra auzitegia zen.

— *Summus uir*

Abade nagusia hitzen aukeraketa itzulpena egiteko etsenpluen moldaketa ideologikoaren adibide zuzena da. Bertan, Mogelet, elizgizona zenez, erlijioarekin zerikusia duen guztia kristautzen du, Scipio eta Tiberio Gracoren garaia Kristo aurrekoa bazen ere. Honek etsenpluen deskontestualizazio sakona adierazten digu eta antzinatearen moldaketaren adibide paregabea da.

III. "Versiones Bascongadas..." en Azterketa Ideologikoa

III.1. Hitzaurreak:

J.A. Mogelet bi sarrera moduko argibide testu ezberdin prestatu zituen "*Versiones bascongadas...*" etako gipuzkerazko eta bizkaierazko bertsiotarako. Gipuzkerazkoan gatzelerazko hitzaurre bat dugu, eta bizkaierazkoan berak deitutako "autua" edo bi elizgizonen arteko euskarazko eztabaida agertzen da. Formaren aldetik biak oso ezberdinak badira ere, funtsean sarrera argibide hauetan Mogelet helburu berbera adierazten du: "*euskereak badituala berba bizkor, apaindu, zoli ta adiutuak gauza goratuak azaldetako*". Hitz batez, euskara edozertaz tratatzeko gai dela. Hori dela eta, esan dezakegu bi bertsioren oinarri ideologikoa oso antzekoa dela.

Gipuzkerazko argitalpenaren hitzaurrea mamitsuena da, zalantzarik gabe. Bertan, Mogelet bere kezka hiru ataletan deskribatzen du: lehenengoa, euskararen barbarotasunaren ideia deseuztatzea; bigarrena, euskararen gaitasuna frogatzea hizkuntza klasikoaren ereduaren bidez; eta hirugarrena, euskaldunei erakustea beren hizkuntzaren balioa. Azken puntu hau da hain zuzen ere bizkaierazko bi elizgizonen arteko elkarrizketaren argudio nagusia eta horregatik, gure ustez, hitzaurretako lotura puntu nagusia du.

Mogelet amorrubiziaz erakusten du euskara hizkuntza barbaroa deitzen dutenen kontra: "*...que el Bascuence es un lenguaje grosero y bárbaro, y que no recibe elegancia*". Barbarotasuna Antzinateko egunetatik gaur egun arte bazterte forma bat da.³⁷ Talde zabal honetan sartzen den guztia tradizionalki zibilizaziotik at geratzen da, eta kultura nagusitik kanpo kokatzen den guztiak ez du jakintsuen interesa merezi. Euskara barbarotasunaren barnean uzteak kultur hizkuntzen artean ez dagoela suposatzen du eta, ondorioz, ez dela gai goi mailako pentsamenduak adierazteko. Kalifikazio honen bidez, euskara tradizio klasikoaren mundu banaketaren arabera sailkatzen ari da, alde batetik zibilizatuak, eta bestetik barbaroak. Dakigunez, greziarrek sortu zuten lehenengo aldiz barbaro hitza, bere kulturatik kanpo zegoen guztia definitzeko.³⁸ Greziarren definizioa, hasieran, hitz egindako hizkuntzan oinarritzen zen.

(37) Zenbait idazle, *Occidente y el otro: una historia de miedo y rechazo*, Gasteiz 1996.

(38) J. De Romilly, "Les barbares dans la pensée de la Grèce classique", *Phoenix* 1993, , 2, 283-292 orr.

Berez, barbaro hitza, bar-bar espresiotik dator, greziarrentzat ulertezina ziren hizkuntza guztiak deskribatzeko erabiltzen zen onomatopeia mespresagarritik. Beranduago konzeptu politikoekin nahastu bazen ere, barbarotasunaren oinarritzko konzeptu hau gorde zen eta, horrela hizkuntza zibilizazio neurtzeko tresna bat bezala gorde zen. Honetan oso nabaria da tradizio klasikoaren oinordetza gure kulturaren. Horregatik ere ez da harrigarria Mogelek erabilitako argudio euskararen barbarotasuna deuseztatzeko: "*El señor Bowles, que ha viajado por la España asegura que la lengua Bascongada suena dulcísimo al oído; nada tiene (según Scaligero) de barbaro, nada de estridor de dientes, es dulcísima, suavísima, y sin duda antiquísima*". Beraz, Mogelek erakutsi nahi du euskara ez dala bar-bar mespresagarriaren antzeko hizkuntza bat.

Ideolojikoki tradizio klasikoaren arabera sailkatuta zegoen mundu intelektual batean aritzeko barbarotasunaren barnean konsideratuta izatea gainditu behar zen oztopo bat zen, dudarik gabe. Hori egiteko Mogelek aukeratu zuen bidea ez zen pentsamendu klasikoarekin haustearena, baizik eta euskera bertan sartzearena. Bere itzulpenen bidez, Markinakoak latina eta euskararen arteko konparaketa bat proposatu zuen, bien artean elokuentziarako iaotasunean ezberdintasunik ez zegoela frogatzeko: "*Si se continua en semejantes versiones, y se aplican a esta lengua las reglas oratorias, escribiendo arengas originales, no se publicará que es lengua grosera*". Hau ere izango litzeteke euskarara itzultzeko erretorika latindarraren testu nagusien aukeraketaren beste arrazoi bat: "*...he hecho las versiones de varias arengas, y oraciones selectas de Q. Curcio, Tito Libio, Tacito Salustio, y tambien las de los dos exordios de las dos oraciones de Ciceron contra Catilina: todas piezas de la mayor elegancia*", "*Para el estilo de sencilla elegancia he vertido dos Anecdotos latinas...*". Mogelen itzulpenei esker euskarak erakutsiko du gai dela kultur hizkuntzetan adierazten den guztia latinaren dotoretasun berberarekin komunikatzeko. Beraz, Markinakoak barbarotasuna gainditzeko dotoretasunaz baliatzen da, euskara hizkuntza barbaroa den ideia aldentzeko: "*Ruego a los Sabios de la Nacion instruidos en los idiomas Hebreo, Griego Latino lean estas versiones oratorias, y nos digan despues, si es pobre, infecunda, y mercenaria la lengua antigua de España: si es grosera, barbara, ineloqüente*".

Etsenplu bilduma guztietan bezala "*Versiones bascongadas...*" en helburu nagusia pertsuasioa da. Dakigunez, pertsuasioa oratoria eta erretorikaren oinarri nagusia da. Mogelek euskara tradizio klasikoaren parean kokatu behar duenez, erretorika klasikoaren autore nagusiaz baliatzen da: "*¿Si una lengua de pura invención, formada a costa de mendigar voces a otras varias, imperfectísima en su cuna, pudo llegar para el siglo de Augusto à tal grado de elocuencia, a qual podría llegar un idioma rico y fecundo en voces y expresiones enérgicas, suavísimo, y dulcísimo, si hubiera hallado unos genios como los de Salustio, tito Libio, Tacito, y Tulio para reducirle al arte oratorio ?*". Horrela elokuentziarako trebetasuna bera pertsuasio tresna bihurtzen da. Mogelek latinaren testu onenak aukeratzen ditu bere irakurlegoa komentatzeko. Baina Markinakoak gipuzkerazko eta bizkaierazko bertsoietan oso ondo ezberdintzen ditu bere publikoaren beharrak eta "*Versiones bascongadas...*" etako erabilpena.

Gipuzkerazko hitzaurrean Mogelek erakusten digu obra hau hedakuntza zabalerako prestatu duela: "*Ruego a los sabios de la Nacion instruidos en los idiomas Hebreos, Griego y latino lean estas versiones...*". Besteak beste, apaizak "*Versiones...*" itzuli ditu,

lehenengo eta behin Espainiako ikerlarien ezjakintasuna konpontzeko “*Si los Mayenses, Nicolas Antonios, los Martis, Belazquezés, Bayerès hombres à la verdad de una vasta erudición hubieran tenido la curiosidad de estudiar el lenguaje antiguo de España...*”; bigarrenz Humboldt enkargua betetzeko: “*Un noble y Sabio Prusiano, llamado Varon de Humboldt (...) Venia comisionado de alguna Sociedad de Sabios, que intentan descubrir las Lenguas matrices, primitivas u originales*”; hirugarrenz, euskaldunen hizkuntzarekiko utzikeria salatzen: “*Pero es preciso confesarlo con vergüenza (...) Los que se precian de leer decentemente la lengua francesa a costa de violentar los labios, y fatigarse en tomar lecciones, se ven confusos quando toman un libro Bascongado*”; eta azkenik, predikatzailentzat: “*Advierten lo mismo en algunos Predicadores tratando en asuntos mas abstractos y elevados*”.

Gipuzkerazko bertsioaren argitalpenean asmo ideolojiko sakona dago, hizkuntzei buruzko garaiko eztabaida mamitsuenetan sartzeko helburu zehatza somatzen da. Humboldt enkargutik abiatuta gipuzkerazko hitzaurrea euskararen apologiaren dokumentu bat bihurtzen da. Eta gainera testuaren argudio nagusia tradizio klasikoaren ildotik egituratzen da. Hori dela eta, esan dezakegu liburu honetan nola edo hala euskal literaturaren oinarritzko gaietako bat, hau da, euskararen apologiaren auzia Antzinatearen eredu ideolojikoetik bideratu zela. Mogelen obraren asmo nagusiaren sakontasun hau “*Versiones bascongadas...*” etako bizkaierazko bertsioan galduko da. Azken honetan, apaizaren helburua erabat pedagogikoa da, berak aitortzen duen bezala “*Versiones...*” hauek predikatzailen hezkuntzarako prestatuta daude: “*Sarri alkarregaz berba egin dogu, Bizkaiko jaun, abade ta nik legezko soiñikoa darabilen askoren nagitasun, alperreteria ta ardurarik eza, euskerea ikasteko liburuakaz bururik ausi бага, bada eztaukee liburu bizkai euskerea irakatsi leienik*”. Bizkaierazko bertsioak Peru Abarkaren gehigarri gisa argitaratuak izan zirenez, liburu honen helburu pedagogikora moldatuta daude eta horrela, behin eta berriro azpimarratzen den ideia, hauxe da, apaizak, euskera landu behar dutela elokuentziaren maisuak izateko. Beraiantzako “*Versiones...*” en erabilgarritasuna bere hizkuntz ereduan egongo litzateke, eta ez tradizio klasikoaren transmisio ideolojikoan. Beraz, bizkaierazko bertsioan Mogelek azaltzen duen kezka bakarra predikatzailen hizkuntz hezkuntza da.

III.2. Testuen transmisio ideolojiko: Antzinatearen irudia

“*Versiones bascongadas...*” etako testuak ikuspegi historiko batetik aztertzen badira, hasteko, testuen arteko nahaste kronolojiko azpimarratu beharko genuke. Irakurketan ikusten den lehenengo gauza deigarria gipuzkerazko eta bizkaierazko bertsioetako etsenpluen orden aldaketa da: Alexandroren izqundea bere eritasunean bere *Adisquide ta sendaguillai*, Catilinaren izqueta erreguzkoa bere soldaduai, Ciceronen I.a izqueta Batzarrean eguiña Catilinaren contra, Ciceronen II.a izqueta Catilinaren contra Germanicoren izqundea soldatu Scipionen izqueta nagusi gaste bati, Gaiztoen viotzac zauritzen ditu barreneco arraceta Talisco maisuaren billaukeria; Alejandroren berbakuntzea bere gaisotasunean adiskide ta osagileea, Catilinaren iardun erreguzkoa bere soldaduai matxinatuai, Germanikoaren berba iarduna soldadu matxinatuai, Eszipionen iarduna errege gazte bati, Marco Tulio Ciceronek Catilinaren kontra eguiñiko lenengo berbaldiaren aurrena, Marco Tulio Ciceronek Catilinaren kontra eguiñiko bigarren berbaldiaren aurrena, Gizon dongeen biotzak zaurituten ditu barruko arrak, Falisko maisuaren billaikeria.

Beraz, badugu beste argudio bat baieztatzeko Mogelen ardua nagusia ez zela transmisio historikoa, baizik eta hizkuntzaren dotorezia. Ikuspuntu honetatik erabat ulergarria da kronolojiarekiko utzikeria. Ez zaio axola Scipio, Germanikoaren atzetik aipatzea edota Falisco maisuaren historia, Erromako sorkuntzaren aroan kokatzen dena Prinzipadoaren garaiko etsenpluak kontatu eta gero, idaztea. Berarentzat kezka nagusia hizkuntza da. Etsenpluen autoreen aldetik Mogelek ez du jarraitzen idazle-en kronologia, ikusten dugunez Quinto Curtiorekin hasten du, eta gero Salustio, Cicero, Tacito, eta Tito Libio erabiltzen ditu, ordena ezberdinean bertsiorekin arabera. Autore horietaz Mogeli interesatzen zitzaiona beren nagusitasuna zen Antzinatearen autoreen artean eta ez fideltasun kronologikoa. Mogelek, Inperioaren garaian autore hauek hizkuntzalari trebeak izatearen ospea zutelako aukeratu zituen eta ez Erromako historiagile nabariak zirelako.

Hau guztia esan eta gero, aitortu behar dugu Mogelek transmititzen duen Antzinatearen irudia obraren helburuak baldintzatuta dagoela. Ikusi dugunez, Antzinatea bera ez zen garrantzitsuena. Honen ondorioz, Mogelen obraren bidez ezagutzen den Antzinatea deskontestualizazioz jora dago. Honez gain, Klasikotasunaren ideia hau XVIII. mendeko pentsamoldean eta gizartean onartuta izateko moldatuta dago. Honen adibideak dira Mogelek itzulpenetan hartzen dituen lizentziak, bera elizgizona zenez, Erromako jainkoei zuzenduta dauden espresioak aurkitzen dituenen kristautzen ditu, besterik gabe: "*Neque enim di sinant tu Belgarum quamquam offerentium decus istud et claritudo sit...*",³⁹ "*Eztagiala Jaungoikoak gura inoiz Beljiarrak buru arroak erabiltea...*".

Hala eta guztiz ere, ukazina da testu hauen bidez Antzinatearen irudi bat transmitzen dela, baina "*Versiones bascongadas...*" en kasuan portaera moralaren adibide bat eskaintzeko zuzenduta daude. Mogel elizgizona zenez, hizkuntz dotoretasunaz gain mezuaz ere kezkatu zen eta horregatik etsenplu gehienak gizon publikoen erantzukizuna bultzatzeko aukeratu zituen. Azken finean, "*Versiones...*" etsenplu bilduma guztiak bezala, bertute katalogo bat baitira. Etsenpluen helburu nagusia gizartearen ikuspegi idealizatu eta moralista eskaintzea da eta horregatik Mogeli Antzinatea bera ez zaio axolik, baizik eta bertatik atera daitekeen bizitzarako adibide moralak. Ebanjelioetan bezala historigarritasuna ez da kezkarria, inportanteena mezua baita. Hori bai mezuaren indarra sendotzeko autoritateen izena aipatzen da, baina inportanteena irakurlearen hezkuntza moralak eta ideologikoa da. Beraz, Mogelek eskaintzen digun Antzinatearen irudia bikoitza da, alde batetik, hizkuntz perfektzioaren adibide bikainen iturria eta, bestetik, portaera moralak zuzenaren ereduak. Baina bi kasuetan Mogelek eskaintzen digun Antzinatearen irudia erabat kontestugabekoa da.

IV. Konklusioak

J.A. Mogelen "*Versiones bascongadas*"-en azterketatik ondorio nagusi batzuk atera ditugu. Euskal Herrian tradizio klasikoaren transmisioa, salbuespen eskasekin, elizgizonen eskuetan egon izan da. Hori zela eta, herri xehearentzat Antzinateari buruzko informazio gehiena sermoien bidez bideratzen zen. Ondorioz, askotan, eza-

(39) Tacito, *Ann.* I, 43.

gutza murriztua eta kontestugabea izaten zen. Maila jasoagoko informazioa, tradizio klasikoari gagozkiola, Mogelek "Versiones"-etan eskaintzen duena adibidez, idazleak berak adierazten digun bezala, gizarteko goi-mailako jendearentzat erreserbatuta zegoen: ilustratuentzat eta predikatzailentzat. Kultura mota hau eliteen hezkuntzarako gordetzen zen.

Beste aldetik, Mogelek euskararen apologian Aita Kardaberaren eredia jarraitzen du. Euskarak hizkuntza klasikoaren antzera gaitasun erretorikoa erakutsi behar du, kultur hizkuntza bihurtzeko. Mogelen kasuan, euskarak behar-beharrezkoa du latinaren espresio ereduari hurbiltzea Europako beste hizkuntzen artean merezi duen tokia hartzeko. Euskarak, ezaguna izateko eta Europako jakintsuen interesa pizteko, gaitasuna erakutsi behar zuen kultura forma tradizionalen arabera; eta ezinbestekoa zen, orduan, trebetasuna erakustea Klasikotasunaren testu erretoriko nagusien aurrean.

Azkenik, ohartarazi nahi dugu, gure ustez, euskal literaturarako sermoigintzan dagoen etsenplaren harrobia ugaria eta emankorra dela ikerlariarentzat. Herri askotan egin den eredia jarraituz proposatzen dugu Euskal Literaturan, historiografian eta sermoigintzan erabiltzen diren etsenpluen bilduma bat osatzea. Modu honetan gure herriaren kulturaren eraikuntzari buruz piska bat gehiago jakiteko moduan egongo gara.

Bibliografia

1. Iturriak

Moguel y Urquiza, J. A., 1802, *Versiones bascongadas de varias y oraciones selectas de los mejores Autores latinos*, Tolosa.

Mogel, J. A., 1994, *Peru Abarka*, A. Arejitaren edizioa, Bilbo.

2. Bibliografia orokorra

Akesolo, L., 1965, "De bibliografia mogueliana", *BRSBAP* 21, 1, 91-92 orr.

Altzibar, X., 1986, "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)", *Euskera*, 1, XXXI, 17-45 orr.

_____, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, astarloarrak, Frai Bartolomé*, Bilbo.

_____, 1995, *J. Antonio Mogel Urkiza. Jaiotzatik 250. Urtemuga*, Eibar-Markina.

_____, 1991, *J.A. Mogel, Bidegileak*, Gasteiz.

_____, 1996, "Juan Antonio Mogel y su obra literaria", *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Vitoria, 323-355 orr.

_____, 1996, "Humboldt, Astarloa eta Mogel", *W. Von Humboldt: Un puente entre dos pueblos*, *RIEV* 41, 587-595 orr.

Barceló, J., 1982, "Humboldt en el País Vasco", *Viajar* 39, 75-79 orr.

Bidart, P., 1986, "Peru Abarca: espace imaginaire et paradigme perdu", *La production sociale des spaces*, Université de Pau, 27-47 orr.

Etxegarai, K., 1883, "Mogeltar izkribalari bikañei oriopena", *Euskal Erria*, VIII, 82.

_____, 1926, "Mogeldarrak eta euskera", *Euskera* VII, 1, 8-25 orr.

Garate, J., 1935, "Cinco cartas inéditas de Juan Antonio Moguel", *Ensayos euskarianos*, Bilbao, 215 orr.

_____, 1936, *La época de Pablo Astarloa, y Juan Antonio Moguel*, Bilbo.

_____, 1983, "Dos cartas inéditas de Guillermo von Humboldt dirigidas a Madrid", *P. Lafiteri omenaldia*, Bilbo, 775-782 orr.

- Humboldt, W. Von, 1933, *Correcciones y adiciones al Mithridates de Adelung sobre la lengua cantábrica o vasca*, Donostia, J. Garateren itzulpena.
- Irigoyen, A., 1978, "La época de Astarloa, Moguel y Humboldt", *Euskal Erria (1789-1850)*, *Actas del Coloquio Internacional de Estudios Vascos*, Bayonne, 149-166 orr.
- Kortazar, J., 1982, "Mogel eta bere garaia", *ASJU*, XVI, 47-53.
- Larrañaga, L. F., 1970, "El proceso inquisitorial de Juan Antonio Moguel", *BAP*, 263.
- Lojendio, J. M., 1954, "Mogel", *Egan*, 2-4, 16-24 orr.
- Muñoz Valle, I., 1971, *Actitudes ante la cultura clásica a lo largo de la historia*, Madrid.
- Rüegg, W., 1959, "Antike" als Epochenbegriff", *Museum Helveticum* XVI, 111 orr.
- San Martín, J., 1959, *Juan Antonio Mogel. Bere bizitza eta lanak*, Zarautz.
- Verástegui, F., 1996, "La RSBAP, W. Von Humboldt y José María Murga. Una aproximación de la psicología a la historiografía política", *W. Von Humboldt: Un puente entre dos pueblos*, *RIEV* 41, 511-527 orr.
- Villasante, L., 1962, "Miscelánea. Juan Antonio Moguel, estudiante en el colegio de jesuitas de Calatayud", *BAP* 325-327 orr.
- _____, 1964, "Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel", *BAP*, 61.
- Zelaieta, A., 1979, *Peru Abarkaren berrirakurtzea*, Donostia.
- Zenbait Idazle, 1960, "J.A. Mogel", *Euskerak*, 23-183 orr.

Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (III): Gaztelania

(Comparing the *Trilingual Dictionary* and the
Dictionary of Authorities (III): Spanish)

Urgell, Blanca
Euskal Herriko Unib.
Lan Harremanen Eskola
Sarriena Auzoa, z/g.
48940 Leioa

Lan honetan Larramendiren Hiztegi Hirukoitza iturri-bizkuntza —gaztelania— aztertu da; ereduak nomenklaturan izan duen eragina, hiztegi elebidunari egokitzeko sarrerera-maila bakoitzean egin behar izan diren aldaketak, eta esanabi azalpenen forma, betebeharrak eta etorkia. Sarrearen eta baren osagaien azterketak ezinutzizko datuak eskaintzen ditu hiztegi euskal ordain motei buruz, besteak beste, baita inoiz euren etorkiari buruz ere.

Giltz-Hitzak: Gaztelania eta Euskara Hiztegia.

En este trabajo se analiza la lengua-fuente del diccionario bilingüe de Larramendi, el castellano: la contribución del modelo en nomenclatura, los cambios efectuados en cada nivel para adecuarlos a la condición bilingüe del diccionario, y la forma, función y procedencia de las precisiones de significado. Entre otras contribuciones importantes, el análisis de la entrada y sus componentes ofrece datos inestimables sobre el tipo de equivalentes vascos que podemos encontrar e incluso, en algún caso, sobre su origen.

Palabras clave: Diccionario de Castellano y Euskera.

Dans ce travail, on analyse la langue-source du dictionnaire bilingue de Larramendi, l'espagnol: la contribution du modèle en nomenclature, les changements effectués à chaque niveau pour les adapter à la condition bilingue du dictionnaire, et la forme, la fonction et la provenance des précisions du signifié. Parmi d'autres contributions importantes, l'analyse de l'entrée et ses composants offre des données inestimables sur le type d'équivalents basques que nous pouvons trouver et même, dans certains cas, sur son origine.

Mots Clés: Dictionnaire d'Espagnol et Euskera.

O. Sarrera

Lan honi hasiera ematerakoan (Urgell 1998a), hiztegi elebidunei buruzko ohiko azterketen akats nagusienetakoa norberarena ez den hizkuntzari jaramonik ez egitean datzala nioen. Beste hizkuntza bateko eredurik egon dela susma daitekeen orotan, ezinbestean jarrera horrek ikertutako hiztegia gaizki ulertzea dakar berekin, zeren eta, besteak beste, haren hizkuntz osagaiak elkarrekin zuzenean lotuta egonik, eredu eta ereduko hizkuntza erabakigarri izan baitaitezke are beste hizkuntzaren gertakariak behar bezala azaltzeko.

Lehenengo emanaldi hartan izaera eta egiturazko zenbait ezaugarri, eta bigarrean (Urgell 1998b) sarreraren egitura eta haren eduki osagarriak aztertu ondoren, oraingo honetan *Hiztegi Hirukoitza*-ren gaztelaniazko zatia ahalik eta xehekiena aztertzeari ekingo diogu. Berariaz, hainbat hizkuntzatako ikerketetan —eta euskarazkoetan orobat edo areago, agian— nabaria den ohitura bat hautsi nahi izan dut, *HH*-aren euskarari jaramonik ez egitetik abiatuaz. Zeren eta bere egituratik beretik dator gaztelania oro har —eta gaztelaniazko eredu, zehazkiago— hiztegiko eduki lexikografikoa erabakitzen eta ordenatzen duen hizkuntza izatea.

Balirudike, honenbestez, Ibarren “pie forzado” delakoaren teoriari atxiki nabilela neu ere, gaztelania-euskara egiturak *HH*-ko euskal edukia baldintzatu zuela demostrotu nahian. Eta ez da hala; aitzitik, ereduak baldintzatu zuela aldezen ari naiz, eta ez hizkuntzen ordenak: gaztelania-euskara zein euskara-gaztelania hiztegia egitea erabaki, ereduak eragin bera izan dezakeela, alegia. Adibide ona da fra Antoni Oliver-en *Vocabulari mallorquí-castellá* (a. 1787):¹ Oliver-ek ere *DAut* izan zuen eredu; alabaina, bere hiztegiak gaztelania bigarren lekuan jasotzen du, mallorkeraren ondoren eta latinaren aurretik; gaztelaniazko hitzetarako bere dialektoko hitzak bilatuaz eta alderantzizko ordenan jarriaz egin zuen, noski. Ereduarekiko atxikimenduak ezagun gertatuko zaigun ondorio bat izan du: “La dependència confessada del castellà ha fet que Oliver inclogués com a lemes formes catalanes que només són en realitat una traducció artificiosa del model: així, *accio afectada*, perquè al davant té el castellà *melindre*” (Colon & Soberanas 1986: 126).

Haatik, eredu funtsezkoago den zerbaiten ageriko aurpegietatik bat baino ez da: hiztegitagilearen egitasmoarena, alegia. Honek egiten du eredu garrantzizko, eta harekiko erkaketari zentzua ematen: gutxienez berdindu nahi zukeen marka non dagoen erakusten digu, erakutsi ere. Lehiaketa horretan hiztegitagileak hiztegitagintzari buruz ez eze, oro har hizkuntzari buruz zituen ideiek —eta garaiko giroak berebat— berebiziko esanahia daukate: Larramendik badaki euskarak aurrean jar dakioken edozein hiztegitako hitzak adierazteko gaitasuna duela, zeren haren erraiak miatzen urteak eman ondoren hitzberrigintzarako bere hizkuntzak dituen mekanismoak ongi ezagutzen dituelakoan baitago.² Eredu baino ez du behar, beraz, ezagutza hori gau-

(1) Eta adibide ona izango da, orobat, Pouvreauren euskara-frantsesa-(latina-gaztelania) hiztegia, haren eta Oudinen arteko loturak xehekiago miatuko diren unetik: Lakarrak (1995: 22 t. hur.) hurbilketa ezin adierazgarriagoa gauzatu du alde honetatik.

(2) Ene usteko, hiztegiari ez eze Larramendiren lan osoari dagokionez *HH*-ko hitzaurrearen pasarte garrantzitsuena, “De la gran dificultad que he tenido en componer este Diccionario” deritzon atalaren hasiera da (Larramendi 1745: li-liii): bertan oso xeheki kontatzen digu ezer baino lehenago gaztelania

zatzeko. Jokabidea orain arrotz egin badakiguke ere,³ ongi ikusia izan zen Larramendiren garaian eta lehenago ere (cf. Lakarra 1994 eta 1995), eta berak lainotasun osoz aitoritzen du, estali beharrik gabe, “voces facultativas” direlakoak denak asmatu beharra izan duela, edo hainbat erdal hitzen ordaintzat maileguak baino ezin eskaini ditzakeela (zeren “no ha avido Bascongado que fabrique voces propias y acomodadas al carácter de su lengua”, 1745: xlvii) dioenean.

Ereduak hiztegi-gileari zer eskatzen dion ezagutzea, hortaz, bere erantzuna nondik datorren eta nolakoa den jakiteko biderik sendoenetakoa da, bai berez, baita bestelako ikerbideei —hala nola iturriei— ekiteko oinarri trinkoak eskaintzen baititu: gauzak non eta zeren arabera antolatuak dauden jakiteak bakarrik ematen duen ziurtasun mota, alegia.

Lan honek bi zati argi ditu: Lehenean, eduki orokorreko ezberdintasunak aztertu dira, hots, nomenklaturan eta sarrerako gainerako osagai lexikaletan (adierak, esapideak eta errefrauak) *DAut*-etik *HH*-ra gertatu diren kenkerak, aldaketak eta eransketak (§ I). Bigarrenean, berriz, *HH*-ko gaztelaniazko azalpenak nolakoak diren, nondik eratu diren eta Larramendik zertarako erabiltzen dituen miatuko dugu (§ II). Bai batean bai bestean aurreneko emanaldiko corpus berbera erabiliko dut: A (I, 6, 56 eta 106), C (I, 156 eta 206), D (I, 256), E (I, 306 eta 356), G (I, 406), I (II, 21), M (II, 71), O (II, 121), P (II, 171), R (II, 221), S (II, 271), T (II, 321) eta V (II, 371). Orotara *DAut*-eko 857 makrosarrera eta *HH*-ko 891 mikrosarrera izango ditugu aztergai eta adibide, beraz.

I. Eduki orokorreko ezberdintasunak

Gaztelaniazko nomenklaturaren hurrenkeran Larramendik batzuetan bere erara jokatu zuela jakin eta gero, orain haren edukiarekin zer egin zuen aztertzeo garaia iritsi da, bien nomenklaturak erkatuaz ezer erantsi edo kendu zuen egiaztatzeo.

Azterketak joerarik indartsuena edukia bakantzea izan zela erakusten digu, eta bi eratara: *DAut*-eko sarrera nagusi zenbait, eta adiera, esapide eta errefrau anitz kenduaz (§ 1), eta sarrera eta azpisarrera asko bidalketa-dei bihurtuaz (§ 3). Alabaina, dena ez da kenketa. Alde batetik, ereduak edukia bestela antolatzeko zioen bat ere izan zuen (§ 2). Bestetik, batez ere euskara deskribakizun izateak, *DAut*-ek eskaintzen ez zuen informazio multzo bat eranstera eraman zuen. Informazio orokorra, guztiz gramatikazkoa, dagoenez aztertu dugu; atal honetan, nomenklaturan erantsi

ikasi zuela “repasando lo que antes sabía” eta gero *DAut* astiro, hausnartuaz, irakurri zuela; gaztelaniazko hitzei euskal ordainak emateko ordua iritsita, berriz, atzera egin zuen eta, inolako laguntzarik gabe bere burua ikusita, berak bere kasa euskara ikasteari ekin behar izan ziola, “primero en mi Dialecto Guipuzcoano, y después en los otros, hasta que los reduje a método y Arte”. Argi dago, beraz, hiztegia egiteko nahiak gramatika eragin ziola, eta gramatika eginez gero bakarrik ekin ahal izan ziola hiztegiari. Gramatiken eta hiztegien arteko lotura —Lakarrak hainbestetan eta hain argiro ikusarazi diguna— ez da, beraz, boladan egon zitekeen zerbait, Larramendi bezalako hiztegi-gile *amateur* bati une batetik aurrera ezinbesteko bilakatu zitzaion eginbeharra baizik.

(3) Alabaina, arrotz egiten baldin bazaigu, ez da orain euskaraz hartara jokatzeko ez dugulako, bestaldera begira egiten dugulako baizik: interesgarri oso izan daiteke Elhuyar 1996 edo *Hiztegi 3000* (1996), adibidez, alde honetatik aztertzea, zenbat lehendabiziko lekukotasun eskaintzen dituzten (eta zein eredu erabili duten) jakitearean.

zituen gauzak (sarrera, adiera zein esapide berriak) miatuko ditugu (§ 4). Joera nagusiaren —hots, hiztegia laburtzearen— kontra jokatzeko duen beste eransketa mota bat badago, azkenik: *HH*-an dauden sarrera errepikatuen kopuru ez txikia (§ 5).

1. Larramendiren hautapenak

Larramendiren esana, alegia, hitzez hitz jarraitu ziola *DAut*-i, *cum mica salis* hartu behar da. Honetaz ohartzeko aski dateke gogoratzea corpusean *DAut*-ek 857 makrosarrera dituela eta *HH*-ak, berriz, 891 mikrosarrera: aldeak 34 baino ez lituzke utziko Akademiaren hiztegiaren adiera, esapide eta erretraugariak jasotzeko. Bistan da, beraz, bakanketa lana handia izan dela, baina ez maila guztietan neurri berean gertatu da, ez eta beti arrazoi berengatik. Ondoko atalen helburua maila bakoitzean Larramendik zein osagai eta nolakoak alde batera utzi zituen erakustez gain, horretarako izan zituen zioak ahaleaginean zehaztea izango da.

1.1. Sarrerak

DAut-eko 857 sarreretatik 210 (%24,5) galdu egin dira batetik bestera igarotzean. Ondoko taulan jasotzen diren datuak hauexek dira: (1) *HH*-ko orrialdea, (2) *DAut*-eko sarrera kopurua, (3) alde batera utzitako sarrera kopurua eta (4) haien portzentaia orrialdeko:

(1)	(2)	(3)	(4)	(1)	(2)	(3)	(4)
<I, 6>	27	9	%33,3	<II, 21>	69	8	%11,6
<56>	81	39	%48,1	<71>	28	5	%17,9
<106>	38	8	%21,1	<121>	49	8	%16,3
<156>	26	7	%26,9	<171>	20	7	%35
<206>	62	18	%29	<221>	33	6	%18,2
<256>	67	18	%26,9	<271>	48	8	%16,7
<306>	61	19	%31,1	<321>	52	9	%17,3
<356>	77	15	%19,5	<371>	73	14	%19,2
<406>	46	12	%26,1				

Taulako emaitzetatik dagoeneko ondorio orokor zenbait atera ditzakegu. Ohartu hiztegian zehar hiru zati aski argi egin daitezkeela: lehen bi orrialdeek, A letrakoak (beti bezala berezi xamarrek), kenketa portzentaiarik handienak ematen dituzte; bi hauek kenduta, berriz, portzentaia aski egonkorak dira: I. liburukiko gainontzeko orrialdeetan %20-30 inguruan (7tik 5etan %25etik goiti) daude; eta II. liburukian (171. orko erpina kenduta) %10-20 inguruan (7tik 6tan %15etik goiti). Beraz, A letran gehien kendu zuela esan daiteke, eta oro har I. liburukian gehiago, II. ean baino; batz bestekoka esanda, A letran %40 inguru,⁴ I. liburuko gainerako letratan %25,8 eta II. liburukian %19.

(4) Kopurua ikaragarria da, baina bi orrialderen gainekoa baizik ez izanik —baita antzemandako bestelako arrazoiengatik ere— komeniko litzateke A letran azterketa zehatzagoa egitea.

1.1.1. Ageriko arrazoiak

Larramendik bi erako salbuespenak adierazi zituen Hiztegiaren hitzaurrean: germaniaren hitzak eta hitz zaharkituak. Konpli da, beraz, ezer baino lehenago zehaztea hauetara zer nolako zatia dagokien hiztegi batetik bestera galdu diren hitzen kopuruan.

Germaniaren hitzei dagokienez, nabarmena da bi hiztegien arteko aldea ez dutela oso neurri txikian baizik azaltzerik, berez *DAut*-en osotasunean deus gutxiko kopurua osatzen baitute. Gure corpusen 3 (baztertutako hitzen %1,4) baino ez dira: *guido*, *guinchado* eta *salvatierra*.

Zer esan gehiago ematen dute hitz zaharkituek. Larramendik, jadanik aipatu dugu, “También puede ser que se me ayan escapado algunas pocas voces antiquadas” aitortzen zuen (1745: liv), hori aitortzea bada, zeren eta zalantzarik gabe hauxe baita galeraren arrazoietatik bat. Ikus ditzagun orrialdeko, honelakorik agertzen ez den orrialdeak kenduta, (1) hitz galduen kopuru orokorra, (2) haietatik *DAut*-ek “antiquada”-tzat —inoiz adierazpen konplexuagoen bitartez— jotzen dituenen kopurua, (3) haien portzentaia galduetara buruz, eta (4) zein hitz diren:⁵

<I, 56>	39	12	%30,8	alfadía, alfaja, alfalfez, alfaya, alfeña, alfeñado, alferizado, alfilel, alfirecia, alfirez, alfolla, alfofigo.
<106>	8	1	%12,5	asseguranza.
<156>	7	3	%42,9	cabezai, cabeza, caboral.
<206>	18	11	%61,1	cobdicia, cobdiciar, cobdicioso, cobdiza, cobegera, cobijadura, cobijera, cobramiento, cobrir, coce, coceadura.
<256>	18	3	%16,7	defensar, defeso, degredo.
<306>	19	3	%15,8	embarcadura, embargamiento, embargoso.
<II, 21>	8	1	%12,5	intima.

Orotara, galdutako 34 hitzen (%16,2) kontu ematen digu eta, corpusaren arabera, hitz zaharkituak bakantzea oso nabarmenki batez ere I. liburukiko gertakaria da, bigarrenean ziur aski ia eraginik izan ez duen bitartean.

Labur bilduz, Larramendik agerian ematen dituen bi arrazoen artean, 37 hitz (%17,6) baino ez ditugu azaldu. Bistan da hitz gehienak bestelako arrazoiak galarazi dituztela. Kenketa lanean ez nahierara, irizpide gutxi-asko trinko batzuekin baizik aritu zela erakusten digu azterketak. Gure corpusak, bere txikian, hiru arrazoi nagusi eskaintzen dizkigu, eragin txikiago daukaten beste batzuekin batera, hurren ikustera goazen bezala.

1.1.2. Partizipioak

Hona hemen Larramendik aitortzen ez duen arrazoi nagusienetako bat. Halaz ere, badirudi ez aitortua ulergarria ez eze espero izatekoa zela. Izan ere, Larramendiren sisteman euskal partizipio mugagabea erdarazko infinitiboaren ordain normala da,

(5) Besterik esaten ez dudana bitartean, hauek berak izango dira ondoko atalen tauletako osagaiak.

eta erdarazko partizipioarena, berriz, partizipio mugatua: “Comentar, *azaldu, edarguitu*”, “Comentado, *azaldua, edarguitua*”, adibidez. Larramendi ez da alboko erdaren eta euskararen arteko asimetria honekin topoz topo egiten zuen lehen hiztegiilea: Harrietek bere gramatikako hiztegiaren bi prozedura ezberdin erabili zituen, hiztegiaren norabidearen arabera (Lakarra 1993: 158): euskara-frantsesean euskal aditzizenari infinitiboa eta, partizipioa jasotzen duen gutxietan, birritan emandako partizipio mugatuari frantsesezko partizipio maskulino eta femeninoa dagozkie:

aberastea, <i>s'enrichir</i>	aditcea, <i>entendre</i>
aberastua, <i>s'enrichi, m.</i>	aditua, <i>entendu, m.</i>
aberastua, <i>s'enrichie, f.</i>	aditua, <i>entenduë, f.</i>

Frantsesa-euskara hiztegian, ordea, salbuespen bakar batekin, frantses infinitiboa eta euskal aditzizena baino ez ditu ematen. Larramendi erdibidean geratuko da. Lehenago (Urgell 1998b: § 3.2) ikusi dugu *DAut*-ek partizipio maskulino eta femeninoa, biak sarrera beraren azpian jasotzen dituen arren, Larramendik eskuarki genero bereizketa alde batera utzi duela. Ereduari atxikita, baina, ez du erabat saihesten bi hizkuntzen arteko asimetria, euskal zatian errepikapenak maiz sortzen dituen. Baditu, halere, estrategia batzuk errepikapenok saihesteko, hala nola “Descoger, *desbildu, destolestu, zabaldu*”, “Descogido, *desbildua, &c.*”, eta hauen barnean sartzen da aditz zenbaiten partizipioa zeharo ezabatzea. Zerrendatik kenduko ditugu aditza bera ezabatu —edo bildaketa-dei bihurtu— delako desagertzen diren partizipioak (hauetaz ik. § I, 1.1.5).

<I, 6>	9	2	%22,2	abominado, abonanzado.
<106>	8	3	%37,5	asegurado, asentado, asserrado.
<256>	18	1	%5,6	dehesado.
<306>	19	11	%57,9	embalado, embalijado, emballenado, embalsamado, embalsado, embalumado, embarbascado, embarnecido, embarrado, embarrilado, embastado.
<356>	15	4	%26,7	estufado, estuprado, esturado, eternizado.
<II, 71>	5	1	%20	maquilado.
<121>	8	1	%12,5	observado.
<221>	6	1	%16,7	rascado.
<371>	14	1	%7,1	vestido.

Orotara, beraz, galdutako 25 hitzen (%11,9) kontu ematen digu partizipioaren desagertze honek. Azpimarra dezadan hiztegi guztiko gertakaria dela: 306. orrialdeko erpina aditzak bereziki ugari diren zati bat baino ez da.

1.1.3. Hitz eratorriak

Tartean behin familia bateko hitzen bat desagertzen da, normalean eratorri bat:

<I, 6>	9	1	%11,1	aborrecedor.
<56>	39	7	%17,9	alfalfar, alfanjonazo, alferazgo, alforjado, alforjero, alforjitas, alforjuela.

<106>	8	2	%25	asseguramiento, asentamiento.
<156>	7	3	%42,9	cabido, cabildada, cabillo.
<206>	18	1	%5,6	cocheril.
<256>	18	4	%22,2	defendedor, defendiente, defension, dehesero.
<306>	19	4	%21,1	embaracillo, embarazadamente, embarazadillo, embarazador.
<356>	15	4	%26,7	estudiosamente, estudiosidad, estudio-sissimo, eutrapelico.
<406>	12	6	%50	guedejilla, guerrilla, guiamiento, guijarrazo, guijarrillo, guijeño.
<II, 21>	8	3	%37,5	interrogante, interrogativo, intestinal.
<71>	5	2	%40	mañuela, maquilón.
<121>	8	2	%25	obstinadissimo, ocasionadissimo.
<171>	7	3	%42,9	pictorico, piedrecilla, piernitendido.
<221>	6	2	%33,3	rarissimo, rasante.
<271>	8	2	%25	salvante, sandalino.
<321>	9	5	%55,6	temedor, temerosissimo, temperatissimo, templadico, templadissimo.
<371>	14	6	%42,9	verruquilla, versillo, vertiginoso, ⁶ vestidillo, vetilla, vexaminista.

Ikus daitekeen bezala, honelako bakanketak orrialde guztietan aurkitzen dira. Arrazoi indartsu bat, bada: galdutako 57 hitzen (%27,1) atzean dugu. Atzizki batzuk desagerkizunago dira besteak baino, guztiz txikigarriak (15) eta superlatiboak (7): lehenengoetatik bat edo batek irauten du corpusean, baina bigarreneko guztiak desagertu dira. Hona hemen errepikatzen diren bestelako erator atzizkiak: *-dor* (4), *-nte* (4), *-miento* (3), *-azo* (2), *-ero* (2), *-ico* (2), *-mente* (2) eta izen balioko partizipioak (2).

1.1.4. Ezobiko hitzak

Egindako sarrera bakanketaren zergatien bila, *DAut*-ek ematen duen gehigarritzko informazioari garrantzi berezia aitortu behar zaiolakoan nago. Desagertzen diren sarrera nagusietatik 47k (%22,4) hitza gutxi erabilia, dialektala, txantxetako, asma-tua, latin hutsa, etab. bezalako iruzkinak daramatzate *DAut*-en. Badirudi, beraz, Larramendiren esana egiatik hurbilago legokeela, baldin eta gorago ikusi ditugun hitz zaharkituez gain oro har ezohikoak —arrazoiak arrazoi— diren hitz zenbait ere “beharbada” kendu zituela esan izan balu. Jarraian azalpenka sailkatuko ditut, zeinek bere garrantzia hobeki erakus dezan; alabaina, kontuan izan behar da hitz batzuetan arrazoi bat baino gehiagok joka zezakeela, agian.

Talderik handiena (18 hitz, %8,6) *DAut*-ek “de poco uso”, “no tiene ya uso”, “es menos usado que...” eta antzeko adierazpidez azaltzen dituen hitzek osatzen dute:

(6) *DAut*-en *vestigioso*, huts argia.

<I, 6>	9	5	%55,6	abominador, abonamiento, abundarse, aborrecedero, aborreciblemente.
<56>	39	1	%2,6	algaida.
<206>	18	1	%5,6	cobdo.
<256>	18	3	%16,7	defensatriz, dehender, dehendimiento.
<356>	15	4	%26,7	estultamente, eternal, eternalmente, evangelistero.
<II, 321>	9	1	%11,1	temperacion.
<371>	14	3	%21,4	vero, versar, vespertillo.

Bigarreanean dialektalismoak ditugu, 11 hitz (%5,2) azalduaz:

<I, 56>	39	7	%17,9	aletría, alevo, alfarge, alfarma, alficoso, alfonsearse, algaido.
<106>	8	1	%12,5	asestadero.
<206>	18	1	%5,6	cocarar. ⁷
<256>	18	2	%11,1	defenecimiento, defunsion.

DAut-ek "voz inventada", "jocosa" edota "voluntaria"-tzat jotzen dituen hitzak beti desagertzen dira *HH*-an; halaxe gertatzen da bederen gure corpusean, adibideak asko ez badira ere, 6 (%2,9) orotara:

<I, 156>	7	1	%14,3	cabizbaxar.
<406>	12	1	%8,3	guedejar.
<II, 71>	5	1	%20	mañanar.
<171>	7	2	%28,6	pido, pidón.
<321>	9	1	%11,1	tempestividad.

DAut-ek "es voz puramente latina", "es voz latina" eta antzeko adierazpideez agertzen dituen hitz zenbait eta, hain gabe, aldamenean dakarren latinarengatik halakotzat jo daitezkeen beste zenbait ere desagertutakoen artean ditugu,⁸ orotara 5 (%2,4):

<II, 71>	5	1	%20	mapalia.
<121>	8	1	%12,5	obtento.
<271>	8	3	%37,5	sampsuchino, sancta sanctorum, santus.

Badira batzuk azalpen bakarria hitz berezituak izatean aurki lezaketenak, hots, Arkitekturari, Auzitegiari, Astronomian, etab. bakarrik erabilera daukatenak; orotara 8 hitz (%3,8):

<I, 56>	39	1	%2,6	alfeiza.
<106>	8	1	%12,5	asserto.
<206>	18	1	%0,1	cochinata.

(7) *DAut*-ek ez du agerian esaten, baina *coca*-ren eratorria da, eta argi aski geratzen da amerikanismoa dela.

(8) Hauen estatusa behar bezala ulertzeko, interesgarria izan daiteke Covarrubiasen antzeko hitzei buruzko iruzkinetako bat ezagutzea: "MACULA, este vocablo es más Latino que castellano, pero al fin se usa del" (ap. von Gemmingen 1992: 29).

<256>	18	3	%16,7	defensoria, deferente, defluxo.
<406>	12	1	%8,3	guarnes.
<II, 21>	9	1	%11,1	interusurio.

Azkenik, bada sail handi bat *DAut*-en azalpenetan zuzenean kendua izateko ziorik aurkitzen ez duena, baina haien artean dauden hitzek, itxuraz zein esanahiaz, ezohikoak direla erakusten digute. Orotara 16 hitz (%7,6). Erdiak baino gehiagok gaztelaniaz beste ordainen bat badu, kendutakoa baino ohikoagoa, eta Larramendik huraxe jaso zuela erakusten saiatzen naiz behean. Taldean harrigarri egiten zaidan bakarra *alfil* da, baina hemen sailkatu dut, beste inon sailka ezin zitezkeenez gero:⁹

ALETO. Especie de halcón que se cría en las Indias...

ALFAMAR. Manta o cobertor, y lo mismo que Alhamar (cf. *HH* "Manta" eta "Cobertor").

ALFELICHE. Lo mismo que Alferecía (cf. *HH* "Alferecía").

ALFENICADO, DA. Metaphóricamente se dice de la cosa que es sumamente blanda, delicada y sutil.

ALFIL. Pieza del juego del Axedrez.

ALFITETE. Composición de massa como la sémola o sarro, o como los hormigos y alcuçuz de Andalucía.

COCATRIZ. Serpiente que se cría en el Nilo, lo mismo que Crocodilo (cf. *HH* "Crocodilo").

COCHITEHERVITE. Modo de hablar baxo y vulgar que se compone de palabras bárbaras, con que se significa que se hace o se ha hecho alguna cosa atropelladamente...

ESULA. Una de las siete especies u diferencias de la hierba llamada en Castellano Lechetrezna... (cf. *HH* "Lechetrezna").

ETNA. Lo que está mui encendido y ardiente, y como echando llamas. Díxose assí a semejanza del monte Etna...

EVEHENTE. Lo mismo que Ascendente. Es epíteto que se suele dar al Nodo boreal de la Luna... (cf. *HH* "Ascendente, término de Astronomía").

GUERMES. Enfermedad que padecen las aves de rapiña en la cabeza, tragadero y oídos, y son muchos granos pequeños...

INTITULATA. El título o inscripción del libro u otro escrito (cf. *HH* "Título, inscripción").

RASCON. Ave lo mismo que Rey de Codornices.

SAMPUSCO. Lo mismo que Almoradux (cf. *HH* "Almoradux").

VEROS. En el Blason son unas figuras como copas o vasos de vidrio...

1.1.5. Desagertutako hitz nagusien ondorenak

Aditz bat sarrera normala osatu beharrean bidalketa-dei bihurtuta geratzen denean, aditz-multzoko beste osagaiak, gututz partizipioak, desagertzen dira. Askoz adibide gutxiago eskaintzen duen arren, berbera gertatzen da, jakina, beste norabait bidaltzen den edozein hitzen eratorriekin. Honekin 14 hitz (%6,7) azal daitezke:

(9) Jakina, oharkabeen ahaztutako hitzen bat edo beste ere egon daiteke.

<I, 6>	9	1	%11,1	abondado.
<56>	39	3	%7,7	alfarero, alfardilla, alfardón.
<306>	19	1	%5,3	embarnizado.
<406>	12	1	%8,3	guarnido.
<II, 21>	8	2	%25	interrogado, intimidado.
<121>	8	2	%25	obtenido, obviado.
<221>	6	1	%16,7	rascuñado.
<321>	9	2	%22,2	temperante, temperado.
<371>	15	1	%6,7	verosimilitud.

1.1.6. -se aditzak

Erakutsi dut dagoeneko (Urgell 1998a: § 5.1.3) sarri xamar Larramendik ereduari atxikitzen zaiola aditz arrunta eta *-se* aditza sarrera banatan emanaz, nahiz eta eskuarki euskaraz aditz beraz edo berez adieraz daitezkeen, laguntzailearen aldatze soilarekin. Inoiz edo behin, ordea, errepikapena saihestu du, *-se* aditza ezabatuz. Orotara 5 hitzetan (%2,4) eman daitezkeen azalpena da, eta ohartu batez ere II. liburukiko gertakaria dela:

<I, 206>	18	1	%5,6	cocerse.
<II, 171>	7	1	%14,3	picotearse.
<271>	8	1	%12,5	sangrarse.
<371>	14	2	%14,3	versarse, vestirse.

1.1.7. DAut-en "véase"-ak

Hitz bat *HH*-an ez agertzeko arrazoi bat, *DAut*-en bidalketa-dei huts gisa azaltea da; orotara 5 hitz (%2,4):

<I, 56>	39	2	%5,1	alfonsí, alfonsina.
<256>	18	1	%5,6	de forma.
<II, 121>	8	1	%12,5	obsidional.
<171>	7	1	%14,3	pictima.

1.1.8. Sarrera bakanketak

Larramendik hiztegia laburtzeko daukan estrategien artean bat da bi sarrera hurbiletatik bat egitea. Honela azaltzen diren hitz desagertuak orotara 20 dira (%9,5) eta, asko ez badira ere, ohartu adibideak nahiko erregularri banatzen direla lagin guztian zehar. Maiz, familia bereko hitzekin bidalketa-dei bakar bat eratzeko eginak dira (">" zeinuak *DAut*-eko hitza nora doan adierazten du):

ABONDAR > Abondamiento, abondar.	VERMINOSO > Vermicular, verminoso.
COCEDRON > Cocedra, cocedrón.	VERRUECO > Verrocal, verrueco.
INTERROGAR > Interrogación, interrogar.	VERTIGINOSO > Vértigo, vertiginoso.
OBTENER > Obtención, obtener.	VESTIMENTO > Vestimenta, vestido.
RASCUÑO > Rascuñar, rascuño.	

Bestetan, berriz, sarrera normal bakar bat lortzen da, euskarazko eta latinezko ordainekin:

ALFILEL > Alfiler, y en lo antiguo *alfilel*.

CABILLO > Cabito, cabillo.

DEFENSION > Defendimiento, defensión.

EMBARAZADAMENTE > Embarazosamente, embarazadamente.

ETERNALMENTE > Eternamente, eternalmente.

GUIJEÑO > Guijarreño, guijeño.

INTERROGANTE > Interrogación, interrogante.

MAQUILON > Maquilero, maquilón.

OCCIDENTE > Occaso [sic], occidente.

RAREZA > Raridad, rareza.

TEMEDOR "Lo que es digno de temerse" eta "El que teme" > Temedero, temedor // Temiente, temedor.

1.1.9. Aldaketak

Hitz bakar bat azalgabe geratu zaigu; halaz ere, corpusean ia ezereza izan arren, badirudi ezin dugula hortik bet-betan erabaki *HH* osoan ere hala izango denik. Kontua da DEGENERANTE sarrera ez dela bere lekuan agertzen, eta bai ostera inolako zalantzarik gabe bere ordekoa den "(El que) degenera u ha degenerado" (cf., beharrezkoa balitz, *DAut*-en definizioa: "El que degenera"). Itxurazko kenketa bat baino ez da izan, beraz.¹⁰

1.1.10. Labur bilduz

DAut-eko hitzak *HH*-an ez agertzeko aurreneko ataletan jorratu ditugun zioak hurrengo taulan bilduta daude, eraginaren arabera kokatuak. Kontuan har bedi hitz batzuek azalpen bat baino gehiago erdietsi dutela. Taulak (1) arrazoa, (2) eragindako hitzen kopurua eta (3) portzentaia jasotzen ditu hurrenez hurren:

ezohiko hitzak	64	%30,5
eratorriak	57	%27,1
zaharkituak	34	%16,2
partizipioak	25	%11,9
sarrera bakanduak	20	%9,5
hitz nagusiaren desagerpenak eragindakoak	14	%6,7
-se aditzak	5	%2,4
<i>véase</i> -ak	5	%2,4
germaniakoak	3	%1,4
itxura aldaketak	1	%0,5

(10) Sarrerako beste maila batzuetan dauden itxurazko kenketez eta gehiketez ik. § I, 2.

Dagoeneko esan daiteke Larramendik *DAut*-en eduki lexikografikoa batez ere norabide batean inausi zuela: alegia, garai hartako hitzun neutro —dialektalistorik gabeko— eta jaso —baina ez jasoeqi— batek menperatzen ez zituen edo, ziurrenik hobeto, menperatu beharrik ez zuen hitzen aldetik, zeren eta “ezohiko hitzak” deitu ditugunen, hitz zaharrituen eta germaniakoen artean desagerpenen ia erdiak azaltzen baitira. Hortaz, *DAut* batzuetan gehiegizko eredu gertatu zitzaiola egin behar dugu, zeren eta Sevillan edo Murtzian, *Fuero Juzgo* edo kronika zaharretan, edota Quevedoren jolas poetiko batean bakarrik agertzen diren hitzak jasotzea, bestelako arrazoiak tartean ez izatera (etimologiak, adibidez), alferrikako lantzat jo baitzuen, eskuarki halako hitzek gaztelaniaz esanahikide arrunt ezagunagoak dituztenez gero. Aukeraketa, oro har, zentzuzkoa dateke, bere xedea gaztelaniazko liburuetan euskaldunak ikasten ari ziren kultura (garaikidea, jakina) euskarara itzultzeko baliabideak eskuratzea baitzen.

Eragin gutxiago izan duen arren, berriz, partizipioen eta *-se* aditzen desagerpena euskal lexikografiaren historiako daukan garrantziarengatik bereziki azpimarratzekoa da, ezen erreferentzi hizkuntzen eta euskararen artean dauden asimetriak eragindako erredundantzien saihestean urrats bat izan baitzen, oraino txikia izanda ere.

Gainerako erabakiak ere oro har lexikografikoak dira, baina antolakuntzari baino gehiago hiztegiaren tamainari dagozkio, nik uste. Esanahikide hurbilak sarrera bakar batean bilduaz hiztegiaren erabiltzailea gehiegi kaltetu gabe hiztegia zertxobait txikitzea lortzen da, nabarmena denez. Eratorrien murrizketak antzerako esanahia daukake, baina, hasieran batez ere, alderantzizko joera ere izan zuela kontuan izanik (ik. § 4), kenketa erabaki pisutsuago baten ondorioa izan zela dirudi: alegia, une batetik aurrera ulertu bide zuen gramatikaren eta hiztegiko gainerako eduki zehatzaren bitartez edozein euskaldunek, behar izatekotan, arazorik gabe berak irekitako bidetik aurrera egin zezakeela, batzuetan behintzat.

1.2. Adierak

Hitzetan baino, adieretan igartzen da areago Larramendik *DAut*-ekin egin zuen murrizketaren handia. Gure corpusean, Larramendik aukeratu dituenetatik *DAut*-en adiera bat baino gehiago duten hitzak 216 dira, eta haietatik *HH*-an 36k (%16,7) bakarrik gorde dituzte denak.¹¹

Badirudi adiera guztiak gordetzeko joera zertxobait sendotzen dela, beti ere bere txikian, 2. liburukian; kontuak honela daude, orrialdeko adiera bat baino gehiago duten sarrerak denak gorde dutenekin erkatuaz:

(11) 36etatik bakar batean (*abonar*-en) adiera kopurua handitu egin da; 6 bider (*abono*, *cocer*, *cocido*, *guerra*, *mañoso* eta *templar*-en) sarrerak adiera zenbait galdu eta beste zenbait irabazi egin ditu. Hemen kenketak bakarrik hartuko ditut kontuan; gehiketez, ik. § I, 4.1.

<I, 6>	1/7	%14,3	<II, 21>	1/14	%7,1
<56>	2/9	%22,2	<71>	2/10	%20
<106>	0/9	%0	<121>	4/14	%28,6
<156>	1/8	%12,5	<171>	1/9	%11,1
<206>	4/18	%22,2	<221>	4/11	%36,4
<256>	1/19	%5,3	<271>	5/14	%35,7
<306>	2/10	%20	<321>	3/16	%18,8
<356>	2/18	%11,1	<371>	2/21	%9,5
<406>	1/9	%11,1	orotara	36/21	%16,7

Adiera edukia errazkienik gorde duten sarrerak, bi adieradunak izan dira (33 orotara, %91,7); handik gora, *cochinilla*-k 3 eta *mañero* eta *témpano*-k 4na adiera gorde dituzte, baina salbuespenak dira. *HH*-aren joerarik sendoena adiera kopurua batera jaistea da. *DAut*-en, oro har, bi adieradun sarrerak usukoenak direlarik, 2 > 1 jaisketa 88 bider (galdutakoan %40,7) gertatzen da; hona gainerakoak:

3 > 1 (24 bider); 4 > 1 (15); 5 > 1 (2); 6 > 1 (2); 13 > 1 (1); 3 > 2 (12); 4 > 2 (11); 5 > 2 (5); 6 > 2 (1); 7 > 2 (2); 8 > 2 (1); 13 > 2 (1); 4 > 3 (2); 5 > 3 (2); 6 > 3 (2); 7 > 3 (1); 13 > 3 (1); 5 > 4 (2); 9 > 4 (1); 16 > 5 (1); 10 > 5 (1); 10 > 7 (1); 12 > 8 (1).

Honek esan nahi du, laburbilduz, 216 adieradun sarreretatik 84k (%38,9) bakarrik mantendu dutela adiera bat baino gehiago; 160 sarreretan (%74,1) murrizketa %50 edo gehiagokoa izan dela; eta, orotara, *DAut*-eko 683 adieretatik *HH*-an 336 bakarrik (%49,2) gorde direla. Inausketa itzela, edonola ere.

Hautatutako adieraz den bezainbatean, murrizketa hobekien definitzen duen gertakaria, *DAut*-eko lehen adiera 209 aldiz gorde dela da, hau da: murrizketak zazpitan bakarrik (*embaimiento*, *estufilla*, *mañoso*, *ocaso*, *temblante*, *tempestad*, *vertedor*) adiera nagusiaren suntsipena erakarri du. Honek, lehen eta behin, euskaraz behin eta berriz ordain berbera izango luketen adierak nagusiari itsatsi dizkiola esan nahi du; batzuetan agerian, neurri bateraino bederen:

GUARNECER. Circundar o rodear alguna cosa...

Guarnecer, plazas, vestidos, *goarnitu*, *gordacaitu*...

GUARNECER. Vale también adornar los vestidos...

GUARNECER. Se toma también por engastar alguna cosa en oro...

GUARNECER. Significa también presidiar alguna Plaza...

GUARNECER. Metaphóricamente vale adornar una cosa con otra...

GUARNECER. En la Volatería vale poner lonja y cascabel al ave de rapaña.

baina bestetan *de facto*; jarriko dudana adibideko inausketa handienetakoa izan da (1/13) eta adiera gehienek —zenbat esatera ez naiz ausartzen— argi dago euskaraz

itzulpen bat eta bera leukaketela edo, osterantzean, irakurleak hiztegiko esanahikide berezituagoetan (*adornar, guarnecer, dissimular, etab.*) errazago bila litzakeela:

VESTIR. Cubrir o adornar el cuerpo con el vestido. Vestir, *janci, jaunci, beztitu.*

VESTIR. Por extensión se toma por adornar cualquier cosa...

VESTIR. Se usa también por guarnecer o cubrir alguna cosa...

VESTIR. Vale también dar a otro liberalmente, u de limosna, con que se vista.

VESTIR. Metaphóricamente vale adornar con conceptos y palabras...

VESTIR. Vale asimismo disfrazar u dissimular artificiosamente la realidad...

VESTIR. Significa también andar vestido...

VESTIR. Se dice por extensión de los brutos y plantas, respecto de las pieles u corizas...

VESTIR. Significa también hacer los vestidos para otro...

VESTIR. Vale también instruir a alguno de noticias...

VESTIR. Vale asimismo afectar alguna pasión del ánimo, demostrándolo exteriormente (...): y así se dice: Fulano vistió el rostro de severidad...

VESTIR. En la Architectura es guarnecer u cubrir enteramente la fábrica de hyeso...

VESTIR. Usado como substantivo, se toma por lo mismo que vestido.

Inoiz, ideia hori buruan zuela agerian utzi zigun Larramendik: "Ala, en todas las demás significaciones, *egalá*", "Caer, tiene otras significaciones, y en las más es *erori, jauci*".

A letran, gure corpusaren arabera, gerta daiteke adiera ez benetan desagertzea, beste batera gitea baizik, baina berezkotasuna nolabait gordeaz:

ASEGURACION. Resguardo y seguro que se da (...). Lat. Fiducia, ae. Cautio, onis. Securitas, atis. Asseguración, (...). Lat. Cautio, securitas. De una paga...

ASEGURACION. Contrato que se hace entre dos o más personas de poner en alguna parte dinero...

ASSEGURAR. Dar firmeza a una cosa (...). Assegurar, poner segura alguna cosa,
 Lat. Rem aliquam stabilem facere... (...). Lat. Stabilem facere. Una
 ASSEGURAR. En términos de comercio... paga...

Sarrera mailan jadanik ikusi bezala (§ 1.1.8), adiera mailan ere inoiz edo behin itxuraz desagertutako adiera familiako esanahikide batera eramana izan da:

VERTEDERO. El sitio u parage adonde se vierte u por donde se vierte. Vertedero, vertedor.

VERTEDOR. Lo que vierte. Aplícase regularmente en los puentes u otras fábricas a las figuras o canales por donde se da curso a la agua...

Bestalde, *DAut*-eko sarrera nagusien ezabaketa azaltzeko baliatu ditugun irizpi-deek hemen ere zerikusia izan dute; ikus ditzagun adibide batzuk:¹²

Adiera zaharra edo zaharkitua:

ABONDO. Copiosa y abundantemente, con abundancia y largueza. Abondo, con abundancia...

ABONDO. Término antiguo, que significa...

ALFANEQUE. Ave de rapiña, especie de halcón... Alfaneque, ave de rapiña...

ALFANEQUE. Significa también la tienda o pabellón de campaña. Es voz antiquada.

Hedadura gutxikoa:

COCA. Droga o hierba... Coca, yerba...

COCA. Es también cierta hoja pequeña y verde que se cría en el Perú... Coca, una hoja...

COCA...

COCA. En algunas partes, como es en Galicia y la Mancha, llaman así a la que comúnmente se llama Tarasca...

VERTER. Derramar u vaciar alguna cosa, arrojándola. Verter, *isuri*.

VERTER. Significa en Madrid...

Germaniakoa:

Bi mailatan ari naiz, beraz: lexikografikoan, ereduak eta ereduko hizkuntzak ezarzen dute euskara sartuko deneko ingurunea, lekua eta modua, eta alde honetatik ezinbestekoak dira euskal ordainen nondik norako guztiak ongi ulertzeko; lexikoan, berriz, ereduko hizkuntza berdindu beharraren kariaz sortzen da, ezin ezagunagoa denez, euskaraz neologismoak —maileguak zein hitz berriak— eman beharra: maileguak eta haien itxura erabakitzeko eredu lagungarri den bezalaxe, hiztegiaren arabera kalkoak (*arraianrea*) edota itzulpenak (gogoratu hasieran aipatu dudana Oliver mallorkarraren *accio afectada* “melindre”, Larramendik, bide batez, *anyerequeria*-ren taiuko hitzez ordezkaturia) eragiteko gauza izan daiteke. Larramendi bezalako irakurle zehatz baten kasu berezian, berriz, *DAut*-en sarrerako zoko-moko guztiek balio lezaketete inspirazio iturri gisara euskaraz eman beharreko ordaina asmatzerakoan: “hausnartuaz” irakurri zuela esan zuen, eta beharbada oraintxe arte ez genuen bere esanahi betean ulertu.

Nolanahi ere den, ereduarekin ala gabe, edozein hiztegiaren azterketa sistematikoak —edukiari ez eze egiturari ere begiraten dionak— zeharo gaintitzen ditu hizkako azterketak lor ditzakeen emaitzik interesgarrienak ere, eta honek dituen akats guztiak saihesten. Gorago ikusitako adibideetan, *DAut*-en azalpenaren edota latinaren eta *HH*-ko euskal ordainaren arteko batetortzeak, banan-banan hartuta, denak hala-beharrezkoak izan zitezkeen: hala ez dela baieztatzena garamatzen xehetasun erabakigarria, gertakarien maiztasuna da, hain zuzen. Erka bitez,⁶⁷ berriz, *HH*-ko “Conversación, *solasa*, *jolasa*, *hizqueta*, *aharanza*, *goyea*” eta Harrieten frantsesa-euskara hiztegi “*conversation*, *solasa*, *aharanza*, *goiea*”: *aharanza* Etxeberri Ziburukoarengan ere irakur zezakeen arren (cf. *OEH*, s.v. *abarantza*), biak batera eta adiera horretan Harrietengandik baino ezin etor daitezke; eta ezker-eskuin bezalaxe gerta daiteke goitik behera ere: *quaratsa* “amargo” eta *quarastuna* “amargor”, biak batera eta grafia horrekin Harrietengan bakarrik irakur zitezkeen (cf. *OEH* s.v. *kirats* 3 eta *kirastasan*).

Azken adibide bat, hau ere jadanik aipatua: “Camarera, *camarero*, *gambararia*, *gambarazaya*, *guelazaya*. Lat. Cubicularia, cubicularius” sarreran *camarero* euskal ordaina ez dela jakiteko bide asko ditugu, baina denek nahitaez euskal hitzei baino gehiagori begiratzea eskatzen dute: bertan ditugu latinezko ordainak, femenino eta maskulinoak hurrenez hurren; hurrengo sarrera “Camarera, ro, mayor” da, eta haren latinezko

(66) Ohar bedi, bide batez, *artelatz* iraun duten Larramendiren hitz bakanen taldeari erantsi behar zaiola, oraingoan Orixe eta Ibiñagabeitia bezalako berme oniritziekin (ik. *OEH*, s.v.).

(67) Adibide gehiago ere aurki daitezke Lakarra 1993: 272-273.

ordainak "Reginae cubicularia, regius cubicularius". Sarrera kopuru handiago bat aztertuko bagenu, *HH*-an normalean maskulinoa bakarrik agertzen dela jakingo genuke, haren aldamenean femeninoa agertzea bakanki baizik ez dela gertatzen, eta are bakankiago femeninoa bera bakarrik agertzea, genero honi bakarrik dagozkion gauzak ez izatera ("Embarazada", esate baterako). Ereduan begiratuko bagenu, *HH*-an "Camarero" peituko genuke eta, gainera, "Camarera, ro, mayor" *DAut*-eko bi esapide ezberdin bat egitetik datorrela; beste horrenbeste gertatu da, jakina, jatorrizko "Camarera" eta "Camarero" sarrerekin, eta dagoeneko ez gara harritzen, bai baita-kigu oso sarri familia bereko eta hurbileko esanahikideak, euskaraz ordain berbera eraman beharrekoak, bakantzeko joera handia izan zuela Larramendik.

HH-an Larramendik ehotutako hariak norabide guztietan barraiatzen dira, baina beste horrenbeste gerta daiteke —gertatzen da— edozein hiztegiarekin. Hari bakar batetik tiraka hasteak, erdua zein izan den, hiztegiak zein asmo zeukan edota hiztegiaren egitura nolakoa den jakin gabe, eta are harrapatu nahi den hitzaren albo-alboan zer jartzen duen begiratu ere gabe, mataza gehiago nahasteko edo, onenean ere, lehen bezain ezjakitun geratzeko baizik ezin dezake balio.

Bibliografia

- Carrasco, P., 1992, "Los criterios etimológicos en la obra lexicográfica del cordobés Francisco del Rosal" in Lorenzo (arg.), II, 77-94.
- Casares, J., 1992, *Introducción a la Lexicografía Moderna*, CSIC, Madrid.
- Colon, G. & Soberanas, A.-J., 1986, *Panorama de la Lexicografía catalana. De les glosses medievals a Pompeu Fabra*, Enciclopèdia Catalana, Barcelona.
- Gemmingen, B. von, 1992, "Le *Tesoro de la lengua castellana, o española* de Sebastián de Covarrubias (1611) et la naissance du dictionnaire monolingue en Espagne" in Lorenzo (arg.), II, 25-33.
- Guerrero, G., 1990, "Nebrija, autoridad en el *Tesoro* de Covarrubias", *RFE* LXX, 133-141.
- Hausmann, F.J., 1989, "Le dictionnaire de collocations", in Hausmann *et al.* (arg.), *Dictionnaires*, Walter de Gruyter, Berlin/New York, 1010-1019.
- Lakarra, J.A., 1993, *XVIII. mendeko hiztegi gintzaren etorkiez*. Doktorego tesi argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- _____, 1994, "Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)", *ASJU* XXVIII-1, 1-178.
- _____, 1995, "Pouvreuren hiztegiez eta hiztegi gintzaren historiaz", *ASJU* XXIX-1, 3-52.
- Lorenzo, R. (arg.), *Actas do XIX Congreso Internacional de Lingüística e Filología Románicas* (Universidad de Santiago de Compostela, 1989), (2 lib.), A Coruña.
- Moliner, M., 1988, *Diccionario de uso del español*, (2 lib.), Gredos, Madrid.
- Osselton, N.E., 1989, "Alphabetisation in monolingual English dictionaries to Johnson" in James (arg.), *Lexicographers and their works*, University of Exeter, 165-173.
- Quemada, B., 1967, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863). Etude sur leur histoire, leurs types et leurs méthodes*, Didier, Paris, etc.
- Rico, F., 1991, *Breve biblioteca de autores españoles*, Seix Barral, Barcelona.
- Urgell, B., 1998a, "Hiztegi Hirukoitza eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (I): oinarritzko ezaugarri zenbait", *ASJU* XXXII-1, 109-165.
- _____, 1998b, "Hiztegi Hirukoitza eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (II): sarreraren edukia", *ASJU* XXXII-2, 365-415.

Monjongo DASSANÇAREN
Laborarien abissua (1692) eta
honen bi aldaera ezezagun:
Jean Pierre CHABALGOITYk
idatzia (XVIII. m.) eta Bertrand
GOYENETCHEREN *Marechalaren
liburia* (1831). Aurkezpena,
edizioa, oharrak eta hiztegia

(*Laborarien abissua* (1692) by Monjongo DASSANÇA,
and its two unknown variants: the one written by
Jean Pierre CHABALGOITY (18th century) and the
Marechalaren liburia by Bertrand GOYENETCHE
(1831). Presentation, edition, notes and vocabulary)

Urkizu, Patri
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia – Miraconcha, 48
20007 Donostia

Ikerketa lan honetan Monjongo Dassanča ziburutarrek 1692an albaitaritzaz argitaratu liburuttoa berrargitaratzen da, bi aldaera ezezagunekin batera. Bat Jean Pierre Chabalgoityk XVIII. mendean zubereraz idatzitakoa eta bestea Bertrand Goyenetchek 1831ean moldatua, bidenabar aurkezpena, oharrak eta hiztegia ematen direlarik. Liburuttoaren nondik norakoa ere adierazten da, alegia, nola Charles Estienne-ek 1554ean Praedium Rusticum... latinez idatzi zuen, eta nola bere subia zen Jean Liébault-ek frantseseratu L'Agriculture et Maison Rustique tituluaz 1565ean, eta nola "Le Bouvier" 'Irzaina' izena duen lehen liburuko 22. kapituluaren moldaketa askea den Laborarien Abissua.

Giltz-Hitzak: Euskal liburu eta eskuizkribu teknikoak. Albaitaritza.

En el presente trabajo se reedita el librito que sobre veterinaria publicó el ziburutarra Monjongo Dassanča el año 1692, junto con dos versiones inéditas. Una de ellas es la escrita por Jean Pierre Chabalgoity el siglo XVIII en dialecto suletino, y la segunda es la elaborada por Bertrand Goyenetche en 1831, y aparecen acompañadas de la correspondiente presentación, notas y vocabulario. Asimismo se explican el origen y naturaleza de este librito, es decir, cómo fue escrito en latín por Charles Estienne en 1554 (Praedium Rusticum), y cómo fue traducido al francés por su yerno Jean Liébault con el título L'Agriculture et Maison Rustique en 1565, y finalmente cómo Laborarien Abissua es una versión libre del capítulo 22 del primer libro, que en francés lleva por título "Le Bouvier" (El boyero).

Palabras Clave: Libros y manuscritos vascos, técnicos. Veterinaria.

Dans ce travail, on réédite le livret sur la médecine vétérinaire publié par le ressortissant de Ciboure Monjongo Dassanča en 1692, en même temps que deux versions inédites. L'une d'elles est écrite par Jean-Pierre Chabalgoity au XVIII^e siècle, en dialecte souletin, et la seconde est celle élaborée par Bertrand Goyenetche en 1831. Les trois versions paraissent accompagnées de la présentation correspondante, de notes et de vocabulaire. De même on explique l'origine et la nature de ce livret, c'est-à-dire comment il fut écrit en latin par Charles Estienne en 1554 (Praedium Rusticum), et comment il fut traduit en français par son gendre Jean Liébault sous le titre L'Agriculture et Maison Rustique en 1565, et finalement comment Laborarien Abissua est une version libre du chapitre 22 du premier livre, qui porte le titre de "Le Bouvier" en français.

Mots Clés: Livres et manuscrits basques, techniques. Vétérinaire.

Aurkezpena

Euskara zientzia alor guztietara hedatzen ari den une honetan egoki deritzot euskal liburu tekniko zahar baten hemen agertzeari, edo zehatzago esanez, albaitaritzako liburu baten bi eskuzkribu ezezagunei leku egitea. Liburutxoak hiru edizio izan ditu mende honetan. Bata Baionan 1902an titulurik gabe moldiztegitratua hogeita hamar aletan soilik¹, zeinen ale bat gure liburutegian daukagun, bigarrena Jean Baptiste Daranatzek² moldatua eta RIEV-en 1908an ageria, eta hirugarrena egile berak 1927an plazaratua. Txomin Peilleni esker ezagutzen ditugu oraino argitaragabeak izan diren bi eskuzkribuak, bata bere familian kausitua eta antza denez XVIII. mendean Jean Pierre Chabalgoityk egina, eta bestea Bertrand Goyenetchek³ delako batek idatzia, hemen emango ditugunak.

Daranatzek plazaratu Monjongo Dassançaren *Laborarien abissua*-ren liburuxkak 16 orrialde ditu eta badirudi XVII mendeko edizioaren berrargitarapena dela. Beraz, lehenari, hots, XVII mendekoari, ezezagun dugunez D* deituko diogu⁴, eta D 1902ko edizioari. RIEV-en 1908an agertutakoari, —1902ko denez hiztegi ohar batzuekin soilik—, eta 1927an berriro argitaratuari⁵, bera baita, ez diegu kasurik egingo ia, eta hemen lehen aldiz agertzen direnei, alegia, Chabalgoityrenari eta Goyenetcherenari aurrerantzean CH eta G deituko diegu.

Liburuxka honen etorkia ezaguna da, espreski egileak agertzen baitu, *Maison Justia* (D, 1) *Maison Rustica* (G, 66) deitu liburuaren moldaketa dela, eta hau, antza denez, ez da Charles Estienne-k latinez plazaratu *Praedium rusticum...*⁶ (1554) eta honen suhia izan zen Jean Liébault-ek frantsesera itzuli *L'Agriculture et Maison rustique...*⁷ (1565) liburu ospetsua baizik.

Charles Estienne (Paris, 1535-1564), errege-moldiztegitegileen familiakoa, medizinan doktoretu zen, eta hala Alemanian nola Italian zehar ibili ondoren humanista garrantzitsuekin harreman aberatsak izan zituelarik, sorterrira itzuli zen. Bere anaia Henri protestante izategatik Frantziatik ihes egin behar izan zuenean, Charlesekin, katolikoa baitzen, inprimategiaren ardura hartu zuen, eta besteak beste honako liburuak moldiztegitratu zituen: *De dissecatione partium corporis humani...* (1545), *Guide des chemins et fleuves de la France...* (1552), *Dictionnaire Historique et Poétique...* (1553), eta gorago aipatu dugun *Praedium Rusticum*-a (1554).

(1) Gure ustez edizio hau Jean Baptiste Daranatzek prestatu zuen, Julio de Urquijo-ri eginiko dedikatorian, honakoa ageri baita: *Hommage à M. Julio de Urquijo / B. Daranatz / 14 juillet 1905.*

(2) Jean Baptiste Daranatz, "Un vétérinaire basque du XVIII^e siècle", RIEV, II, 585-600.

(3) Bertrand Goyenetchek, *Marechalaren liburua* (1831). MS, 73 or.

(4) Ez du aipatzen Jules Vinsonek bere *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, ed. J. Maisonneuve, Paris 1891, liburuan ez eta ere Louis Desgraves bere *Répertoire bibliographique des livres imprimés en France au XVIII^e siècle*. Ed. Valentin Koerner, Baden-Baden, 1978.

(5) Jean Baptiste Daranatz, "Un vétérinaire Basque au XVIII^e siècle", *Curiosités du Pays Basque*. Lasserre, Bayonne, 1927, 368-382.

(6) Caroli Stephani *Praedium rusticum, in quo cujusvis soli vel culti vel in multi plantarum vocabula ac descriptiones earumque conuendatarum atque escolendarum instrumenta suo ordine describantur Opus Medicis, Pharmacopolis, Agricolis, caeterisque germanae latinitatis studiosis per utile...*, Lutetiae, MDLIII.

(7) *L'Agriculture et Maison rustique que de M. Charles Estienne docteur en Medecine Paracheuée premierement, puis augmentée* par M. Jean Liébault, Docteur en Medecine. A Paris, 1570.

Azken liburu honetan laborantzaz, baratze lanez, mahasti-zaintzaz eta beste gai anitzez mintzo zaigu, aitzinatik idatziak zirenak bilduz. Ikasle gazte eta letra onen zaleentzat idatzia izan zen, *In adolescentulorum, bonarum literarum studiosorum, gratiam...*

Jean Liébault (Dijon c. 1535 - Paris 1596), medikua, Charles Estienne-ren alaba jakintsu eta bertsoegile zen Olympe-Nicolerekin⁸ ezkondu zen, eta zenbait liburu interesgarri argitaratu zituen ere, aipatuaz aparte besteok: *De sanitate, fecunditate et morbis mulierum* (1582), *De cosmetica seu ornatu et decoratione* (1582), frantsesera ere itzuli zituenak, baina halere ez zuen arrakasta handirik izan, miseria gorrion hil baitzen, bere emaztea bezalaxe.

L'Agriculture et Maison Rustique ... (1564) izeneko liburua honako gai guztietaz mintzatzen da, xeheki sarreran dioen bezala:

en laquelle est contenu tout ce qui peut estre requis pour bastir maison champestre, prévoir les changements et diversitez du temps, médiciner les laboureurs malades, nourrir et médiciner bestial et volaille de toutes sortes, dresser jardin tant potager, médicinal que parterre, gouverner les mouches à miel, faire conserve, confire les fruits, fleurs, racines et escorces, préparer le miel et la cire, planter, enter et médiciner toutes sortes d'arbres fruitiers, faire les huiles, distiller les eaux, avec plusieurs pourtraicts d'alambics pour la distillation d'icelles, entretenir les prés, viviers et estangs, labourer les terres à graines, façonner les vignes, planter bois de haute fustaye et taillis, bastir la garenne, la haironnière et le parc pour les bestes sauvages, plus un brief recueil des chasses du cerf et du sanglier, du lièvre et du renard, du blereau, du connin et du loup et de la fauconnerie.

Bere aitagarreba jakintsuaren omenez honako bertsoak ere moldatu zituen frantsesez Liébault-ek:

*Charles Estienne fut le premier fondateur
Qui se mit à bastir ceste Maison champestre
Mais ce noble dessin accomply ne peut estre
Pour la soudaine mort de son Architecteur...*

Bukaeraldean J. de Clamorgan Saane-ko jaunak otsoaren ehizaz idatzitako hogeitahiru orrialde eta zenbait irudi zituen liburutxo bat ematen du.

Berehala ohartuko garen bezala, gonbaratzen badugu aurkezten dugun frantses zatia (Le Bouvier, Livre I, cap. 22, 37-41) euskal bertsoiekin, alde batetik Itzainak jakin behar zuenaz ari zaigu, eta euskal al baitariaren helburua askoz ere xumeagoa eta mugatuagoa da, ia aziendaz soilik arduratzen baita eta hauen eritasunez. Beste aldetik orijinalaren xehetasunak eta detaileak zabaldu egiten ditu.

Beraz, baliteke kontutan harturik Liébault-en liburuak 1591etik 1702ra Lyonen edo Parisen inprimaturik hogeita hamar edizio izan zituela, gure moldatzailea izan zen Monjongo Dassançak ez erabili izana lehena, edota *Bibliothèque Bleu* delakoan argitaratu moldaketa baten itzultze edo egokitzea izatea.

(8) Olympe-Nicole Estienne, 1596, *Misères de la femme mariée, où se peuvent voir les peines et les tourments qu'elle reçoit durant sa vie, mis en forme de stances*. Paris.

Mongongo Dassança chimista gisa zintzen du D-en, eta liburuxka Gastanbide medikuari zuzendurik dago, zeinek *approbacionea* ematen duen inprima dadin 1692ko otsailaren 14ean. Beraz, ezagutzen ez dugun arren 1692ko alerik, badirudi urte hone-tan argitaratuko zela Baionan.

Gastanbidek emandako baiian honakoa dio zehazki, *ecen bain justuqui traditua da Maison Justiaço eta berce asco auctor bandiren sendimendua* (D, 1).

Izendatzen den autore bakarra, aldiz, Arabiartzat jotzen den eta bi aldaeretan modu ezberdinez ageri dena dugu: *Peccacius* (D, 4), *Sedacius* (G, 11). Hamaika buru-tapenen ondoren ohartu gara Andres Laguna (Segovia, 1499-1560) mediku eta filo-logo espainolak itzuli eta Anvers-en 1555ean argitaratu zuen *Pedacio Dioscorides Anazarbeo...* K.O. 1. mendean bizi izan zen grekar mediku eta idazleaz ari zaigula. Honek Italia, Galia, Espainia eta Afrikan bidaiatu ondoren, *Perites yatriké* edo *De materia medica* liburu ospetsua idatzi zuen, non Errenazimendurainoko idazle greziar, latindar eta arabeek edan zuten, eta zeinen lehen edizioa Aldo Manucio-ren moldiz-tegian plazaratu zen 1499an Venezian titulu hasiera honekin: Διοσκοριδων ἀναζαρ-βεωσ...

Esan bezala Andrés Lagunak⁹ itzuli zuen gaztelaniara liburu hori XVI mendean, Martiel Mathée-k frantsesera¹⁰ eta Johan Dantzen von Ast-ek¹¹ alemanera, besteak beste, eta Dioskoridesen itzulpen arabeek Leclerc mintzatu izan ohi zen *Journal Asia-tique*-n (1867).

Dassança, euskarazko antolatzailea, Ziburuko familia batekoa zen, itsas-kapitain, kortsari eta apotikari edo albaitaritzara entseiatuak. Peillenek aurkitu agiri batzue-tan, badirudi 1700-IX-17an Pouilloteneako *Mre Chirurgien et aphoticaire* bezala zina-tzen duela, eta 1711-II-1ean Dominique dAssance hil zela, Chourio apezak zinatua heriotze aktaren arabera.

Familiak, ordea, antza denez, botikari lanekin jarraitu zuen, zeren Alfred Lassus-ek¹² honakoa dioen itsas kapitain eta kortsariei buruz idatzi lan batean: *Marticot DASSANCE. Fils de Pierre Dassance. Me chirurgien et de Marguerite de Louberry, il contracta mariage le 20 avril 1718 avec Thérèse d'Errealon (Réalon), fille aînée de François et de feu Catherine de Gibot.*

Adierazi dugunez D deitu dugun edizioa eta D' (1908)berdinak dira, soilik RIEV-en hiztegi ohar batzuek, edo hobe esan ertz-zuzenketak ageri direla, hauexek direnak, hain zuzen:

(9) Pedacio Dioscorides Anazarbeo, *Acerca de la materia medicinal, y de los venenos mortíferos. Traducido de lengua Griega en la vulgar Castellana, & ilustrado con claras y substantiales Annotaciones, y con las figuras de innumerables plantas exquisitas y raras*, por el Doctor Andrés de Laguna, Medico de Julio III. Pont. Max. En Anvers, en casa de Juan Latio, Anno MDLV.

(10) *Les six livres de Pedacion Dioscoride d'Anazabe de La matiere medicinale translatez de latin en francois, a chacun chapitre son adioutées certaines annotations fort doctes & recueillies des plus excellens Medecins, anciens & modernes.* (Trad. Martin Mathée). Lyon, Thibault Payan, 1559.

(11) *Des hochperimpten Pedanii Dioscorides Anazarbei Beschneibung aller materienn und gezengs der Artznes in sechs Bücher verfasst und zum ersten neal aus der Griech v. Lateinischen Sprachen gründlich verteuscht* as Johan Dantzen von Ast. Franckf. a. M. bei Ciricaco Jacobiz zum Bart, 1546.

(12) Alfred Lassus, 1994, "Capitaines de navires et corsaires", *Saint-Jean de Luz*, Ekaina, 428.

D	D'
3. largatcea	argaltcea
7. saffran	soffre
32. natrayaren	nostrayaren
33. laffre	soffre
greçaz	gruçaz
34. lasduren	larru

Jean Pierre Chabalgoityk moldatu eskuzkribua CH deitu duguna Peillenek¹³ dioenez Barkoxen idatzi zen, 11. orrialdean hasten da eta errezeten zenbakien arabera D-en hirua da eta G-en seia, eta bere zenbakitze berezia du, 46. orrialdean amaitzen delarik.

Bernard Goyetchek idatzi eta G deitu dugun eskuzkribuak titulu bat dauka D-ek ez duena, eta hau *Marichalen liburua* da. *Marixal* (1830) hitza *ximista* (1692) bezala ez dago jaso hiztegi ezagunetan (Azkue, Lhande, Sarasola...) eta noski, hiztegiatan ageri ez diren hainbat mailegu legez frantsesetik harturiko mailegua da. Etorkia XVII eta XVIII. mendeetan egin ziren edizio ezberdinak daiteke, hala nola zaldia zaintzeko *Le Marechal expert* izeneko liburua Beaugrand¹⁴ delako batek idatzia, eta beraz, ez litzateke arrotza horrengandik hartua izatea.

D-en ageri diren errezetak Ch-en eta G-en ere ageri dira aldaketa zenbaitekin eta zenbakien komunztadura hauxe da, non ohartuko garen ez dihoazela zuzen-zuzen etorkizkoaren arabera.

D	CH	G
1	-	4
2	-	5
3	5	6
4	6	7
5	7	8
6	31	9
7	33	10
8	34	11
9	35	12
10	36	13
11	37	14
12	38	15
13	8	16
14	9	17
15	10	18
16	11	20
17	12	19

(13) Txomin Peillen, *M. D'Assanzaren albaitaritza liburua* (1692). Lan argitaragabea. Idazki horietan ageri diren landareek sendagintzarako dituzten balioez mintzo da batipat.

(14) *Le mareschal expert, traitant des naturel & des marques des beaux & bons chevaux, de leurs maladies & remedes d'icelles / Avec un examen & forme de L'état de Marechal & une description de toutes les parties & ossements du / Cheval par figures. Par feu M. Beaugrand M. Mareschal a Paris. Augmenté d'une seconde Partie contenant plusieurs receipts très approuvées du Sieur de L'Espinal.* A Troyes, Chez la Veuve de Jacques Oudot, 1731.

18	13	21
19	14	22
20	15	23
21	16	24
22	17	25
23	18	26
24	19	27
25	20	28
26	21	29
27	22	30
28	23	31
29	24	32
30	25	33
31	26	34
32	27	35
33	28	36
34	29	39
35	30	40
36	32	-
37	-	55.or.
38	-	55. or.
39	-	56. or.
40	-	57-60.or.

Beraz, balirudike D-en falta direla G-en ageri diren lehen hiru errezeta, D* -n beharko luketenak ageri, antza. Bestalde, G-en 37tik 40erako errezetak ez datoz zenbakituak. Honek, aldiz aingirak nola atzemanen behar diren erakusten digu (66. or.), kanta ezezagun bat ere ematen digu, non Philippe eta Charles X.a erregeez hala nola Lafayet-ez eta Lafitaz (sic) mintzatzen zaigun. Dirudenez G-n 50 eta 51 orrialdeak falta dira, non aurki zitezkeen Kanta horren beste hiru estrofa bederen.

Aipatu ditugun liburuen bidaiak edota bertan ageri diren zenbait errezeten nola-halako moldatze eta bilakatzeak agertu beharko bagenitu honako ibilbideak genituzke:

1499, Venetiis, *Pedakion Dioskoridon Anazarbeos...*,

↓

1546, Frankfort, *Des hochperümpften Pedanii Dioscorides Anazarbei Beschreibung...* (Itz. J.D. von Ast)

1555, Anvers, Pedacio Dioscorides Anazarbeo, *Acerca de la materia medicinal...* (Itz. A. Laguna)

1559, Lyon, *Le six livres de Pedacion Dioscoride d'Anazarbe de La matiere medicinale...*(Itz. Martiel Mathée)

&&&

1554, Paris, Charles Estienne, *Praedium Rusticum...*

↓

1565, Paris, Jean Liébault, *L'Agriculture et Maison Rustique...*

↓

? X, Bibliothèque Bleue

↓

1692, Baiona, Monjongo Dassança, *Laborarien Abissua* (D*)

&&&

D*Assançaren	<i>Laborarien</i>		<i>Abissua</i>
↓	↓	↓	↓
D	CH	G	J(aureguiberri 1830. Tx. Peillenen ¹⁵ edizioa, 1972)

Beraz hemen aurkeztuko ditugunak honakoak dira: D, alegia, 1902ko kopia, —nahi izan arren aurkitu 1692ko edizioa ez dugu ediren—, zein antzaenez ale osatu gabetik kopiatu zen, CH eta G, baigorritar eta zuberotarren kopiak eta moldaerak.

Bertan ikusiko ditu hizkuntzalari adituak ageri diren zenbait euskalkien adierazgarriak, hots, lapurtera, behenafarrera eta zubererarenak, baina nabarmen da lapurterazko ereduaren eragina gertatzen dela, ez dena batere bitxia kontutan hartzen badugu lapurtera klasikoak izan zuen tornu, garrantzi eta harrera ona.

Fonetikari eta grafiei dagokienez azpimarra dezakegu, ez dagoela testua guztiz modu batu eta koerente batean eginik, eta hitz beraren aldaera ezberdin topa ditzakegula, egilearen zalantzak adierazten dizkigutenak, baina baita ere kopiatzailearenak agian.

Adibidez: <-i-> / <-u->: *lipin* (D, 12), *lupin* (D, 13); <-ie-> / <-i->: *assindetan* (D, 2), *aciendac* (D, 2); <-oa-> / <-ua->: *ezcoaraz* (D, 1), *ezcuaraz* (D, 1); <o-> / u>: *probetchoz* (D, 8), *probetchu* (D, 9); <-on-> / <-un->: *bonac* (D, 3), *hun* (D, 7); <-l-> / <-n->: *alimale* (D, 3), *animale* (D, 9); bait- / baid-: *baitute* (D, 2), *baidute* (D, 2); <-lg-> / <-lkh->: *elgarrequin* (D, 5), *elkharrequin* (D, 12); <-ng-> / <-nk->: *erregura* (D, 7), *errencurentzat* (D, 8); <-ng-> / <-nj->: *Mongongo*, *Monjongo* (D, 1); <-p-> / <-ph->: *Lapurdin* (D, 1), *Laphurdico* (D, 2); <-st-> / <-zt->: *Gastanbide*, *Gaztanbide* (D, 1)...

Ch-en eta G-en ageri diren aldaerak interesgarri zaizkigu hiztegi aldetik batipat ikustearren zein nolako jokamoldea hartzen duten mailegusi buruz, eta garbi ageri dena da askeena bere moldaketak eta era berean laburrena zubererazko aldakia dela. Hona adibide batzuk: *çaragarra* (D, 11) / *çaragarra edo hasteria* (G, 46) / *thigna* (Ch, 32); *latoin* (D, 10) / *taloin* (G, 39) / *achur hoin* (Ch,) / *phoço* (D, 10) / or (G,) / *ppotxu* (Ch, 23);...

Hiztegiari dagokionez, beraz, esan beharra daukagu aski aberatsa dela abere soinaren zatiak eta eritasunak aipatzean, hala nola sendagarri eta landareen izenak ematerakoan, amaieran emango dugun hiztegitxoan ikus daitekeenez.

Dassançaren lantxoa mende honetan zenbait aldiz argitaratua izan arren ez dute aipatzen ez Pilar Arenalesek¹⁶ ez eta Antxon Agirrek¹⁷ bere liburuetan, uste dugularik arretatxo bat ere merezi zuela, albaitaritzako lehen euskal liburua hark argitaratu zuenez.

(15) Txomin Peillen, 1972, "Recueil des recettes vétérinaires de Jauréguiberry (Manuscrit n.º 118 du fonds celtique et basque de la Bibliothèque National. Legs d'Abbadie)"; *Bulletin du Musée Basque*, Bayonne, 113-144.

(16) Pilar Arenales, 1985, *Documentos farmacéuticos del Archivo Diocesano en Pamplona* (S. XVI-XVII). Príncipe de Viana, Pamplona.

(17) Antxon Agirre, 1996, *Veterinaria popular vasca*. Egin, La Navarra. Donostia.

MONJONGO DASSANÇA

Laborarien abissua

1692

A Monsieur GAZTANBIDE Medicuari Dedicacionea

Jauna, entreprenitu dut obra chume bat ezcoaraz imprimatcera, Laborarien fagoretan; eta nola azco critica mende huntan baita, ezdudatcen ezden cenbait içanen cerbait erraiteco dutenic obra chume hunen gainean. Bainan, jauna, heyen bistara eman baino lehen, heldu nitçaçu har deçaçun hanbat pena, Laborarien amorea gatic, obra hunen examinatceco, eta baldin iduritcen baçaitçu mereci duella imprima dadin, çure aprobacionea emaitiaz, ecen badaquite Lapurdin eta berce ingurutaco ezcualdun gucietan, gure frogac ederrac direla causa ossoqui sinhexia çarela, eta egonen naiz hala çure sendimenduaren beguira erraiten dudala bethiere naicela,

MONGONGO DASSANÇA *chimista*.

Aprobacionea

Ikhussi eta iracurri dut amplequi Monjongo Dassança chimistac ezcuaraz eguin duen liburua eta hala desiratceco liteke lehen bait lehen imprimaraz deçan, laborariac balia daitecentçat hango erremedio miragarriez; ecen hain justuqui traditua da Maison Justiaco eta berce asco auctor handiren sendimendua, iduritcen baitçait obligatua naicela ene aprobacionearen emaiterat, hala nola emaiten baitut Donibane ciburun, oxaillaren 14 eta 1692.

GASTANBIDE docteur, *Maison Justiaco*.¹

Laborarien abissua

Badu cenbait ere dembora laborariac Laphurdico parte gucietaric aditu ditudala erremarcatcen Idietan, eta behietan, eta ardietan, arribatcen çaizcoten mortalitatez, non uste baidute issurritea beçalaco eritarçuna hequien assindetan hedatua dela. Aktarrec² sendituric accident horren berria, beldurrez façoin berian yeien³ aberiac guertha daitecen, othoisten naute adisquide batçuec cembait fagore eritarçun horren contra eguiteaz, eta hala resolutu dut hayen satisfacionea gatic obra chume baten egui-

(1) Rustica-ren herri bilakaera. (2) Akhoztarrek, irakur bedi (aurrerantzean ib), eta hala ageri da G-en. Donibane Lohizuneko hauzo bat da Akhortz. (3) heien, ib.

tera, ceinetan eracutxico baiteret Idien, eta behien, eta ardien eritarçun principalen eçagutça, eta heyer comeni çaiçcoten erremedio miragarriac. Orduyan segura çaiteste ez direla hemen gauçac nic pensatuac bainan bai ikhiac⁴ lehenagoco auctor handi eta oraico moderno famatuyetatic. Eta nola hanitx norc bere nacionentçat travaillatu baidire alemaniacoc alemanez, espainiacoc espaignolez, hala nola francian eguin baitute Maison rusticaz franssesen, eta gu franciacoc içan arren ezcualdun guciec ez daquigu erdaraz eta particularqui laborarietac comprenitceco berehala liburu miragarry hartan diren misterioac, hargatic entreprenitu dut obra chume hau ezcoaraz emaiterat bat bederac yaquin deçatentçat cein erreitx den ezcoaraz comprenitcea lehenagoco eta oraico auctorren sendimenduac.

Hartaracotx bada erranen daroçuet Idiac eta berce aciendac guicen beçain ungui hanitx eritarçunetarat suyetatcen direla eta nola lucieguy bailitaque gucien causaren erraitea, contentatuco naiz choilqui principalenen eracustiaz. Handic harat jaquinsun içanen çarete berce gaineracotan, cer eguin beharco-duçun seguidan clarqui aguerico den guissa. Orai bada mintçatcecotx gauça principal horietaz, erranen darotçut ez dela mundu huntan aireric edo haxic hartu gabe bicitcen, eta nola aire honac eta garbiac ossasuna coserbatcen baidu, hala gaiztoac ere cassarasten tu eritarçun eta heriotce dorpheac, ez solamente guiçonen baithan, bainan oraino munduco alimale gucietan, eta nola Idiac munduco nombrecoac baitire bai eta ez bada sentitu behar dute aire onac eguiten dioten ontassuna.

1. Unhaduraz⁵ printaderetan.⁶ Ceren ecen denbora hartan odol sobranioa hobequi errequeitcen baitira eta hala odola atheratu ondoan cenbait passaia eraguinen dioçue ungui ez taliric errefria ez dadin.....

2. Idiaren edo behiaren sabelminen khentceco erremedioa. Colica beçala heldu da eritarçun hura eta hala colicarentçat on diren erremedioac balia daitezque sabel mine-tan bai eta haber⁷ briga⁸ eta orbietan: finaz ere arnuarequin edatera emaiten diotela eta guero bihâramunean odola atheraco dioçue mihi azpitic edo sudurretatic edo ezperen edan aracico dioçue erremedio huntaric. Hartaracotx harçaque arruta, eta camamilla, ahur bana, eta hec ungui iraquituric pinta erdibat arnotan, guero iraci duçuenen emoçue bi colpez idiari edo behiari edatera; berce batçuec baliatcen dire erremedio huntaz ceina eguiten baita laur untxa turmentina gatx gutibatequin pillotac Idiari irex araztia, hurtuco, tuçue arno beroan eta guero edan araz adar batez denbora hartan Idiac beroqui egon behar du barruqui bero batean...

3. Idia charmadurez inquietatua denean cer eguin behar den. Idia edo behia charmatua denean eçagutuco duçue Idiaren trublecia handia eta guciz bere accioneac eguin nahi tubenean non orduan laburzqui largatcen⁹ eta mehatcen baita heticatua balitx beçala. Hargatic du necessario prunqui erremedioac eguitea; hartaracotx eçagutu duçuenen Idia charmatua dela, emoçue lehen bait lehen hur huntaric sudurretan ceina eguinen bai duçue ahur bat erramu bihi, eta ahur bat geniebra bihi, eta untxa bat sofre eta guero trempa hur ephelean hogoi eta laur orenez; iraci duçuenian

(4) ilkhiac, ib. (5) Aurkezpenean esan bezala beste hiru errezeta ageri dira lehenago G-en.

(6) primadera, udaberria, *printemps* (ft.) eta *primavera* (gazt.) arteko gurutzatzea ote? (7) halaber, ib.

(8) driga (G, 7). (9) argaltcen (D').

balia çaitetze hortaz, goiçetan eta arraxaldetan, sudurretan barna emaiteco hori, eguin beçain sarri; preparatuco dioçue erremedio miragarry hortaz ceinac khenduco baititu charmac eta oçatura guciac. Hartaracotx har çaçue laur nerprun bihi eta berce laur untça constantinopolitana, untxa bat gatx larri, eta hec ungui cheaturic iraquitu behar dute pinterdibat huretan eta guero hur hura eman Idiari edatera adar cilhatu batez; baldin eta lehen colpetic ez bada Idia erremediatcen, emanen dioçue cenbait aldiz erremedio hartaric eta hala iccussico duçue effetu miragarria ez solamente Idien gainian charmen contra eracusten duen effetua, bainan oraino erranen daroçuet constantinopolitano horrec bertute handiac dituela, Peccacius,¹⁰ arabiaco auctor famatu haren erranez; ecen hain espressuqui seguracen guitu erraiten darocunean khentcen tuella eta debecatcen charma suerte guciac, nahiz allimaletan, nahiz presunetan, lur eta etchetan eguiten diren guciac. Hartaracotx dio asqui dela erran duçun constantinopolitana hori bere lurretan edo etchetan iduquitcia; beraz balia çaiteste erremedio miragarry hortaz

4. Idiaren uchada eta sabeltassuna cer façoinez sendatu behar diren. Idiac uchad edo sabeltassuna duenian, ezagutuco duçue haren issurietan ceren ez cen clar asqui. Agueri dire bat eta bercia eçag utceco. Eta hala iccusten duçunean sabeltassuna duella, eztiçoque dembora hartan yatera eman behar ez edatera bizpahirur egunez, choilqui cenbait mahax ostoa lipita edo ezperen mahax ostoa arnuan trempaturic; haritx calitchac eta mirra gutibat trempatua har araci dioçue Idiari edo behiari, eta guero hirur egunen buruan presenta dioçoque cenbait belhar fresco nahiz planturic¹¹ edo çamari bustana deitzen den belharra eta guardia ondotic ere emaitetic; edatera emaiten çayonean ere, bere hura erramu ostuequin iraquituric eman beharco dioçue. Cer ere erremedio eman baitut sabeltasunarentçat baliatuco, çarete uchadarentçat, ceren ezen biac bat beçala eguiten baitire

5. Idiac edo behiac erorteco mina duenian cer eguin behar den. Idiac erorteco mina duenian eçagutuco dioçue Idia colpez erori denean eta guero ahua macurturic goitica eta çarrapoa¹² ahotic dariola eta çango bat bihurcen beçala çaiçcola eta finean bizpahirur orenen buruan deusic ez balu beçala altchatcen denean. Hartaco eritarçuna duten Idiac ordinariozqui ataquatuac dire bi hilabetetaric bi hilabetetara. Eritarçun horren sendatceco, Idiari har araci behar dioçue, laur den bat arnotan, astoaren çangoco azazcala, eta Idi copetaco heçurra, untça bana, linaturic¹³ eta unguay cheaturic eta guero continua hogoi egunez goiz guciez emaiten dioçuela adar batetaric. Berce batçuec hanitx baliatcen dira erran dugun constantinopolitana miragarri hortaz. Hartaracotx asqui duçue arnuan edo hurean iraquituric hur hartaric Idiari edo behiari goicetan eta arraxetan emaitia.

6. Idiaren edo behiaren gatharra nola sendatu beharden. Gattarraren erremedioric lasterrena da mihiaren azpitic odola atheratcia; eta guero porrua, arruta, capiua¹⁴, salboina, morsus diabolus, elgarrequin hurian hiraquituric, iraci eta hur hartaric Idiari

(10) Gorago aipatu Pedacius Dioskorides idazle greziarra. (11) plantagnac (G, 12), "Plantago maior, L.: cast. llanten mayor,... fran. plantain... vas. zain-belarra" (José María Lacoizqueta, *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares castellanos y franceses y científicos latinos...*, Pamplona, 1888, 135; aurrerantzean Lac.). (12) arrapoa (G, 13), barouxa (Ch, 14).

(13) limaturic, ib., limaturic (G, 14). (14) apiua, ib., apio (G, 15).

edo behiari edatera emaitia, eta finean padera batean arno liga ogui mamiz eta hauxarequin ahia eguinic hartaz lephoa lotcea non bide hortaz lazter khenduco baitioçue gattarra...

7. Idiac odolez picha eguiten duenean cer eguin behar den. Heldu çayo com-munsqi accident hori hanitx berotua eta borthisqui malfonditua denian eta guciz udan cenbait belhar gaisto ihitcez bustia yan ondoan; gaitx horren erremediatceco ez du deus ere Idiac edan behar, choilqui edari huntaric baicen: hartaracotx har eçaçue hirur untxa artho irin, eta untça bat triaga,¹⁵ guero hec iraquituric pinterdibat arno-tan eta finean yuntatcen dioçue saffran¹⁶ gutti bat; edari hartaric emoçue edatera Idiari goicetan eta, arraxetan plautain hura olioarequin.

8. Idia ecin picharic eguinez dagonian cer eguin behar den. Idia penaz dagonian ecin picharic eguinez atheraco dioçue odol gutti bat bichicaco çainetaric, eta guero hirur goicez emanen edatera estia eta olioa arno churian nahassiric.

9. Idiac harria duenean cer eguin behar den. Noiz ere baitaquiçue segurqui Idiac harria duella bichican edo chilcuan, barna piccaturic atheratcia da erremedio laste-rrena eta segurrena; bainan batere ezpada possible nihorc atheratcia, baliatuco çarete erremedio huntaz, haren oinhacen passarasteco; hartaracotx har eçaçue bi untça milla marin erro, untça laurden bat especia itce, eta haren erdia bipher eta guero guciac, ungui chehatu direnian, emoçue Idiari arno ephel guti batequin edatera, eta conti-nua cenbait aldiz sasoin berean emaitia...

10. Idiac bere natura edo pitchoa gogortua duenian cer eguin behar den. Eri-tarçun hori guerthatcen çayonian, azqui duçue malvariscac egostea buruarequin bate-an eta guero hartaz maiz phereca Idiaren natura eta hala laster sufflaracico dio bere pitchoa...

11. Idiac edo behiac mihia azpia hantua duenean cer eguin behar den; eçagutu duçuenian idiac mihi azpia hantua duella ensea çaitetzte lehen bait lehen mihi azpico çainetaric burdin bero batez chilhaturic edo lanceta çorrotx batez odola atheratcera eta guero gantçu edo phereca dioçoçue çauri hura olio eta gatça elkharrequin nahas-siric, eta continua umore guciac camporat arthean. Dembora hartan, bazcaturco duçue idia belhar frescoa; eta baldin apetitua ez badu ernatua, laster ian aracico dioçue erre-medio huntaz: harataracotx har eçaçue arroltce baten churingoa eta gorringoa balsan ezti guti batequin guero emoçue idiari edo behiari arnuarequin edatera; hantic harat emoçue bere yatecotan cenbait gatx bihi eta effetu ona atheraturco du.

12. Idiac eta behiec errainetaco mina dutenian cer eguin behar den. Idiac errai-netaco mina duenian, eçagutuco duçue haren plainuetan eta guciz guibelleco tranaz¹⁷ ecin aiticina çangua heda deçaquenean; almaquez ere ecin segura daiteque ez eta hain guti bustana biribilca non orduyan dilindan baitario; haren guernuac ussain gaitztoa du, eta guibeleco craina¹⁸ ossoqui picatua, eta baldin inflamacioneric gerthatcen bada dembora hartan, idiaren picha odolaren guissa dohaco, eta dena ere guti eta penarequin eguiten du; eta hanitx irauten badio ez da harentçat erremedioric; bainan ez bada picha hura aphur bat tindatua baicen, gorricara duella bere colorea, espe-

(15) trigada (G, 16). (16) soffre (D'). (17) trainaz, ib., traina (G, 22); *train de derrière* (Charles Estienne & Jean Liébault, ...*de la maison rustique*, aip. lib. 40, aurrerantzean E-L). (18) traina, ib.

rantça da eritarçun hartaric sendaturen dela. Hartaracotx atheraco dioque odola almequetaric, eta maiz emanen idiari porruac ur clairian trempaturic eta hur hartaric.

13. Idiaren berce errainetaco mina nola sendatu behar den eta particularqui eroretic heldu çayonean. Noiz ere sentitcen baituque idia erori dela cenbait gauça gogorren gainera eçagutú baduque haren colpe handiac, ecen ez da behinere falta colpe borthitça dela caussa imflamacionea, hargatic laborariac dembora hartan idiac mehatcatcen dituenian ez ditu bere lecutic moviaracico, eta colpia duen lekhua maiz frescatuco dio hur hotcez, eta guero gantçu edo pereca unguay chucaturic urin hurtuz; edo urdaiz; eritarçun horren seinaleac dire campoco aldetic gogor icaitea eta barrabillac laburturic barnerat erretiratcia, ecin bere isterra ez alderdia aisiarat manaya deçaque, eta pena handia du etçana denian bere lecutic ecin altchatuz.

14. Idiaren oinhace eta dolore suerte guehientçat erremedioa, guciz nekhaduraz heldu denian. Har eçaçu ahur bat liho haci eta berce ahur bat camamila, eta hec ungui iraquit panjeru batean urian erabilcen duçuela maiz maquila batez ungui ahia eguin artean eta guero heda çaque cenbait traputan eta hartaz lot non ere sendi baituque gogortasunic, hanturatic, edo oinhace duen lecuan.

15. Idiac biriquetaric erregura dienian cer eguin behar den. Biriquetaricaco erregura horiec gaitx dire idier eta behier khentceco, heyen movimendu handia dela causa; bainan eguin daquiocote erremedio hunbat ceina baita lehenbicoric manyatera ur beros garbitcia eta guero belhar ussain onnezcoez urrindatcia. Dembora hartan khendu behar tuque buruquitic¹⁹ çamari, behor, urde, eta berce acienda guciac beldurez haren haxaz communica eztiotçaten gaitx bera; hargatic, orduyan utcico duque astoa aldian, ecen haren haxa probetchoz da biriquetaco errencurentçat....

16. Idiac edo behiac herciac galcen hassiac dituenian cer eguin behar den. Idiac herciac desseguinac dituenian, harturen duque hirur untça turmentina eta hura haur baten ezcuaz idiari gibelesco aldetic sar dioçoque ahalic eta barnena edo ezperen turmentinaren lecuan balia çaitzeque ganz guessaz edo urin hurtuz.

17. Idia edo behia hestulaz attacatua denean cer eguin beharden. Idia marfondiz attacatua denean eta guciz hestulla handia duella, hartuco duque aphur bat hissopa eta hura hiraquit pinterdibat huretan guero iraci duçenian edanaraz hur hura idiari. Dembora hartan emoçue yaterat forru ostuac chehaturic ogui nertroyarequin batean, berce batçuec emaiten diote idiari urnaiçaren²⁰ hura amiron churiarequin batean hissopaz eguin den guissa...

18. Idiac edo behiac noiz ere sendi baituque hatxa labur diela, emoçue beharrietan cilhaturic *bellebore noir* deitcen den belharra, gargandila balu beçala, eta harc hun eguinen dio...

19. Idia edo behiac almaquetan min duenian cer eguin behar den. Eçagutu duçuenian idiac almaquetan oinhace duella, har eçaçue hirur ahur alcipre eta hec hiraquit minagrean eta guero ungui chehatu tuçuenian lot çaque dolorea duen lecuan eta laster sendatuco da; berce batçuec atheratcen diote odola almequetaco çainetaric: guero, porruac hurian iraquituric, hur hartaric edanarasten diote, edo ezperen idiaren guernu bera.

(19) barruquitic (G, 27). (20) armoisaren (G, 28), 'armoise' (E-L, 39 v.).

20. Idiari edo behiari lipia khentceco cer eguin behar den. Lipiaren erremedio segurrena eta lasterrena, atheratcia da: eta guero burra frescoz çauri hura goiz arraxetan pherecatcia.

21. Idiac edo behiac, golardoa duenean edo lephoa hantua duenean cer eguin behar den. Idiac golardoa duenian hanitx, da lepho gucia hantua; eta baldin senti badioçute abces bilduma²¹ edo materiariç duella, dembora hartan apparanciaz aguerian den lekhuari cillhatuco dioçue burdin gorribatez eta guero eman cilho hartan assunen erro gutibat edo esperen erran den hellebororen errua har çaçue bethi; erro horien sanyatceco, idiari edan aracico dioçue urribelharrarequin iraquituricaco huretic, nahiz goicetan eta arraxetan; copetetaric eta beharri gubeletaric odola atheratcias ere probetchu handia eguinen du...

22. Idia hantua denean nola sendatu behar den. Ordinariozqui idiac hantcen dire behar sendoeguiac yanez, eta guciç ihitçarequin direnean. Eritarçun horren sendatceco, asqui da choilqui adar bat alderen alde cilhaturic eta hura olioç pherecatuic guibelleco aldetic ayuta beçala idiari edo behiari emaitia; hirur edo laur erhi ondarcian barna guero passaya çaçue, idia haice hanitx eguin decaquen arteraino eta adarra han dueno pherecatuco dioçue sabela haya sendo batez.

23. Idiac edo behiac ceinbait animale chume²² irexi duenean cer eguin behar den. Sendi duçuenian idiac irexi ahal duçuela animale cenbait, emoçue lehen bait lehen esnia edatera edo ezperen eguiçue decotionea picco melatuz arnoarequin batean, eta guero eman arno hartaric idiari edo behiari edatera.

24. Idiaren handitchuen sendatceco cer eguin behar den. Har çaçue andredena mariaren arrosaren tipulla, eta berce ahur bat constantinopolitana, eta hec unguay egos minagrean, guero lot çaçue erremedio hartaz hantura duen lekhuari; eta hala laster leher aracico dio bere anditchia. Lehertu denean, garbi çaçue çauri hura goicetan eta arraxaldetan guernu, eta pichaz...

25. Idiac çangua hantua duenian nola sendatu behar den. Hartaracotx har çaçue cenbait ahour osto sauca eta hec unguay iraquit gantx guti batequin batean, eta guero egossi direnean lot çaçue unxa cathaplasma hortaz, eta hala laster iccusico duçue hantura consimitua. Cataplasma hori eguin daiteque hoxic eta frescoqui; hartaracotx har çaçue ceinbait ahur sauca osto eta ungui hec cheatu direnian emoçue urin hurtua, cataplasma eguiteco asqui den beçala.

26. Idiaren latoin²³ eta aztaparetaco minen sendatceco erremedioa. Eritarçun suerte hori arribatcen çayo idiari maicenic neguiari eta guciç horman travaillatcen denian, non orduan baitiduri. Idiari aztaparra lanceta çorrotx batez picca dioçoçue aphur bat barnazco eta guero erre dioçoçue picco hetan, arinqui, gantçu urin hurtuz, senda arteraino

27. Idiaren berce façoinez aztaparra colpatua denean nola sendatu behar den. Lehenbicizicoric gauça eguin behar dena da aztapar hura fundameneraino unguay garbitcia, eta guero lot goicetan eta arraxetan urin hurtuz ezcoarequin²⁴ nahassiric bors

(21) abcestilduma (G, 33), matheria (Ch, 22). (22) ainharba (armiarma) edo animal gaizto... (Ch, 24). (23) taloin, ib. (taloin, G, 39; achur hoin, Ch, 26). (24) segoarequin (G, 40), cyhouareky (Ch, 27), 'sebo', gazt.

edo sei egunez continuatu duçuenean, guero, berce haren berce egunez, mainatuco duçe arnoz edo minagrez ezti guti batequin nahassiric.

28. Idiac barrabillac hantuac dituenean cer eguin behar den. Har çaque clera guti bat eta hartaz vinagrearequin eguiçue liga edo ahia, eta guero gantçu edo phereca hantura duen lekhian. Idorcen denian, lokharri hori lothuco dioçue gans guissaz, berce batçuec diote photço baten minaz azqui dela perecatcia, berehala hantura gucien eramateco.

29. Idiaren adarra arrailatua²⁵ denean cer eguin behar den. Idiac adarra erdiratua duenean, frota dioçoçue adarra minagrez gatx eta olio guti batequin, batean; eta guero phereca çoçue urin hurtuz arrachina guti batequin, nahassiric, eta continua pherecatce hori çazpi çorci egunez.

30. Idiac beguiac hantuac dituenean cer eguin behar den. Beguiac hantuac dituenean, eguiçue ahia ogui natrayaren²⁶ irinez eta esti guti batequin eta guero hartaz lot goicetan eta arraxetan; orduan nola estia dela causa uliec khecha baileçaquete, debecatuco duçe acciden hortaric baldin alastrenaz, begui inguruac pherecatcen baiotçute.

31. Idiac beguiac churia duenean cer eguin behar den. Noiz eta ere eçagutcen baiotçue beguiac churia duella, hartaracotx lot eçaque goiz arraxetan beguia; berce batçuec baliatcen dire balea gaznaren erhautxas...

32. Idi begui nigartiac nola behar diren sendatu. Idiari nigarra darionian eguiçue ahia ogui natrayaren irinez eta hartaz lot goicetan eta arraxetan, edo ezperen hiraquit çaque mairi arrosen erruac, hura eta estiarequin batian; guero hartaz maiz lot idiaren beguia. Berce batçuec baliatcen dire thutiaz, vitriolaz, hur arrossatuarequin batean...

33. Idiari çaragarra khentceco, har eçaçü ahur bat khedarra, ahur erdi bat laffre,²⁷ eta laur baratchuri buru; guero hec elgarrequin chehatu direnean, frota çaque idia bizpahirur aldiz edo ezperen har eçaque idiaren behassunbat eta hartan barna emoçue bi unxa sofre lore; guero ungui nahassi dituçuenean, gantçu eta phereca çaque idia hirur goicez eta arraxez, eta finean antçara edo ganz greçaz...²⁸

34. Idiaren ulcera edo lasduren²⁹ sendatceco erremedioa. Hartaracotx har eçaque kalitx ungui ontuac eta idortuac eta hec passa sethabexi batian; guero erraux hortaz balia çaitetzte ulcera eta larrüdura gucien sendatceco...

35. Suguearen aussiquien eta photço errabiatuaren erremedioa. Senti duçuenian idiac poçoinstatuac direla, asqui duçe pherecatcia aussiquia den lekhuan olio escorpionaz; edo esperen har eçaque lau untça salboin çahar, guero hurt laur den bat minagretan, hartaz maiz garbi eçaque aussiquiac diren lekhuan. Façoin bera eguin deçaqueçue mirra arnoarequin hiraquituric, bai eta halaber leiçarrarequin eta finean ceinarhurdon³⁰ edo pateo³¹ arrosarequin, arnuan edo minagrean hiraquituric...

36. Idiari açazquala erorcen çayonean cer eguin behar den. Har eçaque turmentina ezco horia eta estia, bacoitchetic untça bana, eta hec elgarrequin hurtu direnian

(25) hausten dianian (Ch, 29). (26) ogui nostrayaren irinez (G, 43), garagar irinez (Ch, 30), *collyre de farine de fromment pestrie avec hydromel* (E-L, 40). (27) soffre, ib. (28) gruça (D'). (29) larru (D'). (30) cinarhodon (G, 54), cinnamomum 'kanela' ote? (31) potso (G, 54).

asqui duçue pherecatcia idiaren hoina hamabors egunez eta guero arnoz eztiarequin nahassiric edo ezperen lot eçaçue idia cataplasma hortas, façoïn huntan, hartaracotx har eçaçue aloez³² matic eta alun,³³ untça bana, eta ungui cheatu direnian, eguiçue cataplasma arrolce churingoarequin batean...

37. Idia leiçorren eta mandulien aussiquien contra cer eguin behar den. Leiçorrec manduli edo cenbait berce uliec aussiquitcen tustenian asqui duçue claira edo cerussa guti bat hurian trempatcia eta laga hartaz eguïnican bietan guero idia hartaz goicetan eta arraxetan lotcia...

38. Idia leiçorrec manduliec ez ulithec ez aussiquitceco erremedioa. Hartaracotx azqui duçue malba osto pusca bat ungui chehatcia eta olio guti batequin liga beçala eguitea; eta guero idia hartaz goicetan eta arraxetan pherecatcia...

39. Leihotaric eta athetaric leiçorren cassatceco erremedioa. Har çaçue ahur bat erramu osto edo bihi eta hiraquit hurian; guero hur hartaz phereca çaçue idia, guero berce alimale guciac ceinaren bidez casatuco baitire heyetaric leiçor manduli eta berce uli suerte guciac...

40. Ardien çaragarraren khentceco erremedioa. Ardien çaragarra içan arren apparntciarçun eritarçun chumea yaquin çaçue hura dela caussa, ethorcen çayotela asco berce eritarçun gaisto, nola baidire piccotac, içurriac, eta berce accident handiac eta hala bat bederac behar lituque artha handirequin hastetic eritarçun horri erremedioac eman. Hartaracotx erranen daroçuet auctor handi batequin: asqui duçue ardiac mosten tuçuenian erremedio huntaz gantçutcia edo pherecatcia: har eçaçue beraz olio liga, arno churiaren liga, eta cenbait lipin chehaturic, guero hirurac ongui trempatu direnian elkharrequin batian, phereca çatcuc çuen ardiac immincione hortas ephelduric. Ordean hori eguin eta hantic bi egunen buruan garbitu beharco tutçue hur gaciz edo itxasoco hurez eta hala iccussico duçue nola debecatuco tutçuen eritarçunetaric, ez solamente çarragarraric içaitetic bainan oraino eritarçun borthitcetaric: bide hortaz illea legunago, eta dulciago, eta emiago, ethorcen baiçayote...

